



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2019ko otsailaren 13a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, aldatzeko eta gaurkotzeko Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, aldatzeko eta gaurkotzeko Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa edo Foru Berria.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko otsailaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko otsailaren 6an hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: "Foru Lege proiektua, aldatzeko eta gaurkotzeko Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa edo Foru Berria".

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 127., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA::

1. Xedatzea aipatu foru lege proiektua presako prozeduraz izapidetu dadila, Erregelamenduko 152 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunekin.

2. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordeari ematea proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi eguneko epe bat** irekiko da, **2019ko otsailaren 26ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2019ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proiektua, aldatzeko eta gaurkotzeko Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa edo Foru Berria

ZIOEN AZALPENAK

I. Foru Berria gaurkotzea, Nafarroako errealitate sozialera irekita eta hurbilduta, da Foru Lege honen helburua.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioa edo Foru Berria testu oso bat da, eta barne hartzen dituen xedapenak tradizionalki zuzenbide zibila edo pribatua osatu duten gaiei buruzkoak dira: pertsona, familia, oinordetzak, jabetza eta kontratuak.

Osoa izateko helburua agerikoa izan da sortu zenetik, 1973tik.

Aldarrikatu zenetik apirilaren 1eko 5/1987 Foru Legea, zeinaren bidez aldatu baitzen testua egokitu zedin Konstituzioaren esparrura, jada 32 urte igaro dira, nahiz eta aitortu erreforma hura mugatua eta presazkoa zela, eta beharrezkoa zela sakon aztertzea eta testua osorik egokitzea (maiatzaren 11ko 11/1988 Foru Agindua).

Urte hauetan guztietan Nafarroako gizarteak aldaketa sakonak izan ditu eremu pertsonalean, familiarrean eta ekonomikoan, baina horrek ez du isla egokia izan beren zuzenbide pribatuan, eta, ondorioz, elkarrengandik urrundu egin dira gizartearen errealitatea eta instituzioen erregulazioa.

Egun, nafar askok hainbat egoera juridikori aurre egin behar die eremu pribatuan, batez ere familiarrean, eta ez du behar bezalako konponbidea aurkitzen Foru Berriaren testuan, mantentzen baitu ardatz gisa bizi eredu bat, eta horretan gaur egun pertsona gehienek ez dute euren tokia aurkitzen; ondorioz, foru horren aplikazio eremutik at gelditzen dira.

Nafarroako Parlamentua ohartua da zuzenbidearen eremu honetan konponbideak bilatzeko beharraz, baina urte hauetan hautatu du auziari ekitea unean uneko lege berezien bidez; horiek ordea ez dute lortu modu oso, zuzen eta egoki batean hurbiltzea zuzenbide zibila gizartera. Eta hala, aldarrikatu zen azkenekoan, maiatzaren 3ko 3/2011 Foru Legean, adingabeko seme-alaben zaintzari buruzkoa, aitortu zen helburu hori lortzeko modua zela Foru Berria aldatzea, hura baita “horrelako aldaketa baten esparru naturala, gaine-rako instituzioekin integratuta sistema koherente bat osatu behar baitu”.

Beraz, Forua Nafarroako gizartera hurbiltzeko, beharrezkoa da bestelako bizi ereduera irekitzea; hau da, orain arte instituzio juridikoa izan den Etxea eta haren printzipioak, askatasun zibila-ren oinarri izan baita Nafarroako ordenamendu juridikoa, utz diezaion protagonismoa askatasun horren titular den Pertsonari, eta askatasun hori erabiltzean aurki dezan bestelako bizi aukerak islatzen dituen ordenamendu juridiko bat.

Nafarroako Foru Komunitateak historikoki eskumen eskusiboa du foru zuzenbide zibila-ren arloan eta, beraz, hura mantendu, aldatu eta gartzekoa, baita zuzenbide substantibo horretatik eratortako prozesuaren arauak artikulatzekoa ere, Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarrian eta 149.1.6 eta 8. artikuluetan, eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 48. 1 eta 2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Foru Lege hau ematen da eskumen hori erabiliz, Konpilazioa edo Foru Berria eguneratzeko instituzioak aldatu eta garatuta, eta zuzenean eta substantzialki lotutako instituzioen eta jada testuan jasotakoetatik eratorritakoen ondoriozko erregulazioa eginda, Nafarroako foru zuzenbidea gidatzen duten printzipio berezien arabera.

Eguneratze honen helburua da pertsona guztiak babestea euren banakotasunean eta familiar-teko, bizikidetzako eta ondarezko harreman pribatuetan, euren askatasun zibila-erikiko errespetua oinarri hartuta, –eta arreta berezia jarrita adingabetasunari, desgaitasunari, mendekotasunari, adin-ekoa izateari edo hala behar duen bestelako bizi egoera bati–, eta Foru Berriaren ardatza izatera igaro da; lehen zituen 596 legeak mantentzen ditu, baina banatuta atariko liburu batean eta lau liburutik.

II. Atariko liburua.

1. Eguneratzeko asmoari ekiten zaio lehenbiziko legetik, zeinak, Konpilazio kontzeptua manten-

duta, islatzen duen Nafarroako gizarte errealitate-ra egokitu dela eta aurreikusten eguneratuta sar-tzea testuan (horien kokagune naturala baita) lege berezien bidez jada araututako instituzioak.

Modu korrelatiboan, mantentzen da Nafarroako tradizio juridikoaren eraginkortasun normatiboa eta integratzailea jatorria legeak berak aipatutako testu historikoetan duten instituzioetan; kendu egin dira zuzenbide historikoko zalantzan jarritako arauak.

Orobat, I. tituluan, Nafarroako Zuzenbidearen iturriei buruzkoa, aldaketarik garrantzitsuena da hurrenkera ordenan egindakoa: ohitura bigarren mailara igaro da, hori egokiagoa jotzen delako egungo egoera juridikoa, Nafarroaren eskumena babesteko helburua ez baita jada hura lehen iturri gisa mantentzeko oinarriaren parte. Eta 7. legean, “paramientoa” delakoari mugak jartzeko eremuan, “ordena publiko”-aren kontzeptualizazio irekia hartu da; horretan bildu dira pertsona guztien oinarritzko eskubideak eta askatasunak, eta ez soilik herritarrenak, nazioarteko testuekin bat.

2. Nafarroako forudunaren izaerari, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 5.3 artikuluko terminologiare-kin bat, beste idazketa eta erregulazio bat eman zaizkio II. tituluan; abiapuntua da Estatuak esku-men osoa duela auzotasun zibila-ren arloan eta jasotzen du Konstituzioaren doktrinan bildutako “ordenamenduen arteko parekotasun” printzipioa.

3. Izen berri batekin, “Eskubideen erabilera eta borondate adierazpenak”, III. tituluak bere edukia deskribatzen du bere ordena sistematikoaren aldaketa baten bidez. Horren barrenean, nabarmentzekoa da “deuseztasun, deuseztagarri-tasun eta hutsalketaren” eta “borondate akatsen” arteko desberdintasuna: 19. legean gaitasunaren ikuspuntutik tratatu da; 20. legean, borondatea baliogabetzen duen akatsaren ikuspuntutik; 21. legean, horiei erantsi zaie modalitate bat, zaurga-rritasun edo mendekotasun egoeran daudenak babestera bideratua, –bidegabeko eragina eta eraginaren abusua–, zeinak gizartean presentzia handia duten populazioa zahartzearen ondorioz, baina ez dira mugatzen soilik kasu horietara eta aplikatzen ahal dira mendekotasun faktikoa dago-en edozein egoeratan.

4. IV. titulua, konpilazioa egin zutenek antolatu bezala, mugatzen da, erregulazio osoan, preskrip-zio azkentzailera; hortaz, eskuratze preskripzioa arautzeko kokapen sistematikoa, orain ere, hiru-garren liburua da, nahiz eta iraungitzea ere har-tzen duen (lehen 26. legean aipatu besterik ez zen egiten) eta igaro den titulu horren II. kapitulua osa-

tzera, zeinak 38.etik 41.era bitarteko legeak jasozten dituen.

Preskripzio epeak oro har hirura murriztu dira: 1, 5, eta 10 urte. Horrekin, bat egiten da Europako herrialdeetan eta beste zuzenbide berezi batzuetan jada ezarritako joera bateratzailearekin, nahiz eta, salbuespenez, 4 urtekoa izaten jarraituko duen deuseztagarritasunari eta hutsalketari dagokiena, eta 20 urtekoa akzio hipotekarioari dagokiona. Horrekin batera, ezartzen da preskripzioarako gehieneko epea: hogeita hamar urte, kontuan hartu gabe geldiarazteak edo eteteak ekar ditzaketen gorabeherak. Deusetan ukatu gabe, gainera, berariaz arautzea akzio gehien "dies a quo" eguna, printzipio orokor gisa ezartzen da ezagugarritasuna. Preskripzioari uko egiteari dagokionez, aukera gisa egituratu da, ezarrita, hala ere, alde zuzenetik uko egitearen deuseztasuna eta zainduta hirugarrenen eskubideak. Xeheki arautzen dira preskripzioa geldiarazteko eta etete-ko arrazoiak, eta sartzen dira finkatutako jurisprudentziak preskribaezin deklaraturako akzioak.

Iraungitzeari dagokionez, hori arautzen duten lege berrietan zerrendatzen dira Foru Berrian zehar aurreikusitako iraungitze epeak, eta jasozten da auzitegiek ofizioz baloratzea, baita etetea ere.

III. Lehenbiziko liburua.

Lehenbiziko liburua deitzen da eta jasotzen ditu bertan arautzen diren instituzio guztiak, orain emandako ordenan: Pertsonak, familia eta Etxe nafarra. Antolaketa berrian, liburuak hamaika titulu ditu.

1. I. titulua orain hiru kapitulutan banatzen da, bereiz arautzeko Foru Berriak aitortutako pertsona juridikoak, familian desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen ondareak bereziki babesten dituen figura berria, eta nortasunik gabeko enteak.

Konpilazioak orain arte jasotzen zuen pertsonifikazio juridiko publikoen zerrenda, zeina Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoa aldarrikatu ondoren jada ez zen beharrezkoa, haren erregulaziora sartu baitziren zegozkien administrazio legeak. Hura kentzearekin, beharrezkoa da lege bakar bat, zerrendatzeko zein diren Konpilazioak berak nortasun juridikoa aitortutakoak.

Fundazioek erregulazio berria dute, Konstituzioaren 34. artikuluan ezarritakora erabat egokitzeko. Hartara, Foru Berria zuzenbide pribatuaren konpilazioa denez, eta interes orokorreko fundazioek zuzenbide publikoari dagokion alderdi bat

ere badutenez, egokiagoa da horiek lege berezi batean arautzea. Horrela argi uzten da fundazio izan daitezkeela soilik interes orokorreko helburuei datzekien ondareak, Espainiako Konstituzioan finkatutakoaren arabera; aldiz, nortasun juridikoa eskuratzeko, ezartzen da honako eskakizuna, etorkizuneko lege bereziak araututako baldintzak betetzeaz gain: nahitaezko publikotasuna betetzea, fundazioen erregistroan inskribatuta.

Horrekin batera, eta ahal den neurrian mantentzeko orain arte Foru Berriaren 44. legean eta hurrengoetan araututako instituzioaren funtsa, xedatzen da ondare pribatu bat helburu altruistei atxikitzeko aukera, zeinak, hala ere, ezingo liratekeen interes orokorreko edo komuntzat jo. Horrekin, asmoa da, orobat, desberdintzea Foru Berrian araututako instituzioa ondare sozietateetatik eta irabazi-asmoa duten bestelako entitateetatik eta, horretarako, mugatzen dira haren helburuak egokituta egungo gizarte pluralean indarrean dauden balio eta printzipio humanistikoetara, zeinak zehazten diren interes sozial, humanitario, kultural edo izaera solidarioa duten bestelakoetan.

Foru Berrian ondare bereziak arautzen dira, eta, egun, beharrezkoa da desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen beharrei erantzutea; horiek oinarri hartuta aparteko kapitulu batean arautu dira ondare babestuak deitutakoak, Nafarroan familiaren erregulazioak duen osaketa bereziaren arabera. Horregatik, eta ukatu gabe etorkizun batean Nafarroako Parlamentuak onets ditzakeela desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen ondarea babesteko neurriak, pertsonen gaitasunaren erregulazioaren barrenean (orain arte adinari dagokionez soilik jaso du gai hori Foruak), orain jasotzen da ondarearen babesa familiaren eremuan, eta zentzurik zabalenean, hau da, ez bakarrik 50. legean hartu den moduan, baizik baita Etxearen eremuaren barrenean ere, non badiren bestelako familia instituzioak, erkidegoak eta harrerak kasu. Kontua da, beraz, berariaz arautzea familiaren babesa horren beharra dutenentzat, mendekotasun edo desgaitasunen bat aitortua dutelako; araubide hori ezartzen da erabat errespetatuz borondatearen autonomiaren Nafarroako printzipio orokorra.

Familia erkidegoko edo taldeko pertsona horien babeserako araubidea osatzen da batetik 204. legean sartuta euren ezinbesteko beharrak asetzeko ondasunak doan izateko aukera; bestetik, horrela eratutako ondareen alarguntza-gozamena kentzeko arrazoi bat sartuta; eta hirugarrenik, oinordetza-fiduzian horren aurreikuspena sartuta kausatzaileak fiduziarioari emandako arduratako bat gisa. Eratzen da, azkenik, biztantzeko

legezko eskubide bat, borondate pribatuarekiko subsidiarioa, 425. lege berrian.

Nortasunik gabeko taldeek, orain arte 49. lege-an jasoak, titulu honetako III. kapitulua eratzen dute eta orain 46. legea osatzen dute; aldiz, Etxearen araudi osoa, 48. eta 75. legeak, aparteko titulu bat osatzera igaro dira, liburu honetako azkena, horri lotutako instituzio guztiekin batera.

2. Foru Berriak, orain arte, soilik adinari dago-kionez arautu du pertsonen gaitasuna, eta, hortaz, Kode Zibila modu osagarrian aplikatu da gaitasu-na aldatzeki eta horretatik eratorritako instituzioei dagokien guztian. Horrekin batera, eta araudi haren barrenean, Foruak berariazko arau batzuk soilik ezarri ditu puber-ak egintza batzuetarako duen gaitasunari dagokionez, zeinetarako Forua-ren testuak berak aitortu dion gaitasuna. Guraso-ahalaren eremuan, jada arautzen zen adingabe emantzipatuaren gaitasuna, nahiz eta ez jaso horri bide ematen zioten arrazoiak. Pertsona indibidu-aren gaitasunaren kapitulua ixten zuten arauak ziren ordezkartzari dagozkionak.

Horrela Foruaren egungo erregulazioa manten-duta, eta ukatu gabe etorkizuneko legeri berezi batek osorik arautu lezakeela gaitasuna eta jaso gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen laguntzarako figura guztiak, oraingo II. tituluari egi-ten den garapena da pertsonen gaitasunaren erre-gulazio zehatza, adinaren arabera; ezarri da adin-gabearen gaitasuna nazioarteko araudiarekiko eta legeria organikoarekiko modu koherentean eta errespetuz, baina baita errespetatuz eta manten-duz ere Nafarroako zuzenbidean jasotako berezi-tasunak 14 urtetik gorakoentzat eta eman-tzipatuentzat.

Foruak ordezkartza ahalmena ere arautzen duenez, horren barrenean sartu da ahalmen pre-bentiboa deitutakoa.

3. Familiaren heterogeneotasunaren aitortza, errealitate sozial plural gisa, bai eta pertsonen oinarritzko eskubideen eta askatasun indibidualen adierazpen gisa ere, Nafarroako antolamendu zibilean artikulatzen da, batetik, familia instituzioa-ren babesaren adierazpena gisa, eta bestetik, familia bere jatorriarengatik ez diskriminatze-ko printzipioa oinarri hartuta (Espainiako Konstitu-zioaren 39. artikulua); horiek Nafarroako zuzenbi-de zibilari lotzen ahal zaizkio bai askatasun zibila-ren printzipiotik eta bai oro har familia harremanaren eta zehazki Etxeari lotutako erregu-lazio tradizioaletik ere.

Ondorioz, 50. legea jasotzen duen III. tituluari ezartzen dira bai familia instituzioaren babesa eta bai bere jatorriarengatik ez diskriminatzea, familia

talde osoari zuzendutako legeen printzipio orokor eta gidari gisa, lege horiek diziplinatzen baitituzte familiako kideen arteko harremanak eta bizikide-tza. Horretarako, familiaren jatorria diren banaka-ko ereduak arautu eta diziplinatzen dituzten legee-tatik desberdindu dira, hala nola bikote ezkondua eta bikote egonkorra, edo baita berariaz arautu gabekoak ere, esaterako bikote egonkorra osatu ez duten more uxorio bizikidetzako harremanak, familia berrosatuak eta familia gurasobakarrak.

4. Seme-alabatasunari dagokionez, Foru Berria duela gutxi aldatu zen 9/2018 Foru Legea-ren bidez. Orain eguneratze osoa egin denez, beharrezkoa da, lehenbizi, sistematikoki berrantolatzea haren lege arauemaileak, eta hala, Titulu osoa, orain IV.a, hiru kapitulu izatera igaro da, gai hauei buruzkoak hurrenez hurren: xedapen orokorrak, seme-alabatasun naturala eta adopzio bidezko seme-alabatasuna. Gainera, berariazko izaera substantiboarekin eta seme-alabatasun naturalaren barrenean, sartzen dira bi aldaketa, aipatutako 9/2018 Foru Legeari dagozkionak, sai-hesteko berdintasunaren printzipio konstituziona-laren edozein urraketa. Alde batetik, gehitzen da ama adingabeari edo gaitasuna judizialki aldatua duenari defendatzaile judizial batek laguntzeko prebentzioa, bermatzeko haren errefusa ingurua-bar egokiz inguratua dagoela, inolako presiorik gabe; berme hori ahalbidetzen da horretarako Fiskaltzari legitimazioa aitortzearen bidez. Beste-tik, ikusi da Espainiako Konstituzioaren 14. artiku-luaren urraketa bat egon litekeela, izan ere, muga-tu zen amak ezkontzako seme-alabatasuna aurkaratzeko duen legitimazioa, hain zuzen ere, adingabearen ordezkari gisa eta haren interesaren alde jokatu dezakeen kasuetara; hala, senarrak bere aitatasuna aurkaratu dezake bere interesa-ren alde eta horrek ekarri arren adingabearen-tzako kaltea; emazteak, aldiz, 9/2018 Foru Legeak sartutako erregulazioarekin, aitatasun hori aurka-ratu zezakeen bakarrik semearen edo alabaren interesaren alde. Horregatik, orain erantsi da, honakoa ere, alegia, amak izan dezala aukera senarraren aitatasuna aurkaratzeko bere izen eta eskubidez.

Konpilazioak orain arte ez du adopzioaren gai-neko erregulazio oso bat izan. Mugatu da ezar-tzera arau zehatz bat adingabeak adopzioa baimentzeko duen gaitasunari buruzkoa, eta jarraitzen du aipatzen formalitateak (eskritura publikoaren bidez eratzea) eta modalitateak (osoa eta sinplea), zeinak aplikaezinak bihurtu ziren gai hau legeria erkidean erreformatu zenetik 1987an. Gainera, arautu du umeordetzea; figura hori des-agertu da, zeren xurgatu baitute adingabeen harreraren formek, nahiz eta bien profilak ez izan

osotara berdinak. Bestalde, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeak, nahiz arautzen dituen batez ere adopzioaren alderdi administratiboak, ekin die, zuzenbide zibilarren arloan dituen eskumenak erabiliz, egokitasuna edo desagokitasuna baloratzeko erabiltzen diren irizpideetatik haratagoko gaitasunerako baldintza pertsonalei buruzko zenbait gairi, zeinak foru legeriari dagozkion berezitasunak adierazi dituzten, eta baloratuak izan diren hainbat alditan Nafarroako Parlamentuan (adibidez, gehieneko adin diferentziak); gaur egun, ez datoz bat araudi erkidearekin. Hala, nahitaezkoa da adopzioari buruzko Nafarroako araudia harmonizatzea, eta, horretarako, beharrezkoa irizten da Konpilazioan jasotzea honakoen gaineko arauak: gaitasuna, eratzeko baldintzak, ondorioak eta azkentzea. Gainerakoetarako jotzen da, izaera administratiboak baitira, Foru Lege berezira; hori ere aldatu beharko da osorik garatzeko, eta, ondorioz, hobetu ahal izateko alderdi tekniko jakin batzuk, testu erkidera jotzearen ondoriozkoak, eta konpontzeko testu horren hutsune batzuk, zeinak praktikan agerian gelditu diren.

5. V. titulua orain arte guraso-ahala deitu denari buruzkoa da; hemendik aurrera, guraso-erantzukizuna deituko zaio eta Foru Berrian berriaz eta osoa izateko asmoz araututako instituzio hori adierazten du. Terminologia berriak hizkuntza parekidetasuna du oinarri; bat dator Europako zuzenbidean erabiltzen denarekin, eta ez die eragiten arlo honetan espezialitate handiak izan dituen Foru araudiaren osaketari eta edukari.

Foruak, hasieratik, helburu izan du osorik arautua egotea eta beste legeetara igorpenik ez egitea, eta, hala, erregulazio berria da haren eduki osoaren garapen zehatza, zeinak zenbait betebeharrak eta ahalmenak dituen, substantibitate propioa dutenak; horrek ekarri du mugatzea titulartasun eta erabilera kontzeptuak, bai instituzio osoari dagokionez eta bai betebeharrak eta ahalmen horietako bakoitzari dagokionez, eta, ondorioz, honako kasuen erregulazio berria ere ekarri du: etetea, gabetzea, azkentzea eta berreskuratzea, eta horrekin batera gehiago zehaztea orain arte guraso-ahal luzatua eta birgaitua deitutakoa.

Horren ondorioz, orain 14 lege daude lehen 5 zeuden tokian; horiek bazuten jada instituzio horren erregulazio osoa, baina beharrezkoa zen eguneratzea, aurreikusteko bizikidetzarik ez dagoeneko edo familian krisiak daudeneko kasuak, horiek baitira liskar gehien dituztenak eta irtenbide praktikorik hoberenak behar dituzten kasuak. Irtenbide horiek ematen dira oinarri hartuta ituna,

funtsezko printzipioa, zeinak modu berezian gobernatu duen arlo hau, Foruak garrantzia berezia eman baitie titularren arteko itunei, askatasun zibilarren printzipioa oinarri hartuta.

Ahalmen eta betebeharrak horien garapenak ahalbidetzen du instituzio horretan sartuak eta lotuak dauden instituzioen erregulazioa, esaterako, zaintza eta jagoletza, jada legegile nafarrak arautua foru lege berezi baten bidez, zeinak bere garaian aurreikusi zuen, hain zuen ere, sartzea Foruaren testuan, haren familia zuzenbidearen osoko erreformaren barrenean; adingabeak gurasoekin eta familiako beste kideekin egotea eta haiekin harremana izatea, orain arte jasoa seme-alabatasunaren eremuan eta haurrentzako babesari buruzko Foru Legean; eta honako betebeharrak arautzea: elikadura, biztantzia, hezkuntza, eta laguntza materiala eta emozionala, adingabeen oinarritzko behar guztiak hartzen baitituzte horiek, eta, aldi berean, eramaten dute aurreikusterako familiaren etxebizitzaren erabileraren atribuzioa eta gastu arrunt eta berezietan ekarpena. Eta dena inolako desberdintzerik egin gabe ez jatorria ezkontzakoa den edo ezkontzaz kanpokoa, ez noizbait bizikidetzarik izan den edo ez, eta ez baterako gurasotasunaren araubideari dagokion edo guraso bakarrekoari.

Beraz, araudi berriak garbi bultzatzen du lehen aukera gisa gurasoen arteko gurasotasun ituna, familiaren harremanak arautzeko eta liskarrak saihesteko; horrekin batera, garbi gidatzen du helburu hori errazten duen bitartekaritza ere, subsidiarioki eskainita diskrezionalitate judizial handia, hartara, abiatuta "favor filii" funtsezko printzipiotik, hartzeko kasu zehatz bakoitzean, itunik izan ezean, behar diren neurriak gaintzeko testu zibil erkidearen hutsuneak edo mugak, agerian gelditu baitira azkenaldi honetan pilatu diren egoera eta inguruabar berriak aniztasun zabalean, bai eta gurasotasunaren koordinazioa errazteko ere. Hau da, honakoak ere, askatasun zibila, ituna eta diskrezionalitate judiziala (irizpide malguen bidez gidatua eta hori ahalbideratzen duten baliabide egokiz hornitua) izan dira Nafarroako zuzenbideak bereak dituen printzipio gidariak eta zuzendu dutenak gurasoen eta seme-alaben arteko harremanen erregulazioa.

6. Erregulazio berria eman zaio orain VI. titulua osatzen duen ezkontzako araubide ekonomikoari, zeina Konpilazioak osotasunez jasotzen zuen. Orain egituratu den moduan, hasten da ezkontzako araubide ekonomiko primario deitzen den horretatik; horrek biltzen dituen legeak orain arte ezkontzaren gaitasunaren eremuan zeuden, baina aplikatu zekizkikeen bakarrik konkista-sozietateari,

eta, orain, igarotzen dira araubide guztien printzipio erkideak izatera, ezkontzak dirauen bitartean.

Hala, lehen kapituluaren biltzen dira ezkontzako ondasun-araubideari aplikatzen ahal zaizkion arau guztiak, kontuan hartu gabe itundua edo hartua izan den, eta, besteak beste eta esanguratsuenen artean, ezkontzaren kargei eta gastuei eta familiaren etxebizitzaren babes bereziari.

Ondoren, arautzen dira ezkontzako itunak eta jarraian egungo Konpilazioan jasotako araubide bakoitza; idazketak zehaztasun teknikoak eta sistematiakoak ditu, doktrinak jada modu zabal batean jasotakoak, eta horiei erantsi zaizkie jada finkatuak dauden jurisprudentziako irtenbideak.

Azkenik, lantzen dira hiru arau, araubide guztietan erkideak direnak eta aplikatzekoak direnak ezkontzaren indarraldia bukatu ondoren; osatzen dutenak bere araubide osoaren beharrezko garapena, bere printzipio berezien arabera, eta dagozkienak desegitean ezkontzak dituen kargari eta familiaren etxebizitzari; gai horiek orain arte ezkontza indarrean zen bitartean bakarrik zeuden arautuak, baina bukatzen denerako erregulazioa ere beharrezkoa da eta Foruaren eguneraketak jaso egin behar du, ahalbidetzen baitute konpontzea ezkontza hautsi ondoren gizarte errealitatean sortzen diren kontuak. Hala, eta gidatzat hartuta foru zuzenbidearen berezitasun horiek, seme-alaben babesa, Foruan orain arte jasoak jada gaingidatutzat eman diren instituzioen bidez, eremu honetan egin da arreta berezia jarrita adinez nagusiak izan baina une horretan oraindik ekonomikoki gurasoen mendeko diren seme-alabei, ahalik eta gehien hurbilduta, eta interesen haztapen egokia eginda, adingabeko seme-alabei jarritakora. Eta, era berean, bistakoa da zaila dela Nafarroako araubidean txertatzea betebeharpekoaren heriotzaren kasurako Kode Zibilak duen konpentsazio pentsioaren diziplina, baina hori ere ezkontzaren ondorio ekonomikoa da eta beharrezkoa da arautzea eguneratzeko helburuarekin bat; hala, hemen desorekatutako konpentsazioa deitu da, zeina gauzatzeko baita honakoen bidez: batetik, kontzeptualki jada gaingidutua zegoen erregulazio erkidea gizarte errealitateara egokitu duten irizpide doktrinalak eta jurisprudentzialak hartuta, eta bestetik, Nafarroako oinordetzaren araubide berezia jasota.

7. Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoa buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legea izan zen Foru Zuzenbide Zibilean gizarte errealitate bati buruz egindako lehenbiziko erregulazio garai-kidea, hain zuzen ere bikote bizikidetza-egonkorrari buruzkoa, bestelako familia eredu gisa, ezkontza bidezkoaz gain. Eskumenei dago-

kienez, aipatutako foru lege hori eman zen foru zuzenbide zibilaren arloko eskumen eskusiboa gauzatzeko. Konstituzio Auzitegiko Osoko Bilkurak 2013ko apirilaren 23an emandako 93/2013 Epaia ebatzi zuen foru lege horren artikuluen zati bat Konstituzioaren kontrakoa zela. Ezin zen bazter utzi gaur egun bikote egonkorrek duten segurtasun falta juridikoa eta hutsune normatibo egoera, partziala izanagatik ere, ordenamendu juridikoak horiei lotzen dien ondorio juridikoa. Segurtasun falta juridiko horrek ez dio arauaren hartzaileari bakarrik eragiten; dagokien lanbide eremuetan instituzioa lantzen duten operadore juridikoei ere eragiten die.

Beharrezkoa da, beraz, Nafarroan bikote egonkorrei eskaintzea araudi berri bat, gizarte errealitate egokitu, zeinak batetik bateratuko duen doktrina konstituzionala foru zuzenbide zibileko estatutu bat eta berariazko araubide juridiko bat eratzearekin, eta, bestetik, emanen dien segurtasun juridikoa euren askatasun indibiduala erabiliz ezkontza bidezkoetik desberdina eta, beraz, baita horretatik apartekoa ere, den bizikidetza eta familia eredu borondatez aukeratzen duten herritarrei.

Hala, bikote egonkorrentzako berariazko estatutu juridiko bat eratzea, pertsonaren eta familiaren Nafarroako zuzenbide garapenaren erabilera bat besterik ez da, non ez baita ezezaguna pertsonen eta familien arteko bizikidetza eta lankidetza moduen tradiziozko erregulazioa, hala nola 129. legeko egitezko erkidegoak; hortaz, konstituzionalki egiaztatu denez bikote ezkondua eta egonkorra errealitate desberdinak direla eta ez direla baliokideak, legegari nafarra Espainiako Konstituzioaren bidez gaitua dago gizarteko eta familiako errealitate horri emateko berariazko estatutu juridiko bat, lehenago aipatutako epaian doktrina konstituzionalak adierazi bezala.

Honela, Nafarroan bikote egonkorra arautzen duen eredu gisa, I. liburu honetako VII. titulu moduan sartu da Konpilazioan, eta kontuan hartu behar dira, premisatzat, bikote egonkorren heterogeneotasuna eta aniztasuna, eta ondorio juridikoak desberdinak izatearen errealitate soziologikoa; bikote egonkorreko kideek, euren banakako askatasuna libre erabiliz, ondorio juridikoak eman nahi dizkiote euren bizikidetza harremanari, batez ere ondarearen eta oinordetzaren arloan (ondorio horiek, gainera, desberdinak izaten dira familia nukleoaren arabera, primarioa edo berrosatua den), eta nahi dute osatu dezaten euren bizitzako ibilbidea eta, in fine, euren banakako askatasun, uste, sinesmen, eta norberaren nortasunaren garapeneko eremurik intimoena. Eskubide konsti-

tuzional horiek ezin ditu baztertu legegileak eta isla izan behar dute estatutu juridiko horren izaera batez ere xedatzaile eta ez aginduzkoan, horregatik uko egin gabe araudi horretan sartzea gutxieneko eduki bat, beti ulertuta ordena publiko konstituzionalaren adierazpen gisa eta baita esku-bide eta banakako askatasunen adierazpen gisa ere, hala nola duintasuna, berdintasuna (14. artikulua) eta familiaren babes konstituzionala (39.1 artikulua); edozein kasutan ere, familia eredu hau aukeratzen dutenek, hura ezagututa, borondatez onartzen dute.

8. VIII. tituluak ezartzen dituen arauak orain arte Konpilazioan jasotzen ziren, erkidego araubidean oinarritutako ezkontzako sozietate segidako- en ondasunen likidazioari dagokionez. Arau multzo hori gaurkotzeko eguneratze honen izaerarekin bat, eta, batez ere, saihesteko seme-alaba batzuen eta besteen arteko diskriminazioa, gehitu zaizkie arau horiei bikote egonkorren kasuak, bai aurrekoa bai ondorengoa, zeinak aplikatzekoak izanen diren edozein erkidego araubidetan; kasu guztietan kenduko da irabazietan heren batean parte hartzearen zehapena.

9. IX. tituluaren Foru Berrian sartu den instituzio eta bizikidetza egoera berri bat jasotzen da, elkarri laguntzeko harremanak; lehenbiziko oinarritzko erregulazio bat da. Foruak arautzen zituen pertsonen harrera eta erkidego egoerak, kontuan hartu gabe ahaidetasun loturarik baden edo ez. Horrekin batera, abenduaren 10eko 34/2002 Foru Legearen bidez arautu zen adinekoen familia-harrera, nahiz eta honen printzipioak beste hartan aurreikusitako harremanetatik desberdinak izan. Horrela, figura horrek ahalbidetzen du adinekoen beste eredu bat eskaintzea, egon beharrean bakarrik edo zahar-etxeetan isolatuta, erantzuna eman behar baitzaio gaur egungo biztanleriaren zahartze progresiboaren gizarte errealitateari. Hala, arlo horren erregulazioa da orain Foruan jasotako bizikidetza harremanen garapena, oinarri hartuta erabilgarritasun praktikoa duela adinekoen beharrek eta laguntza beharrak dituzten pertsonen adierazten duten gizarte errealitatearako (elkarrekin partekatzen ahal dute laguntza), eta Nafarroako zuzenbidearen ezaugarri diren itunak egiteko askatasun eta borondatezotasun printzipioen gainean.

10. Orain arte “propter nuptias dohaintzak” deitutakoak orain X. tituluaren daude, izen honekin: “dohaintzak familiarako eta familiaren ondarearen batasunerako eta jarraipenerako”, haren edukia egokitu baita, ez bakarrik dauden familia egoera desberdinetara, baina baita familien ekonomia desberdinerara ere, jada ez baita nekazaritzan eta

abeltzaintzan oinarritzen, baizik batez ere enpresa arloan.

Horrela, oraingo erregulazioan zenbait figuraren arteko nahasketa dagoenez, eta ez direnez elkarrengandik garbi desberdintzen, hasteko desberdindu dira familia berria eratzeagatik egindako dohaintzak eta familia-enpresaren jarduerara edo ondareari jarraipena emateko helburua duten dohaintzak. Era berean, desberdindu dira ezkontideek edo bikoteko kideek euren artean egindako dohaintzak eta, horien barrunean, batetik, bizikidetza hasteagatik egindakoak, eta, bestetik, hura indarrean den bitartean, bai eta bukatu ondoren ere, ondare oreka izateko egindakoak; horrekin jaso dira jurisprudenzian eta doktrinan egindako interpretazioak eta desberdintzeak.

Horrekin bat etorritz, unea egokitu da bizikidetza-aren eta familia taldea osatzearen hasierara, kontuan hartu gabe jatorria, 50. legeko familiaren kontzeptualizazio berriarekin bat.

11. Aurreratu bezala, Titulu bakar batean, XI.lean, finkatu da Etxea, bai eta hari lotutako instituzioak ere. Hasteko, eman da Etxearen kontzeptu bat argitzeko orain arte ikuspuntu tekniko-juridikotik erraz ulertzen ez ziren kontuak, eta Etxearen berariazko gisa ezarri dira orain arte familiaren ondasunen araubide orokorrari lotzen zitzaizkion printzipioak. Eredu honetara ekarri dira orain arte Etxeari zegozkion propter nuptias dohaintzen berezitasunak ere; orain ordenatzen ahal dira haien batasuna eta jarraitutasuna mantentzeko kontzeptuazio berriaren arabera.

Sistematika honekin bat etorritz, titulu honen kapituluek jasotzen dute honakoen araudia: konkisten familia-sozietatea, familia-erkidegoak, etxeharrera eta zuzkidurak. Horien teknika hobetu egin da jurisprudentziako irtenbideak egokitzeak, eta edukia ere egokitu da egungo familia errealitatera, zeina baita, era berean, ezartzen duena ezkonsarria eta erresak kentzeko beharra, ez bakarrik zaharkituak gelditu direlako, baizik eta, batez ere, horien araudiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna urratzen zuelako, xedatzen baitzuen senarrari zegokiola ondasun horien gaineko administrazioa eta baimenak ematea.

Titulua ixten du Ahaide Nagusien instituzioak; mantentzen da, borondatez eta interesdun guztien adostasunez, eskuragarri egon eta ondareari soilik dagozkion kontuetarako eta kanpoan uzten dira, beraz, guraso-erantzukizunaren arlokoak. Hala ere, gorde dira oinordetza-fiduziaren kasuak (281. legea), bai eta eskualdatze eskubidea eraginkorra den besteak ere (180. legea), beharrezkoa baita Ahaide Nagusiek parte hartzea horietan.

IV. Bigarren liburua.

1. Foru Berriak Kode Zibilera egiten zituen igorpen estatikoak kentzeko asmoz, osorik arautzen da oinordeko izateko gaitasuna (152. eta 153. legeak), bai eta ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasunaren arrazoiak (154. legea), eskergabekeria (163. legea) eta jaraunsgabetzea ere (270. legea).

2. Testamentuen arloan, testamentua egiteko gaitasuna ere arautu da; kendu da Kode Zibilera-ko igorpena eta eman zaion idazketak, 22. legearen idazketa berriarekin bat etorritzat terminoak eguneratzeaz gain, araudi bat eratzen du bat datorrena judizialki aldatutako gaitasuna duen pertsonaren egungo errealtatearekin, eta pertsona horrek testamentua egiteko duen posibilitatearekin, baldin eta egiteko unean ulertzeko eta nahi izateko nahikoa gaitasun badu, ezertan eragotzi gabe horri buruz judizialki xedatutakoa. Urritasun sentensoriala duten pertsonen intimitatearekiko errespetua ere aurreikusi da.

Era berean, lekukoen erregulazio osoa egin da; bertan behera utzi dira igorpenak, zehaztu da lekukoen beharra eta testamentu bakoitzean zenbat behar diren, kendu da derrigortasuna notario aurreko testamentu irekian eta esplizituki ezarri dira haren baldintzak mantenduta foru berezitasun guztiak, auzotasunaren beharra izan ezik, ez baita beharrezkotzat jotzen.

Arlo honetan arautu gabe gelditu diren gauza guztietarako, hartu da zuzenbide erkidean araututako testamentu guztietara igorpen dinamikoak egitearen formula, olografoa izan ezik, zeina berariaz arautzen baita notariotza legeria beteta eta horren gainean Foruak berak dituen berezitasun zehatzak ahaztu gabe.

Ermandadeko testamentua sakon aztertu da eragingabetasunari eta errebokatzeari dagokienez. Lehenari dagokionez, jaso dira arrazoi espezifikoak, hausturan oinarrituak, ezkontideek eta bikote egonkorreko kideek egindako egilespen kasuetarako, eta eragingabetasuna hedatu da xedapen guztietara, segurtasun juridiko handiagoa izateko, doktrinak adierazia duenarekin bat. Horrekin batera, bereizi dira ezkonduen eta bikoteen arteko kausak; edozein kasutan ere eskatzen da konstantzia frogatua, segurtasun handiagoa izateko, eta jasotzen dira orain arte zalantzarik izan ziren kasuak, hau da, ezkondu aurretik ematen duten pertsonena, eta bikote egonkorra izan eta ondoren ezkontzen direnena. Berariaz jaso da testamentua batera egin dutenetako batek testamentua egiteko gaitasuna galtzen dueneko kasua ere, deklaraturik, alde batetik, horren erreboka ezintasuna,

na, deusetan ukatu gabe testamentuak berak beste aurreikuspen bat ezar dezakeela, eta, horrekin, ermandadeko testamentua egiten dutenak bultzatuta berariaz jaso dezaten egoera hori, heriotzaren kasua jaso ohi den bezala; eta ahalbidetuta, beste alde batetik, korrespektiboak ez diren xedapenen errebokazioa edo oinordeko izan ezin diren pertsonen alde egindakoena.

3. Fideltasun-gozamena orain alarguntza-gozamena deitzen da, araudi berrira egokitzeko eta Nafarroako zuzenbidean zuen aurreko izena berreskuratzeko.

Bikote egonkorrengana ere hedatu da, lehenbiziko liburuko VII. tituluan ezarritako estatutu juridikoaren arabera eta hura zorrozki betez, eta, hala, kapitulu honetan jasotako legeak bizirik dirauen bizikideari aplikatuko zaizkio soilik espresuki eta borondatez xedatu izan balitz hori.

Baztertzeko arrazoiak aldatu dira, gizarte errealitateari egokitzeko, eta honako hauek baztertzeko arrazoi gisa jaso dira: banantze egoera, kausatzailearen eta ondorengo ahaideen kontrako atentatu larriak, familia harremanen aurkako delituek eta guraso-erantzukizuna kentzeko arrazoiak.

Kommutaziorako aukera sartzen da familia-enpresa denean, eta berariaz uzten dira horretatik kanpo bereziki babestutako ondare bat osatzen duten ondasunak. Inbentarioari dagokionez, moduaren nahiz epearen gaineko eskakizunak malgutu dira; argitu da ahalbidetzen duela erabiltzea kausatzailearen heriotzarengatik lortutako eskubidea, mugatu da zein kasutan izan behar duen formalizazioa eta bermatu da egintza horretan jabe soila han egotea.

Jabe soilaren betebeharren arloan, erantsi da desorekagatik eman beharreko konpentsazioaren ordainketari dagokiona, instituzio horren araudiarekin bat etorritik eta betebeharrak irauten duen kasuetarako, 105. lege berrian xedatutakoaren arabera.

4. Seniparte nafarra mantentzen da bere eite tradizionalan, alegia, formala besterik ez den instituzio gisa, nahiz eta kendu den orain arte 267. legean jasotzen zen formula, izan ere, zaharkitua gelditu da eta nahasmena eragin zezakeen. Seniparte mantentzearen ondorioz, beharrezkoa da argitzea zein diren preterizio kasuak eta horren ondorioak, bai eta instituzioaren formalitatea malgutzea ere notarioaren esku-hartzerik gabe egindako testamentuetarako, behar diren legeak aldatuta.

5. Lehenago aurreratu denez, Foru Berriak seme-alaben babesa ulertu du xedatzeko askata-

sunaren muga gisa, lehenbiziko ezkontzako seme-alabei zedarritua. Instituzio hori, artikulua guztietan presente eta latente dagoena, doktrinak askotan kritikatu zuen, batetik, ez zegoelako egokitua gizarte errealtateetara, eta, bestetik, galarazten zuelako baita desgaitasuna duenaren ondarearen tutoretza ere; konstituzio-kontrakotasun narriak aurkitu zaizkio, eta epaitegien doktrinaren ondoriozko egokitzapenak ere egin zaizkio, modu baketsuan izan ez bada ere.

Seme-alaben eta ondorengoen babesa orain pentsatu da behar handiagoko kasu eta uneetarako, zeinek, behar den interes haztapena eginda, justifikatuko dituzten xedapen askatasunaren ondoriozko betebeharrak eta lege mugak.

Hala egin da, azaldutakoaren arabera, adinez nagusi izan baina oraindik gurasoengandik modu independente batean bizitzeko aukerarik lortu ez dutenen kasuan, haien gastuetarako ekarpena egiteari eta familiaren etxebizitza erabiltzen uzteari dagokionez, aukera hori lortzeko behar den zentzuzko denboran.

Premia egoera da oinordetzaren arloan kapitulu berri bat sartzeko oinarria, xedatzeko askatasunaren barrenean, oinarritzko beharrak dituzten seme-alaben eta ondorengoen babesa bermatzeko. Eta horrela, lege aitortzen da mantenu eskubidea, laguntza hori ematera behartua zegoen gurasoa hil ondoren hori erreklamatzeko egoera legalean daudenentzat, eta eskubide hori dute denek, hau da, bai ezkontza barrengoak eta bai ezkontzaz kanpokoak, bai eta hurrengo elkartzeetakoek ere, eta bai, denen jatorria elkartze bakar bat denean ere; hala, aplikatuko da kontuan hartu gabe elkartze berriak izan edo ez, edozein diskriminazio egitea saihestuta. Foruak aurreikusten du, eta mantendu, alarguntza-gozamena duenak ordaindu behar duela mantenua, baina orain araututako instituzioa aplikatuko da soilik horiek ematera behartutako gurasoaren alargunak uko egiten badio gozamenari, edo beste arrazoi bategatik iraungitzen bada, zeinetan bikote egonkorak ez duen itundutako gozamenik, bai eta gozamena horiek estaltzeko nahikoa ez denean ere. Kasu horietan guztietan, gurasoaren legezko betebeharrak hori haren borondatezko oinordekoei transmititzen zaie, haiek izan daitezten, lehentasunezko beste legezko betebeharrak ez badago (ezkontidea edo ondorengoak), bere gain hartzen dutenak mantenua ordaintzea hildako gurasoak eman beharra zuen edukiarekin, betiere jasotako ondare eratzikipenaren mugen barrenean eta horren kargura.

6. Orain arte "bigarrenez ezkontutakoaren erreserba" deitutakoak asmoa du babestea onda-

sunak bestearen alde xedatzen dituen gurasoaren borondatea, bai eta horrekin izan dituen seme-alabak ere. Horrela, instituzioa mantentzen da, nahiz eta, eragozteko seme-alaben arteko edozein diskriminazio, hedatu den horren aplikazioa bikoteetara eta erreserbatzeko betebeharra sortzen den unea parekatu den ezkonduen eta bikote egonkorren artean. Horretarako, tituluaren izena aldatu da; orain da seme-alaben aldeko erreserba, eta idazketa egokitu da aipatutako kasu guztietara.

7. Legezko oinordetza aldatu da oinorde izateko ordenari dagokionez, izan ere, orain arte indarrean zena ez zetorren bat sentsibiltate eta gizarteko borondate errealekin, ezta berdintasun eta segurtasun juridikoaren kausekin ere, eta horrek ekarri du, bere aldetik, anai-arreba guztiak parekatzeari, kontuan hartu gabe lotura bikoitza edo bakarra den.

8. Jarauntsia eskatzeko akzioa, preskripzio epeari dagokionez, orain arte 30 urtekoa baitzen, harmonizatu da eskuratze preskripzioaren araudi berriarekin. Hain zuzen ere, nahiz eta atariko liburuko IV. tituluan jarraitutako ildo laburtzaile eta bateratzailearen arabera epe horrek 10 urtekoa izan behar zuen, aipatutako harmonizazioa aukeratu da, zeinak dakarren soilik preskribatutako dela bateraezintasuna duen usukapioaren ondorioz; horrekin saihesten dira erdibideko egoerak, zeinetan kontua bihurtuko zen "res nullius", eta ematen da behar den segurtasun juridikoa.

V. Hirugarren liburua.

Oraingo hirugarren liburua hartzen du orain arte horren I. titulutik VII.era jasotzen zena, eta gainerakoa laugarren liburua osatzera igaro da; hala, sistematikoki bereizi dira batetik ondasunen arloko zuzenbidea eta bestetik betebeharren, estipulazioen eta kontratuen arloko zuzenbidea.

1. Foruaren testuan mantendu da ondasunen sailkapena legeintza eskumenaren adierazpen gisa, zeinak geroan ahalbideetako duen horren araudiaren garapena, ez bakarrik Konpilazioan, baizik baita izaera pribatu eta publikoko beste batzuetan ere, baina idazketa egokitu da izaera administratiboko arauetara (Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legea, Toki Administrazioari buruzko Foru Legea eta Ondasunen gaineko Erregelamendua), hartara, ondasunak publiko gisa sailkatuz gero, ukatu gabe auresuposatzen dela horiek, herritarrenak izateaz gain, administrazio publikoek ere badiela, egiten da destinoaren arabera sailkapen bat, hau da, batetik jabari publikoak, (horien barrenean daude herri-ondasunak), eta bestetik ondare-ondasunak; kontzeptu horiek bateratu behar dira aipatutako legeria administrati-

borako igorpenarekin. Bestalde, kendu direnez orain arte 42. eta 43. legeetan jasotzen ziren enteak, titularrari egindako erreferentzia bakarrik izaten ahal da administrazio publikoena, legeria administratiboarekin bat (Foru Komunitateko Administrazioaren Foru Legea).

2. Preskripzio azkentzailearen epeak murriztearekin batera, usukapioarenak ere aldatu dira. Horri buruz, 35. legearen idazketa berriak berarekin dakar ez izatea beharrezkoa preskripzio azkentzailearen epekin harmonizazioa, eskuratze preskripzioa Foruan berariaz arautzen baita soilik usukapioari eta zortasunen eskuratze-preskripzioari dagokienez; azken horretarako igortzen da usukapioaren epeetara. Hau da, Foruak berak diseinatutako interdependentziak, egintza errealean preskripzio azkentzailearen eta usukapio epeen artekoa, zabalik uzten du atea eskuratzeko preskripzioaren edo usukapioaren edozein epe ezartzeko, preskripzio azkentzailearen araudia aldatzeko beharrik izan gabe. Horregatik, aldaketa oinarritu da bakarrik epeen murriztapenean eta horri dagokion etenaldian eta uko egitean, eta, horretarako, beste eskubide zibil berezi eta europar batzuek jarraitutako bidetik, usukapitzeko epeak murriztu dira eta ezabatu dira inguruabar baten arabera epe desberdinak, Nafarroan bizilekua izan edo ez, zeinak gaur egun lehen izan zezakeen garrantzia galdu baitu, zalantzaezina baita gaur egun dagoen mugikortasun geografikoa eta komunikazioen garapena.

3. Gauza erkidearen zatiketaren eta adjudikazioaren prozedura judizialaren egungo araudiak arazo praktiko gehiegi sortu ditu fase exekutiboan. Sesta ematearen figura, Bilduma Pribatuari egindako oharretan ageri den bezala, hartu zen Nafarroako udalerriek berezkoak zituzten administrazio-kontratueterako arau batzuk zuzenbide pribatura hedatu zituen ohituratik. Hala, proposatutako araudi berriak desberdintzen ditu, erkidego kasuei dagokienez, batetik, gauza bakar zatietzen gainekoak, eta bestetik, zenbait ondasunen gainekoak, eta agintzen ditu hurrengo izapideak; horien artean funtsezko izapidea da adjudikaziorengatik enkantean eskaintza egiteko jada tasazioaren balioa eskaini duten jabekideen agerraldi judiziala. Izapide horien bidez ezin adjudikatu izateak ahalbidetzen du, bere aldetik, joatea bai Prozedura kriminalaren legeak araututako enkante judizialera, bai Foru Berriko 574. legeko enkante pribatura; lege horri ere ordenazio berria eman zaio.

4. Erkidego berezien arloan, amankomuneko erkidegoetatik hasita, beharrezkoa da esplizituki bereiztea ondasun publikoen gaineko erkidegoa,

zeina baita herritar guztiena, eta pribatuen gainekoa, eta, hala, aldarrikatzen da lehenaren izaera zatiezina eta erabiltezina, eta horrekin batera, toki entitatearen aldeko erreskate aukera onartzea.

Erkidego publiko zein pribatuak izateko aukera hori da, aldi berean, oinarritzen duena Foru Berriaren araudian mantentzea bazkalekuak; horien oinarritzko ezaugarriak izaera zibilekoak dira, galarazi gabe horiek administrazioaren eremuan arautzea eta aplikatzea mota horretako arauak behar denean. Era berean, luditzearen oinarria interes soziala eta denen onura besterik ez denez, pentsatu da kargarik gabeko herri-lurra berreskuratze hutsa nahikoa dela egokia izateko, eta, hori hala izanik, konpentsazio zuzena eta egokia jada ordaintzen da aprobetxamendu soilaren balioaren kalte-ordainarekin, eta, hala, "lortutako onura"ren parametroa, orain arte nahitaezkoa, baztertu egin behar da kalte-ordainetarako parametro gisa entitate publiko bat eta herri-ondasun bati buruz denean, legeria publikoak aurreikusitako kasu guztiekin bat. Herri-lurra berreskuratze ideia horrekin bat, kasu hauetarako atzera eskuratzeko ezartzen da bakarrik toki entitatearen alde.

"Fazeria" eta "fazeria erkidego"-en erregulazioa ere mantendu da Foruan, finka pribatuen gain egokitzen den heinean eta ukatu gabe dagoen araudia eta administrazio eremuan garatu behar dena finka publikoen gain egokitzen denerako. Dena den, eta jada azaldutakoaren ildotik, alegia, ahalbidetzea toki entitateek izan ditzaten herri-ondasunen gaineko ahalmen guztiak herritar guztien onurarako, bi instituzioetara hedatzen da bazkalekuetarako aurreikusitako atzera eskuratzeko eta luditze araubide bera.

Horrekin batera, Foruan positibizatzen da, iralekuei dagokienez, aprobetxamendu soilaren presuntzioa, oro har eta kontuan hartu gabe finKaren izendapena edo destinoa, ezertan ukatu gabe titulartasun pribatuaren proba, orain arte jurisprudentziak ezarri duen bezala. Hala, itxiturari, atzera-eskuratzeari eta luditzeari dagozkien legeak aplikatzekoak izanen dira, inoren gauzaren gaineko eskubide gisa partikularren arteko aprobetxamendurako eskubide posibilitateaz gain, herri-lurren aprobetxamenduei, ukatu gabe horiei buruz administrazio legeriak ezarritakoa, bazkalekuekin gertatzen den bezala.

Mantentzen da kontzejuaren jabariari dagokion legea ondare-instituzioaren oinarritzko eta funtsezko arau gisa, ukatu gabe ukitzen dituen ibarretako administrazio ordenantzek ezarritakoa, eta, horren osagarri, herri-lurren araubideak xedatutakoa, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen

10. xedapen gehigarriak ezartzen duenarekin bat. Eta, azkenik, mantentzen da kanpoko auzotasuna eskubide errealek figura propio tipiko gisa, nahiz eta, titulartasunari, eskualdagarritasunari eta aplikatzekoak diren bestelako figuretara igorpenak egiten dituzten arauak dagokienez testuak aurreikusten duen arauditik haratago, ahalbidetzen den jotzea herri-ondasunen administrazio arauetara, azken batez izaera horretako lurren aprobeztamendu bat baita. Gainera, eta aplikazio horretan, ekiten zaio bazkalekuekin harmonizatzeraz luditzeen araubidea.

5. Gozamenaren arloan, beharrezkoa zen aldean eskubide eta betebeharren sistematizazioa, eta hala egin da 414. eta 415. legeetan, gainerako arauetan sakabanatuak zeuden guztiak bilduta.

Aurreratu da lehenago desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak babesteko neurrietako bat legezko biztantzaren eskubide arautzea izan dela. Nafarroan, biztantzaren eskubidea inoren gauzaren gaineko eskubide erreala da, erabileratik eta gozamenetik desberdina, eta ematen dio titularrari ahalmena etxebizitza bat osorik eta eskusiboki okupatzeko berak eta berarekin bizi direnak (ez dute familiakoak izan beharrik), bai eta osorik edo parte bat alokatzekoa ere. Beraz, eskubide hori zabalagoa da titularrari zuzenean aterpetxe edo bizileku bat izateko giza beharra asetzen uztea baino. Foruak xedatzen duen heinean, horren osaera izan daiteke borondatezko edo legezko xedapenen bidez; horrek ahalbidetzen du ezartzea legezko biztantzaren eskubide bat zeinak mugatzen baitu eskubide honen gainean konpilazioak egiten duen konfigurazioa, beste kasu batean eta berariazko borondatezko xedapenik ezean. Horrela, legalki eratzen da eskubide hori, bermatzeko soilik desgaitasuna duten pertsonak, kausatzailearekin batera bizi eta haren aurreko edo ondorengo ahaideak direnak, bizileku bat izan dezaten, betiere kausatzaileak ez badu beste modu batean xedatu behar horri erantzuna ematea eta berariazko baztertzeari salbu. Hori dela eta, mugatu egiten da eskubidearen titularrak duen errentamendurako aukera. Horrekin batera, Nafarroan ezkontideak etxebizitzaren gain dituen eskubideak erortzen direnez oraingo 99. legeak aipatutako adjudikazio eta erabileratik eta alarguntza gozamenetik (azken hori bikote egonkorreko kideari ere egokitzen ahal zaio hala xedatu bada borondatez), eskubide horiek hemen eratzen denarekin batera existitu beharko dute. Gainerakoan, eta ez bada bestelako borondatezko aurreikuspenik, aplikatuko litzateke 423. legean aurreikusitako araubidea, hau da, doakoa eta

biziartekoa da eta ezin da luditut titularraren borondatearen aurka.

6. Berariaz arautzen da alderantzizko akzesioa, hain zuzen ere, hori ez izatea aurpegiratu izan baitio legelariari doktrinaren sektore batek, izan ere Bilduma Pribatuan jasotzen baitzen. Hala, akzesioaren eragina azalera-eskubideekiko eta gehiegi eraikitzearekiko leundu zen bezala, aurreikusten da orain "superficie solo cedit" printzipioa arintzeko aukera hori gehiegizkoa dela egiaztatzen den kasuetan, baita eraikitzailearengan eta eraikuntzaren balio ekonomiko handiagoan fede ona dagoen kasuetan ere; oinarri horien gainean erantsi da horren araudia.

7. Atzera-eskuratzeak dagokienez, ikusirik ez dagoela aurreikusia lehentasun bertikalik administrazio arauetan eta zuzenbide zibil erkidean araututako atzera eskuratzeetan, ezta lehentasun horizontalik ere horietan guztietan, argitu da, lehenari dagokionez, ez dela Foruan jasotako ordena aplikatu behar dena, baizik haren arau erregulartzaileek ezarritakoa. Horrekin batera, lehentasun horizontalari dagokionez, hartzen da proportzionaltasunaren araua, baina bakarrik auzi berezirik ez duten atzera eskuratzeentzat (grazia bidezkoa, kanpoko auzotasuna, bazkalekuak eta iralekuak) izan ere foru jentilizioak eta zuzenbide erkidean araututakoek lehentasun arau propioak dituzte.

Grazia bidezko atzera eskuratzean ezartzen da dies a quo, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak bere sententzietan ezarritakoari jarraikiz. Eta jentilizioan, luzatzen da jakinarazpenik ez dagoen kasuetarako epea, atzera-eskuratzaileari segurtasun handiagoa emateko orain arte eskatzat jotzen zen epe horren aurrean.

Aukera eskubideari dagokion testua ere argitu eta harmonizatu egin da; mantendu dira Foruan jasotako hamar urteak, duen izaera errealekin bat eginez eta beharrik izan gabe inskripzioa egiteko beste epe bat ezartzeko, baina segurtasun juridiko handiagoa eman da luzapenei dagokienez, Hipoteken gaineko Erregelamenduan ezarritako irizpidea hartuta. Horrekin batera, ezartzen dira horren erabilera argitzen duten arauak.

VI. Laugarren liburua

Egun hirugarren liburuan zeuden VII.etik XV.era bitarteko tituluak igaro dira laugarren liburu berria osatzera, zeina, bere aldetik, hiru tituluak osatzen duten: I.a betebeharre buruzkoa oro har, II.a estipulazioei buruzkoa eta III.a kontratuei buruzkoa. Azken hori zortzi kapitulutan banatzen da, honako hauei buruzkoak, hurrenez hurren:

mailegu kontratuak, zentsuak (biziarteko zentsua sartu da kontsignatarioaren orde), zaintza eta gordailutzea, mandatua eta negozioen kudeaketa, salerosketa, salmenta atzera-eskuratzearekin, trukea, eta gauzen errentamendua.

1. Betebeharrei dagokienez, berrantolaketa sistematiko orokor bat egin da, eta horri esker posible da hobeki identifikatzea eta definitzea orain arte lege bakarrean jasoak zeuden instituzioak. I. titulu honi hasiera ematen dion iturrien zerrendan, sinplifikatu egiten da zerrenda hori 488. legean, iturriak borondatera eta legera murrizten baitira, nahiz eta, hala ere, aipatzen diren orain arte agertzen ez zirenak: ekintza kaltegarria eta arrazoirik gabe aberastea. Era berean, manu horretan jasotzen dira orain arte borondate-adierazpenen eremuan aipatzen ziren hitzarmen elementuak. Lege hori eratzez bukatzeko, sartu dira interpretazioari dagozkion arauak eta kendu zaio kontratuz kanpoko erantzukizuna, modu autonomoan arautzeko.

Betebeharrak betetzearen eta azkentzearen arloan ere egin da ordenamendua; haren edukitik kendu dira bestelakoak diren kontuak, hala nola ez-betetzea. Betetzeari dagokionez, garatu dira Nafarroako zuzenbidean jasotako bi instituzio, horien aplikazioa bultzatzeko, oso erabilgarriak baitira krisi garaietan: ordainketa partziala eta nahitaezko ematea. Garapen horrek baldintza substantiboen zehaztasuna ekarri du, eta, horretaz gain, horren aplikazioa behar duen espezialitate prozesaletera zabaltu da (Espainiako Konstituzioaren 149.1.6 artikulua, Konstituzio Auzitegiaren 135/2006 eta 47/2004 epaiak, eta Konstituzio Auzitegiaren 2011ko ekainaren 19ko epaia) eta betearazpen-prozedurarako sartu dira zordunak kontra egiteko kausa bana.

Instituzio bakoitza bereizteko helburu sistematiko horrekin, gehitu dira kapitulu berri bereziak, tratatzeko, alde batetik, orain araututako betebeharren berrikuspene beste batzuekin batera, hala nola betetzea, azkentzea eta ez-betetzea, eta, beste alde batetik, azken instituzio hori eta erantzukizun errudun korrelatiboa, nahiz eta mantendu den, hala ere, "causa data, causa non secuta" deitutako figuran oinarritutako ebazpena arrazoirik gabe aberastearen eremuan.

Lesioaren ondoriozko hutsaltzean, baldintza gehigarriak sartu dira uko egitea baliozkoa izan dadin, hain zuzen ere, ondorio juridikoen informazio zehatza eta xehea, saihesta daitezela hain ohikoak diren estilo klausulak, batez ere, uko egitea kontratuarekin batera egiten denean eta horren parte denean klausula estereotipatu baten bidez.

Aurreratu bezala, kontratuz kanpoko erantzukizuna igaro da aparteko kapitulu bat osatzera; lege bakarra du, eta horretan bildu da aurreko 488.2 legearen edukia. Horren araubidean sartzen da, zabarkeriaren titulu subjektiboarekin batera, jarduera arriskutsua, aurreikusten da elkartasun inpropioa eta aipatzen da, ondasunarekin eta pertsonarekin batera, hirugarrenaren interesa, sartzeko mota guztietako kalte pertsonalak, morala barne. Gainera, eta preskripzioari dagokionez, arautzen da dies a quo.

Arrazoirik gabe aberastea ere aparteko kapitulu bat osatzera igaro da; lege bat du eta haren testua argitu da, jasotzeko kausa orokor bat, sartuko dituen bai zeharkako eskualdatzeak eta bai zeharkako aberastea, eta sistematizatzen da kausarik gabeko eskuratzea eta atxikitzea, gehituta itzultzeko betebeharrarekin batera doazen ondorioak, doktrina jurisprudenziala ezartzen joan den bezala.

Titulu hau ixten du betebeharren lagatzeari buruzko kapituluak. Azken urteetako krisi larriak ekarri du diru kopuruen erreklamazio asko izatea; horren arabera demanda judizialen igoera sortu da, eta horiekin batera etorri da ordaindu gabeko kredituetako batzuen ondorengo salmenta. Egoera horrek eragin du, bai zuzenbide erkidearen eremuan eta bai Nafarroan, jotzea figura juridiko batzuetara zeinen erabilgarritasuna ez baitzen ordura arte agerian gelditua, hala nola Kode Zibilararen 1535. artikulua, kreditu auzigaietara mugatua, eta, hemen Nafarroan, Foruaren 511.etik 514.era bitarteko legeak, aplikazio eremu zabala go batekoak, oro har kredituei buruzkoak baitira. Hori dela eta, Nafarroako zuzenbidean aurreikusitako instituzio horien garapenak, oso erabilgarriak baitira aplikazio praktikoan, behar du baldintzen definizio hobea, bai eta beharrezko gutxieneko egokitzapen prozesala ere, berezitasun substantibotik eratorria. Horretarako, kontuan hartu da jardunbide judiziala, esan nahi baita exijitzen dela zordunak zehazki jakitea zein den lagatzearen prezioa, aukeran erabili ahal izan dezan bere eskubidea, bai eta gehiegizko eskaera kontra egiteko kausatzat hartzea ere dagokion prozedura exekutiboan.

2. IV. liburu berriko II. titulua estipulazioei buruzkoa da, eta hor landu da, batez ere, araudi berri bat estipulazio penalari buruzkoa; kendu dira Nafarroako araudiko bi berezitasun, zorrotasun handiagoa suposatu baitute eta kritika doktrinal asko jasoak baitzituzten: moderazio judizialerako ezintasuna, eta zorduna libre uzteko ezintasuna nahiz eta betebehar nagusitik libre utz dezakeen kausaren bat egon. Gainera, esplizituki bereizten

dira haren testutik ondorioztatzen ziren klausula penalak, zigortzailea, likidaziokoa eta fakultatiboa, zeinak, gaur egun, doktrinak eta jurisprudentziak aitortzen dituen, nahiz eta, abiapuntua den, orain arte bezala, klausula zigortzailea; hala, beste bietarako berariazko ituna behar da.

3. Eta azkenik, III. titulua Konpilazioan araututako kontratuei buruzkoa da; bakoitzak aparteko kapitulu bat osatzen du.

Zerrendari hasiera ematen dio maileguaren eta komodatuaren erregulazioaren aldaketa puntualak. Berrikuntza nagusienak dira maileguari eragiten diotenak, gehituta interes ez-zilegien edo neurritz kanpokoen itunaren eragingabetasun partziala, bai ordain gisa emandakoak eta bai luzamenduak, azpimarratzeko kontratatzaile ahularen babes-eginkizuna Europako zuzenbidearen bideratze berriaren arabera, bai eta ustezko mailegu txikien eta judizialki aldatutako gaitasuna duten pertsonen berrikuspena eta egokitzapena ere, babesteko helburu berarekin.

Zentsuak II. kapitulu osatzera igaro dira. Foruan orain arte araututako zentsu bakarra kontsignazio deitutakoa zen, baina gaur egun ez du batere erabilgarritasun praktikorik. Hala ere, zentsuaren figurak jarraitu dezake izaten aplikazio erabilgarri bat, biziarteko izenez ezagutzen den modalitatean, eta, horregatik, orain arte araututakoa egokitu egin da, izan dadin tresna juridiko bat bizitzako edo pertsonen arazoak konpontzeko, baita familiakoak edo jaraunspenari dagozkionak ere; horretarantz jotzen dute araudi hori osatzen arau konkretuek eta eguneratzearen oinarria da.

Zaintza eta gordailutzearen kontratuak III. kapitulu berrantolatutako dira, edukia mantenduta; mandatuak eta negozioen kudeaketa IV. kapitulu osatzera igaro dira eta horiek ere gorde dute euren edukia.

V. kapitulu salerosketari buruzkoa da, eta bertan egin dira aldaketa, sartze eta kentze tekniko puntualak; horien zuzentasun falta edo hutsa doktrinan adierazia zegoen eta partikularren arteko enkantearen berrantolaketa egokia egin da. VI. ean jaso da salmenta atzera eskuratzearekin; aldatu den bakarra preskripzioaren araudi berriaren ondoriozko epea da, eta VII. ean mantendu da trukea eduki berarekin.

Bukatzeko, titulua ixten duen gauzen errentamenduan, zehaztasun tekniko jakinak bakarrik egin dira, doktrinak adierazitakoak, beharrezkoak baitira argiagoa egiteko testua eta araudi horrek Nafarroan jasotako errentamenduari buruzko lege bereziekin duen harremana.

1. artikulua. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren liburu, titulu eta kapitulu hauen errubrikak eta osaera aldatzen dira; aurrerantzean izenburu eta eduki hauek izanen dituzte:

1. Atariko liburua. Titulu hauen osaera eta errubrikak aldatzen dira:

II. titulua: 11., 12. eta 13. legeak.

III. titulua: “Eskubideen erabilera eta borondate adierazpenak”: 14. legetik 22. legera bitartekoak.

IV. titulua: “Preskripzio azkentzailea eta akzioak iraungitzea”. Bi kapitulu ditu: I. kapitulu: “Akzioen preskripzioa”: 23. legetik 37. legera bitartekoak; eta II. kapitulu: “Akzioak iraungitzea”: 38. legetik 41. legera bitartekoak.

2. Lehenbiziko liburua. Aurrerantzean, honen izenburua “Pertsonak, Familia eta Etxe Nafarra” izanen da, eta titulu eta osaera hauek izanen ditu:

I. titulua: “Pertsona juridikoak, babes berezia duten ondareak eta nortasunik gabeko bestelako enteak”. Hiru kapitulu ditu: I. kapitulu: “Pertsona juridikoak”: 42. eta 43. legeak; II. kapitulu: “Ondare babestuak, desgaitasuna edo mendekotasuna duten familia-erkidego edo -taldeko kideentzat”: 44. eta 45. legeak; eta III. kapitulu: “Nortasunik gabeko bestelako enteak”: 46. legea.

II. titulua: “Pertsona indibidualen gaitasuna eta ordezkaritza”: 47., 48. eta 49. legeak.

III. titulua: “Familiaren babes juridikoa”: 50. legea.

IV. titulua: “Seme-alabatasuna”. Hiru kapitulu ditu: I. kapitulu: “Printzipio orokorrak”: 51. eta 52. legeak; II. kapitulu: “Seme-alabatasun naturala”: 53. legetik 58. legera bitartekoak; eta III. kapitulu: “Adopzio bidezko seme-alabatasuna”: 59. legetik 63. legera bitartekoak.

V. titulua: “Guraso-erantzukizuna”: 64. legetik 77. legera bitartekoak.

VI. titulua: “Ezkontzako ondasun-araubidea”. Sei kapitulu ditu: I. kapitulu: “Guztientzako printzipioak haren indarraldian”: 78. legetik 82. legera bitartekoak; II. kapitulu: “Ezkontzako itunak”: 83. legetik 86. legera bitartekoak; III. kapitulu: “Konkisten ezkontza-sozietatea”: 87. legetik 99. legera bitartekoak; IV. kapitulu: “Ondasunen erkidego unibertsalaren araubidea”: 100. legea; V. kapitulu: “Ondasunen banaketako araubidea”: 101. eta 102. legeak; eta VI. kapitulu: “Guztientzako printzipioak indarraldia amaituta”: 103., 104. eta 105. legeak.

VII. titulua: “Bikote egonkorra Nafarroan”: 106. legetik 113. legera bitartekoak.

VIII. titulua: “Ondasunen likidazioa bigarren edo hurrengo elkartzeetan”: 114., 115. eta 116. legeak.

IX. titulua: “Elkarri laguntzeko erkidegoak”: 117., 118. eta 119. legeak.

X. titulua: “Dohaintzak familiarako eta familiaren ondarearen batasunerako eta jarraipenerako”: 120. legetik 126. legera bitartekoak.

XI. titulua: “Etxe Nafarra”. Bost kapitulu ditu: I. kapitulua: “Etxea eta etxearen eskualdatzea, dohaintza ordenatuaren bidezkoa, haren batasunerako eta jarraipenerako”: 127. eta 128. legeak; II. kapitulua: “Konkisten familia-sozietatea”: 129. legetik 133. legera bitartekoak; III. kapitulua: “Familia-erkidegoak”: 134., 135. eta 136. legeak; IV. kapitulua: “Etxe-harrera eta zuzkidurak”: 137. eta 138. legeak; eta V. kapitulua: “Ahaide nagusiak”: 139. legetik 147. legera bitartekoak.

3. Bigarren liburua. Errubrika hauek aldatzen dira:

I. kapitulua, X. titulua, II. liburua: “Alarguntza-gozamena”.

III. kapitulua, X. titulua, II. liburua: “Mantenua emateko betebeharra”: 272. legea.

4. Hirugarren liburua. Bi liburu ditu: “Ondasunak” izenburuko III. liburuan, egungoaren I. titulu-tik VII. titulura bitarteko edukia biltzen da, eta zenbakiak, ordena, errubrikak eta osaera oraingo berak dira; guztira 346. legetik 487. legera bitartekoak hartzen ditu.

5. Laugarren liburua sortzen da, “Betebeharrak, estipulazioak eta kontratuak” errubrikarekin; gaur arte III. liburua izan denaren VIII. titulu-tik XV. titulura bitartekoen edukia biltzen du, baina titulu, kapitulu eta lege hauetan, errubrika eta eduki hauekin:

I. titulua. “Betebeharrak orokorrean”. Zortzi kapitulu ditu: I. kapitulua: “Betebeharren iturriak eta ondorioak”: 488. legetik 491. legera bitartekoak; II. kapitulua: “Betebeharrak betetzea eta azkentzea”: 492. legetik 497. legera bitartekoak; III. kapitulua: “Betebeharrak berrikustea”: 488. legea. ; IV. kapitulua: “Betebeharrak ez betetzea”: 499. legea; V. kapitulua: “Lesioaren ondoriozko hutsalketa”: 500. legetik 506. legera bitartekoak; VI. kapitulua: “Kontratuz kanpoko erantzukizuna”: 507. legea; VII. kapitulua: “Kausarik gabe aberas-tea”: 508., 509. eta 510. legeak; VIII. kapitulua: “Betebeharrak lagatzea”: 511. legetik 514. legera bitartekoak.

II. titulua: “Estipulazioak”. Bi kapitulu ditu: I. kapitulua: “Hitz-emateak orokorrean”: 515. legetik 524. legera bitartekoak; eta II. kapitulua: “Fidantza”: 525. legetik 530. legera bitartekoak.

III. titulua: “Kontratuak”. Zortzi kapitulu ditu: I. kapitulua: “Mailegua eta komodatua”: 531. legetik 540. legera bitartekoak; II. kapitulua: “Biziarteko zentsua”: 541. legetik 544. legera bitartekoak; III. kapitulua: “Zaintza- eta gordailutze-kontratuak”: 545. legetik 554. legera bitartekoak; IV. kapitulua: “Mandatu-kontratua eta negozioen kudeaketa”: 555. legetik 562. legera bitartekoak; V. kapitulua: “Salerosketa”: 563. legetik 574. legera bitartekoak; VI. kapitulua: “Salmenta atzera-eskuratze ituna-rekin egitea”: 575. legetik 583. legera bitartekoak; VII. kapitulua: “Trukatzea”: 584., 585. eta 586. legeak; eta VIII. kapitulua: “Gauzen errentamendua”: 587. legetik 596. legera bitartekoak.

2. artikulua. Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioko lege hauek, ondotik zehazten direnek, testu hau izanen dute:

1. LEGEA

Konpilazioa. Foru Zuzenbide Pribatuari buruzko Konpilazio edo Nafarroako Foru Berri honek bere barnean hartzen du antzinako erresumaren zuzenbidetik egun indarrean dagoen zuzenbide zibila, betiere, tradizioarekin eta bertako ohitura, foru eta legeen praktikarekin bat etorritik; Nafarroako errealtatearekin bat eguneratu da, eta harmonizatu Nafarroako Parlamentuak bere eskumen historikoaz baliatuz emandako gainerako arau zibilekin.

Nafarroako tradizio juridikoa. Nafarroako Foru Zuzenbide Pribatuaren esangura historikoaren eta zuzenbide horren iraupenaren adierazpen gisa, Konpilazioko legeen interpretazio eta integrazioa egiteko lehenespena dute horren barruan sortu diren erakundeentzat, jarraiko hurrenkeraren arabera, honako hauek: Bilduma Berri-berriaz geroztik, Gorteetan emandako legeak; Bilduma Berri-berriak; Foruaren Hobetzeak; Nafarroako Foru Orokorrak; eta Zuzenbide Erromatarak, jasoa den hartan.

2. LEGEA

Iturri hurrenkera. Nafarroan, zuzenbidearen iturri-hurrenkera hau da:

1. Konpilazio honetako legeak eta Nafarroako lege zibilak.
2. Ohitura.
3. Nafarroako Zuzenbidearen printzipio orokorrak.

3. LEGEA

Ohitura. Ohitura ez da moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa izan.

Tokiko ohiturak lehentasuna du ohitura orokorraren gainetik.

Ohitura nabaria ez bada, alegatu eta frogatu beharko da auzitegietan.

4. LEGEA

Printzipio orokorrak. Printzipio orokorrak dira Nafarroako ordenamendu zibil osoa eratzen dutenak, besteak beste, izaera historikokoak, bai eta ordenamendu horren xedapenetatik datozenak ere.

5. LEGEA

Analogia. Foru Zuzenbide Pribatua berariaz jaso gabeko kasuetan, haien hutsuneak xedapenen arazoizko hedapen analogikoaren bidez bete beharko dira.

Presuntzioak. Konpilazio honetan ezarritako presuntzioak "iuris tantum" erakotzat hartuko dira, salbu eta legeak espresuki baztertzan duenean kontrako frogatik egiteko aukera.

6. LEGEA

Lehentasuna eta arau osagarriak. Espainiako Kode Zibila eta lege orokorrak zuzenbide osagarri izan dira, konpilazio honi eta 1. legeak adierazitako tradizio juridiko nafarrari begira.

7. LEGEA

"Paramientoa". "Paramiento fuero vienze" edo "paramiento ley vienze" printzipioarekin bat etorriz, alde bakarreko edo kontratuzko borondateak lehentasuna du, zuzenbidearen iturri guztien gainetik, salbu eta borondate hori moralaren edo ordena publikoaren aurkakoa denean, hirugarrenari kalte egiten dionean, edota konpilazio honetako debekuzko manuen aurkakoa izan eta manu horiek deuseztasun-zehapena dakartenean.

Ordena publikoaren barneko zatia jotzen dira giza eskubideen eraginkortasuna, erakunde juridikoen oinarria eta konstituzio bidez finkatutako sistema demokratiko eta sozialari datxekion balioen tutoretza.

10. LEGEA

Barneko lege-gatazkak. Konpilazio honek arautzen ez dituen kontuetan, barneko lege-gatazkak Estatuko arau orokorrak aplikatuz eta ordenamenduen arteko paritate printzipioaren arabera ebatziko dira.

11. LEGEA

Izaera zibilararen zehaztapena. Nafarroako forudunaren izaerak dakar Nafarroako Foru Zuzenbide Zibila bete beharra. Auzotasun zibilararen arloko Estatuko arau orokorrekin arautuko dute forudunaren izaera, eta ordenamenduen paritate printzipioa errespetatuko da.

12. LEGEA

Pertsona juridikoak forudunak izatea. Nafarroako Foru Komunitateak arautu behar dituen pertsona juridikoetan, Nafarroan egoitza izateak zehaztuko du Nafarroako forudun izatea, eta pertsona horiek Nafarroako Zuzenbidearen pean egon beharko dute.

13. LEGEA

Forudun-izaeraren ondorioak. Pertsona forudunen egintzek ez dute baliozkotasunik galduko, gero pertsona horiek beste zuzenbide baten menpe geratu arren; baina egintzen ondorioak beste ordenamendu horren eskakizunei egokitu beharko zaizkie.

Izaera-aldaketak. Era berean, egintza baliodunak gauzatu eta gero, horien egileek forudunaren izaera eskuratzen badute, orduan, egintzok ondorioak sortuko dituzte Nafarroako zuzenbidearekin bat etorriz, nahiz eta egintza gauzatzeko bete den ordenamendua Nafarroakoaz bestelakoa izan.

14. LEGEA

Eskubideen erabileraren mugak. Eskubideak askatasunez erabil daitezke, eta erabilera horren mugapen bakarrak dira eskubidearen izaerak, legeak, moralak, onustak eta beste pertsona batzuek kalterik gabe gauzak erabiltzeak dakartzatenak, eta eskubide-abusurik edo horren gizar-tearen aurkako erabilerarik egin gabe.

15. LEGEA

Eskubideak iruzurrez erabiltzea. Egintzak gauzatu badira hirugarren baten eskubidea bidegabe baztertzeko asmoarekin, egintza horiek aurkara daitezke, eta, aldi berean, zein eskubideri iruzur egin nahi, eskubide hori erabil daiteke.

16. LEGEA

Eskubideak azkentzea ez erabiltzeagatik. Eskubideak azken daiteke ez erabiltzeagatik, horrela hitzartzen denean edo legeak aurreikusitako kasuetan.

17. LEGEA

Burutze formala. Borondatea adierazteko forma edozein izanda ere, aitoren hori baliozkoa

eta zuzenbidearen arabera da, berorrek erakarritako eskubideak erabiltzeko.

Dena den, legeak ez badu forma zehatzik ezartzen egintza edo kontratu jakin batzuetarako, baina forma hori espresuki hitzartu bada, egintza edo kontratu horiek ez dira burututzat joko, forma hori betetzen ez bada. Egintza bati forma zehatza eman ohi bazaio, uste izanen da alderdiek egintzaren burutzapena jarri nahi izan dutela forma hori betetzearen menpe.

Nafarroako lege zibilararen aginduz forma jakina bete behar den kasuetan, hori solemnetzat hartuko da.

18. LEGEA

Isiltasuna edo ez-egitea. Isiltasuna edo ez-egitea ez dira borondate-adierazpentzat hartuko, salbu eta alderdiek horrela hitzartu dutenean, legeak ezartzen duenean edo usadioen arabera hori horrela interpretatu behar denean.

19. LEGEA

Borondate-adierazpenen deuseztasuna, deuseztagarritasuna eta hutsaltzea. 47. legean xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, deusezak dira ulertzeko eta nahi izateko gaitasun naturalik ez dutenak egindako borondate-adierazpenak, bai eta helburu ezinezkoa edo moralaren aurkakoa dutenak eta lege debekaturik daudenak ere. Halaber, deusezak dira epaian ezarritako debekuak urratuta, gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen egindakoak.

Deuseztagarriak dira adingabe emantzipatugabeek egindako adierazpenak, non eta horiek egiteko unean egiaztatzen ez den burutik zeharo eginda zeudenik; izan ere, kasu horretan, erabat deusezak izanen dira. Era berean, deuseztagarriak dira behar bezalako laguntzarik ez duten pertsona emantzipatuek egindako borondate-adierazpenak, laguntza hori beharrezkoa bada 48. legean xedatutakoaren arabera. Halaber, deuseztagarriak izanen dira gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen egindakoak, epaian ezarritako gaitasunaren osagarririk gabe jarduten dutenean.

Hutsalkorrak dira borondate-adierazpenak, legeak hala xedatzen duenean.

20. LEGEA

Borondate-akatsak. Deuseztagarriak dira okerraren, doloaren nahiz indarkeria fisiko edo moral larriaren eraginez akastun diren adierazpenak; baina ezin izanen da alegatu egiteko edo zuzenbideko oker barkaezina.

21. LEGEA

Bidegabeko eragina. Deuseztagarriak dira, egilelea bere mendean izanda, bestela izanen ez lukeen abantaila berarentzat edo beste batzuentzat lortzeari begira egoera hori aprobetxatzen duenaren alde egindako borondate-adierazpenak.

Eragin-abusua. Era berean, deuseztagarriak dira, beragan jarritako konfiantza edo adierazpenegilearen ahuleria mentala edo larritasuna aprobetxatuta, onura lortzen duen pertsonaren eragin-abusuaz egindakoak.

22. LEGEA

Itxura egitea. Egintzek sortzen dituzte alderdiek agertutako adierazpenei dagozkien ondorioak; baina, horiek itxurazkoak badira, baliozkoa izanen da alderdiek benetan egin nahi izan duten hori bakarrik, baldin eta zilegi bada eta horretara biltzen badira legeak ezarritako betekizun formal guztiak.

Itxurazko adierazpenaren deuseztasuna ezin da alegatu hirugarren onustedunen aurka.

23. LEGEA

Preskripzioa. Berez edo legearen adierazpenaren bidez preskribaezinak ez diren akzio guztiak kapitulu honetan edo akzioak arautzen dituzten gainerako legeetan ezartzen diren epeen buruan preskribatuko dira.

Akzioak egikaritzeko ezartzen diren epeak preskripziokotzat jotzen dira.

Legezko xedapen berezirik izan ezean, preskripzio-epeak zenbatuko dira titularrak hori oinarritzen duten arrazoiak zein diren eta noren aurka egin behar den dakienetik edo arrazoizko moduan jakin ahal izan duenetik, akzioak egikaritzeko aukera dagoenetik, jakina.

Preskriba daitekeen edozein asmo sortu denetik hogeita hamar urteko epean azkentzen da beti, kontuan hartu gabe preskripzioa eteteko edo geldiarazteko kausarik egon den.

24. LEGEA

Ukoa. Deuseza izanen da preskripzioaren uko aurreratua edo mugagabea dakarren edozein itun.

Burututako preskripzioaren ukoak ez ditu hirugarrenen eskubideak kaltetuko, ezta akzioaren preskripzioa erabili nahi dutenenak ere, nahiz eta uko egileari lotuta egon elkartasun lotura baten bidez.

25. LEGEA

Zerbitzu eta hornidurak egitea. Profesionalak zerbitzuak egiteagatik eta merkatariak merkatari ez den inori merkatu-gaiak edo animaliak saltzeagatik zorrak sortzen badira, orduan, bost urte igarotakoan preskribatuko dira zor horiek ordaintzea galdatzeko akzioak, betiere zerbitzua egin denetik edo gauza eman denetik zenbatuta. Zorra agiri batean agerrarazi bada, akzioa hamar urteko epean preskribatuko da; zerbitzua egin denetik edo gauza eman denetik hasita zenbatuko da epe hori, agirian bestelakoa ezartzen denean izan ezik.

26. LEGEA

Maileguak. Interesdun maileguetan, bost urte igarotakoan preskribatuko da kapitala erreklamatzeko akzio pertsonala, eta interesak erreklamatzeko akzioa, berriz, urtebete igarotakoan. Mailegua interesik gabekoa denean, 35. legean xedaturikoa aplikatuko da.

Kapitala data zehatz batetik aurrera galda badaiteke, hori erreklamatzeko akzioaren preskripzio-epea data horretan hasiko da. Bestela, 532. legeko bigarren paragrafoan xedaturikoa bete beharko da. Interesei dagokienez, horiek muga-eguneratu eta ordaindu ez direnetik aurrera zenbatuko da epea.

27. LEGEA

Akzio hipotekarioa. Akzio hipotekarioa hogeitau urte igarotakoan preskribatzen da.

28. LEGEA

Betearazpen-tituluak. Epaietako tituluetan, edo betearazpena dakarten epaietatik kanpoko tituluetan, betearazpen-akzioa

bost urte igarotakoan preskribatzen da. Akzio arruntak indarrean dirau 35. legeak ezarritako epean zehar.

29. LEGEA

Zentsuak. Zentsu pentsioa erreklamatzeko akzioa bost urte igarotakoan preskribatzen da.

Preskripzio-epea hura ordaintzeko eska daitekeen unetik zenbatuko da. Zentsua preskripzio bidez azkentzen da, zentsu-emailak pentsioa erreklamatu gabe hamar urte igarotakoan.

30. LEGEA

Lesioaren ondoriozko hutsaltzea. Lesio oso handiaren ondoriozko hutsalketa-akzioa bost urte igarotakoan preskribatzen da, eta lesio oso-oso handiaren ondoriozkoa, berriz, hamar urte igarotakoan.

Preskripzio-epea kontratua burutzen den unetik zenbatuko da.

31. LEGEA

Hutsaltzea eta aurkaratzea. Aurreko legera biltzen ez diren hutsalketa-akzioak eta egintza deuseztagarriak aurkaratzekoak lau urte igarotakoan preskribatzen dira.

Hutsalketa-akzioen preskripzio-epea kontratua burutzen den unetik zenbatuko da, eta egintza deuseztagarriak aurkaratzeko akzioena, berriz, indarkeria edo larderia amaitu denetik edo adostasun akastuna eman duenak akatsaren edo doloaren berri duenetik. Gainerako ekintza deuseztagarriei dagokienez, 23. legean ezarritakoa beteko da.

32. LEGEA

Saneamendua. Tratua hausteko akzioa eta "quantum minoris" akzioa urtebete igarotakoan preskribatzen dira.

Preskripzio-epea saldutako gauza benetan ematen denetik zenbatu beharko da.

33. LEGEA

Edukitza-akzioak. Edukitza atxiki edo berreskuratzeko akzioa urtebete igarotakoan preskribatzen da.

Preskripzio-epea nahasmendua hasten denetik edo edukitzea kentzen denetik hasiko da zenbatzen.

34. LEGEA

Preskripzioari buruzko beste lege batzuetara igortzea. Hurrengo akzioak lege hauetan ezarritako epeetan preskribatzen dira:

1. Ezkontide batek edo horren jaraunsleek beste ezkontideak, haren onespenera behar izanda ere, hori izan gabe egindako egintzen aurkaratze-akzioa, 79. legeko azken ataleko lehen paragrafoan xedatutakoarekin bat etorritik.

2. Jarauntsia eskatzeko akzioa, 324. legeak ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Atzera-eskuratzeko itunarekin egindako salmentetan, atzera-eskuratzeko akzioa, 480. legearekin bat etorritik.

4. Kontratuz kanpoko erruaren ondoriozko erantzukizuna galdatzeko akzioa, 507. legean xedaturikoarekin bat etorritik.

5. Epe mugagabeko grazia-agiriaren ondoriozko akzioa, 582. legeak xedatutakoarekin bat etorritik.

35. LEGEA

Preskripzio orokorra. a) Akzio pertsonalak. Akzio pertsonalen inguruan ez bada bestelako epe berezirik ezarri, akziook bost urte igarotakoan preskribatzen dira; horretan ez da kontuan hartuko kasuan-kasuan eratutako berme errealek zein preskripzio-epe duen.

Epe orokorra aplikatuko da, baldin eta epe berezi bat ezarrita duen akzioa egikaritzeko baldintza guztiak betetzen ez badira.

b) Akzio errealek. Akzio errealeen inguruan ez bada epe berezirik ezarri, horiek usukapioaren ondorioz bakarrik preskribatzen dira, usukapioa akzio errealekin bateraezina den neurrian.

Bataezintasuna usukapiorik hartu ezin den eskubide erreal bati lotuta agertzen bada eta akzio errealek berariazko eperik zehaztuta ez badu, preskripzio-epea bost urtekoa izanen da.

36. LEGEA

Preskripzioa geldiaraztea. Preskripzioa geldiarazten dute demanda aurkezteak, adiskidetzeko eskaera bat aurkezteak, arbitraje prozedura hasteak, auzibidetik kanpoko erreklamazioak eta esku-bidearen edo betebeharraren berariazko onarpenak edo onarpen inplizituak.

Etetea. Preskripzio-epeen zenbaketa eten egingo da honako kasu hauetan:

1. Doako laguntza juridikoa eskuratzeko eskaera bat aurkeztearen ondorioz eta abokatua behin betiko izendatu arte.

2. Aurretiko eginbideak edo prestatzeko antzeko beste egintza batzuk, erlazio juridiko-prozesala behar bezala eratzeko ezinbestekoak direnak, bideratzen diren bitartean.

3. Aurreko erreklamazio administratiboak tramitatzen diren bitartean, nahitaezkoak baldin badira.

4. Adingabeen edo gaitasuna judizialki aldatua duten pertsonen uzietan, legeko ordezkariak edo gaitasuna osatzeko laguntzarik ez badute.

5. Bitartekaritza-prozesu bat hasi dela modu formalean agertzeagatik.

6. Jaraunsle ezagunik ez duten jaraunspen-ondare bati dagozkion uzietan, defendatzaile judizialik izendatu ez bada.

7. Ezinbesteko arrazoiengatik.

37. LEGEA

Akzio preskribaezinak. Preskribaezinak dira:

1. Egoera zibilari buruzko akzioak, horiek egikaritzeko eperik ezarri ez denean.

2. Jaraunsle-izaera deklaratzeko akzioak.

3. Jabaria deklaratzeko akzio hutsa.

4. Erkidegoko kide eta jaraunskideei dagozkien zatiketa-akzioak eta mugaketa-akzioak, betiere, ukitutako ondasunen gaineko eskuratzeko preskripzioari kalterik egin gabe.

5. Egintza edo kontratu baten erabateko deuseztasunaren akzioak.

6. Dokumentu pribatuan egiletsi den kontratu bat agiri publikoan jasotzeko hartutako betebeharra betetzeko helburua dutenak.

38. LEGEA

Iraungitzearen mendeko akzioak. Hurrengo akzioak jarraian adierazten diren legeetan aipatutako epeetan iraungitzen dira:

1. Seme-alabatasunaren aitortpena errefusaztea eta haren kontrako aurkaratze- eta adierazpen-akzioak, 54., 56. eta 57. legeetan xedatutakoaren arabera.

2. Kontu-ematea eta kalte-galeren ordaina eskatzeko akzioak, eta seme-alaben ondasunak administratzeagatik gurasoei kalte-galeren ordainketa ematea, 66. legean xedatutakoaren arabera.

3. Ezkontide ez-zordunak honako hau eskatzeko akzioak: beste ezkontideak konkista-sozietatearen ondasun erkideen gainean dituen zorren-gatik enbargoaren orde, zordunari sozietate horretan dagokion zatiaren enbargoa egitea, 93. legean xedatutakoaren arabera.

4. Dohaintzak errebokatzeak akzioak, 163. legeko azken paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz.

5. Atzeraeskuratzeko akzioak, 383., 390., 392., 446., 451. eta 458. legeetan xedatutakoaren arabera.

39. LEGEA

Epeen kontaketa. Hilabeteka edo urteka ezarritako iraungitze-epeak datatik datara kontatu behar dira.

40. LEGEA

Ofizios balaratzea. Auzitegiek ofizios balaratu ahal izanen dute iraungitzea, horrek ukitzen dituen alderdiei entzutea eman ondoren.

41. LEGEA

Etetea. Behin hasita, iraungitze-epeak ezin dira geldiarazi, baina eten beharko dira, konpilazio honen beste lege batzuetan berariaz jasotako

kasuetan ez ezik, 36. legeko bigarren paragrafoan preskripzio-epeetarako ezarritako kasu berdinetan ere.

42. LEGEA

Fundazioak. Interes orokorreko xedeetarako diren fundazioek horiek arautzen dituen lege berezian xedatutakoaren arabera eratu beharko dute, eta nortasun juridikoa eskuratuko dute, eraketa-egintza dagokion Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik.

Beste pertsona juridiko batzuk. Zenbait erakundek nortasun juridikoa dute, legeek hori aitortzen dutelako; horiez gain, halako nortasuna dute konpilazio honek aitortuta:

1. Santutegi, ermita, kofradia eta horien antzeko erakundeen batzarrek edo "mere legos" patronatuek, ezertan eragotzi gabe zuzenbide kanonikoak horiei ematen dien izaera.

2. Hurrengo legeak aipatzen dituen irabazi-asmorik gabeko interes pribatuko xedeei lotutako ondareak.

43. LEGEA

Interes pribatuko xedeei lotutako ondareak. a) Xedea. Inter vivos edo mortis causa egintzen bitartez, edozein pertsonak berezko nortasun juridikoa eman ahal izanzen dio edozein motatako ondasunek eta eskubideek osatzen duten ondareari, eta hori jarri interes sozial, humanitario edo kulturalerako xede pribatu batzuk edo izaera solidarioko eta irabazi-asmorik gabeko beste edozein betetzearen baldintzapean.

Ondareari nortasun juridikoa esleitzeko eta inter vivos egintzaren bidez xede horiei lotzeko, eskritura publikoa egin beharko da; horrela eratzen den pertsona juridikoaren zuzendaritza organoaren izendapena, berritzea, funtzionamendua eta eskudantziak zehaztu beharko dira bertan.

Mortis causa egintzaren bidez eratuz gero, eratzailak bere kabuz antola ditzake estatutuak edo, bestela, horien antolaketa, osorik edo zati batez, lehenengo zuzendaritza organoaren edo beste inoren ardurapean utz dezake. Era berean, eratzailak ondasunez edo eskubidez zuzki dezake, dela eraketa-egintzan bertan, dela egintza berezian, dela ondasunak edo eskubideak esleitzeko ardura beste pertsona batzuei eskuordetuz, titulu unibertsalaren nahiz banakako tituluaren bidez.

b) Araubidea. Eratzailaren borondateak arautuko ditu horrela eratzen diren pertsona juridikoak; borondate hori eraketa-egintzan bertan eta estatutuetan adierazi behar da; eta, konpilazio honetako II. liburuan jasotako xedapenak erabiliko dira,

borondate horrek arautzen ez dituen kontuak ordeztuko eta horren interpretazioa integratzeko.

c) Zuzendaritza organoaren ahalmenak. Estatutuetan bestelakorik xedatu ezean, zuzendaritza organoari dagozkio, bete-betean eta inolako mugapenik gabe, ondoko ahalmenak:

1. Zuzkiduraren ondarea administratu eta xedatzekoak.

2. Eratzailaren borondatea interpretatzekoak.

3. Ondasunekin inbertsioak egin, horiek diru bihurtu, eraldatu edo gordailupean jartzekoak, bai eta ondasunak eraketa-egintzan zehaztutako xedeetarako erabiltzekoa ere.

4. Aurrekontuak egin, eta bere kabuz eta eragingarritasun osoz kontuak onestekoak.

Borondate pribatuaren bidez eta interes pribatuko xedeetarako sortutako pertsona juridikoak direnez, eratzailak administrazioaren esku-hartzetik

kanpo utz ditzake horiek. Dena den, norbaitek hala eskatuz gero, Fiskaltzak kudeaketa ikuska dezake, eta akzio egokiak eragin eta egikari ditzake.

d) Lehengoratzea. Eraketa-egintzak edo estatutuek ondasunen lehengoratzea ezar dezakete, eratzailaren jaraunsle edo pertsona jakin batzuen mesederako, pertsona horiek eratzailaren ahaide izan zein ez, betiere, 224. legean ezarritako mugarekin.

e) Azkentzea. Lege honen arabera eratutako pertsona juridiko bat azkentzen denean, ez bada go zehazturik zein xede izan behar duten horren ondasunek, Nafarroako Foru Komunitateak eskuratuko ditu ondasunok, eta horiek erabiliko ditu interes sozialeko edo orokorreko xedeetarako.

44. LEGEA

Ondare babestuak. a) Kontzeptua eta ezaugarriak. Ondare bereziki babestuak eratu ahal izanzen dira desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzat, baldin eta pertsona horiek familia-erki-degoaren edo -taldearen kide badira, elkarrekin bizi ez badira ere. Horretarako, ondasun eta eskubideen doako titulua eman beharko zaio haien ondareari, eta, alde batetik, tituluaren lotura eta, beste aldetik, haien beharrak diruz laguntzeko etekinen erabilera zehazteko behar diren neurriak ezarri, ezertan eragotzi gabe arau orokorretan edo berezietan haien ondare babesari buruz ezarritakoa.

Eraketa-egintzan xedatutakoak arautuko ditu ondare horiek, eta egintza horrek ez dio inolako

titulartasunik edo eskubide errealik emanen onuradunari. Ondareak ez du erantzukizunik izanen hori eratu ondoren sortzen diren, haren xedeaz bestelakoak diren eta onuradunarenak, eratzaillearenak edo ekarpenak egin dituzten gaineko pertsonenak izan daitezkeen betebeharren gainean.

b) Eraketa. Ondare babestuak eratu ahal izanen dituzte, horren onuraduna den eta, desgaitasuna edo mendekotasuna izanda, horretarako nahikoa gaitasun duen pertsonak berak edo haren legezko ordezkariak, baita, horien adostasuna izanda, pertsona hori kide duen familia-erkidegoaren edo -taldearen edozein kide ere, izaera edo errentagarritasuna kontuan hartuta onuradunaren funtsezko bizi-beharrak asetzeko balio duten ondasunak eta eskubideak ekarrita.

Notario aurrean egiletsitako eskritura publiko edo testamentu baten bidez eratu ahal izanen da, eta agiri horietan honako hauek adierazi beharko dira, beste xedapen batzuk ezertan eragotzi gabe:

1. Ondarearen izendapena, izen-abizenen bidez identifikatzen diren onuradunei dagokienez.
2. Eratzaillearen identifikazioa eta borondatea.
3. Ondasun eta eskubideen hasierako inbentarioa.
4. Ondarearen administrazioa edo administrazio horren kontrol-neurriak arautu behar dituzten arauak ezartzea, eta arauok egikaritu behar dituzten pertsonak izendatzea.

5. Likidatu ondoren soberakinari eman beharreko erabilera zehaztea; horrek ondasunen lehengoratzeari eza eratzaillearen jaraunsele edo pertsona jakin batzuen mesederako, pertsona horiek eratzaillearen ahaide izan zein ez, betiere, 224. legean ezarritako mugarekin.

45. LEGEA

c) Administrazioa. Eratze-eskrituran administratzaile izendatutako pertsonak beren kudeaketa gauzatu beharko dute horretan ezarritakoaren arabera eta ondasunak beren produktibitateari eusteko edo hori areagotzeko moduan gordetzeko behar den arretaz.

Betebeharrak hartu ahal izanen ditu ondarearen kontura, eta bere interesak defendatzeko legitimazio prozesala izanen du.

Haren eratze-eskrituran ezarrita ez dagoenerako, tutoretzari buruzko arauak aplikatuko dira.

d) Kontuen kontrola eta kontu-ematea. Eratze-eskrituran ezarritako kontrol neurriak ezertan eragotzi gabe, administrazioarako izendatutako

pertsonak urtero eman behar dituzte kontuak eskrituran izendatutako pertsonaren aurrean, baita onuradunaren edo haren legezko ordezkarien aurrean ere.

e) Azkentzea eta likidazioa. Babestutako ondarea azkenduko da onuradunaren heriotzarengatik edo heriotza-aitorpenarengatik edo hori eratzeko oinarri hartu zen izaera galtzeagatik eta, hala denean, eraketan ezarri den epea amaitzeagatik edo baldintza suntsiarazlea betetzeagatik.

Ondarea azkentzeak berekin ekarriko du ondare hori administratzailearen kontura likidatzea, haren eratze-tituluan eginkizun hori duen beste pertsona bat izendatu ezean; horrela bada, pertsona horrek likidazioan ezarri den helbururako erabili beharko du soberakina.

Ondasunen xedea eratzaillearen jaraunsele i-tzultzea ezarri bada eta horrelakorik ez badago, Nafarroako Foru Komunitateak eskuratu, eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak babesteko helburuetarako aplikatuko ditu.

46. LEGEA

Nortasunik gabeko sozietate eta elkarteak. Sozietate edo izaera zibileko beste elkarte batzuek, horiei nortasuna aitortu ez bazaie ere, zuzenbideko subjektu gisa jardun dezakete, pertsona jakin batzuen bitartez, horiei esanbidez edo isilbidez ordezkariak eman dien neurrian.

Subjektu kolektibo horiek eskubideak eskuratzeko badituzte, eskubide horien titulartasuna kide guztiei batera dagokiela ulertuko da, eta kideon ahobatekotasuna nahitaezkoa izanen da halako eskubideak xedatzeko, ezertan eragotzi gabe alderdien arteko barneko harremanak.

Subjektu kolektibo horiek betebeharrak hartzen badituzte, betebeharron gain subjektuon kide guztiek izanen dute erantzukizun solidarioa eta pertsonala.

47. LEGEA

Gaitasuna. Gaitasun osoa adin nagusitasunarekin eskuratzen da, hemezortzi urte betetakoan.

Adingabeak. Adingabeek gaitasuna dute beren buruari atxikita dauden eta, haien heldutasunaren arabera, berez egikari ditzaketen eskubideei buruzko egintza guztiak gauzatzeko, legeek berez edo legezko ordezkarien laguntzaz egiten uzten dieten egintza eta kontratuak gauzatzeko eta usadio sozialen arabera haren adinarekin bat datozen ondasun eta zerbitzu arruntei buruzkoak gauzatzeko.

Prestazio pertsonalak egitera behartzen dituzten kontratuak egiteko, aldez aurretik adostasuna adierazi beharko dute, aski helduak badira eta betiere 12 urtetik gorakoak badira, eta kasu horietan ere entzunaldia eman beharko zaie horiek ukitzen dituzten beste egintza edo kontratu batzuetarako.

Adingabeen jarduteko gaitasunaren mugak modu murriztailean eta haien intereserako interpretatuko dira beti.

14 urtetik gorako adingabeak. Legeen arabera egin ditzaketen egintza guztiak ezertan eragotzi gabe, 14 urtetik gorako adingabeek gaitasuna izanen dute konpilazio honetan zehazturiko egintzak gauzatzeko.

Gainera, euren kabuz onar ditzakete orotariko eskuzabaltasunak, horiekin ez badute inolako betebeharririk hartzen, nahiz eta eskuzabaltasunaren xede diren ondasunen gainean mugapen edo debekuak izan.

16 urtetik gorako adingabeak. 16 urtetik gorako adingabe emantzipatugabeek beren kostugabeko jardueraren bidez eskuratu dituzten ondasunen administrazio arrunterako egintzak gauzatu ditzakete.

Halaber, agiri publiko baten bidez onar ditzakete 66. legeko bigarren atalak gurasoei buruz aipatzen dituen xedatze-egintzak; kasu horretan, ez da epailearen baimenik beharko.

48. LEGEA

Emantzipazioa. Emantzipazioa gertatuko da guraso erantzukizuna gauzatzen dutenek eta epaileak onartzearen ondorioz.

Lehen kasuan beharrezkoa da adingabeak 16 urteak beteak izatea, emantzipazioa onartzea eta eskritura publikoan edo Erregistro Zibilararen arduradunaren aurrean ematea.

Epaileak emantzipazioa eman diezaieke, guraso erantzukizunaren pean egonda, hori eskatzen duten 16 urtetik gorako adingabeei, aurretik gurasoei entzunaldia emanda, eta honako kasu hauek:

1. Gurasoak bereizita bizi badira.
2. Guraso erantzukizuna gauzatzen duena berriro ezkontzen bada, bikote egonkorra osatzen badu edo ezkonduen gisa bizi bada beste gurasoa ez den batekin.
3. Guraso erantzukizuna gauzatzea larriki eragozten duen beste edozein arrazoi badago.

Era berean, tutoretzapean egonda, hori eskatzen duten 16 urtetik gorakoei ere eman ahal izanen zaie, Fiskaltzak txostena egin ondoren.

Ondorio guztietarako, emantzipatutzat joko da gurasoen adostasunarekin beregain bizi den 16 urtetik gorako adingabea, ezertan eragotzi gabe gurasoek adostasun hori ezeztatzea adingabearen interes handienean oinarrituta.

Emandako emantzipazioak ez du ondoriorik sortuko hirugarrenen aurrean, Erregistro Zibilean inskribatu arte.

Adingabe emantzipatuaren gaitasuna. Adingabe emantzipatuak bere kabuz gauza ditzake orotariko egintza edo kontratuak, bai eta epailetan agertu ere, baina ezin du dirua maileguan hartu, ezta abalatu edo fidantzatu, ondasun higiezinak, merkataritza nahiz industriako establezimenduak, horien oinarritzko osagaiak eta aparteko baliodun objektuak besterendu edo kargatu ere; egintza horiek gauzatzeko, eta ondasun horiei buruzko epailetan edo mota horietako ondasunen gaineko epailetan agertzeko, gurasoetatik edozeinen laguntza beharko du edo, horiek ez badaude, haren legezko ordezkariarena.

49. LEGEA

Ordezkaritza. Pertsona gai orok ahalduaren bidez bete ahal ditu berak bere kabuz bete ahal izanen lituzkeen egintza guztiak, eta konpilazio honetan ezarritako mugapenak baino ez ditu izan.

Errebokagarritasuna. Ahalmen-emaileak askatasunez erreboka dezake ordezkaritza-ahalordea, salbu eta ahalordea izaera errebokaezinez eta berariaz eman denean ahalduaren interes legitimoaren ondorioz, edota, ahalduaren eta ahalmen-emailearen artean kontratu-harremana izanik, harreman horrek errebokaezintasuna justifikatzen duenean.

Ahalordea, hauek aurreikusten direnerako: gaitasunaren aldaketa edo galera, edo gaitasun juridikoa behar bezala egikaritzeko laguntza neurrien beharra. Halaber, pertsona gai orok ahalordeak eman ditzake eskritura publiko batean; ahalorde horien indarraldia hasi eta garatuko da, epaileak haren gaitasuna aldatzearen ondorioz, berez jarduteko ezindua dagoen edo horretarako laguntza behar duenean, eta zirkunstantzia horiek aurreikusten direnean.

Ahalmen-emaileak zehaztutako ondare hedapen pertsonala izan dezakete, edozein laguntza eta kontrol neurri ezarri, eta horiek gauzatuko dituzten pertsonak izendatu.

Ahalmen-emailearen ezkontidearen edo bikotekide egonkoraren alde emandako ahalordea automatikoki azkenduko da elkarrekin bizitzeari uzten dioten unean, ahalmen-emaileak aurkako xedapena eman ezean edo haren egoera ikusita hori irautea justifikatzen duen arrazoirik egon ezean.

Ahalmen-emailearen gaitasuna aldatuta, hori zehazten duen epai-ebazpenak ahalordean zehaztutako neurriak ez direnak hartu ahal izanen ditu bakarrik, modu arrazoituari eta haren interesak babesteko beharrezkoa bada.

50. LEGEA

Familia. Familiak Nafarroako ordenamendu zibilarren babes juridikoa du, zeinak babesten baititu ezkontzaren, bikote harremanaren, seme-alabatasunaren eta guraso bakarrak eta haren ondorengoek osatutako taldearen ondoriozko familia-harremanak.

Familia berrosatuetakoa kideak dira familia-talde berean bizi diren guraso bakoitzaren seme-alabak, baina horien kideak izateak ez du beste gurasoarekiko lotura aldatzen, eta ordenamendu juridikoak zehazten dituen ondorioak egonera dira.

Inor ezin da diskriminatu haren familia-taldegatik.

51. LEGEA

Motak. Seme-alabatasuna naturala (laguntza bidezko ugalketa barne) eta adopzio bidezkoa izan daiteke.

Seme-alabatasun guztiek ondorio juridiko berberak dituzte.

52. LEGEA

Seme-alabatasunaren edukia eta ondorioak. Aitatasun edo amatasunak, behar bezala zehaztuz gero, guraso erantzukizuna eratxikitzen die gurasoei, 64. legearekin eta hurrengoekin bat etorritik; seme edo alabari, abizenak, Erregistro Zibilar buruzko legeriarekin bat etorritik; eta horiei guztiei, konpilazio honetan aitoritutako eskubide eta egin-beharrak.

Arestikoa gorabehera, ondoko legeek berariaz aurreikusten dituzten kasuek aipatzen dituzten ebazpenetan, epaileak zilegi izanen du arrazoiturik xedatzea ezen seme-alabatasunaren eraginak harreman horren deklaratzeko hutsezkoak izanen direla, edo eragin horien norainokoa murriztea.

Aitatasuna edo amatasuna epaiketa bidez gurasoaren errefusatzeko funsgabearen aurka zehaztu bada, edota guraso hori kondenatzen duen epai penalaren bidez, orduan, guraso horrek

ez du izanen guraso erantzukizunik edo seme nahiz alabaren gaineko bestelako babes-eginkizunik, ezta lege-aginduzko eskubiderik ere, haren ondorearen gain edota haren mortis causa oinordetzaren gain. Eta seme edo alabari gurasoaren abizenak jarriko zaizkio, seme edo alabaren beraren edo horren legezko ordezkariaren borondatez bakarrik.

Guraso bakoitzak, nahiz eta guraso erantzukizunaren titular izan ez edo horren egikaritzak eduki ez, euren seme-alaba adingabeak edo gaitasuna judizialki aldatua dutenak jagoteko betebeharra dute, bai eta horiei mantenua ematekoa ere.

53. LEGEA

Seme-alabatasun naturala zehaztea. Seme-alabatasun naturala honako xedapen hauen arabera zehaztuko da:

b) Ezkontzako seme-alabatasuna. Ezkontzako seme edo alabatza hartzen dira:

1. Ezkontza egin denetik ehun eta laurogei egun igaro ondoren, eta ezkontza hori desegin denetik edo ezkontideak benetan banandu direnetik hirurehun egun igaro baino lehen jaio direnak.

2. Ezkontza egin, eta hurrengo ehun eta laurogei egunetan jaio direnak, senarrak ez badio aitasunari ukorik egin agiri kautoan formalizaturiko adierazpenaren bidez, erditzearen berri izan zutenetik sei hilabeteko epean. Senarrak ezin dio aitasunari uko eragingarriarik egin, baldin eta aldezturik aitatasun hori espresuki edo isilbidez aitortu badu.

3. Ezkontza desegin denetik edo ezkontideak benetan banandu direnetik hurrengo hirurehun egunetan jaio direnak, frogatzen baldin bada ernaldia ohikoa baino luzeagoa izan dela, banandutako ezkontideak berriro batu direla edota horiek ezkontzako seme edo alaba gisa inskribatzeko adostasuna eman dutela.

b) Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna. Erregistro Zibilar buruzko legerian xedaturikoa ezertan eragotzi gabe, ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna guraso bakoitzarentzat zehazten da, horrek egindako aitortpenaren bidez edo epai irmoaren bitartez.

c) Ezkontzaren aurreko seme-alabatasuna. Gurasoen ezkontzaren aurretik jaiotako semea edo alaba ezkontzako seme edo alabatza hartuko da gurasoak ezkondu direnetik, horren seme-alabatasuna, bi gurasoei begira, lege zehaztu bada.

d) Laguntza bidezko ugalketaren ondoriozko seme-alabatasuna. Foru lege berezi batek hori arautzea ezertan eragotzi gabe, amaren laguntza

bidezko ugalketaren ondoriozko seme-alabatasuna zehazteko, lege orokorretan xedatutakoaren arabera jardunen da.

e) Xedapen erkidea. Seme-alabatasunaren zehaztapena ez da eragingarria izanen, aldez aurretik ezarrita dagoen eta horren aurkakoa den beste seme-alabatasun bat balio gabetzen ez den bitartean.

54. LEGEA

Aitorpena. A) Modua. Aitorpena egin beharko da Erregistro Zibilararen arduradunari egindako adierazpenaren bidez edota beste agiri publiko baten bidez.

Gurasoek biek batera edo bananduta aitor dezakete seme-alabatasuna. Bananduta eginez gero, aitorpen horretan ezin izanen dute adierazi beste gurasoa nor den, salbu eta nortasun hori aldez aurretik zehaztuta dagoenean.

b) Gaitasuna. Aitorpena 14 urte baino gehiagoko pertsona orok egin dezake. Emantzipatu gabeko adingabea bada edo gaitasuna judizialki aldatuta badauka, beharrezkoa izanen da epailearen onespena, Fiskaltzari entzunaldia eman ondoren.

c) Baldintzak. Adindunaren edo adingabe emantzipatuaren aitorpenak haren berariazko edo isilbidezko adostasuna izan beharko du.

Emantzipatu gabeko adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatua duen pertsonaren aitorpena Erregistro Zibilean inskribatu ahal izanen da, ezertan galarazi gabe haren legezko ordezkariak duen errefusatzeari adieraztea, hurrengo apartatuan ezarritakoari jarraikiz eta pertsona aitortuaren interes gailenean oinarrituz.

Ama adingabe emantzipatuak edo gaitasuna judizialki aldatua duenak aurkaritza gauzatzen duenean, defendatzaile judizial bat izendatuko da horretarako, ezertan eragotzi gabe Fiskaltzak zuzenean egitea.

Halaber, aitortu ahal izanen da jadanik zendutako seme edo alaba bat, baldin eta ondorengo ahaideak utzi baditu. Horiek adindunak edo adingabe emantzipatuak baldin badira, aitorpenak haien berariazko edo isilbidezko adostasuna izan beharko du. Emantzipatu gabeko adingabeak badira, edo gaitasuna judizialki aldatua badute, aitorpena inskribatzeko modukoa izanen da, baina halaber zilegi izanen da haien legezko ordezkariak errefusatzeari adieraztea, haien interes gailenean oinarriturik.

d) Aitorpena errefusatzeari. Errefusatzeari formalizatu beharko da aitorpena jakinarazi zenetik urtebeteko epean; jarraitu beharko dituen izapideak

Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legeak ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeko ezartzen dituenak dira, eta baietsi eginen da aitorturiko pertsonaren edo haren ondorengo ahaideen interesaren aurkakoa denean.

55. LEGEA

Seme-alabatasunari buruzko akzioak. Xedapen orokorrak. Aitatasuna eta amatasuna erreklamatu eta aurkaratu ahal izanen dira mota guztietako frogabideak erabiliz, konpilazio honetako xedapenei jarraiturik. Epaileak ez du demanda onartuko, horrekin batera ez bada aurkezten demanda oinarritzen den egitatei buruzko frogahasikinik.

Ezin da seme-alabatasunik erreklamatu lege zehaztuarekin kontraesanean dagoenik, aldi berean bigarren hori aurkaratzen ez bada. Konpilazio honek deklaratzeko-akzioa egikaritzeko legitimazioa aitortzen dien pertsonen halaber izanen dute legitimazioa, eta epe berean, kontraesanean dagoen seme-alabatasuna aurkaratzeko; are aurkaratzeko-akzioa modu beregainean egikaritzeko legitimaziorik ez dutenean ere.

Epaia irmoz ezarritako seme-alabatasuna ez da ezin kasutan aurkaratzen ahal.

Prozeduran zehar, epaileak egoki deritzen neurri guztiak hartuko ditu adingabe emantzipatugabea edo gaitasuna judizialki aldatua duena babesteko, pertsona horren seme-alabatasuna demandaren xede denean; bai eta haren ondasunak babesteko ere.

Pertsona horien legezko ordezkariak edo Fiskaltzak egikari ditzakete, batakas nahiz besteak, pertsona horiei dagozkien akzioak.

Demandatzailea hildakoan, horren jaraunsleek zilegi izanen dute jadanik abiatuta dauden akzioak egikaritzen jarraitzea.

56. LEGEA

Aurkaratzeko-akzioak. Ezertan galarazi gabe Erregistro Zibilar buruzko legediak erregistro-idazpenen aurkaratzeari eta zuzentzeari buruz dioena, seme-alabatasunaren aurkaratzeari honako xedapen hauei jarraikiz eginen da:

a) Amatasunaren aurkaratzeari.

Jaiotza-inskripzioan agertzen den amatasuna auzibide zibilean aurkaratu ahal izanen da, frogatzen baldin bada erditzea sinetsarazi dela edo ustezko seme edo alaba eta benetan jaiotzen dena pertsona berbera ez direla.

Amatasunak bat egiten badu egoera-erregimenez, amatasun hori zuzenean aurkaratu ahal

izanen duten bakarrak semea edo alaba izanen dira, alde batetik, eta, bestetik, bere amatasunaren inskripzio faltsuaren edo horren ondoriozko seme-alabatasunaren jatorri diren egitateetan kontzienteki eta borondatez parte hartu ez duen emakumea.

Amatasunarekin bat egiten duen egoera-edukitzarik ez badago, interes zilegi eta zuzenekoa dutenek ere aurkaratu ahal izanen dute amatasun hori.

b) Senarraren aitatasuna aurkaratzea.

Amaren senarraren aitatasuna senar horrek aurkaratu ahal izanen du harik eta urtebete igarotzen den arte seme-alabatasuna Erregistro Zibilean inskribatu zenetik; baina epe hori ez da igarotzen hasiko jaiotzaren berririk ez daukan bitartean, salbu eta, horren berri izanda ere, ez badaki aita biologikoa ez dela; eta kasu horretan, urtebeteko epea igarotzen hasiko da horren jakitun bihurtzen den unean edo horren jakitun izateko aukera moduzkoa izan duen unean.

Baldin eta senarra hiltzen bada aurreko paragrafoan zehazturiko epea igaro aurretik, horretarako akzioa jaraunsle bakoitzak izanen du epe hori burutu bitartean. Hiltzen bada inskripzio hori egin ez delarik, jaiotzaren edo bere aitatasunaren berri izan gabe, haren jaraunsleek zilegi izanen dute aipaturiko epean aurkaratzea abiaraztea.

Semeak edo alabak berak ere aitatasuna aurkara dezake urtebeteko epean, behar adinako gaitasuna eskuratu edo berreskuratzen duenetik edo, bestela, beraren jaiotza inskribatzen denetik, hori geroagokoa izanez gero.

Amak zilegi izanen du aurkaratzea, bere izenean edo seme edo alabaren ordezkari gisa, seme edo alaba adingabe emantzipatugabea denean edo gaitasuna judizialki aldatua duenean. Epea urtebetekoa izanen da, inskripzioaren unetik hasita edo senarraren aitatasunik ezaren berri izan duen unetik hasita.

c) Aitorpena aurkaratzea.

Adostasunaren akatsa tarteko dela egin den aitorpen bat haren egilesleak aurkaratu ahal izanen du akatsaren desagerepenaren ondorengo urtean zehar.

d) Aitorpenaren bitartez zehazturiko aitatasuna aurkaratzea.

Adingabe emantzipatugabearen edo gaitasuna judizialki aldatua duenaren legezkariak zilegi izanen du, hark aitorpena dela-eta adierazitako errefusatzeari ezetsi bada, horrela zehazturiko seme-alabatasuna aurkaratzea, aitorpena egin

duenaren aitatasuna egiazkoa ez izateagatik. Halaber, seme edo alabaren edo horien ondorengo ahaideen interesetan zilegi izanen du, hil ondoko aitorpena denean, akzioa egikaritzea, aitorpenaren ondorioak epaian murriztu daitezzen, 52. legeak adierazitakoaren arabera. Bi kasu horietan, akzioa egikaritzeko epea urtebetekoa izanen da, seme-alabatasuna zehaztuta geratu denetik.

Adingabetasun-aldian edo gaitasuna aldatua izan duen aldian aitortua izan den pertsonak, edo adingabe zirelarik nahiz adostasuna emateko behar adinako gaitasunik ez zeukatenean aitortua izan zen pertsona zenduaren ondorengo ahaideek, zilegi izanen dute horrela zehazturiko seme-alabatasuna aurkaratzea adin-nagusitasuna edo emantzipazioa lortu ondoko nahiz akzioa egikaritzeko behar adinako gaitasuna berreskuratu ondoko urtean zehar, baldin eta haien ordezkariak ez badu aurreko paragrafoari jarraituz jadanik hori egin.

Horrela zehazturiko aitatasuna halaber aurkaratu ahal izanen dute horrekin kalteturik suertatzen direnek, gurasotasuna inskribatu ondorengo lau urteetan.

57. LEGEA

Aitortzeko akzioak.

a) Ezkontzako seme-alabatasuna aitortzeko akzioa

Aitak, amak eta semeak edo alabak edonoiz erreklama dezakete ezkontzako seme-alabatasuna, semearena edo alabarena. Egoera-edukitza izanez gero, akzioa egikari dezakete interes zilegi eta zuzenekoa duten hirugarrenek ere.

b) Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna aitortzeko akzioa.

Ezkontzaz kanpoko seme-alabatasuna deklaratzeko akzioa honako hauek egikaritu ahal izanen dute:

1. Seme-alabek, beren bizitza osoan zehar. Adingabeak direnean edo gaitasuna judizialki aldatua daukatenean, akzioa haien legezkariak eta Fiskaltzak izanen dute.

Baldin eta adingabe zirelarik edo gaitasuna judizialki aldatua zeukatelarik hil baziren, akzioa haien ondorengo ahaideek egikaritu ahal izanen dute.

2. Gurasoek, ustezko aitatasun edo amatasunaren berri izan ondoko edo horren berri izateko aukera moduzkoa izan ondoko urtebeteko epean.

Seme-alabatasuna zehaztu gabe dagoenean, beharrezkoa izanen da bere gurasotasuna dekla-

ratua izan dadila nahi duen gurasoak alde aurretik aitorpena egin izana 54. legeak ezarritakoari jarraituz, eta horren arabera seme-alabatasun-zehaztapena ezin egin izana aitorturiko pertsonaren edo, kasua bada, haren ondorengo ahai-deen adostasunik ezagatik, edo kasuan kasuko legezko ordezkarien errefusatzea judizialki baitsia suertatzeagatik.

Kasu horietan, akzioa egikaritzeko epea eten egingen da aitorpena egiten den unean, eta epe-kontaketa jarraitu egingen da adostasunik eza frogatzen denetik edo errefusatzea baiesten duen ebazpena irmo bihurtzen denetik.

Aitortzeko akzioa baiesten duen epaiak zehaztu egingen du seme-alabatasuna, baina zilegi izanen du, seme edo alabaren nahiz haren ondorengo ahaideen interesetan, haren eragina murriztea, 52. legeak xedatuari jarraikiz.

3. Zuzeneko interes zilegi bat daukaten pertsonak, baldin eta egoera-edukitza badago, eta edonoiz.

58. LEGEA

Adopta dezaketen pertsonak. Edonork, gaitasuna izanez gero, adopzioa egin dezake, lege orokorrekin bat etorritik, baldin eta hogeita bost urtetik gorakoa bada eta, entitate publiko baten proposamena tartean egonez gero, gaitzat jotzen bada.

Gainera, adoptatzaile guztiek adoptatuak baino hamasei urte gehiago izan beharko dituzte gutxienez.

Ezin dira adoptatzaileak izan guraso erantzukizuna kenduta edo etenda dutenak edo hori kentzeko egoeran daudenak.

Baterako adopzioa. Pertsona batek baino gehiagok adoptatu ahal izanen dute, pertsona horiek guztiak ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak badira. Kasu horietan, adopzioa aldiberekoa edo ondoz ondokoa izan daiteke, eta nahikoa izanen da adoptatzaileetako batek 25 urteak beteak izatea.

59. LEGEA

Adopziogaiak. Honako hauek izanen dira adopziogaiak:

1. Babesgabetasun egoeran dauden adingabeak, beste babes neurri bat sortzea edo mantentzea egokia ez denean.

2. Adoptatzailearen ezkontidearen edo bikote-kide egonkorren seme-alabak diren adingabeak.

3. Adingabe umezurtzak, adoptatzailearen odol nahiz ezkontza bidezko hirugarren edo laugarren gradurainoko alboko ahaide direnak.

4. Adoptatu nahi duenak tutoretzapean dituen adingabeak, tutoretzaren kontuaren azken onepena egin bada.

5. Adoptatzaile(ar)ekin emantzipatu aurretik etengabe bizi izan diren adinez nagusiak edo emantzipatuak, edo urtebetetik gorako aldian haren/haien legezko edo izatezko zaintza, tutoretza edo harrerapean egon direnak.

Ezin da odol nahiz ezkontza bidezko ondorengorik edo anai-arrebarik adoptatu.

60. LEGEA

Adostasunak. Bai adoptatzaileak (adoptatzaileek) bai 12 urtetik gorako adopziogaiak adopzioarekin ados daudela adierazi behar dute.

Baiespenak. Bai adoptatzailearen ezkontideak edo bikote-kide egonkorak bai adopziogaia den adingabe emantzipatugabearen gurasoek baiespena eman behar diote adopzioari, guraso horiek guraso erantzukizuna kenduta edo hori kentzeko egoeran egon ezean.

Ez da adopziogaia gurasoen baiespenik beharko, baiespena emateko ezintasuna hautesmaten duenean modu arrazoituan epaileak.

Adingabearen babesgabetasun aitorpenaren ondorioz gurasoek guraso erantzukizuna etenda badute, ez da haien baiespenik beharko, eten horri aurka egin gabe bi urte igaro badira edo aurkaratze hori epai irmoaren bidez ezetsi bada.

Entzunaldiak. Adopzioa gauzatu baino lehen, entzunaldia eman beharko zaie guraso erantzukizuna kenduta ez duten gurasoei —baiespena behar ez denean adopzioa gauzatzeko—, tutoreari edo, hala denean, adoptatzaileak ez diren harre-egileei, baita aski heldua den 12 urtetik beherako adopziogaiari ere.

61. LEGEA

Adopzioaren ondorioak. Adopzioak berekin dakar adoptatuaren eta haren jatorriko familiaren arteko lotura juridikoak azkentzea.

Salbuespen gisa, dagokion gurasoaren familiarekiko lotura juridikoek iraunen dute honako kasu hauetan:

1. Adoptatua adoptatzailearen ezkontidearen edo bikote-kide egonkorren semea edo alaba bada, nahiz eta bata ala bestea hilda egon.

2. Gurasoetako bat bakarra zehazten bada lege, baldin eta adoptatzaileak, 12 urtetik gora-

koa den adoptatuak eta iraun beharreko lotura duen gurasoak eskatu badute ondorio horretarako.

62. LEGEA

Azkentzea. Adopzioa errebokaezina da.

Epaileak adopzioa azkentzea erabakiko du, adopzioaren aurretik seme-alabatasuna zehazturik duten eta, haien errurik gabe, adopzio prozeduran esku hartu ez duten gurasoetako edozeinek eskatuta. Halaber, demanda adopzioaren ondoko bi urteko epearen barnean aurkeztu beharko da, eta eskatutako azkentzeak ezin izanen du adingabea kaltetu larriki. Adoptatua adinez nagusia bada, adopzioa azkentzeko, horrek espresuki adostasuna adierazi beharko du.

Adoptatuari dagokion seme-alabatasun naturalaren zehaztapenak ez du adopzioa ukituko, ezta, hala denean, epailearen ustez 52. legearen arabera dauden ondorioek ere.

63. LEGEA

Araubide osagarria. Aurreko legeek xedatzen ez dituzten eta horiekin bateragarriak diren kontuetan, Kode Zibilak edo lege bereziek ezarritakoa aplikatuko zaio adopzioari.

64. LEGEA

Izendapena eta kontzeptua. Guraso erantzukizuna esaten zaio gurasoek seme-alaba adingabeen gainean (edo, hala denean, gaitasuna judizialki aldatua dutenen gainean) dituzten betebeharrak eta ahalmen guztien multzoari; eginbehar eta ahalmen horien helburua pertsona horien garapen osoa lortzea da, haien nortasun eta interes handienarekin bat eta haien eskubideak eta osotasuna errespetatuta.

Titulartasuna. Guraso erantzukizuna bi gurasoena da, batera.

65. LEGEA

Edukia. Guraso erantzukizunak honako betebeharrak eta ahalmenak hauek hartzen ditu barnean:

1. Seme-alabak jagotea, eta eurokin izatea, bai eguneroko zaintzari dagokionez bai harremanak eta aldi baterako egonaldiak dauden aldietan.

2. Behar duten guztia ematea elikadura, jantzi, biztantzeta, hezkuntza, prestakuntza integral eta laguntza fisiko, psikiko eta emozionalari dagokionez.

3. Seme-alaben jokabideak arrazoiz eta neurrian zuzentzea, haien duintasuna erabat errespetatuta eta horiek behar bezala heztearen mesedetan.

4. Seme-alabak ukitzen dituzten eta berez gauzatu ezin dituzten egintza guztietan horiek ordezkatzeta, gaitasunari buruzko lege arauemaitan arabera.

5. Seme-alaben ondasunak administratu eta xedatzea, honako salbuespen hauek dauden arren:

a) Eskuzabaltasunaren objektu diren ondasunak, horren emaileak gurasoen administrazioa baztertu badu; izan ere, kasu horretan, emaileak ezarritako araubideari jarraituko zaio.

b) Mortis causa eskuratutako ondasunak, baldin eta gurasoetako batek edo biek ezin badituzte horiek eskuratu, ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasunarengatik; izan ere, kasu horretan, ondasun horiek beste gurasoak administratuko ditu eta, horrelakorik izan ezean, epaiketa bidez izendaturiko administratzaileak.

6. Era berean, gurasoei dagokie ernalduta baina jaio gabe dauden seme-alaben interes eta igurikimenak defendatzea.

Seme-alaben betebeharrak. Guraso erantzukizunaren pean daudenean eta familiarekin bizi direnean, seme-alabek honako betebeharrak hauek izanen dituzte:

1. Gurasoen esanak egin, eta haiek errespetatzea.

2. Familia mantentzen laguntzea beren titularitasunpean dauden ondasunen etekinak emanez. Ekarpen hori betetzeko asmoz, gurasoek, administrazioa gauzatzean, etekin horiek aplikatu ahal izanen dituzte familia artatzeko, behar den proportzioan edo ondasunen titular diren seme-alaben beharrak bete ondoren. Ahalmen horretatik baztertzeko dira aurreko ataleko 5. zenbakiak aipatzen duen gurasoen administratziotik kanpoko ondasunak.

66. LEGEA

Administrazioari bermeak eta mugak jartzea. Gurasoen administrazioak arriskuan jartzen badu seme edo alabaren ondarea, epaileak galda diezaieke, alderdi interesdunak edo Fiskaltzak hala eskatuta, gurasoek berme egokia eman dezaten, edo ondasunen segurtasunerako beste neurri batzuk ere har ditzake; halaber, gurasoei administrazioa kendu ahal die eta administratzailea izendatu.

Administrazioa bukatzean eta hurrengo hiru urteko epean, seme-alabek, administratzaile judizialak edo Fiskaltzak gurasoei eska diezaiekete administrazio horren kontuak emateko, eta, bidezkoa denean, kalte eta galeren ordaina emateko.

Xedapena. Gurasoek ezin diezaiekete ukorik egin seme-alaben titulartasunpeko eskubideei, eta, era berean, ezin dituzte besterendu, kargatu edo beste edozein modutan bermatu ondasun higiezinak, industria nahiz merkataritzako establezimenduak, horien oinarritzko osagaiak eta aparteko baliodun objektuak, non eta aldez aurretik epaileak, Fiskaltzari entzun eta gero, horretarako baimenik eman ez duen. Baimen hori ez da beharrezkoa izanen, kreditu bermatua kobratu ondoren, hipoteka edo beste berme erreal bat ezerezteko, legezko nahiz borondatezko atzera-eskuratzeko eskubidea erabiltzeko, ezta legezko xedapenen babesean bete behar diren eta adingabearentzat onuragarriak diren xedatze-egintzak gauzatzeko ere.

Gurasoek euren kabuz onar ditzakete seme-alaben mesederako dohainik egindako xedapen guztiak, epailearen baimenaren beharrik gabe; hori beharrezkoa izanen da, alabaina, halakoak arbuiaitzeko.

Deuseztagarriak izanen dira gurasoek seme-alaben izenean aldez aurreko baimen judizialik gabe gauzatzen dituzten egintzak, baldin eta baimen hori beharrezkoa bada lege honetan ezarritakoaren arabera.

67. LEGEA

Guraso erantzukizuna gauzatzea. a) Arau orokorra. Gurasoek bete eta hartu behar dituzte, hitzartutakoaren arabera, guraso erantzukizunari datxekion betebeharrak eta ahalmen guztiak eta horien ondoriozko erabaki guztiak, eta, itunik izan ezean, biek batera edo horietako bakar batek, baina bestearen berariazko edo isilbidezko adostasuna duela.

Baliozkoak izanen dira, hala ere, horietatik edozeinek bere kabuz gauzaturiko egintzak, horiek egin badira seme-alaben ohiko beharriak asetzeko, familiaren inguruabarren eta tokiko usadioaren arabera, edo presako konponbidea behar duten egoeretan.

b) Banakako egikaritzearen legezko esleipena. Lege zibil edo penaletan aurreikusitako beste kasu batzuk ezertan eragotzi gabe, gurasoetako baten absentsia deklarazioa edo gaitasunaren aldaketa judizialaren deklarazioa badago, beste gurasoak egikaritutako du guraso erantzukizuna, gaitasunari buruzko epaiak bestelakoa ezarri ezean seme-alaben intereserako.

c) Banakako egikaritzearen esleipen judiziala. Guraso bakoitzak esku-hartze judiziala eskatu ahal izanen du honako kasu hauetan:

1. Besteak ezintasuna duenean, eta guraso erantzukizuna egikaritzeko erabateko esleipena jasotzeko xedeaz.

2. Guraso erantzukizuna batera egikaritzea larriki eragozten duen edozein arrazoi dagoenean, epaileak osorik edo zati batean esleitzen diezazkien eginkizunak bereiz egikaritzea edo horien artean bana ditzan arrazoi bidez egokitzen jotzen den aldirako, eta ezertan eragotzi gabe adingabeen interesak hobeki babesten dituzten neurriak zuzenean hartzeko aukera.

3. Guraso erantzukizuna egikaritzeko orduan desadostasunak daudenean, epaileak gurasoetako bati esleitzen diezaion erabakitzeko ahalmena. Desadostasunak behin eta berriro agertzen badira, epaileak aurreko zenbakian aurreikusitako erabakietako edozein hartu ahal izanen du.

Borondatezko Jurisdikziopeko tramiteek bideratuko dituzte atal honetan aurreikusitako prozedura judizialak.

d) Bitartekaritza. Desadostasunak direla-eta hasitako prozeduretan, gurasoek bitartekaritzapean jar ditzakete beren desadostasunak.

68. LEGEA

Guraso erantzukizuna, gurasoak elkarrekin bizi ez badira edo elkarrekin bizitzeari utzi badiote. Nahiz eta gurasoak elkarrekin bizi ez, guraso erantzukizunari datxekion betebeharrak eta ahalmenak hitzartutakoaren arabera egikaritutako dira, eta, itunik izan ezean, biek batera edo horietako bakar batek, baina bestearen berariazko edo isilbidezko adostasuna duela; aurreko legean aurreikusitako legeak aplikatuko dira.

Hori ezertan eragotzi gabe, kasu horietan, unean-unean seme-alabak bere ardurapean dituen gurasoak egikaritu beharko ditu zaintza betebeharraren ondoriozko ahalmen arruntak.

Bizikidetzaren hausturak ez du aldatzen guraso erantzukizuna osatzen duten betebeharrak eta ahalmenen titulartasuna, ezta horien egikaritzea ere.

Gurasoek betebeharrak eta ahalmenak egikaritzeko modua itundu ahal izanen dute baterako gurasotasunaren araubidean, hurrengo legean ezarritakoaren arabera.

Itunik izan ezean, epaileak hartuko ditu adingabeak ukitzen dituzten erabaki guztiak, haien interes eta onura zehatzak kontuan hartuta, 70. legetik 74. legera bitartekoetan ezarritakoarekin bat.

69. LEGEA

Gurasotasun-ituna. Gurasoek ituntzen dutenean gurasoen betebeharrak eta ahalmenak erantzunkidetasunez egikaritzeko modua, gurasoen plangintzarako ituna aurkeztu beharko dute dagokion hitzarmen arauemailearen zati gisa. Honako hauek jasoko ditu itun horrek:

1. Seme-alabek unean-unean batarekin eta bestearekin bizitzeko erabiliko dituzten tokiak. Erroldatze ondorioetarako zein agertuko den ezarriko da, baita seme-alaben nortasuna garatzeko garrantzitsuak diren erabaki guztiak batera hartzeko modua ere.

2. Seme-alabek guraso bakoitzarekin bizitzeko eta egoteko dituztenaldiak, seme-alabek une horretan ardurapean ez dituen gurasoekin komunikatzeko erabiliko duten modua, eta gurasoen arteko zaintzaren aldaketa ukitzen duten alde pertsonalak eta ekonomikoak.

3. Gurasoetako bakoitzak adingabeen eskola eta eskolaz kanpoko jardueren dagokienez ardurapean hartzen dituen zereginak, hala denean, hirugarren pertsonen esku-hartzea edo laguntza eta seme-alabei buruzko informazio garrantzitsu guztia elkarri jakinarazteko erabiliko duten modua aipatuta.

4. Gurasoetako bakoitzak seme-alaben behar arrunt eta aparteko guztiei eusteko jarriko dituen baliabideak eta ekarpen ekonomikoaren modua, batzuk eta besteak zehaztuta eta horiek ezartzea arazoitu duten mota guztietako zirkunstantziak adierazita.

5. Bizikidetzan familia-etxebizitza izan denaren eta bertan bildutako ostilamenduaren erabilera eta helburua, hala denean gurasoetako bati edo biei erabiltzeko eskubidea eslehituta, eskubide horren iraupena eta baldintzak, eta esleipen horrek adingabeen beharrei eusten laguntzeko orduan duen ondorioa.

6. Adingabeek beste senide eta adiskide batzuekin harremanetan egoteko erabiliko duten modua, hori beharrezkotzat jotzen bada haien interesa errespetatzeko eta betiere horiekin harremanak ezartzen dituzten pertsonen adostasuna badago.

Gurasoek gurasotasun-itunean gehitu ahal izanen dute hori aplikatetik datozen aldeak konpontzeko familia-bitartekaritzara jotzeko konpromisoa.

70. LEGEA

Neurri judizialak. Gurasoen arteko adostasunik egon ezean, epaileak hartuko ditu adingabeen interesak ondoen babesten dituzten neurri guztiak,

guraso erantzukizuna osatzen duten betebeharrak eta ahalmen guztiei dagokienez.

Horretarako, gurasoetako bakoitzak guraso erantzukizuneko planerako proposamen bat aurkeztu beharko du bere eskaeran, dena delako prozeduraren barnean; proposamen horrek aurreko legeak aipatzen duen edukia jaso beharko du.

Dagokion egintza judiziala egikaritu baino lehen, bi gurasoek familia-bitartekaritzara jo ahal izanen dute beren desadostasunak konpontzeko, gurasoen plangintzarako itun bat lortze aldera.

Prozedura hasi ondoren, epaileak bitartekaritza horretara jotzea proposatu ahal izanen die biei, uste badu itun hori lor dezaketela.

71. LEGEA

Zaintza eta jagoletza. Gurasoetako edozeinek epaileari seme-alaba adingabeen eguneroko zaintza eta zainketari buruzko erabakia hartzea eskatzen dionean, epaileak adingabeetako bakoitzaren interes zehatzerako komenigarriena den zaintza mota erabaki ahal izanen du, dela bi gurasoek partekatutakoa dela horietako bakoitzarena.

Horretarako, guraso bakoitzak aurkezten dituen eskaera eta guraso erantzukizunerako plangintzarako proposamenak hartuko ditu kontuan, eta, hala denean, peritu-txostenetan adierazitakoa ere bai. Horrez gain, Fiskaltzak esan beharrekoa entzunen du, baita haren ustez adingabeen buruzko iritzia adierazi behar dutenek diotena ere, eta honako faktore hauek hartuko ditu aintzat:

1. Seme-alaben adina.

2. Gurasoen gaitasuna, gurasoen artean dagoen harremana, eta adingabeek guraso bakoitzarekin bizikidetzan ezarri duten lotura.

3. Guraso bakoitzak agertzen duen jarrera, honako hauei dagokienez: bere betebeharrak bere gain hartzea, bestearen eskubideak errespetatzea, eta, bereziki, beren artean kooperatzea eta harremana bermatzea seme-alaben eta bi gurasoen, haien familien eta, hala denean, guraso bakoitzaren bikotekide berrien artean.

4. Seme-alaben gizarte- eta familia-loturak.

5. Seme-alaben iritzia, baldin eta behar beste ko zentzutasuna badute, eta, betiere, hamabi urte baino gehiago badituzte, bereziki aintzat hartuta hamalau urtetik gorakoa.

6. Gurasoen gaitasuna eta borondatea seme-alaben egonkortasuna ziurtatzeko.

7. Gurasoen familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko aukerak.

8. Gurasoen artean aldez aurretik egon litezkeen akordioak eta itunak, baldin eta horiek justifikatu badizkiote.

9. Bizikidetza-araubideari begira garrantzi berezia duen beste edozein inguruabar.

Nolanahi ere, erabakiaren helburua izanen da bateratzea, ahal bada, interes guztiak, kontuan hartuz lehentasuna dutela seme-alaba adingabeen edo gaitasuna judizialki aldatua dutenen interesek, eta ziurtatuz gurasoek berdintasuna izanen dutela seme-alabekiko beren harremanetan horientzat onuragarri den orotan eta baterako gurasotasuna sustatuta.

Epaileak jagoletza partekatua erabakitzen badu, gurasoetako bakoitzaren eta seme-alaben arteko bizikidetzarako araubide bat ezarriko da, familiaren egoerari egokitua, bi gurasoei ziurtatze aldera berdintasunez baliatu ahal izatea haien eskubideak eta betebeharrak.

Jagoletza banakakoa erabakitzen badu, epaileak beste gurasoarekiko komunikazio- eta egonaldi-araubide bat ezarriko du, hark ziurtatuta izan dezan konpilazio honetako legeen arabera esleitu-ta dituen guraso erantzukizunaren berezko ahalmen eta betebeharren erabilera, hura ukitzen duten berariazko zirkunstantziak ikusita.

Non eta berariaz justifikatutako inguruabarrak gertatzen ez diren, ez da anai-arrebak banatzea dakarren konponbiderik hartuko.

Ez zaio zaintza eta jagoletza gurasoetako bati emanen, ez partekatua ez banakakoa, hurrengo bi baldintza hauek batera ematen badira:

a) Beste gurasoaren edo seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta sexu-uki-gabetasunaren aurka atentatzeagatik abiatutako prozesu penal batean sartuta badago.

b) Kriminalitate-zantzu arrazoizkoak eta funtsatuak daudela dioen ebazpen judizial arrazoitua eman bada.

Ez zaio zaintza eta jagoletza emanen, halaber, epaileak ikusten badu, alderdien alegazioei eta egindako frogei erreparatuta, etxeko edo genero indarkeriaren zantzu funtsatuak eta arrazoizkoak daudela.

Bi kasu horietan hartzen diren neurriak berraztertuta ahal izanen dira, baldin eta zigor jurisdikzioan horri buruzko ebazpen irmoa ematen bada.

Ezkontide edo bikotekide baten aurkako salaketak ez da nahikoa izanen, berez, modu automatikoan ondorioztatzeko bestearenganako edo seme-alabenganako indarkeria edo mehatxuak daudela, edo horiei kalteak eragiten zaizkiela, eta ez da nahikoa izanen seme-alaben zaintza eta jagoletza gurasoetako bati emateko.

Hirugarrenen aldeko zaintza. Salbuespen gisa, epaileak ezarri ahal izanen du seme-alaben zaintza eta jagoletza beste senide edo adiskide batzuei esleitzea –hori onartzen badute– edo, hala behar denean, adingabea babesteko ahalmenak legeaz esleiturik dituen entitate publikoari, ezertan eragotzi gabe esleipen horri dagokion lege figura ondoren formalizatzea.

Zaintza hori erabakitzen duen ebazpenean, epaileak adingabearen harrera, tutoretza edo babes neurria ezartzea premiatuko du, kasu bakoitzean egokia dena ikusita, baina, neurri horiek ezertan eragotzi gabe, haren ustez gurasoek izan behar duten guraso erantzukizunaren ahalmen eta betebeharrak ezarri ahal izanen ditu.

Adingabeen eta beste pertsona batzuen arteko bisitak. Guraso erantzukizunari buruzko neurriak erabakitzen dituen ebazpenean, gurasoetako edozeinek edo Fiskaltzak eskatuta, epaileak adingabeen eta beste senide edo adiskide batzuen (eta, bereziki, anai-arrebak eta aiton-amonak) arteko komunikazio-, bisita- eta harreman-sistema ezarri ahal izanen du, hori onuragarria bada haientzat, eta pertsona horiei entzunaldia eman ondoren.

72. LEGEA

Adingabeen bizitantzea. Epaileak erabakiko du zer erabilera eta xede eman familia-etxebizitzari, adingabeen bizitantze beharra eta egonkortasuna eta horien eta guraso baten eta bestearen arteko bizikidetza, harremanak eta egonaldiak lehentasunez bermatzeko xedeaz.

Banakako zaintza ezarrita, epaileak etxebizitzaren erabilera esleitu die adingabeei eta zaintza egoera horrek dirauen bitartean horiekin dagoen gurasoari, guraso horrek horien bizitantze beharrak behar bezala bermatu ezean beste baliabide batzuen bidez; izan ere, kasu horretan, egokia dena ebatziko du haren esleipenaz eta, hala bada, esleipenaren iraupenaz, gehien babestu beharreko interesak kontuan hartuta.

Zaintza partekatua ezartzen denean edo gurasoen artean seme-alaba guztiena banatzen denean, erabilera guraso baten edo bien alde edo arrazoi bidez egokituta jotzen den aldirako erabakitzeko, epaileak honako zirkunstantzia hauek hartuko ditu kontuan:

1. Zaintzarako eta harremanetarako denbora banatzeko ezarritako sistema zehatza.

2. Adingabeetako bakoitzak etxebizitzaren ingurunearekin duen gizarte eta hezkuntza lotura, baita lotura pertsonala ere.

3. Guraso batek eta besteak adingabeak zaindu behar dituzten aldietan horien etxebizitza beharrak betetzeko dituzten aukerak.

4. Familia-etxebizitzaren titulartasuna, eta okupazio titularen izaera.

5. Gurasoetako edozeinen eskura beste etxebizitza batzuk egotea.

6. Gurasoen gainerako beharrak, eta batako zein besteak adingabeekiko bizikidetzak ukitzen dutenean horiek betetzeko dituzten baliabide pertsonal eta ekonomikoak.

Guraso bakoitzak seme-alabak mantentzeko egin beharreko ekarpena ezartzean baloratu beharko da familia-etxebizitzaren erabilera eta helburuari buruzko erabaki judiziala.

Etxebizitzaren titularraren xedatze-egintzak esleitzen den erabilera ezertan eragotzi gabe gauzatuko dira beti. Erabiltze-eskubidea Jabetzaren Erregistroan inskribatu edo idatzi ahal izanen da badaezpada.

73. LEGEA

Adingabeak mantentzen laguntzea. Gastu arruntak eta bereziak. Epaileak ezarriko du zein den guraso bakoitzak seme-alaba adingabeen mantentzeko eman beharreko laguntza.

a) Gastu arruntak dira adingabeen elikadura, biziantze, osasun laguntza, jantzi eta oinarritzko prestakuntza integralerako ezinbestekoak diren guztiak.

Guraso bakoitzak gastu horietarako laguntza emanen du haien beharrei erantzuteko, eta horiek betetzeko dituen baliabide ekonomikoen proportzioaren arabera. Ekarpen hori ezartzeko, epaileak kontuan hartuko ditu ezarritako eguneroko zaintza eta zainketari buruzko sistema eta adingabeen arreta guztiei erantzuteko batako eta besteak eskaintzen duten ardura.

Ekarpena behar den moduan eta denboran ezarriko da, dagokion eguneratzea izanen du, eta, hala denean, adingabeen gastuak behar bezala administratu eta ordaintzen direla ziurtatzen duten bermeak egonen dira. Guraso batek besteari ordaintzen dion aldzikako ekarpena izan daiteke, edo biek funts komun batean sartzen duten diru kopuru bat, zenbateko berdinekoa zein ezberdine-

koa; epaileak funts horren kudeaketa esleitu dion guraso bati edo biei, batera edo txandaka.

b) Gastu bereziak dira adingabeen mantentze arrunta ezartzeko unean aurreikusi ezin diren guztiak.

Epaileak ezarriko du zer proportziotan egin behar dien aurre guraso bakoitzak beharrezkoak diren gastuei, guraso baten eta bestearen gaitasun ekonomikoarekin bat.

Ezertan eragotzi gabe epaileak kasu bakoitzean beharrezkotzat jotzen dituen beste gastu batzuk, horrelakoak izanen dira honako hauek: haien izaera edo premiagatik ukaezinak direnak, gurasoen aseguru sozialek edo pribatuek estali gabeko osasun gastuak, eta seme-alaben garapen eta prestakuntza integralerako eskatzen diren hezkuntza arloko gastu osagarriak, unibertsitate ikasketenak edo lanbide gaikuntzarenak barne.

Epaileak ezartzen duen proportzioan egiten zaie aurre gainerako gastuei, baldin eta bi gurasoek horiek onartu badituzte espresuki edo isilbidez. Bien arteko adostasunik ez badago, gastu horiek egitea erabaki duen gurasoak ordainduko ditu.

Gurasoen artean gastu berezi baten beharrari buruzko desadostasuna badago, epaileak erabakiko du gastu hori beharrezkoa den ala ez, eta, halaber, hori nola ordaindu zehaztuko du, ezertan eragotzi gabe 70. legerako azken bi paragrafoetan xedatutakoa.

74. LEGEA

Beste neurri batzuk. Aurreko legeetan aurreikusitako neurriez gain, epaileak adingabeen interesa babesteko helburua duen beste edozein xedapen hartu ahal izanen du dena delako prozeduran, eta, bereziki, haien familia-ingurunean edozein arrisku edo kalte edo hirugarren pertsonen eragindakoak saihesteko helburua dutenak.

Behin-behineko neurriak. Epaileak aurreko legeetan aurreikusitako neurrietako edozein hartu ahal izanen du behin-behinean, dena delako prozeduran eta une zehatz horretan dauden zirkunstantziak kontuan hartuta, ezertan eragotzi gabe behin betiko ebazpena hartzea.

75. LEGEA

Etetea. Lege zibil edo penaletan aurreikusitako kasuak ezertan eragotzi gabe, guraso erantzukizunaren edo gurasoen ahalmenetako baten titulartasuna eten ahal izanen da absentsia, ezintasuna edo gaitasun-aldaketa badago, eta epailearen ustez gurasoek gorde behar dituzten ahalmenak salbuetsiko dira.

Etetea eragin duen arrazoia amaitzen denean, epaileak semearen edo alabaren interesak eskatzen dituen mugak ezarri ahal izanen ditu ahalmen horien erabilerarako.

Kentzea. Gurasoetako edozeini edo biei guraso erantzukizunaren edo ahalmenetako baten titulatasuna kendu ahal izanen zaie epai bidez, bere(n) betebeharrak larriki edo behin eta berriz bete ezean, nahiz eta ez-betetze horrek adingabearen babesgabetasunik ekarri ez.

Kentzea eraginkorra izanen da epaia irmoa denetik, ezertan eragotzi gabe kautelazko etena erabakitzea.

Auzitegiek, adingabearen onura eta intereserako, horren berreskuratze osoa edo partziala erabaki dezakete, baldin eta kentzea eragin duen arrazoia amaitu bada.

Azkentzea. Seme-alaben gaineko guraso erantzukizuna azkentzen da:

1. Semearen, alabaren edo bi gurasoen heriotzaren ondorioz edo horien heriotza-adierazpenaren ondorioz.

2. Semearen edo alabaren emantzipazioagatik edo adin nagusitasunagatik.

3. Aurreko gurasoek semea edo alaba adoptatzearen ondorioz, haietako batekiko loturak iraun ezean.

Guraso erantzukizuna azkentzearekin batera, semearen edo alabaren ordena pertsonalean eta ondare ordenan zituen ondorioak eteten dira, eta kontu ematea eskatu ahal izanen da, eta, hala denean, kalte eta galeren ordaina ematea ere bai, 66. legean ezarritakoaren arabera.

Berpiztea. Seme edo alabaren heriotza-adierazpena egin eta hura adin nagusitasunera heldu baino lehen berragertzen bada, guraso erantzukizuna berpiztuko da.

Heriotza-adierazpena duen gurasoa berragertzen bada, haren guraso erantzukizuna berreskuratuko da onuragarria baldin bada seme-alabentzat, eta epaileak erantzukizun horren ahalmenak mugatu ahal izanen ditu, horretarako arrazoiak emanez.

Defendatzaile judiziala. Gurasoen eta euren ardurapeko seme-alaben interesak elkarren aurkakakoak direnean, beharrezkoa izanen da defendatzaile judizialaren esku-hartzea.

Interesen arteko aurkakotasuna guraso bati begira bakarrik gertatzen bada, besteari dagokio seme edo alabaren ordezkaritza, izendapen judizialaren beharrik izan gabe.

Epaileak defendatzailea izendatuko du, berak zehazturiko ahalmenekin, tutoretzaren egikaritza izan dezaketen pertsonen artetik, halakoak badira.

76. LEGEA

Luzapena. Gaitasuna aldatua duten seme-alaba adingabeen gaineko guraso erantzukizuna luzaturik geratuko da

lege-aginduz, haiek adin nagusitasunera helitzean, gaitasunari buruzko epaiak ezartzen duena ukatu gabe.

Birgaitzea. Guraso erantzukizuna seme-alaba adinez nagusien edo emantzipatuen gainean birgaitu ahal izanen da, haien gaitasuna aldatu bada gurasoekin bizi diren bitartean, horien gaitasunari buruzko epaiak ezartzen duen edukia eta mugak errespetatuta eta, epailearen ustez, horien intereserako onuragarriagoa bada beste pertsona batzuen aldeko beste laguntza neurri bat sortzea.

Guraso erantzukizun luzatua edo birgaitua azkentzea. Aurreko legeak jasotako arrazoiak gain, guraso erantzukizun luzatua edo birgaitua azkenduko da:

1. Semearen edo alabaren gaitasuna aldatzea eragin duen arrazoia amaitu dela adierazten duen ebazpen judizial baten ondorioz.

2. Tutoretza ondoren beste pertsona batzuen alde eratzegatik.

3. Epaileak onesten badu gurasoek eskatutako azkentzea, haien egoera pertsonalak edo sozialak semearen edo alabaren berariazko beharrek bat datorren moduan betetzea eragozten badu.

77. LEGEA

Guraso erantzukizunaren ikuskapen judiziala. Konpilazio honetako legeen arabera epaileak guraso erantzukizunaren ondoriozko kontuei buruzko erabakia eman behar duen prozedura guztietan, seme-alaben eta gurasoen arteko harremanak ikuskatzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu ahal izanen ditu, arrazoiak azalduta, horien eskubideak bermatzeko asmoz, eta, horretarako, gurasotasun koordinatzaile bat izendatu ahal izanen du.

Adingabeentzako arriskua edo hori justifikatzen duen beste edozein zirkunstantzia dagoela arrazoiarekin baloratzen badu, ikuskapen hori gizarte zerbitzuen edo familia elkartzeko guneen esku utzi ahal izanen du.

78. LEGEA

Itunak egiteko askatasuna. Ezkontideek askatasunez adostu ahal izanen dute ezkontzaren

arabide ekonomikoa itunen bidez, 7. legean ezarritako mugak baino ez dituztela.

Ezkontideen banakako gaitasuna. Ezkontide bakoitzak bere kabuz erabil eta defenda ditzake eskubideak eta epaiketako nahiz epaiketatik kanpoko administrazio-, xedatze- eta ordezkaritza-egintzak gauzatu, borondatez edo legez ezarritako mugak baino ez daudela.

Ezkontideen absentzia, gaitasun aldaketa, zarrastelkeria edo legezko banantzearen kasuetan, Kode Zibilaren xedapenak aplikatuko dira.

79. LEGEA

Ezkontideen arteko adostasunak, baiespenak eta ahalduak. Itun bidez edo legez bi ezkontideen adostasuna edo bata bestea baiestea behar duten egintzetan, horietako bakoitzak eman dezake egintza jakin bat edo batzuk gauzatzeko, edo orokorrean.

Errebokaezina izanen da dena delako egintzaren aurretik emandako adostasuna edo baiespena, eta 86. legean xedatutakoa bete beharko da ezkontzako itunen bidez ematen denean.

Ezkontideek ahalordeak eman ditzakete, bata bestearen mesederako edo bi-biek elkarren mesederako, eurek egoki deritzeten ahalmenekin. Ahalordea egintza jakin bat edo batzuk gauzatzeko edo orokorrean eman ahal izanen da, eta errebokaezina izanen da beti, nahiz eta ezkontzako itunen bidez eman ez.

Epaileak ordezkatzeara. Lege honetako lehen paragrafoak aipatzen dituen egintzetan, ezkontide baten adostasuna edo baiespena epaileak ordezkatzeko, beste ezkontideak eskatuz gero, eta epaileak Borondatezko Jurisdikziopeko prozeduran ebaztuko du.

Berrespena. Ezkontide batek, besteak eman beharreko adostasunik edo baiespenik gabe edo epaileak ordezkatu gabe, egintzak gauzatzen baditu, esku hartu ez duen ezkontideak edo bera jaraunseleek egintzok berretsi ahal izanen dituzte, baina bakarrik izanen dira baliozkoak, hark edo horiek ez badituzte aurkaratzen lau urteko epean, ezkontzaren desagitea edo legezko banantzea gertatu den egunetik zenbatuta.

Bien ondasunen gaineko dohaineko xedapenak salbuesten dira, horiek edonoiz aurkara daitezke eta.

80. LEGEA

Ezkontideen gastuak. Ezkontideen gastuak dira familia mantentzeko behar diren guztiak, haren maila ekonomikoa eta horren barnean une bako-

tzean bizi diren kideak kontuan hartuta. Gastuak arruntak edo bereziak izan daitezke.

Ekarpena. Ezkontide bakoitzak ezkontideen gastuak ordaintzen lagundu behar du bere sarrera ekonomikoekin, ondarearekin eta familiarentzat egindako lan pertsonalarekin, ezkontzaren arabide ekonomikoan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe eta horrekin bat etorrita.

Etxeko ahala egikaritzea. Ezkontideetatik edozeinek bere kabuz ondasun erkideak xeda ditzake, presako nahiz aparteko gastuei aurre egiteko eta familiaren ohiko beharrezkoak asetzeko, familiaren inguruabarrekin eta tokiko usadioarekin bat etorritik, eta bidezkoak diren itzulketak ezertan eragotzi gabe, ezkontzaren arabide ekonomikoaren arabera.

81. LEGEA

Familia-etxebizitza eta -ostilamenduaren gaineko mugak. Bi ezkontideen adostasuna izan behar da, ohiko etxebizitzaren edo bertako altzarien gaineko eskubideak inter vivos xedatzeko edo horiek erabilera erkideetik kanpo uzteko.

Eskubideak horietako batenak badira izaera pribatiboarekin, beharrezkoa izanen da bestearen adostasuna.

Epaileak adostasuna edo baiespena ordezkatu ahal izanen du, 79. legeko bigarren atalean ezarritakoarekin bat.

Ezkontide batek bere aldetik egindako egintzei lege horretako azken atalean xedatutakoa aplikatuko zaie.

Hala ere, ezkontide titularrak oker edo faltsukeriaz adierazten badu etxebizitza ez dela ohikoa, horiek ez die kalterik egingen hirugarren onustedunei.

82. LEGEA

Ezkontideen arteko egintza juridikoak. Ezkontideek euren artean egin ditzakete orotariko estipulazio, kontratu eta dohaintzak.

162. eta 163. legeetan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, ezkontideen artean egindako dohaintzak errebokatu ahal izanen dira ezkontideak bereizi edo dibortziatzen badira edo ezkontza deuseztatzen bada, judizialki deklaritzen denean dohaintza-hartzaileak ez dituela bete ezkontideen edo familiaren betebeharrak.

Bermeak. Ezkontideetatik edozeinek fidantza eman, bestelako betebeharra bere gain har edo berme erreala eman dezake, beste ezkontidearen edo hirugarrenen mesederako, ezkontzaren

kasuan kasuko araubide ekonomikorako xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

83. LEGEA

Egilesteko denbora eta gaitasuna. Ezkontzako itun edo kontratuak egilets daitezke ezkondu aurretik edo geroago. Ezkontza bitartean egilesten badira, itunoi atzeraeraginezko ondorioak eratziki dakizkieke ezkontzaren datatik aurrera, hirugarrenek eskuraturiko eskubideak ezertan eragotzi gabe.

Ezkontzako itunak egilets ditzakete ezkontideek eta, horretarako gaitasuna izanda, ezkondu behar direnek. Egilesle adingabe batek besteari 48. legean aurreikusitako egintzetako edozein egitea dakarten xedapenei dagokienez, lege horretan xedaturikoa bete beharko da.

Egilespen horretan parte hartu ahal izanen dute, ezkontza dela-eta edo ezkontzagatik, beste xedapen batzuk edo eskubideetarako ukoak egiten dituztenek ere.

Eragingabetasuna. Itunak eraginik gabe geratuko dira, ezkontzarik ez bada egiten urtebeteko epean. Ezkontzaren deuseztasunak haien eragingabetasuna dakar deuseztasuna adierazten duen epaia irmo denetik.

84. LEGEA

Forma. Ezkontzako itunak deusezak dira eskritura publikoan egilesten ez badira. Ezkontzako itunetan jasotzen badira hirugarrenek ezkontide baten mesederako edo ezkontideek euren artean egindako dohaintzak, horien xede diren ondasunak deskribatu behar dira, eskrituran bertan edo horri erantsitako inbentarioan.

Publizitatea. Hirugarrenen aurrean aurkartzeko modukoak izateko, itunak bai erregistro zibilean bai horiek inskribatzea eskatzen duten gainerako erregistroetan argitaratu beharko dira.

85. LEGEA

Edukia. Ezkontzako itunek egilesleek libreki ezartzen duten ezkontzaren ondasunen araubidea adierazi ahal izanen dute, eta egilesle horiek konpilazio honetan aurreikusitako beste edozein araubide ere onartu ahal izanen dute osorik edo zati batean.

Halaber, ezkontzaren ondoriozko edozein xedapen edo uko jaso ahal izanen dute itunek, inter vivos nahiz mortis causa motakoak, bai ezkontzaren indarraldiari bai banandu edo desegin ondoren arautu behar duten xedapenei lotutakoak, ezertan eragotzi gabe haien izaeragatik erabilezinak diren eskubideak.

Era berean, itunek libreki ezarri ahal izanen dute familiaren ondasunen araubidea, XI. tituluan ezarritakoaren arabera, baita X. tituluak aipatzen dituen dohaintzak eta beste edozein xedapen (bai inter vivos bai mortis causa motakoak) agindu ere.

86. LEGEA

Aldaketa. Ezkontzako itunak edonoiz alda daitezke, baldin eta 84. legeak ezarritako forma betetzen bada, eta ezkontideek edo ezkongaiak eta aldaketa egiteko unean bizirik dauden beste egilesleek horretarako adostasuna ematen badute, aldaketak azken horiek eman edo jasotako ondasun edo eskubideetan eragina duen neurrian.

Hirugarrenen aurrean aurkartzeko modukoak izateko, aldaketa inskribatu beharko da, lege horretako bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

Ezkontide edo ezkongaietako bat hiltzen bada edo haren gaitasuna aldatzen bada, itunak ezin izanen dira aldatu.

Lege honetako lehen paragrafoan aurreikusitakoaren arabera esku hartu behar duen beste edozein egilesleren gaitasuna aldatzen bada, haren adostasuna ordezkatzeko da ordenamendu juridikoen arabera.

Lege honetan ezarritakoari begira, salbuespen gisa har daitezke espresuki egindako itunaren ondorioz edo berez erreboka daitezkeen estipulazioak.

Ezkontideen arteko oinordetza-itunak ezkontideek eurek aldatu edo errebokatu ahal izanen dituzte, eta ez da beharrezkoa itunon gainerako egilesleak ados egotea.

87. LEGEA

Lege-araubide osagarria. Ezkontideek ezkontzaren araubide ekonomikoa ezkontzako itunetan adostu ezean, konkistena beteko da, eta konpilazio honetako xedapenek arautuko dituzte horien artean bereziki itundu ez diren kontuak.

88. LEGEA

Konkista-ondasunak. Konkista-araubidean bi ezkontideenak dira:

1. Itun edo xedapen bidez, konkistetara bildutako ondasunak.

2. Ezkontza bitartean, ezkontideetatik edozeinek kostu bidez eta konkista- ondasunen kontura eskuraturiko ondasunak.

3. Kostu bidez eta banakako ondasunen kontura eskuratutako ondasunak, baldin eta ezkontideen erabakiz horiek konkista-ondasun badira,

ondasunon trukean emandako prezio, kontraprestazio edo eskubidearen izaera edozein izanda ere.

4. Ezkontza bitartean, ezkontideek euren lanaren bidez edo bestelako jardueraren bidez irabazitako ondasunak.

5. Ondasun erkideen nahiz ondasun pribatiboen fruitu eta etekinak.

6. Ezkontza bitartean egindako kontratuen ondorioz, maizterrari dagozkion eskubideak.

7. Hitzarmenezko edo legezko atzera- eskuratze eskubidea, aukera-eskubidea, jabetza lortzeko eskubidea, lehentasunezko harpidetze-eskubidea edota konkista-sozietateari dagozkion bestelako eskuratze-eskubideak erabilita eskuratutako ondasunak.

8. Konkista-ondasunen akzesio edo gehikuntzak.

9. Hurrengo legearekin bat etorritik, pribatiboak ez diren beste ondasunak.

Presuntzioa. Ondasunak konkistakoak direla uste da, horiek pribatiboak direla egiaztatzen ez den bitartean.

Itzulketak. 3 eta 7. zenbakietan ezarritakoa ulertuko da kasuan-kasuan bidezkoak diren itzulketak ezertan eragotzi gabe. Itzulketa horiek gauzatzen direnean eguneratu beharko dira, dela ezkontzako sozietatearen indarraldian, dela hura likidatzen denean.

89. LEGEA

Ondasun pribatiboak. Ezkontidearen ondasun pribatibo dira:

1. Itun edo xedapenen bidez konkistetatik baztertutakoak.

2. Ezkontzaren aurretik eta kostu bidezko titularen bitartez ezkontide bati datozkion ondasunak, nahiz eta ondasun horien eskuratzea ezkontza bitartean gertatu, edo ondasunon truke emandako prezioa zein kontraprestazioa beste ezkontidearen edo konkista-sozietatearen funtsekin osorik zein zati batez ordaindu, ezertan eragotzi gabe lege honetan familia-etxebizitzarako xedatutakoa.

3. Ezkondu aurretik edo ezkontza bitartean dohainik eskuratutakoak.

4. Erosketa, trukaketa, ordainean emate, salmenta edo transakzioaren bidez, eta ondasun pribatiboen gaineko beste edozein subrogazioaren bidez eskuratutakoak.

5. Konkista-ondasunen kontura eskuratutakoak, baldin eta eskuratze-tituluan bi ezkontideek agerrarazi badute horietako bati ondasun pribatibo gisa egindako eratzikipena.

6. Hitzarmenezko edo legezko atzera-eskuratze eskubidea, aukera-eskubidea, jabetza lortzeko eskubidea, akzioen lehentasunezko harpidetze-eskubidea edota ezkontide bati dagozkion bestelako lehentasunezko eskuratze-eskubideak erabilita eskuratutako ondasunak.

7. Ondasun pribatiboen akzesio edo gehikuntzak.

8. Ezkontide bati dagozkion ondasun pribatibotan egindako eraikinak, landaketa berriak eta bestelako hobekuntzak.

9. Ezkontideari berari edo horren ondasun pribatiboei eragindako kalte eta galeren ordaina.

10. Pertsonari datxezkion ondasunak eta ondasun-eskubideak, eta inter vivos eskualdatu ezin direnak.

Familia-etxebizitza eta -ostilamendua. Familia-etxebizitzari eta -ostilamenduari dagokienez, horiek eskuratzen direnean edo haien prezioa osorik edo zati batean ordaintzen denean ezkontzak irauten duen bitartean (nahiz eta aurreko titulutik etorri), honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Ezkontideetako bakar baten ekarpen bera-riazkoaren bidez egin bada ordainketa, haren ondasun pribatiboa izanen da.

b) Ordainketa bi ezkontideen titulartasun pribatiboko ondasunen bidez egin bada, biena izanen da indibisioan, bakoitzaren ekarpenekiko proportzioan.

c) Ezkontide baten edo bien ondasunen eta konkista-sozietatearen ondasunen bidez ordaintzen bada, indibisioa izanen da bakoitzaren eta konkista-sozietatearen ekarpenekiko proportzioan.

Familia-etxebizitza edo -ostilamendua erosteko prezioari aurre egiteko egindako ordainketek zehaztuko dituzte aurreko atalek aipatzen dituzten ekarpenak, kontuan hartu gabe erosketa eskura, epeka edo ondoko mailegu baten bidez egin den.

Itzulketak. 2., 6., 7. eta 8. zenbakietan ezarritakoa ulertuko da kasuan-kasuan bidezkoak diren itzulketak ezertan eragotzi gabe. Itzulketa horiek gauzatzen direnean eguneratu beharko dira, dela ezkontzako sozietatearen indarraldian, dela hura likidatzen denean.

90. LEGEA

Konkista-sozietatearen kargak. Ondare komunen kargura izanen dira honakoak:

1. Familia mantentzeko gastuak, arruntak nahiz bereziak, familiaren inguruabarrak eta maila ekonomikoa aintzat hartuta, bai eta bienak diren seme-alaben hezkuntzak eta prestakuntza integralak eragindakoak ere.

2. Ezkontide baten eta bestearen seme-alaben elikadura eta biztante gastuak, mendekotasun ekonomikoa dutenenak, elkarrekin bizi diren aldietan sortutakoak, eta, halaber, ezkontideekin bizi diren eta independentzia ekonomikorik ez duten beste familiarteko edo gertukoak.

3. Ezkontide batek aurreko ezkontza bitartean izandako seme-alaben mantenuak eta hezkuntza, ezkontideak egin ez badu 114. legean jasotako ondasunen banaketa eta entrega, bidezkoa denean.

4. Ondasun erkideak administratzeko gastu arruntak eta bereziak.

5. Ezkontideek kontratuz kanpo beren gain hartutako betebeharrak, horiek konkista-sozietatearen intereserako edo horren onurarako sortu badira, ondasun erkideei buruzko administrazioaren eremuan.

6. Hirugarrenen aurka bi ezkontideek familiaren onurarako diren auziak dituztenean, edo auzia batek bakarrik duenean, auzi horietan sorturiko nahitaezko gastuak.

7. Ezkontideen ondasun pribatiboak administratzeko gastu arruntak.

8. Ezkontide bakoitzaren negozioetan, ustiapen erregularrak dakartzan gastuak, eta horien lanbide, arte edo ogibidean aritzeak sortzen dituen gastu arruntak.

91. LEGEA

Karga pribatiboak. Ezkontide bakoitzaren kargura izanen dira honakoak:

1. Bienak ez diren seme-alaben elikadura eta gainerako gastu arruntak, aurreko legearen 2. zenbakiak aurreikusitako kasuetatik kanpo, bai eta haien hezkuntzako gastuak ere.

2. Aurreko ezkontzako seme-alabak mantentzea, eta haien elikadura eta hezkuntza, ondasunen banaketa eta entrega egin badira, bidezkoa bada, 114. legearekin bat, edo bidezkoa ez bada 115. legearekin bat.

3. Ezkontideetako edozeinek jokoan galdu eta ordaindutakoa, salbu eta diru-kopuru txikiak badi-

ra, modu erregularrean eta aldiro-aldiro aplikatzen direnak zabalkunde eta jarraipen sozial handiko joko edo apustueta, bai eta zori, enbido eta ausazko jokoetan galdutakoa eta ordaindu gabekoa ere, zenbatekoa lege eskatzeko modukoa delarik.

4. Aurreko legearekin bat konkista-sozietatearen kargak ez diren gastuak eta betebeharrak.

92. LEGEA

Konkista-sozietatearen erantzukizuna. Hauen erantzukizuna ondasun erkideena izanen da, kasu bakoitzean zehazten den moduan:

1. 90. legearen arabera sozietatearen karga diren gastu eta betebeharrak, ezkontideetako batek bakarrik bere gain hartutakoak badira ere.

Azken kasu horretan, ondasun erkideena ez ezik, ezkontide zordunaren ondasun pribatiboen erantzukizun zuzena ere izanen dira. Horrez gain, nahitaez bete beharreko legezko betebeharrak, bi ezkontideenak, betetzeko, ezkontide batek bakarrik bere gain hartutako betebeharren kasuan, beste ezkontidearen ondasunena izanen da erantzukizun subsidiarioa.

Erantzukizuna aurreko bera izanen da fidantzamenduen kasuan, horiek ematea karga horien ondorioa denean.

2. Ezkontide batek nahiz besteak batera hartutako betebeharrak, edo haietako batek hartutakoak bien izenean eta biak ordezkatzuz.

Betebehar horien gaineko erantzukizun solidarioa ondare erkidearena eta bakoitzaren ondare pribatiboarena izanen da, bietako edozeinena; ondare erkidearen erantzukizuna izanen da zor osoaren gainekoa, eta pribatiboena erdiaren gainekoa.

Erantzukizun bera eraginen dute bi ezkontideek hirugarrenen alde eratutako fidantzak, 525. legean ezarritakoa ukatu gabe.

Ulertzen da aurreko zenbakietan adierazitakoa ez duela eragozten itzulketak egitea, kargaren eta hartutako erantzukizuna gauzatzeko erabili zen ondarearen izaera pribatiboaren edo erkidearen arabera bidezko direnak.

3. Ezkontide batek bestearen adostasunarekin hartutako banakako betebeharrak.

Kasu horretan, erantzukizuna, ezkontide zordunaren ondasunenaz gain, ondasun erkideena ere izanen da. Horrez gain, nahitaez bete beharreko legezko betebeharrak, bi ezkontideenak, betetzeko hartutako betebeharren kasuan, beste

ezkontidearen ondarearena izanen da erantzukizun subsidiarioa.

Horrek guztiak ez du eragozten itzulketak egitea, kargaren izaeraren eta horri aurre egiteko erabili zen ondarearen arabera bidezko direnak.

4. Nahitaez bete beharreko legezko betebeharrak, bi ezkontideenak, betetzeko, ezkontide batek bakarrik hartutako banakako betebeharren kasuan, horien gaineko erantzukizun solidarioa zorra sortu zuen ezkontidearen ondasunena eta ezkontza sozietateko ondasunena izanen da, eta erantzukizun subsidiarioa izanen da, berriz, beste ezkontidearen ondasunena, bidezko diren itzulketak eragotzi gabe.

Erantzukizun bera eraginen dute ezkontideetako batek bakarrik emandako fidantzek, ezkontuek lege eman beharreko arretengatik hirugarren batek sortutako zorrak direla eta.

93. LEGEA

Ezkontide bakoitzaren erantzukizun pertsonala. Ezkontide bakoitzaren ondare pribatuaren erantzukizunekoak izanen da 91. legean aipatzen diren kargak, bai eta ezkontideak bestearen adostasunik gabe bere gain hartzen dituenak ere, konkista sozietaren kargurako eta erantzukizunekoak ez badira 90. eta 92. legeetan aurreikusitakoarekin bat.

Erantzukizun horrek ezkontideetako batek bakarrik hirugarrenen alde emandako bermeak ere hartuko ditu.

Kasu horietan, ezkontidearen ondare pribatiboa aski ez bada, hartzekodunak konkista ondasunen enbargoa eska dezake; hori berehala jakinaraziko zaio beste ezkontideari.

Egikaritzea ondasun erkideen gainean gauzatuz gero, ulertuko da ezkontide zordunak bere partaidetzaren kontura jaso duela ondasun horien balioa, hala bere ondasunekin horiek ordaintzen dituen unean, nola ezkontzako sozietatea likidatzeko unean.

Nolanahi ere, oztopoa, edo, kasua bada, bestearen erantzukizun pribatiboa deklaritzen duen ebazpena jakinarazten denetik hasita bederatzi eguneko epean, zorduna ez den ezkontideak zordunaren ondasun pribatiboak jarri ahal izanen ditu, hartutako erantzukizunerako nahikoak direnak, edo oztopoa ordeztzeko eskatu, konkista ondasunetakoak izan beharrean, ezkontza sozietatearen likidazioan ezkontide zordunari esleitzen zaion gerakinekua izan dadin; kasu horretan, enbargoak bererekin ekarriko du ezkontza-sozietatea desegitea eta likidatzea, eta ondasu-

nen banaketako araubidea aplikatuko da, 101. legean aurreikusitako moduan.

94. LEGEA

Administrazioa eta xedapena. Ezkontzako itunetan edo eskritura publikoan hitzarturikoak arautuko ditu konkista ondasunen administrazioa eta xedapena.

Ezer itundu ezean, bi ezkontideei batera dagozkie halakoak, hurrengo apartatuetan ezarritakoa eragotzi gabe:

1. Ezkontideetako batek ezintasunen bat badu eta, horren ondorioz, ezin badu adostasunik eman, konkista ondasunak administratu edo xedatzeko egintza bati edo batzuei begira, edo hori egiteari ezezkua ematen badio arrazoirik gabe, epai-leak erabakiko du.

2. Ezkontide batek bere kabuz egin ditzake konkista-sozietatearen ondasun edo eskubideen gaineko administrazio-egintzak eta izaera bereko diruaren edo balore-tituluen gaineko xedatze egintzak, baldin eta horiek beraren esku edo izenean badaude, eta berarentzat eraturiko kreditu-eskubideak erabil ditzake; hori hala da, kasuan-kasuan bidezko diren itzulketak eragotzi gabe.

3. Bi ezkontideak adingabeak badira, horien gurasoen laguntza edo, hala behar denean, legeko ordezkariarena, beharrezkoa izanen da, ondasun higiezinak, merkataritzako nahiz industriako establezimenduak, horien oinarritzako osagaiak edo aparteko balioa duten objektu erkideak besterendu edota kargatzeko.

Aurreko paragrafoan aipatzen den laguntza ez da beharrezkoa izanen ezkontideetako bat bakarrik adingabea denean; halakoetan, nahiko da bi ezkontideen adostasuna.

4. Administrazioa eta xedapena lege-aginduz transferituko zaizkio ezkontidearen tutoreari edo legezko ordezkariari hark jarduteko gaitasuna aldatua duenean.

5. Ezkontideen adostasuna ezin izanen da ordeztu konkista-ondasunak dohainik besterendu edo kargatzeko. Hala ere, bi ezkontideek euren kabuz egin ditzakete dohaintza neurrizkoak, familiaren mailarekin eta gizarte usadioekin bat etorritik.

6. Mortis causa egintzen bidez, ezkontide bakoitzak xeda ditzake bere ondasun pribatiboak, bai eta ezkontzako sozietatea desegindakoan konkista-ondasunetatik dagokion zatia ere. Konkista-ondasun zehatzak xedatzen direnean, 251. legeak legatuari buruz ezarritakoa bete beharko da.

95. LEGEA

Desegitea. Konkisten ezkontza sozietatea desegiteko arrazoi dira:

1. Ezkontzako itunetan ezarritakoak.
2. Bi ezkontideak ados egotea; baina, aldez aurretik ezkontzako itunak egiletsi badituzte, 86. legean ezarritakoa bete beharko da.
3. Bi ezkontideetako baten heriotza.
4. Ezkontzaren deuseztasuna, banaketa edo dibortzioa deklaratu duen ebazpen judiziala.
5. Ezkontide batek hala eskatuta, hori dekretatu duen ebazpen judiziala, hurrengo kasuetan:
 - a) Beste ezkontidearen gaitasuna judizialki aldatu bada, edo horren absentsia deklaratu denean.
 - b) Beste ezkontidea konkurtsoan deklaratu dutenean, ondorio hori Konkurtso Legean aurreikusita dagoenean.
 - c) Beste ezkontideak bere kabuz zenbait egin-tza burutzea eta egintza horiek desegitea eskatu duen ezkontideari iruzur, kalte edo arriskua ekar-tzea, konkista sozietatean dagozkion eskubideetan.
 - d) Ezkontideek egitez urtebete baino gehiago banandurik dutenean.
 - e) Konkista-ondasunen gainean enbargoa dekretatu denean beste ezkontidearen betebeharrak pertsonalen ondorioz, 93. legearen azken para-grafoan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

Zenbaki honetan jasotako kasu guztietan, desegite-arrazoiari buruzko auzia sortzen bada, behin horren izapidetzea hasi eta gero, epaileak inbentarioa egiteko xedatuko du, eta behar diren neurriak hartuko ditu konkista-sozietatearen ondasunak administratzeko; halaber, epailearen baimena beharrezkoa izanen da, administrazio arrunta gainditzeko duten egintzak gauzatzeko.

96. LEGEA

Arrazoirik gabeko irabaziak itzultzea. Edozein kasutan, konkista-sozietatea desegin ez bada ere, ondare pribatiboaren eta konkista ondarearen artean itzulketak egin beharko dira, ondare baten mesederako eta bestearen kalterako irabaziak gertatu badira inolako arrazoirik gabe.

Itzulketen zenbatekoa gauzatzen diren unean eguneratu beharko da, hala ezkontzako sozietateak dirauen bitartean, nola likidatzen denean.

97. LEGEA

Likidazioa. Behin sozietatea desegin eta gero, horren likidazioa egin beharko da, eta aktibo eta pasiboaren inbentarioa eginez hasiko da. Inbentarioa ez da beharrezkoa izanen, interesdun guztiek onartu badute alargunak berari dagokion alarguntza-gozamena dela-eta egin duena.

Aktiboa. Aktiboan sartuko dira desegite-unean dauden konkista-ondasun guztiak, bai eta sozietateak ezkontideekin dituen kredituak ere, eta, horien artean, konkista-sozietatearen erantzukizuna diren itzulketek, karga pribatiboen ondoriozkoek, eragindakoak ere.

Pasiboa. Pasiboak bere barnean hartuko ditu, sozietatearen erantzukizunekoak izanik, ordaindu gabe dauden betebeharrak, ezkontideek sozietatearen aurka dituzten kredituen ondoriozkoak barne.

Ordainketa. Behin inbentarioa amaitu eta gero, sozietatearen zorrak ordainduko dira, horrek ezkontideekin dituenak barne, kredituen pilaketa eta hurrenkerari buruzko xedapenekin bat etorritik.

Sozietatearen hartzekodunek horren likidazioan izanen dituzte jarauntsia likidatu eta banatzean lege dagozkien eskubide berberak.

Mantenua. Ondasunen masa erkidetik mantenua emanen zaie ezkontideei edo, hala denean, alargun eta seme-alabei, masa horren hartzekoa osatzen duten ondasunen entrega egin arte. Emandako mantenuak hartzekoaren fruitu eta etekinetatik kenduko dira; azken horiek baino gehiago izanez gero, hartzekotik bertatik ere kenduko dira.

98. LEGEA

Zatiketa. Konkista-ondasunen gerakin likidoa zatituko da ezkontideek itundutako proportzioan edo, ezer itundu ezean, ezkontideen edo horien jaraunsleen artean erdibana.

Abantaila-eskubideak. Hobetzeko edo abantaila-eskubidea dela bide, alargunaren jabetzakoak izanen dira, konkistetan berari dagokion zatian zenbatu gabe, jantziak eta norberak erabiltzeko bestelako tresnak, bai eta etxeko ostilamenduaren gainerako objektuak ere, horien balioa ez bada gehiegizkoa, familiaren maila ekonomikoarekin eta usadio sozialekin bat etorritik. Era berean, abantaila gisa ere ken daitezke, ondare erkidearekin alderatuz gero, neurritz kanpoko baliorik ez duten lanabesak ere.

99. LEGEA

Lehentasunezko adjudikazioa. Konkista-sozietatearen likidazioan, ezkontide bakoitzak eskubidea izanen du hurrengo ondasunak berari adjudikatzeko, bere hartzekoaren ordain gisa eta horren neurrian, betiere, ondasunok erkideak direnean:

1. Ezkontideetatik edozeinek konkista-sozietatera itun bidez erantsitako ondasun pribatiboak.

2. Etxeko ostilamendua osatzen duten objektu eta lanabesak, aurreko legearekin bat etorritz horiek ezkontidearenak ez badira abantaila-eskubidea dela bide.

3. Ezkontidearen ardurapeko ustategia, hori nekazaritza, abeltzaintza, baso, merkataritza nahiz industriakoa izan.

4. Lanbide, arte edo ogibidean aritzeko, ezkontideak erabili izan duen lokala.

5. Beste ezkontidea hiltzen denean, ezkontideon ohiko bizilekua izan den etxebizitza.

1., 4. eta 5. zenbakietako kasuetan, alargunak galda dezake ondasunen jabetza osoa berari eratzikitzeko edo, bestela, horien gaineko erabilite- edo biztante-eskubidea bakarrik. Jabetzaren balioak edo kasuan kasuko eskubidearenak gainditzten badu ezkontide adjudikazio-hartzailearen hartzekoa, ezkontide horrek diruz ordaindu beharko du aldea.

100. LEGEA

Ondorioak. Ezkontideek ezkontzako itunetan ondasunen erkidego unibertsalaren araubidea ituntzen badute, honako erregela hauek aplikatuko dira, ez bada itunik espresuki ezartzen ondasun erkideen multzoa osatzen duten ondasun eta kargei buruz, eta haren administrazioari, desegiteari eta likidazioari buruz:

1. Araubide honen bidez erkide bihurtzen dira ezkontideen oraingo eta etorkizuneko ondasun guztiak, horiek eskuratzeko titulua edozein izanda ere, kostu bidezkoa nahiz dohainekoa, inter vivos zein mortis causa.

2. Ondare erkidearen erantzukizuna izanen dira bi ezkontideei dagozkien karga eta betebeharrak guztiak, biek batera nahiz batek bakarrik hartuak izan, bai eta haietako edozeini banaka dagozkionak ere, ezkontza aurrekoak nahiz ondokoak izan.

3. Ondasun erkideak administratu eta xedatzeari dagokionez, 94. legean konkista-ondasunei buruz aurreikusitakoa aplikatuko da, 78. legetik 82. legera bitartekoetan guztientzat aurreikusitakoa ukatu gabe.

4. Ezkontza desegitean, ondasun erkideen gerakin likidoa banatuko da, ezkontideek hitzarturiko proportzioan eta, ezer itundu ezean, ezkontideen edo horien jaraunsleen artean erdibana.

5. Ezkontideek itundu ez dituzten kontuetan edo lege honetan aurreikusirik ez daudenetan, analogiaz aplikatuko dira konpilazio honetan konkista-araubideari buruz ezarritako xedapenak, hori ondasunen erkidego unibertsalaren araubidearen aurkakoa edo horrekin bateraezina ez den neurrian.

101. LEGEA

Hitzarmenezko banantzea eta edukia itunik izan ezean. Ezkontideek ezkontzako itunetan ondasunen banaketa-araubidea ituntzen badute edo araubide hori ezartzen bada lege xedapenez, bertan berariazko xedapenik ez badago, honako erregela hauek aplikatuko dira:

1. Ezkontide bakoitza hasierako unean dituen ondasunen titular izanen da, bai eta ondoren edozein tituluren bidez eskuratzen dituenena ere.

Ondasun eta eskubideak, erdi bana eta indibisoan, bi ezkontideei dagozkiela uste izanen da, horien banako jabetza frogatzen ez bada, edo kuota eratzikipenik gabe eskuratu badira.

2. Ezkontide bakoitzari berari dagokio bere ondasunen luperketa, administrazioa eta xedapena, 81. legean familiaren etxebizitzarako xedatutakoa eragotzi gabe.

3. Ezkontide bakoitzak izanen du berak hartutako betebeharren gaineko erabateko erantzukizuna. Hala ere, ezkontide batek betebeharrak bere gain hartzen baditu, etxeko ahala erabiliz, familiak bere mailarekin eta 80. legean aipatzen den tokiko usadioarekin bat etorritz dituen beharrian arrunt eta bereziei erantzuteko, eta ezkontide zordunaren ondarea aski ez bada, orduan, beste ezkontidearen ondasunek erantzukizun subsidarioa izanen dute, kasuan-kasuan bidezko diren itzulketak ukatu gabe.

4. Ezkontzako itunetan itundutakoa eragotzi gabe, ezkontide bakoitzak eginen die aurre ezkontuen gastuei 80. legean ezarritakoarekin bat, bere ahalmen ekonomikoaren eta dedikazio pertsonalaren proportzioan.

5. Ezkontide batek modu pertsonalean eta ordainsaririk gabe familiarentzat egindako lanaren eraginez, ezkontide horri ezkontuen gastuetan proportzioan dagokion ekarpena gainditzten bada, bestearen ekarpen ekonomiko eta pertsonalarekin

alderatuta, konpentsazioa jaso beharko du araubideaz azkentzen den unean.

Konpentsazio horren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira, familiaren maila ekonomikoaren eta inguruabarren barruan, ezkontza urteak eta seme-alaben eta ezkontideekin bizi diren beste familiarteko batzuei emandako dedikazioaren eta arreta pertsonalaren iraupena eta intentsitatea.

6. Horrez gain, ezkontideetako batek lan egin badu bestearen enpresa edo lanbide jardueretan, eskubidea izanen du konpentsazioa jasotzeko, egindako lanaren proportziokoa, lan horren truke ordainsaririk jaso ez, edo jasotakoa aski izan ez bada, ezkonduen kargetan laguntzeko betebeharraren izandako soberakinak direla-eta itzulketaz egiten badira ere.

102. LEGEA

Banantze judiziala. Banantzea epaiketa bidez dekretu daiteke, 95. legeko 5. zenbakian ezarritako arrazoiaren ondorioz, ezkontzako ondasun-araubidea edozein izanda ere.

Likidazioa konpilazio honetako erregelekin bat etorritik egiten da, kasuan kasuko araubidearen arabera.

103. LEGEA

Itunak egiteko askatasuna. Ezkontzaren haustura aurreikusirik edo hura gertatu ondoren, ezkontideek haren ondorio ekonomiko guztiak itundu ahal izanen dituzte, ezertan ukatu gabe V. tituluan xedatutakoa, adingabeko seme-alaben gaineko guraso-erantzukizunari dagokionez.

Itun horiek kasuan kasuko ondorioak izanen dituzte, agiri publiko edo pribatuan egiletsi diren edo deuseztasun, banantze edo dibortzioa arautzen duen hitzarmenean jaso diren.

Ezkontideek itun horietan jaso dezakete bitartekaritza baliatzeko konpromisoa, horien aplikazioak eragiten dituen desadostasunak ebazteko.

104. LEGEA

Neurri judizialak. a) Adin nagusiko seme-alabak mantentzen laguntzea. Itunik ez dagoenean, epaileak ezarriko du zein den guraso bakoitzak eman beharreko laguntza, ekonomikoki haien mendeko diren adin nagusiko seme-alabak mantentzeko, 73. legean ezarritakoarekin bat, aplikatzekoa den guztian.

Hala eta guzti ere, epaileak ezar dezake, hala eskatzen denean, guraso bakoitzak adin nagusiko

seme-alabak mantentzeko ordaindu beharreko kopurua seme-alabei ematea zuzenean.

b) Familiaren etxebizitza. Adingabeko seme-alabak dauden kasurako 72. legean ezarritakoa eragotzi gabe, halakorik ez dagoenean edo denak adin nagusikoak direnean, epaileak behar handiena duen ezkontideari eman diezaiolke familiaren etxebizitza erabiltzeko eskubidea, etxebizitzaren titularra ez bada, betiere aldi baterako.

Erabiltzeko eskubidearen epea epaileak ezarriko du, zuhurtiaz, inguruabarrak kontuan harturik, batez ere ekonomikoki gurasoen mende dauden adin nagusiko seme-alaben biztantzaren beharrak.

105. LEGEA

c) Desorekatik konpentsazioa. Ezkontza haustean ezkontideetako baten egoera ekonomikoa desorekatua bada beste ezkontidearekiko, familiari emandako dedikazioagatik, epaileak haren alde ezar dezake, hala eskatuz gero, desorekatik konpentsazio bat, eman daitekeena aldi baterako edo epe mugagaberako prestazio gisa, edo osotarako diru-kopuru gisa; horretarako, besteak beste, inguruabar hauek hartuko ditu aintzat:

1. Bizikidetzaren iraupena, osotara, eta denbora horretan familiari emandako dedikazioa.

2. Ezkontide bakoitzaren egoera ekonomiko orokorra ezkontza haustean, eta, bereziki, haien ezkontza-araubide ekonomikoaren arabera, ezkontza bitartean ezkontide bakoitzak izandako ondare eskualdaketez eragindakoa.

3. Ezkontide bakoitzaren lan edo lanbide aukerak, adina eta osasun egoera kontuan hartuta, eta seme-alaben zaintzan etorkizunean izanen duen dedikazioa.

4. Eskatzaileak aukerak galdu izana, lanerako, profesionalak edo prestazioak jasotzekoak, eta, batez ere, galera hori gertatu denean beste ezkontidearen jardueretan edo haren prestazio eskubideak aitortzen laguntzeagatik.

5. Familiaren etxebizitzaren erabilera nori esleitu zaion eta horrek dakarren gastu araubidea.

Aldaketa. Konpentsazioa aldi baterako edo mugagabeko prestazio gisa ematea ezarri denean, haren zenbatekoa, ordainketa modua edo iraupena aldatu ahal izanen da ezkontide baten edo bestearen inguruabarrak aldatzen badira, eta, horrekin batera, konpentsazioa ezarri zenean zuten egoera.

Az kentzea. Konpentsazioaren prestazioa arrazoi hauengatik azkenduko da: hartzekodunaren

heriotza, ezkontza edo bikote egonkorra osatzea, edo beste norbaitekin ezkon-bizitza egitea, ezarritako epea betetzea, bai eta prestazioak bere xedea betetzeari uztea dakarren beste edozein inguruabar ere.

Kasu hauetan, prestazioa aldatzea edo azkentzea deklaratzeko duen epaiak atzeraeraginezko ondorioak ezarri ahal izanzen ditu, hura eragin duen arrazoia gertatzen hasi zen unera arte.

Zordunaren heriotza. Zordunaren heriotzak ez du berez azkentzen konpentsazio gisa ezarritako prestazioa.

Epaileak ebatziko du kasu bakoitzean prestazioaren iraupenaz, haren zenbatekoaren aldaketaz, aldi baterako prestazioaren ordezkariaren oso bat edo ondasunak emateaz, edo azkentzeaz, bai eta, kasu bada, betebeharraren eta banaketa ekitatiboaren erantzukizunaz ere, zordunaren oinorde unibertsal edo partikularren artean, eta, baleude, biziarteko gozamenduen artean; horretarako, inguruabar hauek hartuko ditu kontuan, besteak beste:

1. Jarauntsiaren ondarearen eta oinordeek edo gozamendunek haren gainean dituzten eskubide zehatzen balio garbia, errentagarritasuna eta likidetasuna.

2. Ezkontideek dituzten betebeharrak, beraiekin bizi diren adingabeko seme-alabak edo gaitasuna judizialki aldatua dutenak edo mendekotasun ekonomikoa duten adin nagusikoak mantentzeko, bai eta bestelako mantenu-betebeharrak ere, konpilazio honen legeekin edo lege orokorrekin bat bere gain hartu behar dituztenak.

3. Haietarikoa bakoitzak dituen behar pertsonalak eta ekonomikoa.

Lege honen arabera prestazio hori betetzeko beharra dutenek eskatu ahal izanzen dute, kasuan kasuko adierazpen edo exekuzio prozeduran, ordainketa etetea aurreko paragrafoan aipatzen diren gaiak behin betiko ebatzi arte, eta etendura horren ondorioek atzeraeragina izanzen dute, zordunaren heriotzaren unera arte.

106. LEGEA

Eraketa. Bi adin nagusikok edo bi adingabe emantzipatutako, ezkontzaren pareko bizi-erkideko afektiboan bizi direnek, bikote egonkorra era dezakete, konpilazio honetan aurreikusitako ondorioekin, borondate hori agiri publikoan adieraziz.

Erregistroa. Bikote egonkorra Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren erregistro bakarrean eman beharko du izena, erregistro horren gaineko arauan aurreikusitako frogak eta

publizitatearen ondorioak izateko, bai eta lege xedapenetan ezarritako ondorioak ere izateko.

107. LEGEA

Debekuak. Honakoek ezin dute bikote egonkorra eratu:

1. Ezkontuta daudenak edo beste pertsona baten bikotekide egonkorra direnak.

2. Elkarren artean odol edo adopzio bidezko ahaidetasun zuzena edo bigarren graduako albokoa dutenak.

Ezin izanzen da aldi baterako bikote egonkorra osatzea hitzartu, ezta baldintzapetu ere.

108. LEGEA

Ahaidetasuna. Bikote egonkorra ez du inolako ahaidetasun harremanik sortzen bikotekide bakoitzaren eta bestearen ahaideen artean.

109. LEGEA

Bikote egonkorren araubide iraunkorra. Bikotekideek itun bidez arautu ahal izanzen dituzte harremanaren alderdi pertsonalak, familiarak eta ondarekoak, bai eta haien eskubideak eta betebeharrak ere.

Familiaren etxebizitza. Familiaren etxebizitzaren erabilerari 81. legean xedatutakoa aplikatuko zaio, bikotekideen artean kontrakoa ituntzen ez bada.

Gastu komunak eta ekarpena. Bikotearen gastu komunak dira bikotekideen eta bien seme-alaben beharrei aurre egiteko beharrezkoak direnak, bai eta bietako batenak direnen mantenuak eta biztantzak eragindakoak ere, familiaren etxebizitzan bizi badira.

Itunik ez badago, bikote egonkorreko kideek familiaren etxebizitza mantentzeko eta gastu komunitateko egiten duten ekarpena bakoitzaren baliabide ekonomikoen proportzioaren arabera izanzen da; horretarako, kontuan hartuko da familiarentzat emandako lan pertsonala eta beraiekin bizi diren seme-alaben, bienak izan nahiz ez, eta gainerako pertsonen zaintzan duten dedikazioa.

Erantzukizun zibila hirugarrenen aurrean. Bikotekideek erantzukizun solidarioa izanzen dute hirugarrenen aurrean haietako bakoitzak, aurreko paragrafoan aipatzen diren gastuak direla-eta, bere gain hartutako betebeharrengatik, baldin eta bat badatoz usadio sozialekin eta ukatu gabe dagozkion itzulketak, egin behar badira, barne harremanekin bat.

110. LEGEA

Azkentzeko arrazoiak. Arrazoi hauengatik azkenduko da bikote egonkorra:

1. Bikotekideetako baten heriotzagatik edo heriotza-deklarazioagatik.
2. Bikotekide baten ezkontzagatik eta bien arteko ezkontzagatik.
3. Bikotekideen adostasunagatik.
4. Bikotekide batek hori nahi duelako, beste kideari modu frogagarrian jakinarazita.
5. Bizikidetza amaitzeagatik, bizi-erkidegoaren egiazko haustura gertatuta.

Bikote egonkorren azkentzea jakinarazi beharko du bikotekideetako edozeinek erregistro bakarrari, zeinetan dagoen inskribatuta, horri; bizi-kideetako edozeinek bestearen alde emandako adostasunak eta ahalordeak errebokatzea ekarriko du azkentzeak.

Bikotea azkentzen bada, kideen artean emandako dohaintzak errebokatu ahal izanen dira, tituluaren aurreikusitako arrazoiez gain, epaileak deklaritzen duenean dohaintza-hartzaileak ez dituela bete familia betebeharrak.

111. LEGEA

Bizikidetzaren amaiera aurreikusten duten itunak. Bizikidetzaren amaiera aurreikusita, eskritura publikoan itundu ahal izanen dira bikote egonkorren azkentzeak izanen dituen ondorioak.

112. LEGEA

Azkentzearen ondorioak. Bizikidetza amaitzen denean, konpentsazioaren xede izan daiteke familiarentzat egindako lana ez ezik, nahiz bai bikotekide batek bestearen enpresa edo lanbide jardueretan egindakoa ere, 101. legearen 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako moduan.

113. LEGEA

Oinordetzarako eskubideak. Bikote egonkorra azkentzen bada bikotekide baten heriotzagatik edo heriotzaren deklarazioagatik, bizirik dirauen bikotekidearen oinordetzarako eskubideak elkarri edo bietako batek bestearen alde, batera edo bakoitzak bere aldetik, egiletsi dituztenak baizik ez dira izanen, betiere testamentu, oinordetza itun edo mortis causa dohaintza bidez, edo konpilazio honetan onartzen diren gainerako xedapen egin-tzak erabiliz egiletsiak.

114. LEGEA

Aurreko ezkontzaren edo bikote egonkorren ezkontzako sozietatea edo ondasun-erkidegoa

likidatzea. Bigarrenaz edo gehiagogarrenez ezkondu edo bikote egonkorra eratzen duen gurasoak desagindako ezkontzako sozietatearen edo ondasun-erkidegoaren likidazioa egin beharko du, ezkontide edo bikotekidearen heriotzagatik desagindako aurreko ezkontzan edo bikote egonkorrean izandako seme-alabekin edo ondorengoekin batera, eta seme-alaba edo ondorengo horiei dagozkien ondasunen entrega formal eta egiazkoa egin beharko die, lehenik hildakoaren jaraunsleak edo zati alikuotaren legatu-hartzaileak badira.

Defendatzaile judizialak ordezkatzeko ditu seme-alaba adingabeak emantzipatugabeak.

Aurreko elkartzeko edo bikoteko seme-alaben eskubideak. Ezkondu edo bikote egonkorra eratu aurretik, gurasoek aurreko paragrafoak ezartzen dien betebeharra bete ez badute, aurreko ezkontzako edo bikote egonkorreko seme-alabek edo ondorengoek galdatu ahal izanen dute likidazioa, eta erreklamatu dagokiena beraien ondasunek ezkontzako sozietate edo ondasun-erkidego berrian sortutako ondare-gehitzeengatik edo irabaziengatik.

Lege honetan xedaturikoa bete beharko da, baldin eta ezkontza edo bikote egonkor berriaren ondasun-araubidea ondasun-erkidegoa bada.

115. LEGEA

Salbuespenak. Aurreko legean xedatutakoa ez da aplikatzeko kasu hauetan:

1. Lehenik hiltzen denaren heriotza-unean, haren jaraunsle bakar eta unibertsala bizirik dirauena denean.
2. Hildakoak jaraunsle izendatu duenean bere ezkontidea edo bikotekidea, edo bere seme-alabek edo ondorengoez beste pertsona batzuk.
3. Hildakoak jaraunsle izendatu dituen seme-alabak, soilik bere ondasun pribatiboetarako.
4. Hildakoak bizirik dirauena izendatu duenean konfiantzazko jaraunsle edo fiduziariokomisario, horretarako baldintza bezala jarri gabe berriz ezkontzea edo bikote egonkor berria eratzea.
5. Bizirik dirauena denean jaraunsle-fiduziarioa, edo seme-alabak edo ondorengoak jaraunsle fideikomisodunak.
6. Ezkontzako sozietatea edo erkidegoa desagiteko unean, behar besteko ondasunik ez dagoenean, geroko ezkontzan edo bikotean horiekin irabaziak lortu direla uste izateko. Bizirik dirauen ezkontideak edo bikotekideak notario-aktan edo adiskidetze-ekitaldian agerrarazi beharko du hala-

ko ondasunik ez dagoela, eta interesdunei edo horien ordezkari legitimoiei jakinarazpena edo zita-zioa eginen die.

116. LEGEA

Ezkontzako sozietatea edo ondasun-erkidegoa likidatzea, aurreko elkartze batzuetako ondorengoak daudenean. Ezkontzako sozietateari edo ondasun-erkidegoari begira, aurreko elkartze batzuetako seme-alaba edo ondorengoek interesa badute, banan-banan eta ondoz ondo eginen da haietako bakoitzaren likidazioa.

Ezkontza bakoitzeko seme-alaba edo ondorengoei dagozkien hartzekoetara bilduko dira:

1. Geroko ezkontza egin edo bikote egonkorra eratu aurretik, 114. legearekin bat etorritz horiei eman behar zitzaizkien ondasunak.

2. Hurrengo edo ondorengo elkartzeekin dituzten kredituak, aipatutako legearekin bat.

1. zenbakian zehazturiko hartzekoak kobratzeko, lehentasuna izanen dute elkartze zaharreneko seme-alaba edo ondorengoek.

2. zenbakiko hartzekoei dagokienez, lehentasunik gabe parte hartuko dute aurreko elkartzeetako seme-alaba edo ondorengo guztiek.

Banaketa. Aurreko beste elkartze batzuetako seme-alaba edo ondorengoak batera pilatzen badira, horiek ezkontide edo bikote egonkorreko kide batenak nahiz bienak izan, ondare-gehitzeak eta irabaziak buruko banatuko da seme-alaba horien artean; aurrenik hildako seme edo alabaren ondorengoek ordezkapen-eskubidea izanen dute.

117. LEGEA

Definizioa. Ohiko etxebizitza berean bizi diren bi adin nagusikok edo gehiagok, hala irauteko borondatearekin, kontraprestazio ekonomikorik gabe eta elkarri laguntza emateko helburuarekin, gastu komunak eta etxeko lanak denen artean banatuz, elkarri laguntzeko harremana era deza-kete idatzizko hitzarmen baten bidez.

118. LEGEA

Betebehar pertsonalak eta debekuak. Elkarlaguntzarako harremana era dezakete alboko ahaidetasunez, gradu mugarik gabeaz, adiskidetasunez edo kidetasunez lotuta daudenek.

Ezin dute halakorik eratu ezkontideek, ezta bikote egonkorreko kideek edo izatezko bikotekideek.

119. LEGEA

Araubidea bizikidetzan. Bizikideek idatzizko itun bidez arautu ahal izanen dituzte bizikidetzan izanen dituzten harreman pertsonalak, eskubideak eta betebeharrak, bai eta haietako bakoitzak gastu komunetarako eta etxeko lanetan eginen duen ekarpen berdina edo desberdina ere.

120. LEGEA

Familiarentzako dohaintza motak. Familiarentzako dohaintzak hauek dira:

1. Ezkontideek edo bikotekideek elkarri egiten dizkieten dohaintzak ezkontzagatik edo bizikidetzaren hasieragatik.

2. Ezkontideek edo bizikideek elkarri egindako dohaintzak, ezkontzan edo bizikidetzan zehar edo hura amaitzen denerako oreka ekonomikoa mantentzeko asmoarekin.

3. Pertsona batek edo batzuek batera egindako dohaintzak, ezkontide baten edo bien alde, bikotekide baten edo bien alde, edo familia taldea eratu duen baten alde, betiere dohaintza horien bitartez ondasun batzuk eskualdatzen badira ezkontza, bizikidetzaren hasiera edo familia-talde berri hori eratzea dela eta.

4. Pertsona batek edo batzuek batera egindako dohaintzak, bere familiak belaunaldi berri batean irautea dela eta, ezkontide baten edo bien alde, bikotekide baten edo bien alde, edo familia-taldea eratu duen baten alde, betiere dohaintza horiek ondasunen eskualdaketa badira, familiaren ondarearen edo enpresaren batasunari eta iraupenari eusteko helburuarekin.

121. LEGEA

Edukia. Dohaintzak izan daitezke oraingo ondasun zehatz batzuen gainekoak, oraingo eta etorkizuneko ondasun guztien gainekoak edo dohaintza-emailea hiltzean geratzen direnen gainekoak; jabari osoan edo gozamenaren erreserbarekin egin daitezke, eta, halaber, xedapen librearekin edo mugatuarekin, errebokatze edo lehengoratzeko klausulekin, oinordetza deiekin eta fideikomisoekin edo zilegi den beste edozein baldintzarekin.

122. LEGEA

Epeak, forma eta onarpena. Dohaintzak ezkontza egin, bizikidetzari hasi edo familia talde berria eratu aurretik edo ondoren, egin daitezke, eta ezkontzako itunen edo eskritura publikoaren bidez egiletsi beharko dira, ondasunak deskribatuta eskrituran bertan edo erantsitako inbentarioan.

Dohaintzetan nahitaezkoa da dohaintza-hartzailearen onarpena, dohaintzaren eskrituran bertan edo bestelako eskritura bananduan adierazia.

Dohaintza-emailea edo emaileak bizirik dagoela edo hil ondotik egin ahal izanen da onarpena.

Dohaintza-emaileek edo horren jaraunsleek dohaintza errebokatu ahal izanen dute onarpenaren berririk ez badute, salbu eta, notario-aktaren bidez dohaintza-hartzaileari errekerimendua egin eta hori jasotzearekin batera, horrek onarpena ematen duenean.

123. LEGEA

Araubidea. Familiako dohaintzei hurrengo erregelak aplikatuko zaizkie:

1. Dohaintza-hartzaile unibertsala oinordekoa da jaraunsle gisa, baina ez du inolako erantzukizunik dohaintza-emaileek dohaintzaren ondotik egindako zorren gainean, horiek familiaren ondare edo enpresaren onurarako direnean izan ezik.

2. Oraingo eta etorkizuneko ondasun guztien gaineko dohaintza unibertsalean, aurkako itunik izan ezean, uste izanen da dohaintza-hartzaileak etorkizunekoak eskuratzen dituela dohaintza-emailea hildakoan bakarrik.

3. Dohaintza unibertsalean dohaintza-emaileek ondasun edo zenbatekoen erreserba egiten badute, xedapen librerako, honakoa uste izanen da: a) xedapen librea inter vivos nahiz mortis causa izan dela; b) erreserba batera egiten dela dohaintza-emaileen alde, eta oso-osorik bizirik dirauenarentzat; c) dohaintza-emaile guztiak hil ondoren, xedatu ez dituzten erreserbako ondasun guztiak dohaintza-hartzailearenak izanen direla, dohaintzan sartuta daudela ulertuta; d) dohaintza-emaileek dohaintza egitean ezkutatutako zorren gaineko erantzukizuna lehentasunez haiek erreserbatutako ondasunena izanen dela.

4. Norbaitek dohaintza egiten badu bera hiltzeko unean geratuko denaren gain, orduan, bere ondasunak kostu bidezko inter vivos egintzen bitartez bakarrik xedatu ahal izanen ditu.

5. Dohaintza-emaileek eurentzat erreserbatu badituzte gozamina eta administrazioa, uste izanen da, aurkako xedapenik izan ezean, erreserba dohaintza-emaileentzat batera egin dela, eta oso-osorik bizirik dirauenarentzat.

6. Bestelako xedapenik izan ezean, dohaintza-hartzaileak dohaintza-emaileen hileta gastuak ordenatu eta ordaindu beharko ditu, tokiko usadioarekin bat etorritik eta familiaren maila ekonomikoaren arabera.

7. Dohaintzaren bidez, dohaintza-hartzaileei dohaintza-emaileekin bizitzeko edo haiei laguntza emateko betebeharra ezartzen bazaie, bizikidetzari uzteak edo laguntza emateko betebeharra ez betetzeak aukera emanen die dohaintza-emaileei edo horietatik bizirik dirauenari dohaintza errebokatzeko. Errebokatzeko eskritura egiletsi ahal izanen da bizikidetzari uztea edo ez-betetzea notarioaren nabaritasun akta bidez justifikatu ondoren.

8. Etorkizuneko pertsonentzat egindako lehengoratzeetan eta fideikomisozko ordezpenean, 223. eta 224. legeetan xedaturikoa bete beharko da.

9. Edozein pertsonari egindako oinordetza-deiak dohaintza moduan hartuko dira, espresuki hala agerrarazten denean. Gainerako kasuetan, deiok oinordetzarako deien balio hutsa izanen dute; hori dela eta, dei horiek ez dakarte inongo debekurik, ondasunak kostu bidez xedatzeko, eta oinordetzara deituak oinordeko izanen dira, soilik, dohaintza-emailea hiltzean geratzen diren ondasunena.

10. Dohaintzan emandako ondasunen administrazio eta zuzendaritzari buruz ez bada ezer itundu, ulertuko da horiek dohaintza-emaileei edo horietatik bizirik dirauenari dagozkiela, betiere, horiek eurentzat gozamina erreserbatu badute.

11. Dohaintza-hartzaileen eta dohaintza-emaileen bizikidetzaituna egin bada, eta azken horiek eurentzat erreserbatu badute dohaintzan emandako ondasunen gozamina, horietatik inork ezin izanen du, besteen adostasunik gabe, jabetza soila besterendu, horren gaineko luperketa laga, ezta horietako bakoitzari dagozkion eskubi-deak kargatu ere.

124. LEGEA

Xedapena. Tituluan ez bada bestelakorik ordenatu, dohaintza-hartzaileak, dohaintza zein ezkontzari, bikoteri edo familia unitatea eratu duen pertsonari begira egin den, horien seme-alabek, edota dohaintzan emandako ondasunak jarauntsiaren bidez eta ondoz ondo jaso duten ondorengoek, ondasunok xedatu ahal izanen dituzte, kostu bidez betiere; dohainik xedatu ahal izanen ditu, berriz, dohaintza-hartzaileak, dohaintza zein ezkontzari, bikote egonkorri edo eratutako familia unitateri begira egin den, horren ondorengoak dituenak, testamentua egiteko gaitasuna badu, bai eta haren ondorengoek ere, haiek ondorengorik izan ez arren.

Lehengoratzea. Dohaintza-hartzaileak edo berorren ondorengoek ez badituzte baliozkotasu-

nez eta aurreko paragrafoaren arabera xedatu dohaintzan jasotako ondasunak, dohaintza-emaileari lehengoratuko zaizkio haietatik azkena hiltzen denean. Ezkontide dohaintza-emaileen konkista-ondasunak izanez gero, lehengoratzea erdi bana gauzatuko da bi ezkontideen mesedera-ko.

Dohaintza-emailea hiltzen bada, dohaintzan emandako ondasunak ahaiderik hurbilenei lehengoratuko zaizkie, lehengoratzea egiteko unean horiek dohaintza-emailearen legezko jaraunsleak badira.

Gozamena baztertzeke itunik egon ezean, lehengoratzea beti gauzatuko da dohaintza-hartzailearen ezkontide alargunarentzat edo bikotekidearentzat eraturiko alarguntza-gozamena ukatu gabe, edo, dohaintza-emailea ezkontidearen edo bikotekidearen aurretik hilez gero, ezkontideari edo bikotekideari legokiokkeen gozamena ukatu gabe; bi gozamenok aldi berean pilatuz gero, bigarren horrek izanen du lehentasuna.

Lege honetan xedaturikoa hala ulertuko da, dohaintza-tituluan bestelakorik ezartzen ez denean, eta lehengoratzea ez da gertatuko, dohaintza-emaileak eskubide horri uko egiten dionean edo, legezko hurrenkeraren arabera, dohaintza-emailearen oinordeko izateko ahaiderik ez dagoenean.

125. LEGEA

Eragingabetasuna. Ezkontzari, bikoteko bizikidetzari edo familia-taldearen eraketari begira egindako dohaintzak eragingabeak izanen dira haiek egilesteko oinarria izandako egitatea urtebeteko epean gertatzen ez bada.

Era berean, ezkontzari begira egindako dohaintzak eragingabeak izanen dira ezkontza deusez deklaratzan denetik aurrera.

126. LEGEA

Errebokatzea. Oro har, dohaintzak errebokatu ahal izanen dira soilik itundutako arrazoiengatik eta dohaintza-hartzaileari ezarritako kargak ez betetzeagatik, funtsezkoak badira; bestelako kargak ez badira betetzen, dohaintza-emaileak betetzea galdatu ahal izanen du.

Horrez gain, ezkontideek edo bikote egonkorreko kideek elkarri egindako dohaintzak errebokatu ahal izanen dira 82. legean eta 110. legeko bigarren paragrafoan aurreikusitako arrazoiengatik, hurrenez hurren.

Konpilazio honen beste xedapen batzuetan xedatutakoa eragotzi gabe, hirugarrenek dohaintzak egiten badituzte, familiak belaunaldi berri batean irauteari begira, familiaren ondarearen edo

enpresaren batasuna eta jarraipena lortzeko helburuarekin, dohaintza horiek errebokatu ahal izanen dira dohaintzaren kausa den ezkontzako kideen legezko edo egitezko banantze edo dibortzioagatik, zein bikoteri begira egin zen dohaintza, bikote hori bikotekideak bizirik direla azkentzeagatik edo hausteagatik, eta zein pertsonari begira egin zen dohaintza, haren familia-taldea aldatzeagatik.

Behin dohaintza-emailea hil eta gero, 162. legean xedaturikoa bete beharko da.

Errebokatzeke ahalmena eskualdaezina da; baina dohaintza-emaileek demanda jartzen badute hil baino lehen, akzioaren egikaritzari euts diezaiokete errebokatzeak aurrera egitekotan ondasunetara deituko liratekeen pertsonak.

Dohaintza-emaile bat baino gehiago izanik, guztiek batera egiten badute dohaintza, horiek guztiek edo horietatik bizirik dirautenek egin beharko dute errebokatzea, eta ondasun guztiak hartuko ditu.

127. LEGEA

Etxea. Etxe Nafarrak bere izenez identifikatzen du bertan bizi den edo haren baliabideen mende dagoen erkidegoa edo familia-taldea, bai eta haren ondarea osatzen duten ondasunak ere, auzotasun-harremanetan, zerbitzu emateetan, finken identifikazioan, eta tokiko arau, ohitura eta usadioek

ezarritako bestelako harremanetan.

Etxearen batasunari eta iraupenari eustea eta haren ondarearen eta izenaren defentsa jabeei dagokie, edo, bestela, jabetza tituluetan haren administrazioa esleitura edo erreserbatua dutenei.

Etxeari buruzko itun eta borondatezko xedapen guztiak eta aplikatzekoak zaizkion lege eta ohiturak interpretatzean, bete beharko den funtsezko printzipioa haren ondarearen eta haren jarduera ekonomikoak betetzen dituzten enpresa guztien batasuna da, bai eta haren jarraipena eta iraupena familia-erkidegoan edo -taldean.

128. LEGEA

Etxearen dohaintza. Etxearen dohaintzek, haren batasunari eta jarraipenari begira ordenatutakoek, 121. legean aurreikusitako edukia jasotzeaz gain, zuzkidurak, mantenua edo bizitzeko eskubideak ezarri ahal izanen dituzte seme-alabentzat edo beste batzuentzat, eta, horrekin batera, dohaintza-emaileen eta dohaintza-hartzaileen arteko itunak, bizikidetzako familia-sozietatea eratzeari, zuzendu eta administratzeari, aldatzeari eta desegiteari buruzkoak, bai eta

bizikidetza hori hausteari buruzkoak ere, eta itun eta estipulazioak gozamenaz eta ondasunen xedapenez, konkistetako parte-hartzeaz eta, oro har, edozein baldintza edo zilegi diren bestelako itunak.

Dohaintza horien bitartez Etxearen eskualdaketa gertatzen denean, X. tituluan jasotako xedapenak aplikatuko dira, berezitasun hauekin:

1. Dohaintza-hartzaile unibertsala oinordekoa da jaraunsle gisa; baina ez du inolako erantzukizunik dohaintza-emaileek dohaintzaren ondotik egindako zorren gainean, horiek Etxearen onurarako direnean izan ezik.

2. Bestelako xedapenik izan ezean, dohaintza-hartzaileak dohaintza-emaileen hileta gastuak ordenatu eta ordaindu beharko ditu, tokiko usadioarekin bat etorritik eta Etxeari dagokionaren arabera.

3. Dohaintzaren bidez, dohaintza-hartzaileari Etxean bizitzeko karga ezartzen bazaio, etxea uzteak aukera emanen die dohaintza-emaileei edo bizirik dirauenari dohaintza errebokatzeke. Errebokatzeke eskritura egiletsi ahal izanen da etxea utzi izana notarioaren nabaritasun-aktaren bidez justifikatu ondoren. Dohaintza-emaileak hil ondoren, norbaitek Etxe-harrerarako eskubidea badu, 137. legean xedatutakoa bete beharko da.

4. Dohaintza-emaileak ez badu behar beste ondasunik erreserbatu 138. legean aurreikusitakoaren arabera berak eman beharreko zuzkidurei aurre egiteko, ulertuko da halakoak dohaintza-hartzailearen ardurapean geratzen direla, nahiz eta hori espresuki agerrarazi ez. Dohaintza-emaileak ezin dio dohaintza-hartzaileari betebeharrak hori kendu, salbu eta onuradunak horri uko egiten diotenean.

5. Dohaintza-emaileak eta dohaintza-hartzaileak Etxean elkarrekin bizi badira, ondasunen gaineko luperketa dutenek mantenua zor dieten besteei, Etxearen maila ekonomikoarekin bat etorritik, eta tokiko usadioaren arabera.

129. LEGEA

Existentziaren presuntzioa eta araubide juridikoa. Ezkontzako itunetan, ondasunak dohaintzan emateaz gain edo jaraunslea izendatzeaz gain, dohaintza-emaile edo kausatzaileak eta dohaintza-hartzaile edo jaraunsleak elkarrekin biziko direla hitzartzen bada, uste izanen da horiek guztiek parte hartzen dutela ezkontza bitartean lorturiko konkistetan, salbu eta eskrituran itunak jasotzen badira, familia-sozietate horren aurkakoa edo bateraezinak sozietate horrekin.

Konkisten familia-sozietatea itundutakoak arautzen du eta, halakorik izan ezean, kapitulu honetako xedapenek. Kapitulu honek arautzen ez duen guztian, konkisten familia araubideari ezkontzako sozietateari buruz ezarritakoa aplikatuko zaio.

130. LEGEA

Familia sozietatearen ondasunak eta kargak. Familia sozietatea osatzen duten pertsonen konkista-ondasunak eta ondasun pribatiboak zeintzuk diren zehazteko, 88. eta 89. legeek ezkontideei buruz xedaturikoa bete beharko da.

Konkisten familia-sozietateak dituen kargei dagokienez, 90. legean xedaturikoa aplikatuko zaie partaide guztiei.

Administrazioa eta xedapena. Aurkako itunik izan ezean, konkista-ondasunen administrazioa dagokie dohaintza-emaile edo izendatzaile guztiei, edo horietatik bizirik dirautenei.

Konkistapeko ondasun higiezinak, industria edo merkataritzako establezimenduak edota horien oinarritzako osagaiak besterendu nahiz kargatzeko, beharrezkoa da partaideen onespena.

131. LEGEA

Desegitea. Konkisten familia-sozietatea desegiteko arrazoiak hauek dira:

1. Ezkontzako itunetan ezarritakoak.

2. Partaide guztien erabakia, 86. legean itunak aldatzeko agindutako formalitateekin hartu bada.

3. Legezko banantzea, dibortzioa eta ezkontzaren deuseztasunari buruzko deklarazioa, itunak ezkontza horri begira egin badira.

Sozietate jarraitua. Ezkontide dohaintza-hartzaile edo izendatu baten heriotza, eta 95. legearen 5. zenbakian desegiteko ezarritako arrazoiak, arrazoiok haietan eragina dutenean, baldin eta dohaintza-emaileak edo izendatzaileak ez badira beste ezkontidearekin bizi. Bikidetzarik dagoen ala ez zalantzan izanez gero, Ahaide Nagusiek erabaki ahal izanen dute, 147. legean ezarritakoarekin bat.

132. LEGEA

Dohaintza-emaileen heriotza. Dohaintza-emaile edo izendatzailearen bat hil arren, familia-sozietateak indarrean iraunen du, aurkako itunik izan ezean, gainerako partaideen artean.

Dohaintza-emaile edo izendatzaile guztiak hilez gero, sozietateak indarrean iraunen du ezkontideen artean, eta konkisten ezkontza sozie-

tateari buruzko legeek arautuko dute sozietate hori.

Lege honetan xedaturikoak ez du eragotziko kasuan-kasuan egin beharreko likidazio partziala.

133. LEGEA

Zatiketa. Konkista-ondasunen gerakin likidoa zatituko da itundutako proportzioan eta, ezer itundu ezean, sozietatearen partaideen artean, buruko bana. Horrek ez du eragotziko VIII. tituluan aipatutako xedapenak aplikatzea, bidezkoa bada.

134. LEGEA

Forma egokian eraturiko erkidegoak. Familia-erkidegoak forma egokian eratu badira, beren eraketa-tituluan ezarritako erregelek arautuko dituzte beren indarraldian.

Erkidegoak desagitean, eraketa tituluan beraiazko aurreikuspenik izan ezean, eta eragotzi gabe borondatez Ahaide Nagusien erabakimenaren menpe jartzea –titulu honen azken kapituluarekin bat–, epaileak erabakiko du desagitearen ondorio pertsonalei buruz, eta ahalegina eginen da Etxearen titularrak bertan gera daitezen.

Ondasunei dagokienez, tokiko usadioaren arabera ebatziko da, eta, ahal den neurrian, etxearen batasunari eutsiko diote, eta erkidego desaginarene kideei ondasun eta eskubideak adjudikatuko dizkiete, hauen arabera: horiek etxean zenbat denbora lan egin duten, etxearen maila ekonomikoa, kideok euren ardurapean dituzten pertsonen kopuruaren arabera, eta gainerako inguruabarrak. Pentsioa adjudikatzen bada, erabakiko da pentsio hori egonkortasun-klausularekin edo beste bermeren batekin ziurtatu behar den ala ez.

135. LEGEA

Egitezko erkidegoak. Pertsonen eta familien artean bizikidetzat eta elkarlan egonkorak izan badira horiek arautzeko erregelarik ezarri gabe, hurrengoak aplikatuko dira:

1. Une oro, erkidego horren kideetatik edozeinek amaiera eman diezaioke erkidegoari, libreki.

2. Erkidegoan egindako lanaren ondorioz onura eta hobekuntzak lortu badira, eta erkidegoa desagiteko unean horiek bertan badiraute, erkidegoaren kideei adjudikatuko zaizkie horiek, tokiko usadioaren arabera; horretarako, kontuan izan beharko dira erkidegora ekarritako ondasunak edo lana, kide bakoitzak jadanik eskuraturiko onurak, desagite-arrazoiak eta gainerako inguruabarrak.

3. Aurreko erregelen ondorioetarako, ez dira erkidegoaren kideztat hartuko gurasoekin bizi diren seme-alaba ezkongabeak.

136. LEGEA

Mantenua ematea. Bizikidetzat izan zein ez, seme-alabek euren gurasoei mantenua eman badiete edo euren beharrian pertsonalak ase badituzte, haiek ezin izanen diete ezer erreklamatu gurasoei nahiz horien jaraunsleei.

137. LEGEA

Etxe-harrera. Ezkontzako itunetan, testamentuan edo eskritura publikoaren bidez emandako bestelako xedapenetan, norbaiten mesederako ezartzen badira etxean bizitzeko, mantenua eskuratzeko eta osasuntsu, gaixo edo horien antzeko egoeretan arreta jasotzeko eskubideak, etxean lan egiteko betebeharraren menpe edo halakorik gabe, Etxearen ondarearen oinordekoak karga horiek bere gain hartuko ditu eskubideok emateko erabili den xedapenarekin, maila ekonomikoarekin eta tokiko usadioarekin bat.

Ahaide Nagusien esku-hartzea eragotzi gabe, 147. legearekin bat, epaileak ebatziko ditu lege honetan aipatutako eskubideen interpretazioari, betetzeari edo ez-betetzeari buruz sortzen diren gorabehera guztiak, eskubideei buruzko balorazioak egiten ditu, eta eskubideok ziurta edo likida ditzake, horiek kapital edota pentsio batekin ordeztuz, eta, onuradunaren ez-betetzea izan bada, horien azkentzea deklaratu dezake.

138. LEGEA

Zuzkidurak. a) Kontzeptua eta araubidea: Ezkontzako itunetan, testamentuan edo eskritura publiko bidez egiletsitako beste xedapen batzuetan, kopuru, ondasun edo eskubideak libreki esleitzen bazaizkio Etxearen jaraunsle, dohaintza-hartzaile edo legatu-hartzaile izendatuaz beste pertsona bati, esleipenok zuzkiduratzat hartuko dira, eta euren ezarpen-titulua arautuko ditu hala-koak.

b) Zenbatekoa. Zuzkidurak ezartzen badira Etxearen jaraunsle, dohaintza-hartzaile edo legatu-hartzailearen kontura, horien zenbatekoa edo horiek finkatzeko modua zehaztu gabe, hori guztia honakoek zehaztuko dute:

1. Izendatzaileek, edo horietatik bizirik dirae-nak, betebeharrekoarekin ados etorritik.

2. Halakorik izan ezean, betebeharrekoak eta zuzkiduraren onuradunak, tokiko usadioaren eta Etxearen maila ekonomikoaren arabera.

3. Aurreko kasuetako edozeinetan, eta adierazitako pertsonen artean adostasunik egon ezean, epaileak ezarri ahal izanen ditu zenbatekoa, epea eta entregatzeko modua, bai eta beharrezkotzat jotzen dituen bermeak ere, Ahaide Nagusien

esku-hartzea eragotzi gabe, 147. legean xedatuta-koarekin bat.

c) Lehengoratzeta. Ezkontzaren ondorioz, biko-tean bizitzen hastearen ondorioz edo familiak belaunaldi berrietan irauteko beste edozein forma-ren ondorioz egindako zuzkidurei 124. legean familiarentzako dohaintzatarako ezarritako lehengoratzeta-eskubidea aplikatuko zaie.

d) Eskualdaezintasuna. Zuzkidura-eskubidea ezin izanen da eskualdatu, horren onuradunak ez badu hori galdatu eta bera Etxean bizi izan bada hil arte. Kasu horretan, jaraunslea edo dohaintza-hartzailea behartuta egonen da hileta ordaintzera, tokiko usadioaren eta Etxearen maila ekonomiko-aren arabera.

139. LEGEA

Deia eta esku-hartzea. Ahaide Nagusien deia eta esku-hartzea testamentugileen, dohaintza-emaileen edo itunen egileen borondatezko xeda-penaren ondorioz ezartzen bada, horietan ezarritakoa aplikatuko da, eta halakorik izan ezean eta integratzeko, kapitulu honetan xedatutakoa.

140. LEGEA

Zein ahaideri deitu. Deia egiteko aurreikuspe-nik izan ezean, bi ahaiderik hurbilenei deitu zaiela ulertuko da, horiek adin nagusikoak izan eta Nafarroan bizi badira; ahaideok zehaztuko dira ondoko erregelekin bat etorritz:

1. Bat aitarengandiko lerrotik aukeratuko da eta bestea amarengandiko lerrotik; arazoa ahaide ezberdinak dituzten pertsonen artean sortzen bada, bat aukeratuko da alderdi bakoitzeko.

2. Edozein kasutan, lehentasuna izanen dute gradurik hurbileneko ahaideek; gradu berekoak direnean, lotura bikoitzekoek lotura bakarrekoen gainetik; eta, egoera berean daudenean, ahaide zaharrenek, aurreko ahaideen artean izan ezik; kasu horretan gazteena lehenetsiko da.

141. LEGEA

Ordezkoa. Inork ere ez baditu legezko baldin-tzak betetzen eta, horren ondorioz, ezin bada lerro edo alderdi bateko ahaiderik izendatu, honetara jardun beharko da:

1. Aitarengandiko edo amarengandiko lerroan ahaiderik ez badago, hutsune hori beste lerroko ahaidearekin beteko da, eta alderantziz.

2. Alderdi batek ahaiderik ez badu, hutsune hori betetzeko, interesdunak beste pertsona bat izendatuko du, ahaide izan zein ez.

142. LEGEA

Ezaugarriak. Ahaide Nagusiaren eginkizuna bere-berezkota da, eta hartutako erabakiaren bete-arazpena edo formalizazio hutsa baino ez da eskuordetu ahal izanen.

Ahaide Nagusiek ezin diote ukorik egin euren eginkizunari, ezta euren esku-hartzeari ezezkota eman ere, euren kudeaketa eragotzi edo modu larrian zailtzen duen kausarik izan gabe; ahaideok errekusatu ahal izanen dira, zuzeneko interes per-tsonala edo ageriko areriotasuna dela eta.

Desenkusatzeko edo errekusatzeko arrazoiak baloratuko dituzte beste Ahaide Nagusiak eta ordezpenerako deia jaso duenak, eta, adostasunik ez badago, epaileak egingen du.

Ordezko izanen da lehentasun-hurrenkeran ordeztuaren hurrengo dagoen ahaidea.

143. LEGEA

Erabakia. Ahaide Nagusiek, horretarako dei egiten zaienetik, euren erabakia eman beharko dute sei hileko epean. Jaraunslea aukeratu behar bada seme-alaben artean edo dei orokorra jaso duten pertsonen artean, ahaideok ez dute izanen aukera egiteko betebeharririk, harik eta deia jaso duten pertsonetatik gazteena adin nagusikoa izan arte.

Erabakia eskritura publikoan jaso beharko da.

144. LEGEA

Hirugarren ahaidea. Ahaide Nagusiak ez badi-ra ados jartzen arazo zehatz bati buruz, ahaideok hirugarren ahaide baten esku-hartzea eskatuko dute; ahaideek eurek izendatuko dute ahaide hori, euren arteko adostasunez edo judizialki; eta era-bakia gehiengoz hartuko dute desadostasuna era-gin duten bi irtenbideen artean.

145. LEGEA

Beste ahaide bat lehenestearen ondoriozko erreklamazioa. Lehentasuneko ahaideren bat badagoela ahazteagatik edo hori ez jakiteagatik beste ahaide batek esku hartzen badu, erabakita-koa baliozkoa izanen da, salbu eta Ahaide Nagu-siei eurei erreklamazioa egiten zaienean; errekla-mazio hori egiteko epea hamabost egunekoa da, erabakia zein eskritura publikotan edo agiritan jaso, horren egilespearen berri jaso denetik zen-batuta.

146. LEGEA

Aurkaratzeta eta erantzukizuna. Ahaide Nagu-sien erabakia auzitegietan aurkara daiteke bakar-bakarrak borondate akatsarekin edo iruzurrez hartu

bada, edo legea hautsi badu edo kausatzaileak xedatutakoa urratzen badu.

Edozein kasutan, Ahaide Nagusiek erantzukizun pertsonala izanen dute, kalte-galerak eragin badituzte, euren eginkizunak doloz edo zabarkeriaz betetzeagatik.

147. LEGEA

Borondatezko esku-hartzea. Familiaren ondare arloko gaiak eta oinordetzakoak, xedatzeko modukoak direnak, Ahaide Nagusien esku utzi izanen dira, haiek erabaki dezaten, hala adosten badute interesdun guztiek eta borondatez onartzen esleipen hori agiri publikoan.

Ahaide Nagusien esku-hartzeak esleipenean ezarritako arauak bete beharko ditu, eta edukiari dagokionez, titulu honetako arauak ere, helburuari begiratuta aplikatzekoa zaien guztian.

Esleipena 140. legean aipatzen diren Ahaide Nagusietako edozeini egin ahal izanen zaio, lehentasunik gabe eta kopurua edozein dela.

148. LEGEA

Xedatzeko askatasuna. Nafarrek askatasunez xeda ditzakete euren ondasunak, eta ez dituzte izanen liburu honetako X. tituluan ezarritako murrizketak baino.

Dohaineko xedapenak ordenatzeko, inter vivos nahiz mortis causa dohaintza, oinordetza ituna, testamentua edo konpilazio honetan ezarritako xedatze-egintzetatik beste edozein erabil daiteke. Halako xedapenik ez dagoenean bakarrik aplikatuko da legezko oinordetza.

Dohaineko xedapen oro huts-hutsean egin daiteke, bai eta moduarekin nahiz baldintza edo epe-muga etengarri zein suntsiarazlearen menpe jarrita ere. Egun zehaztugabea baldintza moduan hartuko da.

149. LEGEA

Dohaintza-hartzaile unibertsala. Dohaintza-ematearen oraingo eta etorkizuneko ondasunak hartzen dituzten dohaintzek, inter vivos nahiz mortis causa motakoak izan, jaraunsle izaera atxikitzen diote dohaintza-hartzaileari.

150. LEGEA

Oinordetza-fiduzia. Kausatzaileak fiduziario-komisarioari edo konfiantzazko jaraunsleari eskuorde diezaioke jarauntsia xedatu edo ordenatzeko ahalmena, bai libreki, bai isilpeko jarraibideen arabera, liburu honetako XI. eta XII. tituluetan ezarritakoarekin bat.

Post mortem ahalordea. Kausatzaileak ahalordea ematen badu bera hil eta geroko, hori baliozkoa izanen da, baldin eta ahalorde hori errebotatzan ez badu hildakoaren borondatea betearazteko lehentasunez izendatua denak, betiere, ahalduaren ardurapean jarritako kudeaketa oso-osorik betetzea eragotzi gabe.

Geroko ahalordeak aurrekoa errebotatuko du, horiek bateraezinak badira, eta uste izanen da, halaber, geroko testamentu baliozkoak aurreko ahalordea errebotatzen duela, geroko testamentu horretan aurreko ahalordea baieztaturik agertzen ez bada.

151. LEGEA

Xedatzea, beharizana dagoenean. Eskuzabal-tasun-egintzaren bitartez, inori ahalmena ematen bazaio hori beharizan-egoeran xedatzeko, bestelakorik ezarri ezean, haxe ulertuko da:

1. Pertsona horren erabakimen askearen mende egonen da beharizana dagoela baloratzea.

2. Xedatze hori gauzatzeko, pertsona fisiko jakin baten edo batzuen baimena beharrezkoa denean, mugapen hori ondoriorik gabe geratuko dela, halako pertsonak hil badira, baimena emateari uko egin badiote edo gaitasuna judizialki aldatua badute, ahalmen horri eraginez, salbu eta adostasuna eman behar duten horiek euren kargu edo eginkizuna dela-eta zehaztu direnean.

152. LEGEA

Eskuratzeko gaitasuna. Pertsona orok dohainik eskura dezake, inter vivos nahiz mortis causa, horretarako debeku duten pertsona hauek izan ezik:

1. Egintzaren formalizazioan esku hartu duten pertsonak.

2. Tutoreek edo kuradoreek, tutoretza edo kuradoretzapean dituzten pertsonen dagokienez, beren karguek azkendu edo kontuak behin betiko onetsi aurretik, salbu eta xedatzailearen ondorengo, ezkontide, bikotekide, aurreko ahaide edo senide badira.

153. LEGEA

Eskuratzeko baldintzak kasu berezietan. Kontratu harreman baten bidez, xedatzaileari laguntza edo egoitza zerbitzuak edo parekoak eman dizkion pertsona fisiko edo juridikoek, eta haien menpekoek, xedatzailearengandik dohainik eskura dezakete, inter vivos nahiz mortis causa, soilik, baldin eta xedapena notarioaren fede publikoarekin egiletsitako agiri batean ordenatzen bada.

Ez da horrelako baldintzarik bete beharko eskuratzea balio apaleko kopuruena edo objektue-na denean, usadio sozialen arabera.

154. LEGEA

Ezduintasunaren ondoriozko ezgaitasuna. Honakoak eskuratzeko ezduinak dira:

1. Epai irmoaren bidez kondenatu dena, xedatzailearen edo kausatzailearen, bere ezkontidea-ren edo berarekin bikote egonkorrean bizi denaren edo bere ondorengoan, aurreko ahaideen edo senideen biziaren kontra atentatu egiteagatik edo horietako bati lesio larriak eragiteagatik.

2. Epai irmoaren bidez kondenatu dena, familiaren esparruan indarkeria fisikoa edo psikikoa maiz erabili izanagatik xedatzailearen edo kausatzailearen kontra edo aurreko zenbakiak aipatzen dituenetako baten kontra.

3. Epai irmoaren bidez kondenatu dena, askatasunaren, integritate moralaren eta sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituengatik, ofenditua xedatzailea edo kausatzailea edo lehen aipatutakoetako bat denean.

4. Epai irmoaren bidez kondenatu dena, familia harremanen kontrako delitua egiteagatik, delituak kaltetuaren edo haren legezko ordezkariaren eskuratzeari dagokionez.

5. Gezurrezko salaketa edo lekukotzagatik kondenatu dena, xedatzailea edo kausatzailea salatu izanagatik legearen arabera zigor astuna duen delitu batengatik, edo haren kontrako prozesu judizialean deklarazioa egin izanagatik.

6. Kausatzailearen bortxazko heriotzaren berri izanik, hilabeteko epean justiziari horren berri eman ez diona, justiziak ofizioz ekin ez badio, salbu eta, legearen arabera, salaketa egitera beharturik ez badago, kasu horretan debeku hau bertan behera geratuko baita.

7. Ebazpen judizial irmoaren bidez gabetu dena guraso erantzukizunaz, edo kausatzaile adingabearen edo gaitasuna judizialki aldatua duen kausatzailearen tutoretza, kuradoretza, familia-harrera edo zaintza kendua duena, hari egotz dakioken kausagatik.

8. Desgaitasuna duen pertsona bati juridikoki zor zaion arretea eman ez diona, haren ondasunen edo eskubideen eskuratzeari tartean delarik.

9. Mehatxuz, iruzurrez edo indarkeriaz norbait behartzen duena xedapen egintza bat egitera edo galarazten diona egitea edo egindakoa errebotatzeari, bai eta egitate horien berri izanik haietatik onura ateratzen duena ere.

10. Egileslearen xedapen egintza suntsitu, faltsutu, ezkutatu edo eraldatzen duena.

Ezduintasunaren arrazoiak indarrrik gabe gelditzen dira egilesleak haien berri baldin bazituen xedapena egiteko unean edo, ondoren jakinda, agiri publikoan barkatzen baditu edo dudarik eragiten ez duten egintzen bidez adiskidetzen bada ezduinarekin.

Ezduintasuna dagoela irizteko, delazio-uneari begiratu zaio, salbu eta kausa kontuan hartzeko beharrezkoa denean ebazpen judizial irmoa edo epea bukaturik egotea.

155. LEGEA

Nasciturus eta concepturus izenekoan aldeko xedapenak. Inter vivos nahiz mortis causa egin-tzen bidez, dohaineko xedapenak egin daitezke ernalduarentzat, bai eta oraindik ernaldu ez diren seme-alabentzat ere, horien gurasoa zein den zehazturik eta bizirik badago dohaintza egin edo testamentugilea hiltzeko unean.

Inter vivos egintzen bidezko xedapenetan, eta dohaintza-emaileak ezarritakoa salbu, dohaintzan emandako ondasunen administrazioa dohaintza-emaileari edo haren jaraunsleei dagokie. Dohaintza-hartzailea jaio baino lehen fruituak sortu direnean, horiek dohaintza-hartzaileari erreserbatzen zaizkio, dohaintza jadanik ernaldurik dagoenarentzat egin bada; ernaldugabearentzat egin bada, fruituak dohaintza-emaileari edo haren jaraunsleei erreserbatzen zaizkie, dohaintza-hartzailea jaio arte. Dohaintza-emailearen jaraunsleek fruituak administratu edo jasotzen badituzte, behartuak izan daitezke behar adinako bermea eratzera.

Xedapen hauen onarpena eta seme-alaben interesen eta aukeren defentsa, eskuzabaltasunaren objektu diren ondasunei begira, etorkizuneko gurasoei dagokie.

156. LEGEA

Etorkizuneko jarauntsiari uko egitea. Forma. Baliozkoa da etorkizuneko jarauntsiari uko egitea edo horren gainean transakzioa egitea, eskritura publikoan eginez gero.

157. LEGEA

Uko egitearen ondorioak. Uko-egilea lege bidez ordenatutako oinordetzatik kanpo geratuko da; hala ere, onar ditzake berarentzat kausatzaileak ordenatu dituen xedapenak.

158. LEGEA

Kontzeptua. Inter vivos dohaintzak dira dohaintza-emailearen heriotza aintzat hartu gabe egindakoak.

Dohaintzak egitea, hirugarren baten heriotzaren menpe. Dohaintzak hirugarren baten heriotzaren menpe egiten badira, dohaintzok "nter vivos eta baldintzapeko dohaintza moduan hartuko dira.

159. LEGEA

Dohaintza-emailearentzako erreserba. Dohaintza-emaileak ez badu behar besteko jabetzarik edo eskubiderik erreserbatu bere egoera eta ingurubarren arabera dituen beharrianak asetzeko, urripen-akzioa egikaritu ahal izanen du dohaintza-hartzailearen edo haren jaraunsleen aurka.

Akzio hori bere-berezko eta eskualdaezina da.

160. LEGEA

Dohaintza unibertsalak. Dohaintza unibertsalak baliozkoak izanen dira kasu hauetan bakarrik: familiaren eta Etxearen batasunari eta jarraipenari begira egiten direnean, 120. legearen 4. paragrafoan eta 128. legean aurreikusitakoarekin bat, jaraunslea izendatzeko eskrituretan egiten direnean, edo familia erkidegoko itunak edo dohaintza-emaileen eta dohaintza-hartzaileen arteko laguntza itunak ezartzen direnean.

Dohaintzoi 121., 123. eta 128. legeetan xedaturikoa aplikatuko zaie, eta horiek 122. legean arauturiko moduan egin beharko dira.

161. LEGEA

Burutzea. a) Ondasun higiezinaren gaineko dohaintzak. Deusezak dira ondasun higiezinaren gaineko dohaintzak, ez badira eskritura publikoan egiten. Halako dohaintzak errebokaezinak izanen dira, dohaintza-hartzailearen onarpena eskrituran bertan agerrarazten denean, edo dohaintza-emaileari onarpen hori eskritura bananduan jakinarazten zaion unetik aurrera.

b) Ondasun higigarrien gainekoak. Ondasun higigarrien gaineko dohaintzak errebokatu ahal izanen dira, dohaintza-emaileak ondasunen entrega egin ez duen bitartean, edo dohaintza-emaile horri dohaintza-hartzailearen onarpena jakinarazi ez zaion bitartean.

c) Etorkizuneko pertsonen mesederako egingakoak. Ondasun higigarri edo higiezinaren gaineko dohaintzak egiten badira etorkizuneko pertsonen mesederako, dohaintza horiek errebokaezinak izanen dira, onarpenaren beharrik izan gabe, bestelakoa ezarri denean salbu.

162. LEGEA

Errebokatzeko kausa orokorrak. Inter vivos dohaintzak behin burututa daudela, errebokatu ahal izanen dira dohaintza-emaileak berariaz eza-

rritako kausen ondorioz, edo dohaintza-hartzaileari ezarritako kargak ez betetzeagatik. Dohaintza-hartzaileak ez baditu karga horiek bete dohaintza-emailea hil aurretik, ulertuko da horiek barkatu direla, dohaintza-emailearen mesederako ezarri badira; hirugarrenen mesederako ezarri badira, horiek legatutzat hartuko dira.

163. LEGEA

Errebokatzeko eskergabekeriagatik. Dohaintzak eskergabekeriagatik ere errebokatu ahal izanen dira, kasu hauetan:

1. Dohaintza-hartzaileak edozein delitu edo kaltea egiten badu, edo sozialki gaitzesgarria den jokabidea badu, borondatez, dohaintza-emailearen edo haren ondasunen kontra edo haren familia-talde edo -erkidegoko kideen edo ondasunen kontra.

2. Dohaintza-hartzaileak bidegabeki ukatzen badio mantenua dohaintza-emaileari, nahiz eta hori emateko betebeharra duten beste pertsona batzuk egon, edo bizibiderako prestazio publikoak jasotzeko aukera izan.

Egintzaren iraungitzea. Errebokatzeko egintza urtebetera iraungitzen da, dohaintza-emaileak errebokatzearen oinarrian den egitatearen berri duenetik edo zentzuz ezagutu dezakeenetik aurrera.

164. LEGEA

Fiduziapeko dohaintza. Dohaintza-emaileak dohaintza-hartzaileari ezartzen badio jarraika edo aldizka bete beharreko karga, dohaintza fiduziarioraren betearazpena bermatu ahal izanen du, konfiantzazko dohaintza-hartzaileak ondoz ondo izendatuz. Dohaintzoi 293. legean xedaturikoa aplikatuko zaie.

167. LEGEA

Forma. Mortis causa dohaintzak eskritura publikoan egiletsi behar dira. Lekukoak bertan izatea beharrezkoa izanen da soilik 185. legean aurreikusitako kasuetan.

169. LEGEA

Errebokatzeko. Dohaintza-emaileak edonoiz eta libreki erreboka dezake dohaintza, salbu eta aurkako ituna dagoenean edo errebokatzeko ahalmenari uko egin zaionean.

Halako dohaintzak errebokatzeko eta beroriek egiteko, formalitate berberak bete beharko dira. Dohaintza-emaileari dohaintzaren onarpenaren berri eman bazaio edo horrek ondasunen entrega egin badu, errebokatzeko ez du ondorioz sortu-

ko, hori dohaintza-hartzaileari jakinarazten ez zaion bitartean.

170. LEGEA

Gerora gertatutako eragingabetasuna eta eze-rezean geratzearen ondoriozkoa. Bestelakoa xedatu ezik, mortis causa dohaintzak eragingabeak izanen dira, inolako formalitaterik gabe, baldin eta dohaintza-hartzailea hiltzen bada dohaintza-emailea bizirik dagoela, haren ondorengoek izan dezaketen ordezkaritza-eskubidea salbu.

Berebat, eragingabeak izanen dira, formalitate gehiagorik gabe, dohaintza egin bada, argi eta garbi, dohaintza-emailea une jakin batean hilko dela uste izanik, eta aurreikusitako unean hiltzen ez bada.

171. LEGEA

Edukitzat hartzea. Ondasunak mortis causa dohaintzaren bidez eman badira, horiek ez dira jarauntsiaren osagai, eta dohaintza-hartzaileak horien edukitza har dezake, dohaintza-emailearen jaraunsle edo albazeen esku-hartzerik gabe.

173. LEGEA

Gaitasuna. Edozein oinordetza-itunen egilesleek adin nagusiko izan behar dute. Ezkontzako itunetan jasotakoei dagokienez, ordean, 83. legean ezarritakoa beteko da.

Bere-berezko izaera. Eskuordetzea. Oinordetza-ituna egilestea bere-berezko egintza da. Hala ere, beste inori eskuorde dakioke haren formalizazioa, baldin eta ahalordearen agerkai egokian jasotzen bada borondatearen eduki nagusia.

175. LEGEA

Ezkontzako itunetan jasotako itunak. I. liburuko X. tituluko legeek eta, horiez gain, titulu honetan ezarritakoak arautzen dituzte ezkontzako itunetan jasotako oinordetza-itunak.

178. LEGEA

Errebokaezintasuna. Bi pertsonak edo gehiagok, elkarren mesederako edo hirugarren baten mesederako, jaraunsle-izendapenak egiten badi-tuzte, hala itunduta, izendapen horiek erreboka-ezinak dira. Jaraunslea izendatzeko kontratua alde bakarrekoa baldin bada, horri 122. legean onarpe-nerako xedaturikoa aplikatuko zaio.

180. LEGEA

Eskualdatze eskubidea Etxearen batasunari eusteko. Oinordetza itunaren helburua denean Etxearen batasunari eustea, itunean izendatutakoa izendatzailea baino lehen hiltzen bada ondorengoak izanik, ondorengoei eskualdatuko dio bere

eskubidea, salbu eta itunean bertan ezarritakoa. Ondorengoak bat baino gehiago badira, eta jaraunslea izendatzearekin batera ez bada ondasunen eskualdatze eguneratua egin, orduan, izendatzaile guztiei, horietatik bizirik daudenei edo, halakorik izan ezean, Ahaide Nagusiei dago-kie izendatuaren eskubideetan subrogatuko dena izendatzea; baina, izendapena egitearekin batera ondasunen eskualdatze eguneratua egin bada, izendatuak berak egin dezake halako izendapena; izendatua hori egin gabe hiltzen bada, ahalmena izendatzaileei dagokie eta, halakorik izan ezean, Ahaide Nagusiei.

Edozein kasutan ere, jaraunsle izendatuak ondorengo bat bakarrik badu, hori izanen da oinordeko, eta horrek izendatzaileei edo, halakorik izan ezean, Ahaide Nagusiei galda diezaieke, bere jaraunsle izaera deklara dezaten. Oinor-deko bakarren izaera notarioak emandako nabaritasun-aktaren bitartez frogatuko da.

182. LEGEA

Errebokatzea eta aldatzea. Oinordetza-itunak ezin izanen dira errebokatu edo aldatu, horien egi-lesle guztiek, inter vivos nahiz mortis causa egin-tzaren bidez, adostasuna adierazten ez badute.

Oinordetza-itunetan jasotako xedapenak erre-bokaturik geratuko dira, izendatua aurrez hiltzen bada; salbuespen da eskualdatze-eskubidea, 180. legeak xedatutakoarekin bat etorri hori bidezkoa denean.

Xedapen horiek 126. legean familiarentzako dohaintzei buruz ezarritako kausen ondorioz erre-bokatu ahal izanen dira; eta, izendatzaileek akzio hori egikaritzen badute, lege horretan xedatutako-ari jarraikiz eginen da.

Ezkontzako itunetan ordenatu badira, 86. lege-an ezarritakoa bete beharko da

.

184. LEGEA

Testamentua egiteko ezgaitasuna. Honakoek ez dute testamentua egiteko gaitasunik:

1. 14 urtetik beherakoak.

2. Testamentua egilesteko unean ulertzeko eta nahi izateko berezko gaitasunik ez dutenak.

Gaitasuna judizialki aldatua dutenek testamen-tu irekia eman ahal izanen dute baldin eta nota-rioak izendatutako bi fakultatibok haien gaitasuna berresten badute, azterketa egin ondoren, salbu eta epaiak espresuki aurreikusten duenean testa-mentua egiteko gaitasunik ez dutela.

185. LEGEA

Lekukoen esku-hartzea eta kopurua. Lekukoen esku-hartzea beharko da kasu hauetan:

1. Notarioaren aurreko testamentu irekian, bi lekuko, kasu hauetan:

a) Testamentugileak edo notarioak eskatzen duenean.

b) Testamentugileak deklaratzeko duenean ez dakiela edo ezin duela testamentua sinatu.

c) Testamentugileak deklaratzeko duenean ez dakiela edo ezin duela testamentua irakurri. Kasu horretan, lekukoek irakurriko dute testamentua notarioaren aurrean, eta deklaratu beharko dute bat datorrela adierazitako borondatearekin.

2. Testamentugilea hiltzeko arriskuan dagoenean emandako testamentu irekietan, hiru lekuko.

3. Testamentu itxia ematen denean, bi lekuko, testamentugileak edo notarioak eskatzen duenean edo testamentugileak deklaratzeko duenean ez dakiela edo ezin duela sinatu.

186. LEGEA

Lekukoen egokitasuna. a) Orokorra. Ezin izanen dira lekuko izan testamentua ematen den unean honako ezaugarriak dituztenak:

1. Adingabeak direnak, izurriteetan emandako testamentua denean izan ezik, halakoetan 16 urtetik gorakoak izanen baitira egokiak.

2. Testamentugilearen hizkuntza ulertzen ez dutenak.

3. Lekukoaren lana betetzeko behar den ulermen-gaitasuna ez dutenak.

4. Baimena ematen duen notarioaren ezkontide, bikotekide egonkorra edo ahaide direnak, laugarren gradurainoko odol bidezko ahaidetasunez edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunez.

b) Testamentuen araberakoa. Honakoak ere ezin izanen dira lekuko izan:

1. Testamentu irekian, bertan izendatutako jaraunseak eta legatu-hartzaileak, ez eta haien ezkontideak, bikotekide egonkorak edo laugarren gradurainoko odol bidezko ahaideak edo bigarren gradurainoko ezkontza bidezko ahaideak, salbu eta legatua garrantzi gutxiko ondasun higigarri bat edo zenbatekoa denean, jarauntsiaren ondasunekin alderatuta.

2. Notarioaren aurrean eman gabeko testamentuetan, testamentugilea ezagutzen ez dutenak.

187. LEGEA

Lekukoentzako baldintza berariazkoak. Aurreko legean ezarritako egokitasun baldintzez gain, honako hauek bete beharko dira:

1. Notarioaren aurrean egiletsitako testamentuetan, lekuko bat, gutxienez, irakurri eta idazteko gauza izan behar da. Lekuko izan daitezke notarioaren enplegatu edo mendekoak ere.

2. Lekukoen aurrean bakarrik egiletsitako testamentuetan, horietatik bi, gutxienez, irakurri eta idazteko gauza izan behar dira.

3. Notarioaren aurrean egilesten ez diren testamentuetan, lekukoek testamentugilearen gaitasuna baloratu behar dute.

188. LEGEA

Notarioaren aurreko testamentua. Notarioaren aurrean egindako testamentuetan, Kode Zibilaren xedapenak aplikatuko zaizkio aurreko legeetan xedatuta ez dagoenari.

189. LEGEA

Lekukoen aurreko testamentua. Testamentugilea hur-hurreko heriotza arriskuan badago eta ezin bada lortu notarioa bertan izatea, testamentua egin ahal izanen da hiru lekuko bertan daudela.

Testamentua baliozkoa izateko, honako erregelak hauek bete beharko dira:

1. Idatziz jaso beharko da, eta bertan eguna, hilabetea eta urtea adierazi beharko dira, egintza berean edo, bestela, testamentugileak bere azken nahia hitz xedatzaileen bidez adierazi eta berehalaxe.

2. Testamentuan sinatuko dute testamentugileak eta egintza horretan esku hartuko duten pertsona guztiek. Horietatik edonork ez badaki sinatzen edo ezin badu sinatu, agirian bertan jasoko da inguruabar hori.

3. Lekukoek euren eskuetan gorde beharko dute agiria; bestela, notarioari eskatu behar diote agiria zaintzeko.

4. Testamentuak eragina galduko du, testamentugilea heriotza-arriskutik onik atera eta bi hilabete igaro ondoren.

5. Urtebete eta egun bateko epean, testamentugilearen heriotza-datatik zenbatuta, testamentua esku artean duenak hori aurkeztu beharko dio notario eskudunari, egiaztatuz eta protokolizatzeko; hori egin gabe, testamentua eraginik gabe geratuko da. Testamentuan interesa duela uste duen edonork galda dezake aurkezpen hori egitea.

190. LEGEA

Testamentu olografoaren kontzeptua. Olografo esaten zaio adinez nagusia edo adingabe eman-tzipatua den testamentugileak berak osorik eskuz idatzi eta sinatzen duen testamentuari, hori egilesten dueneko data adierazita.

191. LEGEA

Testamentu olografoaren baldintzak. Konpilazio honen 199. eta 208. legeetan ezarritakoa ezertan eragotzi gabe, testamentu hori baliozkoa izateko, honako erregela hauek bete beharko dira:

1. Testamentugileak bere sinaduraren bidez babestuko ditu testuaren zuzenketa, ezabapen edo lerro arteko eransketak.

2. Egiaztarazi eta protokolizatu beharko da. Esku artean duenak hori aurkeztu beharko du notarioaren aurrean hamar eguneko epean, testamentugilea hil dela dakien egunetik aurrera zenbatuta. Testamentuan interesa duen edonork ere egin ahal izanen du aurkezpen hori. Epe barruan aurkeztu edo egiaztarazten ez bada ere, testamentua eraginkorra izanen da, bere betebeharra bete ez duen pertsonaren erantzukizuna ezertan eragotzi gabe.

3. Testamentua protokolizatu ezean, testamentugilea hil ondoko bost urteko epean iraungiko da. Epe horretan egiaztaraztea aurkarazten duen demanda aurkezten bada edo testamentua gaitzestea eskatzen bada, hura sei hilabeteko epean protokolizatu beharko da, epaia irmoa denetik aurrera zenbatuta.

192. LEGEA

Euskaraz egindako testamentuak. Nafarrek euskaraz egin dezakete testamentua. Testamentua notarioaren aurrean egiten bada eta horrek ez badaki euskaraz, beharrezkoa izanen da testamentugileak aukeraturiko bi interpreteren esku-hartzea, horiek testamentugilearen xedapena gartzelaniara itzul dezaten; testamentua bi hizkuntzotan idatziko da, Notariotzaren Erregelamenduak ezartzen duenarekin bat etorritik.

193. LEGEA

Beste testamentu batzuk. Konpilazio honetan bildutako espezialitateak ezertan eragotzi gabe, Kode Zibilean honako testamentu hauei buruz dauden xedapenak aplikatuko dira Nafarroan: izurritean egiletsitako testamentua, testamentu militarra eta itsas testamentuak, eta atzerrian egindako testamentua.

198. LEGEA

Egiaztaraztea. Bost urteko epean, testamentugilearen heriotza-datatik zenbatuta, testamentuko memoriak aurkeztu beharko dira horiek egiaztarazi eta protokolizatzeko; hori egin gabe, eragingabe geratuko dira. Bi pertsonak edo gehiagok batera egiletsitako memorietan, horietatik azkena hiltzen denetik hasita zenbatuko da epe hori, salbu eta testamentuan edo memorian bertan bestelakoa ordenatu denean.

Protokolizatzea. Memoriak protokolizatzeko, notariotzari buruzko legerian ezarritako izapideak bete beharko dira. Memoriak atzerrian egiletsi badira, horiek protokolizatzeko eginbideak Espainiako kontsularen nahiz kontsulordearen aurrean gauzatu ahal izanen dira.

199. LEGEA

Kontzeptua. Ermandadekoa da bi pertsonak edo gehiagok agerkai berean egindako testamentua.

Erak. Forma ologrofoa salbu, konpilazio honetan onarturiko formatatik edozein izan dezake ermandadeko testamentuak, baldin eta forma horietako bakoitzari buruz ezarritako betekizun guztiak betetzen badira.

189. legean xedatutakoaren ondorioetarako, nahiko da egileetatik batek bakarrik betetzea hurreko heriotza-arriskuaren baldintza.

Lege pertsonala. Nafarrek ermandadeko testamentua egilets dezakete Nafarroan nahiz Nafarroatik kanpo, Espainian zein atzerrian. Nafarroatik kanpo egilesten denean, Estatuaren arau orokorrekin bat aplikatu daitekeen legeak ezartzen dituen formak ere erabili ahal izanen dira.

200. LEGEA

Eragingabetasuna. Ermandadeko testamentua eragingabea izanen da bere xedapen guztietan, honako kasu hauetan:

1. Ezkontideek egiletsi badute, ezkondu baino lehen bikote egonkorra osatuta zein ez, eta legez banantzen badira, dibortziatzen badira edo ezkontza deuseza bada. Demanda judizialaren aurkezpen hutsak eragingabetasuna sorraraziko du, ondoren adiskidetu ezean.

2. Bikote egonkorra osatzen duten bi pertsonak egiletsi badute, bikote egonkorra osatu baino lehen egiletsi ere, eta bikote egonkorra azkentzen bada kideak bizirik daudela; azkentze hori modu sinesgarrian agertu beharko da, eta azkentzearen arrazoiak ezin da izan bikotekide horien arteko

ezkontza, kasu horretan aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko bailitzateke.

201. LEGEA

a) Egilesle guztiak bizirik daudela errebokatzea. Egilesle guztiak bizirik daudela, ermandadeko testamentua errebokatu ahal izanen dute:

1. Horiek guztiek batera.

2. Horietatik edonork bere aldetik; kasu horretan, errebokatzeak ez du ondoriorik izanen, gainerakoek horren berri izan dutela modu modu sinegarrian agerrarazi arte.

Norbaiti errebokatzearen berri eman behar bazaio eta non den jakiterik ez badago, jakinarazpena ediktuen bitartez egin ahal izanen da; horretarako, aldez aurretik egoera hori justifikatu behar da, notarioak emandako nabaritasun-aktaren bidez. Ediktuok argitaratu behar dira Estatuko Aldizkari Ofizialean, probintziako aldizkarian eta azken helbide ezaguna izan duen tokian gehien saltzen diren egunkarietatik batean.

Bi kasuetan, errebokatzeak eraginik gabe utziko ditu testamentuan jasotako xedapen guzti-guztiak, horretan bestelakoa ezarri denean izan ezik.

Lege honetan eta aurrekoan xedaturikoa aplikatuko da, nahiz eta egilesleetako batek edo guztiek forudunaren izaera galdu.

202. LEGEA

b) Baten bat hiltzen denean errebokatzea. Baterako testamentugileetako bat hilez gero, ermandadeko testamentua errebokaezina izanen da.

Dena den, bizirik dirauenak errebokatu eta berriro ordenatu ahal izanen du:

1. Testamentuan bertan hori ezarri bada.

2. Edozein kasutan, ondorengo izaiteko ezgai suertatu edo aurrez hil denaren mesederako egingutako xedapenak, ordezkpena edo kasuan-kasuan izan beharreko ordezkaritza- eta gehiagotze-eskubideak ezertan eragotzi gabe.

3. Edozein kontzeptutan testamentugile batek bere jarauntsiaren gainean ezarritako xedapen guztiak, horien arrazoiak edo baldintza beste testamentugileak egindako xedapena ez bada, xedapen horiek elkarren edo hirugarren baten aldekoak diren kontuan hartu gabe.

c) Testamentua egiteko gaitasunik ez dagoenean errebokatzea. Testamentugileetatik bat testamentua egiteko ezgauza bada, ermandadeko testamentua errebokaezina izanen da. Hala ere,

gainerako testamentugileek errebokatu ahal izanen dute, testamentuan aurreikusi bada testamentua egiteko gai direnek hori errebokatzea eta, betiere, aurreko apartatuko 2. eta 3. zenbakietan aipatzen diren xedapenei dagokienez.

Halaber, lege honetan xedaturikoa aplikatuko da, nahiz eta egileetatik batek edo guztiek forudunaren izaera galdu.

204. LEGEA

b) Dohainik. Testamentugileetako batek ere ezin ditu bere ondasunak dohainik xedatu, ondoko kasuetan izan ezik:

1. Ermandadeko testamentuan bestelakoa ezarri denean.

2. Xedapena egiten duenean gainerako testamentugile guztien adostasunarekin.

3. Ondasunon xedapena testamentu bidez egin denean, baldin eta xedapen horren kausa edo baldintza ez bada izan beste testamentugile batek ezarritakoa.

4. Testamentua egiletsi ondoren desgaitasunari edo mendekotasunari buruzko aitorpena jaso duten ondorengo edo aurreko ahaideen bizi beharrak diruz laguntzeko xedapenak direnean.

206. LEGEA

Deuseztasuna. Deusezak dira testamentuak eta gainerako mortis causa xedapenak, horiek egilestean ez badira bete legeak agindutako baldintzak.

Hala ere, testamentuaren ordua ez adierazteak ez du berekin ekarriko testamentua deuseztatzea, testamentugileak ez badu besterik egiletsi egun berean.

210. LEGEA

c) Errebokatzea, geroko testamentu, itun, mortis causa dohaintza edo beste xedatze-egintza batzuen bidez. Testamentua zuzenbide osoz errebokatu dela ulertuko da, horren ondoren beste testamentu edo oinordetza-itun baliozko bat egiten bada, salbu eta horietan xedatu denean testamentuak oso-osorik edo zati batez indarrean irautea.

Mortis causa dohaintza, kodizilo eta testamentu-memoriek testamentuaren xedapenak errebokatzen dituzte, baina bateraezinak diren neurrian bakarrik.

213. LEGEA

Testamentu eta memoriak bestelakotzea. Testamentuaren baliogabetasunak berekin dakar horretan oinarria duten testamentu-memoriak

ere. Testamentuaren baliogabetasuna gorabehera, horri lotuta egilesten diren testamentu-memoriek testamentu olografoen balioa izanen dute, horietan beharrezkoak diren baldintzak betetzen badituzte.

214. LEGEA

Mortis causa dohaintzen errebokatzea eta eragingabetasuna. Mortis causa dohaintzen errebokatzeari eta eragingabetasunari dagokienez, 169. eta 170. legeetan ezarritakoa beteko da.

215. LEGEA

Nahitaezko ez izatea. Oinordetza-ituna eta testamentua baliozkoak izanen dira, nahiz eta horietan jaraunsle izendapenik jaso ez, edo horrek ondasun guztiak hartu ez. Testamentua eragingarria izanen da, orobat, 152., 153. eta 154. legeetan xedatutakoarekin bat izendatutakoa jaraunsle izateko gai izan ala ez, edo horrek jarauntsia onartu ez arren. Oinordetza-itunei dagokienez, 207. legean xedaturikoa beteko da.

222. LEGEA

Kontzeptua eta ondorioak. Xedatzaileak ordezen bat edo batzuk ezar ditzake deitua izan dena bera edo ordezekoak xedatzailea baino lehen hiltzen direnerako, edota horiek eskuzabaltasuna onartu nahi ez edo onartu ezin dutenerako.

Ordezpena egiteko kasua adierazten ez bada, ordezen horrek aurreko paragrafoan aipatutako hirurak bilduko ditu, ez bada kontrakoa adierazten espresuki xedapen baten bidez.

Bat baino gehiago izan daitezke bakar baten ordezeko, edo bat bakarra izan daiteke zenbaiten ordezeko, edo deituak izan direnak euren artean izan daitezke elkarren ordezeko.

Zati desberdinetara deituak izan direnak elkarren ordezeko badira ordezpenean zatiei buruzko aipamenik egin gabe, orduan, izendapenean ezarritakoen proportziozko zatiak dagozkien ordezeko gisa.

Bi pertsonari eskuzabaltasun berberera deitzen bazaie batera, eta horietatik batek bestea ordezen badu, horren ordezekoari bi zatietara deitu zaio la ulertuko da.

223. LEGEA

Kontzeptua. Xedatzaileak ordenatu dezake fideikomisodun bati edo batzuei ondoz ondo eskualdatzeko, berak zehazturiko epe eta forman, berarengandik fiduziarioak eskuratu dituen ondasunak.

224. LEGEA

Muga. Ez dago kopuruaren inguruko mugarik ondoz ondoko fideikomisodunak izendatzeko, hori egiten bada lehenengo fiduziarioak ondasunak eskuratzen dituen unean bizirik edo, gutxienez, ernaldurik dauden pertsonen mesederako. Ordezpenak egin badira une horretan izaterik ez duten pertsonen mesederako, ordezenok ezin dute laugarren deia gaingitu; muga hori gaingitzen duten neurrian, ulertuko da horiek ez direla egin.

227. LEGEA

Ordezpen pupilarra eta kuasipupilarra. Fideikomisozko ordezpentzat hartuko dira aurreko batek bere ondorengoari utzitako ondasunen gain xedatzen dituenak, ondorengo 14 urte bete aurretik hiltzen denerako edo, haren gaitasuna judizialki aldatuta, horrek baliozko testamenturik egin ez duenerako.

230. LEGEA

Seme-alabak "baldintza gisa" jartzea. Eskuzabaltasun-egintzaren baldintza gisa ezarri bada eskuratzaileak seme-alabak izatea, ulertu behar da baldintzaren xede diren seme-alabok ez direla xedapenean aipatu edo horiei ez zaiela eskuratze deirik egin, salbu eta espresuki hala ezarri denean.

236. LEGEA

Fiduziarioari baimena ematea, fideikomisodunak aukeratzeko. Xedatzaileak baimena eman diezaioke fiduziarioari berak zehazturiko pertsonen artean fideikomisodun bat edo batzuk libreki aukera ditzan, eta ondasunak hainbana edo zati desberdinetan banatzeko erabakia har dezan. Xedatzaileak baimena eman ezik, fiduziarioak ezin izanen die mugarik ezarri fideikomisodunei, salbu eta halakoak ezarri direnean xedatzaileak zehazturiko beste fideikomisodunen mesederako.

Fiduziarioak testamentu bidez fideikomisoduna aukeratu badu eta ondasunak banatu baditu, aukeraketa eta banaketa horiek libreki errebokatu ahal izanen ditu. Aukeraketa eta banaketa oinordetza-itunetan edo inter vivos egintzetan eginez gero, errebokaezinak izanen dira; dena den, beste fideikomisodun bat izendatu ahal izanen da, izendatua hil edo ezgaiturik suertatzen bada edo horri uko egiten badio fideikomisoa gauzatu baino lehen.

Fiduziarioak ez badu ahalmen hori erabiltzen, fideikomisodun guztiak izanen dira halakoak, hainbana. Kasu horretan, eta xedatzaileak ez baditu fideikomisodunen izenak aipatu, haiek izenda-

tzeko, zehaztapena egin ahal izanen da notarioak emandako nabaritasun-aktaren bitartez.

238. LEGEA

Fideikomisoa azkentzea. Bestelakoa xedatzen ez bada, fideikomisoa azkendurik geratuko da, eta, ondorenez, fiduziarioa itzulketa-betebeharretik aske egonen da, fideikomisodunak hil edo ezgai suertatzen badira fiduziarioa bizirik dagoela, edota fiduziarioaren mesederako fideikomisoari uko egiten bazaio edo fideikomiso hori lagatzen bada.

240. LEGEA

Araubidea. Konpilazio honen borondatezko xedapenik edo lege berezirik izan ezean, kapitulu honetan legatuak arautzen dituzten legeak banakako tituluaren bidezko eskuzabaltasun guztiei aplikatuko zaizkie.

243. LEGEA

Edukitza. Legatu-hartzaileak bere kabuz ezin du legatupeko gauzaren edukitza hartu; aitzitik, hori galdatu beharko dio legatuarekin kargaturiko pertsonari edo edukitza entregatzeko ahalmena duenari. Pertsona horiek edukitza berreskuratzeko akzioa erabili ahal izanen dute, legatu-hartzaileak, entrega gertatu baino lehen, legatupeko gauzaren edukitza hartu badu.

Hala ere, legatu-hartzaileak legatuaren edukitza hartu ahal izanen du:

1. Xedatzaileak horretarako baimena eman duenean.

2. Jaraunslerik izan ez, eta legatu-hartzailea zati alikuotaren edo gozamen unibertsalaren gainean izendatu denean.

3. Jarauntsi osoa legatuetan banatuta egonik, legatu-hartzaile guztiak ados daudenean, eta zati alikuotaren gaineko legatu-hartzailearik edo entrega gauzatzeko ahaldukin ez dagoenean; ados jartzen ez badira, legatu-hartzaileek epailearengana jo ahal izanen dute entrega hori eskatzeko.

245. LEGEA

Fruituak. Legatu-hartzaileek fruitu nahiz errentak bereganatzen dituzte epaiketari edo epaiketarik kanpo legatuaren entrega galdatu dutenetik. Salbuespenez, legatuek erruki-, ongintza- edo gizarte-xedea badute edo interes orokorra asetzeko helburua, fruitu edo interesak zor izanen dira testamentugilea hiltzen den unetik.

248. LEGEA

Hautabidezko legatua. Hautabidezko legatuek eragingarritasun erreala dutenean, legatu-har-

tzaileari dagokio aukeratzea, eta, eragingarritasun pertsonala dutenean, legatuarekin kargaturiko pertsonari, xedatzailearen borondatea bestelakoa izan ezik.

249. LEGEA

Besteren gauzaren gaineko legatua. Besteren gauzaren gaineko legatua edo besteren gauzaren gainean eskubide erreala eratzeke legatua baliozkoa izanen da, bakar-bakarrik, legatu-hartzaileak frogatzen badu xedatzaileak bazekiela gauza besterena zela. Legatua baliozkoa denean, jaraunslea bere betebeharretik libre gelditu ahal izanen da balioa zenbatespen zuzenaren arabera ordainduz.

250. LEGEA

Gozamen unibertsalaren gaineko legatua. Aurkako xedapenik izan ezean, gozamen unibertsalaren gaineko legatuak bere barruan hartuko ditu kausatzaileak utzitako ondasun guztiak, 255. legeak baztertutakoak izan ezik.

255. legerako 5. zenbakian aipaturikoez besteko legatuak, gozamen unibertsalarena osatzen dutenak, horrekin lotuta geratuko dira, eta ondasunok emanen dira eskubide hori azkentzean bakarrik.

Testamentugileak gozamenduna aska dezake inbentarioa egiteko eta bermea emateko betebeharretatik.

Gozamendunari xedatze-ahalmenak eman bazaizkio espresuki, ahalmenon erabilerari aplikatuko zaio 239. legean ezarritakoa, eta, jarauntsiko hartzekodunen ordainketari, 318 eta 319. legeetan xedaturikoa.

252. LEGEA

Legatua azkentzea. Legatuan eman bada xedatzailearen beraren gauza jakin eta zehatza, legatu hori azkenduko da, haren heriotza-unean gauzaren jabetza beste pertsona batena bada, xedatzailearen borondatezko eskualdatzea dela eta. Hala ere, legatu-hartzaileak gauza kostu bidez eskuratzen badu xedatzaileaz bestelako pertsona batengandik, ulertuko da legatupekoa dela legatu-hartzaileak emandako kontraprestazioaren prezio edo balioa.

Xedatzaileak ez badu legatupeko gauza eskualdatu bere borondatez, jasotako ondasunak edo eskubideak subrogatuta dituen berariazko gauza baten agintzari gisa zein legatu orokor gisa balioko du legatuak.

253. LEGEA

Kontzeptua. Alargunak gozamina du lehenik hildakoari heriotza-unean dagozkion ondasun eta eskubide guztien gainean.

Konpilazio honen I. liburuko VII. tituluaren ezarritakoaren arabera osatutako bikote egonkorrean bizirik dirauen kideari kapitulu honetan biltzen diren xedapen guztiak aplikatuko zaizkio, gozamenaren 113. legean ezarritakoaren arabera egiletsi bazaio.

Besterezintasuna. Eskubide hori besterenezina da; dena den, jabe soilek eta gozamendunak, guztiek batera, besterendu edo kargatu ahal izanen dute gozamenpeko ondasunen jabari osoa.

Uko egitea. Baliozkoa da gozamenari aurretiaz uko egitea, hori eskritura publikoan egiletsi bada, ezkontza egin edo, hala bada, bikote egonkorra eratu aurretik nahiz ondoren.

254. LEGEA

Gozamenetik baztertzea. Honako hauek ez dute gozamena izateko eskubiderik izanen:

1. Heriotza egunean lehenik hildakoarengandik legez edo izatez bananduta dagoen bikotekidea.

2. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, beste bikotekidearen edo haren ondorengoetako baten biziaren aurka atentatu izanagatik edo lesio larriak eragin izanagatik, ohikotasunez indarkeria fisikoa nahiz psikikoa erabili izanagatik edo haren askatasunaren, osotasun moralaren edo sexuaskatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka atentatu izanagatik.

3. Epai irmoaren bidez kondenatua izan dena, familia-harremanen kontrako delituak egin izanagatik.

4. Epai irmoaren bidez gabetu dena bien seme-alaben gaineko guraso-erantzukizunaz.

255. LEGEA

Hedadura. Gozamenak lehenik hildakoari dagozkion ondasun eta eskubideak ere hartzen ditu, nahiz eta horiek dei, lehengoratze edo itzultzeari lotuta egon, ondasun eta eskubide hauek salbu:

Baztertutako ondasunak:

1. Fideikomisoazko ordezipenaren mendeko ondasunak, xedatzaileak aurkakoa ezartzen duenean izan ezik.

2. Gozamen, erabilera eta biztantze eskubideak edota biziarteko izaera pertsonala duten beste batzuk.

3. Lehenik hildakoak dohainik eskuraturiko ondasunak, horiek alarguntza-gozamenetik espresuki baztertu badira.

4. Mortis causa dohaintzaren xede izan diren ondasunak.

5. Erruki-legatuak edo hiletarako legatuak, seme-alabei edo beste ahaide batzuei zuzkidura egiteko legatuak, testamentugileak horiei zuzkidura emateko betebeharra badu, eta ordain gisa emandako legatuak, ziurra bada ordaindu beharreko zerbitzua egin dela.

6. Aurreko ezkontzako edo bikote egonkorreko seme-alaba edo ondorengoentzat erreserbatu beharreko ondasunak, 273., 274. eta 275. legeetan ezarritakoarekin bat etorritik.

7. Dohainik eskuratu direnak, baldin eta aurreko ezkontzako edo bikote egonkorreko seme-alaba edo ondorengoei oinordetzara deitu bazaie eta horiek bizirik badaude. Salbuespen gisa har daiteke, bigarren edo gehiagogarrenez ezkontzeko edo bikote egonkorra osatzeko, deia ordenatu duten pertsona guztientzat edo horietatik biziirik daudenentzat gozamen eskubideak irautea.

8. Ondare bereziki babestu bat osatzen duten ondasunak, 45. legearekin bat horiek azkentzen diren arte.

256. LEGEA

Familia-enpresen kasuan gozamena ordezteak. Familia-enpresa oinordetzaren xede bada eta ondorengoen aldeko oinordetza bada, xedatzaileak testamentuan edo eskritura publiko batean ezarri ahal izanen du, alarguntza-gozamenaren ordeza, jabe soilaren kargurako hileko errenta eman dela.

Honako hau izanen da errentaren zenbatekoa: hil aurreko bost urteetan enpresak izan duen batez besteko etekina. Zenbateko hori urtero eguneratuko da kontsumoko prezioen indizearen arabera, eta eskuratzailleak ondoren eskualdatzen badu finkatu ahal izanen da. Zirkunstantziak aldatzen badira, hori berrikusiko da, eta azkendu egingen da, gozamena azkentzeko arrazoi berberak direla bide.

Ordezpena gozamendunaren eta jabe soilaren arteko itunaren bidez ere egin ahal izanen da.

257. LEGEA

Inbentarioa. Bere eskubidea gauzatu ahal izateko, gozamendunak gozamen horren hedaduran sartzen diren ondasun guztien inbentarioa egin beharko du honako kasu hauetan:

1. Lehenik hildakoa testamentuan edo eskritura publiko batean hala ezarri badu.

2. Jabe soilak hori eskatzen badio, lehenik hildakoak espresuki baztertu ezean.

3. Jabe soilen artean adingabeak edo gaitasuna judizialki aldatua dutenak badaude.

Forma eta epeak. Inbentarioa eskritura publikoan agerrarazi behar da, eta hil ondorengo sei hilabeteko epearen barnean egin beharko da, aurreko apartatuko 1. eta 3. zenbakietan aurreikusitako kasuetan, edo errekerimenduaren ondoren, 2. zenbakiko kasuan, ezertan eragotzi gabe epe hori etetea ezinbesteko arrazoiak direla eta, arrazoi horiek dirauten bitartean.

Alarguntza-gozamenak ez badu hasi behar beste pertsona batzuentzat ezarritako gozamena azkendu arte, epeon zenbaketa hasiko da borondatezko gozamena azkentzen denean.

Testamentua, oinordetza-ituna edo halako egintzetan ordenaturiko jaraunsle-izendapena deuseza bada edo gozamenean eragina duen beste eztabaida bat badago, inbentarioa egiteko epeen zenbaketa hasiko da deuseztasuna deklaratzeko epai irmoa gozamendunari jakinarazten zaionean.

Jabe soilaren eskubideak. Jabe soilari dei egin beharko zaio inbentarioa osatzeko, eta gozamendunari eskatu ahal izanen dio hori edo horren eransketa zer notarioren aurrean egin zuen adieraz dezan. Jabe soilak inbentarioaren kopia lortzeko eskubidea du, eta gozamendunari eskatu ahal izanen dio zuzen ditzan eskritura publikoaren bidez inbentarioan izandako oker eta hutsuneak.

258. LEGEA.

Eskubideak. Bizirik dirauenak izanen ditu gozamendunari orokorrean dagozkion eskubide guztiak, hirugarren liburuko IV. tituluaren I. kapituluarekin bat etorritik, bai eta, hala denean, lehenik hildakoak, borondatez, berari eman dizkionak edo itundu dituenak ere.

Gainera, alarguntza-gozamena sozietate anonimoen akzioen gainean eratzen bada, eta sozietatearen estatutu, itun edo erabakiek bestelakoa xedatzen ez badute, hurrengo erregelak beteko dira:

1. Jabe soilari dagokio, eta berari bakarrik, akzio berrien lehentasunezko harpidetze-eskubidea; baina horrek ez badu eskubidea erabiltzen, gozamendunak bere kabuz egin ahal izanen du harpidetza, jabe soilaren izenean, ordainketa edo gastu egokiak eginez, eta, ahalmen hori egikaritzen ez badu, besterendutako harpidetza-eskubideen balioa galda dezake.

2. Gozamena hedatuko da harpidetu diren akzio berrietara; gozamendunak jabe soilari eman beharko dizkio harpidetzaren ondorioz horrek izan

dituen ordainketa eta gastu guztiak, eta ez badu hori egiten jabe soilaren agindeitik hogeita hamar eguneko epean, ez du gozamenik izanen akzio berrien gainean; kasu horretan, jabe soilak besterendutako harpidetze-eskubideen zenbatekoa bakarrik hartuko du. Gozamendunak jabe soilari eman behar badizkio horrek egindako gastu eta ordainketak, ez du itzulketa eskubiderik izanen.

3. Tituluak ordeztu edo akzioak amortizatzen badira, gozamena titulu berrien gainea edo amortizazioaren zenbatekoaren gainea izanen da, subrogazio bidez.

4. Gozamena eratu bada akzio bihur daitezkeen obligazioen gainean, gozamena akzioen gainea izanen da, eta aurreko zenbakietan xedaturikoa aplikatuko da.

Akzioen gainea gozamenari buruz lege honetan ezarritako xedapenak aplikatuko zaizkie, horien izaeraren arabera aplikagarri diren neurrian, bestelako gozamenei ere, horiek erantzukizun mugatuko sozietateen partaidetzen gain eta sozietate kolektibo, sozietate komanditario edo sozietate zibilen kuoten gain eratu badira.

259. LEGEA

Betebeharrak. Gozamendunak ondokoak egin behar ditu:

1. Ondasunak administratu eta ustiatu, familia-eremuan ohikoa eta arrazoizkoa den moduan.

2. Lehenik hildakoaren azken gaixoardiaren eta hiletaren ondoriozko gastuak ordaindu.

3. Mantenua eman, luperketaren muga barruan, lehenik hildakoaren seme-alaba eta ondorengoei, lehenik hildakoak hori emateko betebeharra bazuen bizirik egonda, betiere, mantenu-hartzaileek hori galdatzeko legeko egoera betetzen dutenean.

4. Lehenik hildakoaren zorrak jarauntsiaren diruarekin ordaindu, zorrak galdatzeko modukoak direnean. Ez badago behar beste dirurik, jarauntsiko ondasunak besterendu ahal izanen ditu, aldez aurretik jabe soilekin akordioa eginez; akordiorik lortu ezean, jabe soilak ezezagunak badira edo ez badaude, beharrezkoa izanen da epailearen baimena ondasunak besterentzeko.

5. Gozamenari datxezkion karga guztiak ordaindu.

6. Desorekagatiko konpentsazio prestazioa ordaindu, judizialki horretara behartua badago 105. legean ezarritakoaren arabera.

260. LEGEA

Eraldaketa. Gozamendunak ez badie kasu egiten jabe soilek administrazio eta ustiapenaren inguruan emandako jarraibide edo oharrei, horiek epailearengana jo ahal izanen dute horiek betetzeko asmoz, uste baldin badute, horiek kontuan hartuta, kudeaketa hobe daitekeela.

Gozamendunak ezin badu epailearen erabakia bete edo hori bete nahi ez badu, jabe soilek ondasunak emateko eta gozamina errenta batez ordeztzeko eskatu ahal izanen dute 256. legean ezarri bezala.

Ordezpena horien arteko itunaren bidez ere egin ahal izanen da.

261. LEGEA

Azkontzea. Alarguntza-gozamina azkentzen da:

1. Gozamenduna hiltzen denean.
2. Horri eskritura publikoan espresuki uko egiten zaionean.

Gozamenduna berriro ezkontzen denean, bikote egonkorra osatzen duenean edo beste pertsona batekin ezkontuen gisa bizi denean, lehenik hildakoak aurkako itun edo xedapena egin duenean izan ezik.

262. LEGEA

Kentzea. Gozamendunak, jabe soilek hala eskatuta, alarguntza-gozamina galduko du:

1. Epai judizialen bidez bien seme-alaben gaineko guraso-erantzukizunaz gabetu bada.

2. Ondasunak besterendu edo kargatzen ditue-nean, 253. legeko bigarren apartatuak eta 259. legeko 4. zenbakiak ezarritako kasuetan salbu, eta itun bidez nahiz lehenik hildakoaren xedapen bidez horretarako behar den baimena ematen zaionean izan ezik.

3. Gozamenari datxezkion betebeharrak oro har betetzen ez baditu, 259. legearekin bat etorriz.

4. Legeko 1., 3. eta 6. zenbakietan jasotako betebeharretakoa bat etengabe betetzen ez badu, doloaz edo zabarkeria astunaz ez bada; kasu horretan, gozamina galduko da, nahiz eta ez-betetzea puntuala izan.

263. LEGEA

Edukitza berreskuratzeko akzioa. Gozamina bukatu eta gero, jabe soilek ondasunen edukitza eskura dezakete edukitza berreskuratzeko akzioaren bidez.

264. LEGEA

Borondatezko aldaketak. Xedatzailearen borondatez edo itun bidez, ondokoa gerta daiteke:

1. Inbentarioa egiteko betebeharra kentzea, 257. legearekin bat etorriz hori nahitaezkoa denean.
3. zenbakian aurreikusitako kasua salbuesten da, legeko ordezkariak edo Fiskaltzak inbentarioa eskatzen duenean eta epaileak hori erabakitzen duenean ukitutako pertsonen jaraunspen ondarea babesteko.

2. Ondasunak besterendu edo kargatzeko ahalmena ematea.

3. Gozamenari eusteko baimena ematea, nahiz eta gozamenduna berriro ezkondu, bikote egonkorra osatu edo beste pertsona batekin ezkontuen gisa bizi izan.

4. Gozamina egikaritu ahal izateko, bermea era dadin galdatzea.

5. Epe, baldintza eta kargak ezartzea, edo eskubidearen eskuratzea, erabilera, hedatzea, ordeztzea eta azkentzea edozein modutan aldatzea.

4. eta 5. zenbakietan arauturiko kasuetan, beharrezkoak izanen dira gozamendunaren adostasuna eta onarpena.

266. LEGEA

Arau subsidiarioak. Kapitulu honek ezartzen ez dituen kontuetan, alarguntza-gozamina hirugarren liburuko IV. tituluaren I. kapituluaren gozamenari buruz emandako xedapen orokorren menpe dagoela ulertuko da.

267. LEGEA

Kontzeptua. Nafarroako seniparteak ez du galdatzeko moduko ondare-edukirik, eta ez du jaraunsle-izaerarik eratxikitzen; senipartearen gainean izendatuak ez du inolako erantzukizunik izanen jarauntsiko zorren gainean, eta ezin izanen du jaraunslearen beraren eskubiderik erabili.

Xedatze-egintzan banaka edo taldeka izendatutako senipartedunei "Nafarroako senipartea", izen horrekin edo antzeko beste batekin, esleitzeko bete egiten ditu hura modu formalean eratzeako eskakizunak.

268. LEGEA

Senipartedunak. Testamentuaren bidez eta oinordetza-itunen bidez, foru-senipartearen gain izendatu behar dira:

1. Seme-alabak.

2. Halakorik izan ezean, horien gradurik hurbi-
leneko ondorengo ahaideak.

269. LEGEA

Salbuespenak. Ez da beharrezkoa foru-seni-
partearen gaineko izendapenik egitea, xeda-
tzaileak senipartedunei zuzkidura eman dienean,
mortis causa tituluaren bidez edozein eskuzabal-
tasun eratziki dienean, bidezko arrazoia dela-eta
horiek jaraungabetu dituzte, senipartedunok
haren jarauntsiari uko egin diotenean, edota
horiek aurretik hil direnean seniparte-eskubidedun
ondorengorik utzi gabe.

270. LEGEA

Jaraungabetzea. Jaraungabetzeko arrazoi
bidezkoak izanen dira 154. legeko 1., 2., 3., 5. eta
8. zenbakietan jasotakoak, baita honako hauek
ere:

1. Edozein delitu egitea, kalte bat eragitea edo
sozialki gaitzesgarria den jokabide bat bere boron-
datez agertzea kausatzailearen edo horren onda-
sunen aurka edo kausatzailearen familia-taldearen
edo -erkidegoaren edo ondasun-erkidegoaren
kideen aurka.

2. Kausatzaileari edo haren ezkontideari, biko-
tekide egonkorrari edo ondorengoetako bati man-
tenua modu bidegabean ukatzea, horiek emateko
lege betebeharra dagoenean.

271. LEGEA

Preterizioa. Preterizioak ondorio gisa dakar
jaraunse-izendapenaren deuseztasun osoa edo
partziala; baina preterizio horrek ez die kalterik
eginen gainerako xedapenei.

Senipartedun preterituak edo horren jaraunse-
leek bakarrik egikari dezakete aurkaratze-akzioa.
Hori egikaritzen duen preterituak kausatzailearen
legezko oinordetzaren bidez hari dagokion
jaraunspen-kuota jasotzeko eskubidea izanen du.

Ez dira preteritutzat joko notarioaren aurrean
egin gabeko testamentuetan aipatzen diren seni-
partedunak, nahiz eta senipartean modu formalean
ez ezarri.

272. LEGEA

Kausatzailearen seme-alaba eta ondorengoen-
tzako mantenua. Alarguntza-gozamena ukatu edo
azkenduta ondoren, kausatzailearen bikotekide
egonkorrarentzat hori itundu ez bada, edo eskubi-
de hori 259. legeko 3. apartatuak aipatzen duen
betebeharra betetzeko nahikoa ez bada, kausa-
tzailearen seme-alabek edo ondorengoek, kon-

tzeptua eta egoera kontuan hartuta, eskubidez
eskatu ahal izanzen lioketen mantenua titulu
unibertsalaren nahiz banakako tituluaren bidez
borondatezko oinordeko direnei eskatu ahal izan-
nen diete, ordezipena gauzatutakoan, lehentasu-
nezko legezko beste betebeharrekin ez badago,
betiere jasotako ondare-eratzikipenaren mugen
barnean eta horren kargura.

Zor den mantenuaren zenbatekoa finkatuko da
mantenu-hartzaileen beharrianen eta oinordeko
betebeharrekin kausatzailearengandik jaso
dituzten ondasunen balioaren arabera, eta, hala-
ber, mantenu-hartzaileak berak oinordetzan bene-
tan eskuratu dituen ondasunak ere hartu beharko
dira kontuan.

Kausatzailearen kargurako mantenua emateko
lege-betebeharra gradu bereko aurreko beste
ahaide bati ere dagokionean, horietako bakoitzak
zor dituen elikagaien zenbatekoa proportzionala
izanen da kausatzailearen oinordetzaren ondorioz
jasotako ondasunen balioarekiko eta horiek ema-
tera behartuta dagoen aurreko beste ahaidearen
baliabide ekonomikoekiko.

Ondare-eratzikipen horri jarraikiz oinordekoak
direnak kausatzailearen seme-alabak edo ondo-
rengoak ere badira, mantenuaren zorra zehaztera-
koan haien beharrianak ere kontuan hartuko dira
eta, bereziki, haien adingabetasuna, adin nagusira
iritsi direnen mendekotasun ekonomikoaren iraun-
kortasuna edo haien desgaitasuna edo mendeko-
tasuna direla-eta sortzen direnak ere bai. Hala
ere, oinordeko horiek kontzeptu horrengatik zor
duten mantenuaren zenbatekoa ezin izanen da
inola ere izan ondarea berdintasunez banatuta
kausatzailearen seme edo alabetako bakoitzari
egokituak litzaiokeen kuota baino handiagoa.

Lege honek ezarritakoari jarraikiz zor den man-
tenua hartzeak ez du eragozten edo baztertzen
legez eman beharreko mantenu orokorra ondoren
eskatzeko aukera, horiek erreklamatzeko legitima-
tzen duten baldintzak egonez edo iraunez gero.

273. LEGEA

Erreserba egiteko betebeharra. Berrito ezkon-
tzen den gurasoak edo beste pertsona batekin
bikote egonkorra osatzen duenak aurreko elkar-
tzean izandako seme-alabei, edo horien ondoren-
goei, erreserbatu eta utzi behar die berak aurreko
ezkontidearen edo bikotekide egonkorraren,
horrekin izandako seme-alaben edo horien ondo-
rengoen eskutik eta dohaineko edozein tituluren
bidez eskuratu dituen ondasun guztien jabetza.

Betebehar horrek indarrean dirau, ondorengo
erreserba-hartzaileak dauden artean, nahiz eta hil-

tzen den unean erreserbagilea dagoeneko ezkontuta ez egon edo bikote egonkorrean bizi ez.

Deuseza izanen da erreserba egiteko betebeharra kentzea, hori guraso batek bestearen mesederako egiten badu, berriro ezkontzen den edo beste pertsona batekin bikote egonkorra osatzen duen kasurako.

Era berean, deuseza izanen da berriz ezkontzen den edo beste pertsona batekin bikote egonkorra osatzen duen gurasoak egindako xedapena, lege honetan ezarritakoa urratzen badu.

274. LEGEA

Xedatzeko askatasuna. Erreserbatzeko betebeharra duen gurasoak erreserbapeko ondasunak askatasunez xeda ditzake seme-alaba edota ondorengo erreserba-hartzaileen artean. Ondasunak xedatzen ez baditu, erreserba-hartzaileak ondasunon jaraunsle izanen dira, legeko oinordetzari buruz ezarritakoarekin bat etorritik.

275. LEGEA

Erreserba-hartzaileak nortzuk diren zehaztea. Erreserba-hartzaileek jaraunsle izan behar badute legeko oinordetzarako hurrenkerarekin bat etorritik, horiek nortzuk diren zehaztu ahal izanen da notarioak egindako nabaritasun-aktaren bitartez.

276. LEGEA

Erreserba azkentzea. Erreserba egiteko betebeharra azkenduko da erreserba-hartzaile guztiek euren eskubideei uko egiten dietenean, horiek oinordeko izateko gaitasunik ez dutenean, lege jaraungabetuak izan direnean edota erreserbagilea baino lehenago hil direnean, lehenik hiltzea edo desgaitasuna gertatzen den kasuetarako ordezkaritza-eskubidea salbu.

279. LEGEA

Aurreko ahaideei eskuzabaltasunak lehengoratztea. Dohaintza-emaileak uko egin ezean, edo aurkako itunik edo xedapenik izan ezean, aurreko ahaideak ondasun batzuk eskualdatu badizkio dohainik seme edo alaba bati, edota dohaintza-emailea baino lehen eta ondorengorik gabe hildako beste ondorengo bati, ondasunok aurreko ahaideari lehengoratuko zaizkio. Ondasunok besterendu badira, lehengoratzearen xede izanen dira subrogatutako ondasun edo eskubideak bakarrik.

280. LEGEA

Lehengoratzea kasu berezietan. Kausatzaileak ondasun batzuk eskuratu baditu familiarentzako dohaintzaren edo zuzkiduraren bidez, orduan,

124. legean eta 138. legeko c) apartatuan bereziki xedaturikoa beteko da.

281. LEGEA

Kontzeptua. Kausatzailea hiltzen bada oinordetza bestelako moduan ordenatu gabe, kausatzaile horrek fiduziario-komisario bati eskuorde diezazkioke testamentuan, ezkontzako itunetan edo beste eskritura publiko batean, jaraunsle edo dohaintza-hartzaile unibertsala izendatzeko ahalmenak, bai eta zuzkidurak seinالاتu, legatuak xedatu eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzat bereziki babesten den ondarea osatzekoak ere, eskuordetzean ezarritako mugen barruan eta titulu honetan xedatutakoarekin bat etorritik. Eskuordetzea ezkontideari, bikotekide egonkorrari edo beste pertsona batzuei eman dakieke, banaka, guztiei batera edo modu subsidiarioan; «ahaideei» modu orokorrean eman bazaie, ulertuko da Ahaide Nagusiei eman zaiela.

Interpretazioa. Oinordetza-fiduzian, kausatzailearen borondateari buruz egindako interpretazioa eta integrazioa tokiko usadioei eta familiaren ohiturei egokitu behar zaizkie. Bestelakorik ezarri ezean, hurrengo legeak beteko dira.

283. LEGEA

Jarduteko modua. Fiduziarioak bat baino gehiago badira, gehiengoz hartuko dituzte erabakiak. Ahaide Nagusiak badira fiduziario, 144. legean xedaturikoa beteko da.

284. LEGEA

Gaitasuna. Fiduziarioak adin nagusiko izan behar du bere eginkizuna betetzeko unean, baina ezkontidea edo bikotekide egonkorra bada fiduziario, nahiko izanen da horrek testamentu egiteko gaitasuna izatea.

Ezkontide batek bestea izendatu badu fiduziario, izendapen hori eraginik gabe geldituko da, deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa badago, horretarako demanda aurkezten den unetik.

Bikotekide batek beste bikotekidearen alde egindakoei dagokienez, eragingabea izanen da bikotekideak bizirik daudela modu sinesgarrian egiten den azkentzetik aurrera, hori bi kideak bien artean ezkontzeagatik gertatu ezean; izan ere, kasu horretan, aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatuko litzateke.

Fiduziarioa izateari utziko dio beste pertsona batekin ezkondu, bikote egonkorra osatu edo ezkonduen gisa bizi den ezkontide alargunak edo bizirik dirauen bikotekideak.

285. LEGEA

Ahalmenak. Kausatzaileak fiduziario izendatu baditu beste pertsona batzuk, banaka edo ezkontidearekin, bikotekide egonkorrekin nahiz aurreko ahaideekin batera, jaraunsle edo dohaintza-hartzaile unibertsalaren izendapenak egin beharko dira, 143. legean Ahaide Nagusiei buruz xedatutakoarekin bat etorriz.

Fiduziarioak edozein izanda ere, izendapenak egin baino lehen, fiduziario horiek, egintza batean edo batzuetan zuzkidurak edo bestelako eskubideak seinala eta eman ditzakete Etxearen kontura. Seinalamendu horiek ez dakarte inolako eragozpenik geroago onuradunetatik bat jaraunsle edo dohaintza-hartzaile izendatzeko, seinalamenduak egitean bestelakorik ezarri ez bada.

286. LEGEA

Forma. Fiduziarioek izendapenak egin behar dituzte testamentuan edo eskritura publikoan; azken kasu horretan, izendapenok errebokaezinak izanen dira, 122. legeko azken paragrafoan xedaturikoa salbu.

287. LEGEA

Mendekotasun-egoera. Fiduziarioak badira kausatzailearen ezkontidea, bikotekide egonkorra edo aurreko ahaideak, euren eginkizuna oso-oso-rik betetzen ez duten bitartean, administratzeko eta xedatzeko ahalmenak izanen dituzte oraindik xedatu ez dituzten ondasunen gainean. Fiduziarioak beste batzuk badira, jarauntsi-erkidegoari buruzko erregelak aplikatuko dira deitzen artean, baina horietako bat adingabea bada edo gaitasuna judizialki aldatua badu, adjudikazio-hartzaileen adostasuna beharko da xedatze-egintzak gauzatzeko.

288. LEGEA

Betearazteko ezintasuna. Heriotzaren, uko egitearen, ezintasunaren edo beste kausa baten ondorioz, fiduziarioek ezin badute jaraunsle edo dohaintza-hartzaile unibertsala izendatu, eta ezinezkoa bada Ahaide Nagusiek izendapen hori egitea, seme edo alaba nagusiak eska dezake bera jaraunsle izendatzeko edo, halakorik ez badago eta Etxea baldin bada eskualdatu beharrekoa, etxean bizi diren ondorengoetatik zaharrenak, horiek ez badira baztertu edo ez badute uko egin. Inork ere ez badu halakorik eskatzen, legeko oinordetza irekiko da.

296. LEGEA

Ahalmenak. Albazeak izendatu badira kausatzailearen borondatea betearazteko, kausatzaileak eman dizkien ahalmen guztiak izanen dituzte; bes-

terik ezarri ez bada, euren kabuz erabili ahal izanen dituzte ahalmenok, nahiz eta horrekin ondainsun higiezinak xedatu.

Baztertzea. Kausatzaileak bestelakorik ezarri ezean, jaraunsleek aho batez adostuta egin dezaket banaketa, albazearen beharrik gabe, albazea horrek kontulari-banatzailearena ere egin behar badu, ezertan eragotzi gabe kausatzaileak agindu dizkion gainerako eginkizunak.

297. LEGEA

Motak. a) Albazea bereziak. Albazea bereziak izendatu badira soilik egintza edo xede zehatz eta jakinak gauzatzeko, albazea horiek agindutako eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren ahalmenak besterik ez dute izango.

b) Albazea unibertsalak. Albazea unibertsalak izendatu badira orokorrean, xede zehatzei buruzko aipamenarekin edo halako aipamenik gabe, orduan, kausatzaileak eurei espresuki emandako ahalmenak ez ezik, ondoko eginkizunak ere izanen dituzte albazea horiek, kausatzaileak bestelakorik xedatu duenean izan ezik:

1. Jarauntsiaren edukitza hartu, eta jarauntsiko ondasunak administratu, inbentarioa egin, kredituak kobratu eta zorrak ordaintzea.

2. Jarauntsia ordezkatu, epaiketari nahiz epaiketatik kanpo, eta prokuradoreak izendatzea, behar diren akzioak egikari ditzaten.

3. Orotariko zergak likidatzeko beharrezkoak diren aitorpenak egitea, horiek ordaintzea eta bidezko errekursoak jartzea.

4. Testamentua eta kausatzaileak azken nahian ordenaturiko beste egintzak interpretatzea.

5. Testamentu olografoak egiaztarazi eta protokolizatzeko eskatzea, bai eta hori behar duten beste dokumentu batzuk eta testamentuko memoriak ere.

6. Testamentuaren baliozkotasunari eta kausatzailearen azken nahia jasotzen duten gainerako egintzen baliozkotasunari epaiketari eustea.

7. Hiletari buruzko guztia xedatu eta ordaintzea, kausatzaileak ordenaturikoarekin bat etorriz edo, halakorik izan ezean, hiletaren zirkuntantzien eta tokiko usadioaren arabera.

8. Diruaren edo bestelako ondasunen gaineko legatuak entregatzea.

9. Orotariko ondasun higigarriak besterentzea gastu, zor, karga nahiz diruzko legatuak ordaintzeko, baldin eta jarauntsian ez badago behar

adina dirurik, eta jaraunsleek ez badute behar besteko neurrian ekartzen.

10. Orokorrean, kausatzailearen azken nahia betearaztea, nahi hori betez eta bete dezaten galdutuz.

298. LEGEA

Epea. Albazeek euren eginkizunak beteko dituzte kausatzaileak emandako epean; kausatzaileak epe hori luza dezake inolako mugarik gabe.

Testamentugileak hasierako eperik edo luzapenik adierazi ez badu, ulertuko da urtebetekoa dela kasu batean zein bestean, eta epea zenbatzen hasiko da testamentua onartzen denetik edo, bestela, testamentuaren edo xedapenaren balioz-kotasunari buruzko auziak amaitzen direnetik.

Luzapen hori igaro arren oraindik ez bada bete testamentugilearen borondatea, Justizia Administrazioaren letratuak edo notarioak beste luzapen bat eman ahal izanen du, kasuaren zirkunstantziak kontuan hartuta, behar den denborarako.

Jaraunsleek eta legatuhartzaileek, ados badaude, albazeatzaren epea beharrezkotzat jotzen duten denborarako luzatu ahal izanen dute. Akordioa gehiengoaren bidez bakarrik hartzen bada, luzapena ezin izanen da urtebetetik gorakoa izan.

Ermandadeko testamentuan, testamentugile guztien albazeari ezarritako epea, oinordetza bakoitzari begira, horren kausatzailea hil ondoren onartzen den egunean hasiko da kontatzen.

Ordainsaria. Albazei ordainsaria emateko, kausatzaileak besterik xedatu ez duenean, tokiko usadioa beteko da edo, halakorik izan ezean, ekitatezkoa dena.

302. LEGEA

Lehengoratzea. Lehengoratzearen mendeko ondasunei aplikatuko zaizkie, kasuan-kasuan, 124. legearen, 138. legetik c) apartatuaren eta 279. legearen xedapenak.

303. LEGEA

Erreserbatzea. Erreserbapeko ondasunei aplikatuko zaizkie, kasuan-kasuan, 273. legetik 278. Legea bitartekoetan jasotako xedapenak.

304. LEGEA

Oinordeko izateko hurrenkera. Ondasun ez-tronkalen gainean, legeko oinordetza hurrengo deien hurrenkeraren arabera gauzatuko da; dei bakoitzak eragina izanen du aurreko deirik izan ezean, eta ondokoak baztertuko ditu:

1. Seme-alabak, euren ondorengoek ordezkari-tza-eskubidea izanen dutela.

2. 254. legeari jarraikiz, alarguntza-gozamenetik baztertutik ez dagoen ezkontidea.

3. Gradurik hurbileneko aurreko ahaideak. Horiek lerro desberdinetakoak badira, jarauntsia bi lerroen artean erdibanatuko da, eta, lerro bakoitzaren barruan, hainbanatu.

4. Lotura bakarreko zein lotura bikoitzeko anaia-arrebak, hainbana, eta lehenik hildakoen ondorengoak, ordezkari-tza bidez.

5. Aurreko zenbakian biltzen ez diren alboko ahaideak, laugarren graduraino, lerro desberdinen arteko bereizketarik egin gabe, graduak hurbilenekoek urrunekoak baztertuz, ordezkapenik gabe eta hainbana beti.

6. Aurreko zenbakietan aipaturiko ahaiderik izan ezean, Nafarroako Foru Komunitatea izanen da oinordeko; horrek, jaraunspenaren ondasun eta eskubideen likidazioa egin ondotik, interes sozialeko xedeetarako erabiliko du jarauntsia, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan xede horietarako aurreikusia dagoen aurrekontu zuzkidura handituz.

306. LEGEA

Ondasun tronkalak. Ondasun tronkalak dira kausatzaileak dohainik eta laugarren gradurainoko ahaideengandik eskuratutako ondasun higiezinak edo beste ondasun tronkal batzuekin truke eginda lortutakoak.

Izaera tronkalari eutsiko diote atzera-eskuratze jentilizioaren bidez eskuratutako ondasun higiezinak.

307. LEGEA

Ahaide tronkalak. Ondasun tronkalen oinordeko izateko, kausatzailearen ahaideei deitzen zaie, ondasunak zein familiatatik etorri, familia horretako ahaideei, ondoko hurrenkerarekin bat etorritik:

1. Gradurik hurbileneko aurreko ahaideak.

2. Lotura bakarreko zein lotura bikoitzeko anai-arrebak, euren ondorengoek ordezkari-tza-eskubidea izanen dutela.

3. Gainerako alboko ahaideak, laugarren graduraino, graduak hurbilenekoek urrunekoak baztertuz, ordezkari-tza-eskubiderik gabe eta beti hainbana; baina, kausatzailearen aurreko ahaide ez-tronkalekin pilatuz gero, horiek biziarteko gozamina izanen dute ondasun tronkalen gainean, berriro ezkondu edo bikote egonkorra osatu arren.

Halako ahaiderik izan ezean, oinordetza 304. legearekin bat etorritik gauzatuko da.

309. LEGEA

Noiz sortzen den. Ordezkaritza-eskubidea gertatuko da kausatzaileak hala ezarri duenean; kausatzaileak, halaber, edozein kasutan bazter dezake eskubide hori.

Aurreko ahaide batek egindako jaraunsgabe-tzeak ez du baztertuko jaraunsgabetuaren ondo-rengoan ordezkaritza-eskubidea, hark bestelakorik xedatu ezik.

Kausatzailearen xedapenik izan ezean, lege-zko nahiz borondatezko oinordetzan, honela gerta-tuko da ordezkaritza-eskubidea: haren ondorengo-en mesederako mugarik gabe, eta haren anaia-arreben ondorengoan mesederako, lauga-rran graduraino, kausatzailearengandik zenbatuta.

318. LEGEA

“Intra vires” erantzukizuna. Jaraunsleak eran-tzukizuna izanen du, jarauntsiko ondasunen balioarekin bakarrik, jarauntsiaren hartzekodunei eta legatu-hartzaileei begira, baina hartzekodunei ordaintzean balio hori gaitzitzen badu, horiek ez dute izanen itzulketa-betebeharrik. Jarauntsiaren hartzekoduntzat hartuko dira, halaber, azken gai-xoaldi eta hiletak eragindako gastuen ondorioz hartzekodun direnak.

319. LEGEA

Banantze-onura. a) Nork eska dezakeen. Jarauntsiaren hartzekodunek, sei hilabeteko epean, kausatzailearen heriotzatik zenbatuta, epaileari eska diezaioke jarauntsiko ondasunen inbentarioa eta banantzea egin ditzan, ondasuno-kin euren kredituak asetzeko, horien lehentasuna-ren arabera, eta jaraunsgabearen beraren har-tzekodunak baztertzeko, kredituak oso-osorik ordaindu arte. Bien bitartean, ez dira bateratuko jaraunsgabearen eta kausatzailearen arteko zor eta kredituak, eta berme egokiak ere ez dira azkendu-ko.

Legatu-hartzaileek ere eskubide hori izanen dute, zertarako eta, halako hartzekodunei ordain-du ondoren geratzen den jarauntsiarekin legatuen betetzea ziurtatzeko.

b) Ondorioak. Jarauntsiko ondasunen banan-tzeak horietan eragina izanen du, banantzea eskatu duten hartzekodun eta legatu-hartzaileei lehentasunez ordaintzeko izanen dira eta. Epaile-ak, borondatezko jurisdikzioko prozeduran, inte-resdunek hala eskatuta eta ezagunak diren har-tzekodunei zitzakioa eginda, inbentarioa egiteko epea zehaztuko du, eta aurreneurritzko idatzohar

eta enbargoak, jakinarazpenak eta gainerako ziur-tasun-neurriak dekretatuko ditu.

Banantzea eskatu duten jarauntsiaren har-tzekodunei eta legatu-hartzaileei ordaindu ondo-ren, ordainketa egingen zaie banantzerik eskatu ez duten hartzekodunei eta legatu-hartzaileei; horien artean, lehentasun-hurrenkera ezarriko da, euren kredituen izaerarekin bat etorritik edo Hipoteka Legean xedatutakoarekin bat etorritik.

320. LEGEA

Eskuratzea. a) Itun edo mortis causa dohain-tzaren bidez. Jarauntsia oinordetza-itunaren bidez utzi bada, jarauntsi horren eskuratzea arautzen du, 178. legean xedatutakoarekin bat etorritik, familiarentzako dohaintzei buruz 122. legean eza-rritakoak, eta mortis causa dohaintzen bidezkoa, 168. legean xedaturikoak.

321. LEGEA

b) Legatuak. Legatuak kausatzailearen herio-tza-unean bertan eskuratuko dira, eta 315., 316. eta 317. legeetan jarauntsia eskuratzearen ingu-ruan xedaturikoa aplikatuko zaie.

Testamentugilearen borondatea bestelakoa izan ezean, aldi berean legatu-hartzaile eta jaraunsgabe denak jarauntsia onartu eta legatuari uko egin diezaioke; edo legatua onartu, eta jaraunsgabeari uko egin.

Legatu-hartzaileak legatu bat baino gehiagoren onura badu, horietatik batzuei uko egin diezaieke eta beste batzuk onar ditzake; baina, xedapen horietatik bat kargaduna bada, uko egitea edo onartzea baterakoa izan beharko da.

324. LEGEA

Preskripzioa. Jaraunsgabea eskatzeko akzioa usukapioaren ondorioz bakarrik preskribatzen da, usukapioa horrekin bateraezina den neurrian.

326. LEGEA

Akzioak. Lagapen-hartzaileak bere kabuz egi-kari ditzake lagatako jarauntsiaren gaineko akzio guztiak, jarauntsia eskatzeko akzioa barne.

Banaketan lagatzaileak ere esku hartu behar du, bere kabuz edo ordezkarik bidez, ezintasuna, absentsia edo arrazoirik gabeko ukoa badago, judizialki deklaratu.

328. LEGEA

Edukia. Aurkako itunik izan ezean:

1. Ulertzen da jarauntsia laga dela horrek laga-pen-unean zuen egoera berean.

2. Lagapenaren barruan sartuko dira lagapen-hartzaileak besterendutako ondasunen ordezkari diren dirua edo ondasunak, eta jasotako fruituak; era berean, gehiagotze-eskubidearen ondoriozko gehikuntzak ere bai.

3. Lagapen-hartzaileak erantzukizuna izanen du jarauntsiaren urripen guztien gainean, baldin eta haren doloaz gertatzen badira.

4. Lagatzaileak lagapen-hartzaileari galda diezaiotze jarauntsiko ondasunen ondoriozko inpeztasak eta nahitaez egin beharreko gastuak itzul ditzan, baldin eta lagapen-hartzaileak horien berri badu lagapen-unean.

5. Kostu bidezko lagatzaileak erantzukizuna izanen du, lagapen-hartzaileari begira, bere titularitasunaren gainean bakarrik, eta ez du betebeharririk izanen jarauntsiko ondasunen ebikzioarengatik erantzuteko; hala ere, beharrezkoak diren egintza guztiak gauzatu beharko ditu, jarauntsira bildutako ondasunen eskualdatzea erabat eragingarria izan dadin.

6. Dohaineko lagatzaileak, dohaintza kargaduna denean edo ordain gisa ematen denean, bere titularen gaineko erantzukizuna baino ez du izanen, ezarritako kargaren edo ordaindutako zerbitzuaren balioa bete arte.

329. LEGEA

Atzera-eskuratzea. Jarauntsi indibisoan, jaraunsle batek bere eskubidea prezioaren truke lagatzen badio gainerako jaraunskideez edo zati alikuotaren legatu-hartzaileez besteko pertsona bati, jaraunsleek izanen dute 372. legeak atzera-eskuratzeak emandako eskubide bera.

Jaraunsleek eskubide hori erabili ezean, zati alikuotaren legatu-hartzaileek erabili ahal izanen dute.

330. LEGEA

Zati alikuotaren legatu-hartzailea. Zati alikuotaren legatu-hartzaileak bere kuota laga badu eta, 219. legearen arabera, ez badu jaraunsle-izaerarik, orduan:

1. Lagapen horri 328. legean ezarritakoa aplikatuko zaio.

2. Legatu-hartzaileak banaketa eskatu ahal izanen du, eta bertan esku hartu beharko du, 326. legeak jaraunsle-lagatzailearentzat adierazitako modu berean eta salbuespen berdinekin.

3. Lagatzailearekin batera legatukideari ere dei egin bazaio, legatukide horrek atzera-eskuratzeak eskubidea izanen du, eta, legatukiderik izan

ezean, jaraunsleek erabili ahal izanen dute esku-bide hori, 329. legean xedaturikoarekin bat etorritik.

331. LEGEA

Zatiketa-akzioa. Jaraunsleetatik edozeinek edonoiz galdatu ahal izanen du jarauntsiaren zatiketa, ondoko kasuetan izan ezik:

1. Kausatzaileak indibisio-egoera ordenatu duenean, dela alarguntza-gozamenak indarrean dirauen eperako, dela adingabeko jaraunsleak adin-nagusitasunera heldu edo emantzipazioa eskuratu arte, dela, beste edozein kasutan ere, gehienez hamar urteko eperako heriotzatik zenbatuta.

2. Jaraunsleek hala erabakitzen dutenean, 1. zenbakian arauturiko eperako eta hor adierazitako kasuetan. Beste erabaki baten bidez, epe horiek luza daitezke, baina luzapen bakoitza ezin da hamar urtetik gorakoa izan.

Hala eta guztiz ere, bi kasuetan epaileak arrazoitutzat jo ahal izanen du banaketaren erabilgarritasunik eza, banaketa hori eskatzeko legitimata daudenetako edonork eskatuta.

336. LEGEA

Banaketa hutsaltzea. Banaketa lesioaren ondorioz hutsaldu ahal izanen da, lesioa izan bada gauzek adjudikazio-unean duten balioaren prezio zuzenaren erdia baino handiagoa. Hutsaltzea eskatzeko akzioari 31. legean xedaturikoa aplikatuko zaio.

339. LEGEA

Kausatzaileak izendatutako kontulari-banatzailea. Kausatzaileak, mortis causa egintzetatik edozeinen bidez, kontulari-banatzaile bat edo batzuk izendatu ahal izanen ditu, eta horiek, kausatzaileak ezarritakoa salbu, ahalmenak izanen dituzte jarauntsiaren banaketa euren kabuz egiteko; alargunarekin batera, hala denean, ezkontzako sozietatea likidatzeko; eta, oro har, beharrezko diren gainerako ahalmenak izanen dituzte kausatzailearen ondasunak banatzeko edo horri eskubidez dagozkion ondasunen zatiketan parte hartzeko.

Testamentugileak kontulari-banatzaileari ahalmenak eman diezazkioke, epaileak banaketari onespina eman edo horretan esku hartzeko beharrik gabe, jarauntsiko ondasun guztiak edo batzuk jaraunsle bati nahiz batzuei adjudikatzeko, eta gainerakoei dagokien kuota diruz ordaindu edo osatzeko.

340. LEGEA

Kontulari datiboa. Kausatzaileak ez badu banaketarik egin, ez badu kontulari-banatzailerik izendatu, kargu hori hutsik geratu bada edo legezko jaraunspena aplikatu behar bada, jaraunsleek eta jarauntsiko ondasun likidoen erdia ordezkatzan duten legatu-hartzaileek epailearengana jo dezakete, banaketa egiteko kontularia izenda dezan; epaileak onetsi beharko du banaketa hori, baldin eta jaraunsle eta legatu-hartzaile guztiek aurrez berresten ez badute behintzat.

Ulertzen da aurreko paragrafoak ez duela ezertan eragozten jaraunsle eta legatuhartzaile horiek notarioarengana joatea notariotzari buruzko legerian xedatutakoaren arabera izendapena lortzeko.

341. LEGEA

Ezintasunak. Oinordekoa, zati alikuotaren legatuhartzailea, alarguna eta bizirik dirauen bikotekide egonkorra ezin dira kontulari-banatzaille izan.

342. LEGEA

Inbentarioa. Jaraunsleetatik bat adingabe emantzipatugabea bada, gaitasuna judizialki aldatua badu edo horren absentsia-adierazpena egin bada, kontulari-banatzailleak jarauntsiko ondasunen inbentarioa egin beharko du, kausatzaileak hori salbuetsi ezik, jaraunsle, hartzekodun eta legatu-hartzaileei zitazioa eginda.

343. LEGEA

Epea eta ordainsaria. Kontulari-banatzailleen eginkizuna betetzeko epeari buruz, horien ordainsariari buruz eta erruki- edo ongintza-agintzak jakinarazteko betebeharrari buruz, 298. eta 299. legeetan xedaturikoa beteko da, hurrenez hurren.

345. LEGEA

Banaketa egiteko moduak. Banaketa ez bada egiten III. kapituluaren arauturiko formatetik bat erabiliz, jaraunsleek, aho batez adostuta, euren ustez komenigarri den moduan bana dezakete jarauntsia.

Hurrenez hurreneko kasuetan, emantzipatugabeko jaraunsle adingabeak direnak edo gaitasuna judizialki aldatua dutenak legez ordezkaturik badaude banaketan, baliozkoa eta erabat eragingarria izanen da, epailearen esku-hartze edo onespenaren beharrik gabe.

Jaraunsleek ez badute aho batez hori adosten, horietako bakoitzaren eskubidea kalterik gabe geratuko da, eta eskubide hori Prozedura Zibila- ren Legean ezarritako moduan egikaritu ahalko da, ezertan eragotzi gabe beren desadostasunak

bitartekaritza edo erabaki arbitralaren mende jartzeko aukera.

346. LEGEA

Jabetza pribatua eta publikoa. Jabetza pribatukoak dira norbanakoen edo pertsona juridikoen ondarearen barruan dauden ondasunak.

Publikoak dira jabari publikokoak diren eta administrazio publikoei dagozkienak, honako hauek barnean hartuta: herri-ondasunak eta auzotar guztiei dagozkienak.

Ondare-ondasunak edo "norberarenak" dira administrazio publikoei dagozkienak, jabari publikoko ondasunak edo herri-ondasunak ez badira.

348. LEGEA

Finkak ixtea. Jabe orok eskubidea du bere fin- kak ixteko, baina errespetatu beharko du finka horien gaineko eskubide errealean erabilera.

Finka itxita dagoela ulertuko da, hori pezo- horma edo hormaz, alanbredun sare, palaxu edo oholesiz nahiz beste modu batera inguraturik badago, eta horretan atea, "langa", "keleta" edo "kereta" jarri bada, tokiko usadio edo ohiturarekin bat etorritik.

Hesia berrezartzen denean, 368. legean xedaturikoa beteko da.

349. LEGEA

Mugaketa. Ondasun higiezinaren jabeak eta ondasun horren gaineko eskubide errealearen titular guztiek epaileari eska diezaiokete euren finka mugatu eta horretan mugarriak jartzeko. Finka baten ageriko mugei buruz ez bada eztabaidarik izan preskripzio arrunterako epean eta baldintzetan, muga horiek ezin izanen dira ondorio horietarako berrikusi.

350. LEGEA

Obra berria salatzea. Jabeak auzotar baten obra berria salatzen badu bere eskubidearen aurkakoa izateagatik, eraikitzeari ekin ahal izanen zaio, egin behar litekeen eraispeneren edo eman behar litekeen kalte-ordainaren gaineko bermea emanez gero; bestelakoetan, Prozedura Zibila- ren Legeak obra eteteko sumario-akzioa erabiltzeko xedaturikoa beteko da.

351. LEGEA

Alboko finkak eragindako kalteak. Ondasun higiezinaren edukitzea ezin izanen ditu alboko- aren kalterako aldatu bere finkatik zein ur igaro eta ur horien oraingo forma eta norabidea.

Nola edo hala beldur izan badaiteke finka batek, alboko baten eraginez, kalteak jasanen dituen, eta Administrazioak ez baditu agintzen hori saihesteko prebentziozko neurriak, orduan, kaltearen beldur den jabeak beste finkaren edukitzaileari galda diezaioke kalterik eraginen ez delako bermea eta Administrazioari, berriz, prebentziozko neurriak hartzea, banan-banan edo batera.

354. LEGEA

b) Landetan. Landak fruituak ematen baditu, eta jabeak edo fruituak jasotzeko eskubidea duen beste norbaitek landa hori edukitzeari utzi behar badio, fruituak berari dagozkio ageriko gisa, hurrengo erregelekin bat etorritik:

1. Landa lur zurikoa bada, edo zerealak haztera destinaturik badago, edukitzeari uzten badio martxoaren 25etik aurrera.

2. Mahastiak edo olibadiak badira, edukitzeari uzten badio ekainaren 24atik aurrera.

3. Beste edozein motatako lugintzetan, edukitzeari uzten badio tokiko usadioen arabera fruituak agerikotzat jo ondoren.

Fruituak edukitzaile hasi berriari badagozkio, edukitzaile izateari utzi dionari ordaindu beharko dizkio lugintzaren eta gainerako lanen gastuak.

356. LEGEA

Usukapioa. a) Epeak. Ondasun higigarrien gaineko usukapioa hiru urtekoa da. Ondasun higiezinena hogeitau urtekoa da.

357. LEGEA

b) Baldintzak. Jabetza usukapioaren bidez eskuratzeko, beharrezkoa da eskuratzailak gauza jabe gisa edukitzea, kausa justuaz eta onustez. Edukitza justifikatzen duen kausa frogatuz gero, uste izanen da edukitzea onustekoa dela, eta ez da onartuko edukitzea hasi ondotik hori galdu delako frogarik. Norbait onusteduna dela ulertuko da, baldin eta horrek uste badu eskubidearen titular gisa edukitzeko ahalmena duela.

Preskripzio berezia. Ezin bada frogatu kausa justurik dagoen, jabetza eskuratuko da jabe gisa hogeita hamar urteko edukitzea baketsua izateagatik.

Uko egitea. Nolanahi ere, preskripzio burutuari uko egin ahal izanen zaio beti.

359. LEGEA

Geldiarazpena. Usukapioa geldiaraziko da edukitzea gaitzeagatik, erreklamazio judizialagatik, aribideko usukapioaren aurkakotasun judizialagatik, adiskidetzeko eskaera bat aurkezteagatik, arbi-

traje prozedura abiarazteagatik, auzibidetik kanpoko erreklamazioagatik eta edukitzaileak jabearen eskubidea aitortzeagatik.

367. LEGEA

Ondasun higiezinaren gaineko mugapenak. a) Printzipio orokorra. Ondasun higiezinaren jabeek edo beste erabiltzaileek ezin diete euren auzotarrei arriskurik eragin, ezta eskubidearen zentzuzko erabilerak dakarrena baino deserosotasun handiagoa jasanarazi, finka bakoitzaren beharrianak, tokiko usadioa eta ekitatea kontuan harturik.

b) Zuhaitzak. Zuhaitz baten sustraiak alboko finkaren lurrian sartzen badira, finka horren jabeak zuzenean moztu ahal izanen ditu sustraiak, muga gainditzen duten neurrian. Adarrak sartuz gero, zuhaitzaren jabeak horiek moztu beharko ditu, salbu eta finka kaltetunaren jabeak hobesten duenean berak zuzenean moztea; kasu horretan, adarrotatik sorturiko fruituak emanen dizkio jabeari, eta mozketaren ondoriozko gastuak kobratuko ditu. Bestela, adarrotatik sorturiko fruituen erdia gordeko du beretzat kalte-ordain gisa.

c) Larrainak. Larrainaren jabeak eragotz dezake finka mugakideetan eraikinak egitea, frogatzen baldin badu horiek bere lanarentzat kaltegarriak direla eta larraina modu eragingarrian erabiltzen duela.

371. LEGEA

Araubidea. Ondasun edo eskubideen erkidegoa horren eraketa-tituluak arautzen du, eta, hala, korik izan ezean, usadio eta ohiturek, eta titulu honetako xedapenek.

Erkidego indibisoaren arau osagarriak. III eta IV. kapituluetak xedapenek eta, osagarri moduan, titulu honetako II. kapitulukoek arautzen dituzte, hurrenez hurren, erkidego bereziak eta bazkalekuak.

374. LEGEA

Zatigarritasuna. Erkidego indibisoa edozein unetan zati daiteke, titular batek edo gehiagok hala eskatuta. Dena den, onustea zor zaio erkidegoak espresuki edo isilbidez hartutako erabakiari, eta, onuste horren aurka, zatiketa eskatzen bada, eragindako kalteen ordaina eman beharko da.

Ituna egiten bada zatiketa-akzioari aldi baterako uko egiteko, itun hori baliozkoa da, eta betebeharrak jartzen ditu, jabeak ez ezik, horien kausadunak ere; hala ere, ituna eraginik gabe utzi ahal izanen da, epaileak erabakitzen badu indibisoak ez duela erabilgarritasunik. Gauza bera gertatuko da, baldin eta jabetza indibisoaren erabiltzaileak adierazten badu hori zatitu gabe

iraunarazteko borondatea. Zatiezintasuna aldi baterakoa dela ulertuko da, laurogeita hemeretzi urtetik gorakoa ez denean.

Titularrek zatiketa itun dezaten, hori aho batez onetsi beharko da. Akordiorik ez badago, zatiketa epaiketa bidez eginen da.

1. Gauza bakarra eta zatiezina izanez gero, haren zatiezintasuna deklaratu, tasazio judiziala egin eta jabekide bakoitzak duen eskubidearen balioa zehaztu ondoren epaileak proposatu ahal izanen du gauza osoa jabekide bati adjudikatzea, jabekide horrek hori onartzen badu, tasazio judizialaren truke betiere, horretarako egiten zaion errekerimenduaren ondorengo hamar eguneko epean, gainerako jabekideei konpentsazio egokia diruz ordaintzeko baldintza etengarripean.

Balio horretan adjudikazioa hartzeko interesa duten jabekideak hainbat badira, agerraldi batera joateko deia eginen zaie guztiei, eta ondasuna balio handiena eskaintzen duenari adjudikatuko zaio.

Zatiketa judiziala egiteko unean, eta beharrezkoa izanez gero, ondasuna jabekideetako batzuei adjudika dakieke, gozamina jabekideetatik bati, eta beste bati, berriz, jabetza soila, eta, zatiketaren ondorioz sorturiko finken artean, zortasunak era daitezke.

Adjudikazioa egin badaiteke, hori jasotzen duen jabeak (edo jabeek) haien kuoten balioaren zenbatekoa ordaindu beharko die gainerakoek adjudikazio horren gaineko ebazpena jakinarazi eta hamar eguneko epean; zenbateko hori ordaindu ondoren, behin betiko adjudikazioa eginen da.

Finkaren gaineko kargak kontuan hartu beharko dira adjudikaziodunak ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, eta adjudikaziodun horrek kargak kitatu beharko ditu behin betiko adjudikazioaren ondoren.

Adjudikazioa ezin bada egin, epaileak jendaurreko enkantean salduko du gauza, Prozedura Zibilar buruzko Legearekin bat etorriz, alderdi guztiek 574. legean aurreikusitako enkantera joateko asmoa adierazi ezean.

2. Zatiketaren xedeko ondasunak hainbat badira eta jabekideetako edozeinek eskatzen badu, sortaka multzokatu, eta sorta bakoitzaren adjudikazioa eginen da, sorta bakoitza ondasun bakarra izanen balitz bezala, aurreko 1. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Gauza erkidearen zatiketak ez du eraginik izanen horretan parterik izan ez dutenen eskubide errealetan.

376. LEGEA

Osagai erkideak. Aho bateko adostasuna izan ezik, erkidegoa badago finka batzuen zerbitzupeko osagaien gainean, esaterako, mehelin diren horma, murr, hesi edo itxituren, ezponden edo errota, labe, larrain, putzu, noria, erreten edo antzeko osagaien gainean, erkidego hori zatiezina izanen da, eta erkidegoko kideetatik inork ere ezin izanen du bere zatia xedatu, halako osagaiak zein finkaren zerbitzupekoak izan, eta finka horretatik bananduta.

Uste izanen da eraikinen osagai erkideak direla hiri-finken arteko baoak, alegia, “belena” edo “etxearte” izenaz ezagutzen direnak, eta lege honetan eta 404. legerako bigarren paragrafoan xedaturikoak arautuko ditu halakoak.

377. LEGEA

Amankomuneko erkidegoa. Amankomuneko erkidegoa usadioz eratu bada edo eratzaileen borondateak ezarri badu, erkidego hori zatiezina izanen da, auzotar guztiei badagozkie. Bestela, hori zatitzeko ezinbestekoa izanen da erkidegoko kide guztiek aho bateko adostasuna adieraztea.

Auzotar bakoitzari erkidegoan dagokion zatia xedaezina izanen da, dagokion entitate publikoak hori interes orokorrari begira hori eskuratu ezean. Hala ere, horretarako beharrezkoa izanen da auzotar gehienak ados egotea.

Gainerako kasuetan, bere zatia erabili nahi duen kideak gainerako titular guztien adostasuna beharko du.

379. LEGEA

Kontzeptua. Finka baten edo finka-multzo baten izaera nahiz xedea adierazteko, “bazkaleku” adieraz-moldea erabiltzen denean izan ezik, ulertu behar da “bazkaleku” direla, dela inoren finka zatika aprobetxatzeko eskubidea, dela jabariaren titular batzuk pilatzean eraturiko erkidego zatiezina, baldin eta titular horietako bati edo batzuei eratzikitzen bazaizkie bazka, belar, ur, egur, ereintzak edo antzeko aprobetxamendu bereziak. Eskubide berezi horiek inter vivos nahiz mortis causa eskualda daitezke.

“Bazkalekuak” herri-finken gain eratu badira, lurzoruaren jabetza toki erakundeari dagokiola uste izanen da, aurkakoa ondorioztatzen denean izan ezik.

382. LEGEA

Askatzea. “Bazkalekuak” askatu ahal izanen dira:

1. Partaideen aho bateko borondatez.

2. Herri-finkak kargatzen dituztenean, toki erakundearen borondatez.

3. Gainerako finketan, epaileak auzibidezko epaiketan erabakitzen duenean eskubide horien iraupenak ageri-agerian oztopatzen duela finkak euren izaeraren arabera zentzuz landatu edo ustiatzea.

4. Eta, edozein kasutan, bazkaleku-eskubide-dunak finketan egindako aldaketen aurka daudenean, baldin eta halakoak finkak hobetzeko egin badira, eta horiek oso-osorik edo zati batez bateraezinak badira “bazkaleku” eskubidearen erabile-rarekin.

Hiru eta laugarren zenbakietan aipaturiko kasuetan, bazkalekutik askatzeagatik kapitala ordaindu behar da, kapital hori zehaztuko da aprobetxamenduen balioa eta askatzeak lurraren jabeari dakartzkion onurak kontuan hartuta. Epaileak egoki baderitzo, zenbatespenaren ordainketaren orde, lurraren jabetza adjudika dezake.

Herri-ondasunak badira, askatzearen kapitala zehazteko, bakarrik hartuko da kontuan askatzea gauzatzen den unean aprobetxamenduak eskubidearen titularrentzat duen balioa.

383. LEGEA

Atzera-eskuratzea. Titular batek bere eskubidea besterentzen duenean, partaideek erkidegoko kideen arteko atzera-eskuratzea egikaritu ahal izanen dute, eta, pilatzea badago, titular atzera-eskuratzaileak lehentasuna izanen du, bere titular-tasunpeko aprobetxamendua eta besterendutakoa izaera berekoak badira.

Finkaren lurzati zehatza landatzeko eskubidea besterentzen denean, atzera-eskuratzeo lehentasuna emanen zaio luze-zabalik handiena duen lurzatia landatzeko eskubidea duenari.

Herri-ondasunen gainean eratutako bazkalekuei dagokienez, atzera-eskuratzeo eskubidea toki entitateak baino ezin izanen du erabili.

384. LEGEA

“Fazeria”. “Fazeria” da jabetza publiko edo pribatupeko finka batzuen gainean elkarrekiko eraturiko zortasuna.

“Fazeriak” arautzen dituzte berorien tituluak, alde zurretik ezarritako itun edo hitzarmenek, haien buruz konpilazio honetan jasotako xedape-nek eta, arauturik gabe dauden kontuetan, zortasunei edo, hala denean, erkidegoei buruz xedatutakoak.

387. LEGEA

Zatigarritasuna. “Fazeriako erkidegoa” zatigarria da, salbu eta hori eratu izan denean epe zehatz baterako edo, zatiezin gisa, denbora mugagabea; kasu horretan, hori zatitu ahal izanen da, salbuespenez bakarrik, epailearen ustez erabat kaltegarria denean indibisio-egoerari eustea.

“Fazeriako erkidegoak” toki erakundearen artekoak badira eta horien kuota edo ekarriak ez badira agerrarazi, orduan, bestelako erregela aplikagarri izan ezean, kontuan izan beharko da entitate bakoitzaren auzotarren kopurua zatiketa eskatzeko unean.

Atzera-eskuratzea eta askatzea. “Fazeriak” eta “fazeriako erkidegoak” askatu eta horiek atzera-eskuratzeari buruz, kontuan izan beharko da 382. eta 383. legeek “bazkalekuei” buruz xedaturikoa.

388. LEGEA

“Iralekuak”. Kontzeptua. “Iraleku” adieraz-moldea erabiltzean ulertu behar da izen horretara biltzen dela auzotarrek herri-mendietan berez sortutako irak aprobetxatzeko duten eskubidea, finken titulartasun pribatuari buruzko aurkako frogarik egon ezean.

392. LEGEA

“Kanpoko auzotasuna”. Toki erakundeek “kanpoko auzotasun” gisa eman badute herri-ondasunen luperketan parte hartzeko eskubidea, parte-hartze horrek izaera zibila du, nahiz eta administrazio-tituluaren bidez eratu, eta eskubide erreala da, ezertan eragotzi gabe aplikatu beharreko arloan administrazio legerian herri-ondasunetarako ezarritakoa.

Herri-lurrak “kanpoko auzotasunarekin” kargatuta badaude, toki entitateek kargetatik aska ditzakete lurrok, 382. legean bazkalekuei buruz ezarritakoarekin bat etorritik.

“Kanpoko auzotasuna” besterentzen bada, toki entitateak eskubidea du hori auzotarren erkidegoarentzat atzera-eskuratzeo. Epeei dagokienez, eskubide hori arautuko du 458. legean atzera-eskuratze jentilizioari buruz ezarritakoak, eta lehentasuna izanen du horren gainetik. Trukaketa kasuan, auzotasunaren balioa zehaztuko da, alderdiek –bakoitzak bat– izendaturiko bi adituren tasazioa erabiliz, eta, desadostasuna azalduz gero, hirugarren adituaren tasazioa erabiliz, haien adostasunez aukeratuta, edo, adostasunik izan ezean, epailearen erabakiz.

Aurrerantzean ezin izanen da “kanpoko auzotasunik” eratu.

394. LEGEA

Bereizketa. Ez dira zortasun:

1. Auzotasunaren ondoriozko legezko mugapenak.

2. Pertsona batentzat besteren finkaren gain ezarritako erabilera eta aprobetxamendu eskubi-deak, finken artean inolako harremanik ez bada; liburu honetako IV. tituluaren II. kapituluaren ezarritakoak arautzen ditu halakoak.

395. LEGEA

Ezaugarriak. Zortasun-eskubidea ezin da zatitu edo banandu finka nagusitik, eta horren izaera iraunkorra da epe edo baldintzapean eratu ez denean. Ulertu behar da baldintzapean eratu direla, bai etorkizunean eraiki edo eraitsiko diren ondasun higiezinaren gaineko zortasunak, bai eta eduki gisa etorkizuneko erabileren bat dutenak ere.

396. LEGEA

Eraketa. Zortasunak era daitezke inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez, bai eta zatiketa-epaiketan egindako adjudikazio judizialaren bidez edo banaketa-egintzaren bidez ere.

Eraketa-egintzan ez bada argi zehaztu zein den zortasunaren edukia, zehaztapen hori interesdunak horretan ados jartzen ez direnean gauzatu da, eratzailleak horretarako ahaldundu duen pertsonaren eskutik edo, halakorik izan ezean, epailearen erabakiz, betiere, ageriko zeinuak, finken inguruabarrak eta tokiko usadioak kontuan hartuta.

397. LEGEA

Preskripzioa. Zortasunak eskuratzen dira ondasun higiezinaren gaineko preskripzio arruntaren bidez edo preskripzio bereziaren bitartez. Epearen zenbaketa hasiko da, zortasun positiboetan, hori egikaritzeko gauzatu den lehenengo egintzatik; ageriko zortasun negatiboetan, zortasunaren zeinuak agertu direnetik; eta, agerikoak ez diren zortasun negatiboetan, zortasunak eragozten duen egintza zein izan, eta horixe gauzatzeko debeku formala ezarri denetik.

Nolanahi ere, preskripzio burutuari uko egin ahal izanzen zaio beti.

Epe luzea. Edozein kasutan ere, ageriko zortasunaren erabilera errespetatuko da, hori epe luzean zehar aurkakotasunik gabe erabili bada, eta uste bada erabilerak iraun ahal duela horren mendeko finkari kalterik egin gabe.

Era berean, zortasuntzat hartuko dira jabe berberaren finken artean ageriko zeinuarekin ezarritako zerbitzuak, finka horien gaineko jabetza inter vivos nahiz azken borondateko egintzen bidez banantzen denean, baldin eta banantzea gertatzeko unean zeinuak bere horretan badirau, eta xedatze-tituluak ez badu zortasuna esanbidez baztertzen.

398. LEGEA

Preskripzioa geldiaraztea. Preskripzioa geldiaraziko da, erreklamazio judizialagatik, ondasunaren titularrak aribideko preskripzioari judizialki aurka egiteagatik, adiskidetze eskaera bat aurkezteagatik, arbitraje prozedura abiarazteagatik, auzibidetik kanpoko erreklamazioagatik eta egintza eragozlea formalizatzeagatik edo debekuzko zeinu nabaria egoteagatik.

400. LEGEA

Zortasuna zabaltzea. Bide-zorra nahiko ez bada finka nagusiaren beharrianak asetzeko, lur horren jabeak zortasuna zabaltzeko eskatu ahal izanen du, beharrian horiek betetzeko beharrezkoa den neurrian, betiere, zortasunpeko finkaren egoerak kalte larriak eragin gabe hori ahalbidetzen duenean, eta horren truke kalte-ordain zuzena emanez.

402. LEGEA

Bazkak. Bazka-zortasunarekin kargaturiko finkaren jabeak hori itxi ahal izanen du, baina jabe horrek bidea, "langa", "keleta" edo «kereta» zabaldu beharko du, lur nagusiko abelburuak bertara sar daitezen.

403. LEGEA

Argi-bistak. Argi-bisten zortasunek horien titularrari eskubidea ematen diote beraren horman zuloak zabalik izateko, eta zortasunpeko finkatik argia jasotzeko edo funts horren gainetik begiratzeko. Halako zortasunek zortasunpeko finkaren jabeari eragozten diote horma edo hegalkinetik hiru metro baino tarte laburragoan eraikitzea, horrekin argiak edo bistak urritu edo oztopatzen diren neurrian.

404. LEGEA

Argiak hartzeko zuloak. Finka baten jabeak, horren alboko finkarekin mugakide den horman, zuloak zabal ditzake 0,80 metroko gehieneko zabaleran edo kana beteko zabaleradun laukian, kana horren neurria ezberdina bada tokiko usadioaren arabera. Zuloak estalita egon behar dira hormara jositako burdinez eta alanbre-sarek, erabilerekin alboko finka zeharka ikustea eragozten duten eraikuntzako beste konponbide batzuk

ahalbidetzen ez badituzte. Zulo horiek itxi ahal izanen dira alboko finkan eraikina egiten denean, eta horiek ez dira zortasunaren ageriko zeinutzat hartuko preskripzioaren ondorioetarako.

Jabe batzuei dagozkien “belena” edo “e-txekoarte” erkideetan, jabe horietatik edozeinek bere horman ireki ditzake hegalkinik gabeko zuloak, gainerako jabeei enbarazurik ez egiteko muga-pean.

405. LEGEA

Zortasunpeko finkaren jabeak dituen betebeharrak. Zortasunek ahalmena ematen badute besteren horma edo egituren bat eraikin baten euskarri gisa erabiltzeko, zortasunpeko finkaren jabeak bere kontura egin behar ditu zortasunpeko egituren sendotasunari eusteko beharrezkoak diren konponketak. Gainerako zortasunetan, zerbitzuaren erabilera onerako beharrezkoak diren obrak jasan behar ditu.

Bertan behera uzte askatzailea. Zortasunpeko finkaren jabea gera daiteke aurreko paragrafoan aipaturiko eginbeharretik aske, bai eta berak espresuki bere gain harturiko konponketa betebeharretatik ere, zortasunaren titularrarentzat finka bertan behera utziz gero.

406. LEGEA

Azkentzea. Zortasunak azkentzen dira tituluarrak uko egiten duenean, uko egitea ondasun higiezinaren gaineko egintza gisa formalizatuz, bai eta jabetzak esku berera heltzen direnean ere. Azken kasu horretan, nahiko da zortasunak zehatz-mehatz ukitzen duen lurra bakarrik eskuratzea, eta horretatik aske geratuko da kargapeko finkaren gainerako zatia. Ukitutako lurraren zati bat bakarrik eskuratzen bada, zortasuna azkendutzat hartuko da, baina zati horretan bakarrik.

Eskuratutakoa zati indibisioa bada, zortasuna ez da azkendutzat joko.

Zortasunak azkentzen dira, halaber, preskripzio-epean zehar horiek ez erabiltzeagatik. Zortasun positiboetan, preskripzio askatzailea zenbatuko da, horiek erabiltzeari utzi zaion unetik, eta, negatiboetan, egintza eragozlea gauzatu denetik.

408. LEGEA

Kontzeptua. Gozamen eskubide errealak horren titularrari ematen dizkio, epe mugatuan zehar, jabari-ahalmenak, gozamenpeko gauza xedatzeko ahalmena salbu.

410. LEGEA

Xedea. Gozamena era daiteke mota guztietako ondasunen gainean, nahiz eta horiek fruiturik

eman ez, eta ondare oso baten gainean edo horren zati alikuotaren gainean.

Gozamena gauza kontsumigarrien gainekoa denean, gozamendunak erabateko xedapena eskuratuko du horien gainean, baina genero eta kalitate bereko beste horrenbeste itzuli beharko du.

414. LEGEA

Jabe soilaren eskubide eta betebeharrak. Ondasunak entregatu baino lehen edo beste edozein unetan, jabe soilak inbentarioa egiteko galda diezaioke gozamendunari eta, horrez gain, bermea eratzeko ere bai, ondasunok itzuli eta eragindako kalteen ordaina emateko betebeharra ziurtatzeko aldera, legeak edo eratzailearen borondateak gozamenduna betebeharrak horretatik libre utzi edo epaileak ez-beharrezkotzat jo ezean. Bermea eratzeko, da 231. legeak fiduziarioari buruz xedaturikoa beteko da.

Halaber, gozamenpeko gauzarako aseguru bat sinatzea galdatzeko eskubidea izanen du.

Honakoak dira jabe soilaren betebeharrak:

1. Gozamena egikaritzeko behar den guztia onartzea.

2. Karga eta kontribuzioek jabetza kargatzen dutenean, horietatik ordaintzea.

3. Bere eskubidearen balioarekiko proportzioan, gozamenpeko gauza kontserbatzeko behar diren gastu guztiak bere gain hartzea, aldizkakoak ez direnak, baita ohiz kanpokoak edo aurretik ikusi ezin direnak eta gozamenpeko gauzaren aseguruaren primak ere.

415. LEGEA

Gozamendunaren eskubide eta betebeharrak. Gozamendunak honako eskubide hauek ditu:

1. Jabe soilari eskatu bere ahalmenak egikaritzeko eta horretarako egokiak diren akzio guztiak egikaritzeko behar den guztia.

2. Fruituak eskuratu, 353 eta 354. legeetan xedatutakoarekin bat etorriz. Gainera, gozamena amaitzean, kalte-ordaina galdatu ahal izanen du, berak zenbait fruitu eskuratu ez baina fruitu horiek ekoizteko egin dituen gastuen arabera.

3. Gozamenpeko gauza segurtatzea eskatu.

4. Gozamenpeko gauzan hobekuntzak egin, erabilgarriak zein luxuzkoak edo jostetakoak, berekin gauza aldatzerik ez badakarte.

5. Bere eskubidearen erabilera laga gozamenpeko dirauen eperako. Gozamendunak ezarritako

errentamendua suntsiarazi egingen da, edozein kasutan, gozamina azkentzean; baina landa-errentamenduek indarrean diraute, nekazaritzako urtea amaitu arte.

Gozamendunak honako betebeharrak ditu:

1. Inbentarioa egin eta bermea ematea, aurreko legean xedaturikoarekin bat etorritik.
2. Gozamenpeko gauzak aprobetxatzea haien izaeraren arabera, eta gozamina amaitutakoan horiek itzuli.
3. Bere eskubidearen titulartasunari eustea, erabileraren lagapena ezertan eragotzi gabe.
4. Gozamenpeko gauza kargatzen duten karga guztiak eta gauza horrek sorrarazten dituen gastuak ordaintzea osorik edo proportzioan, jabe soilari dagozkionak izan ezik, aurreko legean ezarritakoarekin bat etorritik.

417. LEGEA

Mendien gaineko gozamina. Mendien gaineko gozamenean, eraketa-tituluak bestelakoa agintzen ez bada, ondoko erregelak beteko dira:

1. Gozamendunak aprobetxamendu arruntak egin ahal izanzen ditu finkaren izaeraren eta tokiko usadioen arabera.
2. Mendietatik zura atera daitekeenean, mehaketa eta ebaketak egin ahal izanzen ditu, aurreko zenbakian adierazitakoarekin bat etorritik. Mendietan ez badira landareak berez hazten, eta mendi horietan errotik ebaketak egiten badira, gozamendunak basoberritzeko eginbeharra izan du.
3. Ebaketen onura gozamendunari dagokio, horrek gozamenean dirauen denboraren arabera; betiere, zuhaitzen ekoizpen-epea kontuan hartuta.
4. Edozein kasutan ere, gozamendunak, jabe soilari aldeztu aurretik horren berri emanez, zuhaitzak ondortik ebaki ahal izanzen ditu, finkan gauzatu nahi dituen konponketa eta hobekuntzak egiteko. Jabe soilak hobekuntzaren ondoriozko ebaketaren aurka jarri ahal izanzen da, eta konponketen ondoriozkoa egitearen aurka ere bai, horiek bere ardurapean hartzen baditu.

418. LEGEA

Kredituaren gaineko gozamina. Kredituaren gaineko gozamenean, ulertzen da horren zenbatekoaren gainean eratu dela eskubidea. Gozamendunak jasoko ditu kredituak sortutako interesak, eta kredituaren kobrantzari 410. legearen bigarren paragrafoan xedatutakoa aplikatuko zaio.

Errenta edo zentsu baten gaineko gozamina. Errenta edo zentsu baten gozamendunak errenta eskuratzen du mugaegunetik mugaegunera, gozamina azkendu arte.

Akzioen gaineko gozamina. Gozamina sozietatearen akzio, partaidetza edo kuoten gainekoa bada, 258. legean ezarritakoa aplikatuko da.

423. LEGEA

Araubidea. Biztantzaren eta erabilera eskubideak eta besteren gauza zatik aprobetxatzeko antzeko eskubideak horien eraketa-tituluan ezarritakoak arautzen ditu, bai eta, horrelakorik izan ezean, ondoko xedapenak ere:

Eraketa. 1. Halakoak era daitezke gozamina eratzeko bide berberetatik, baina 414. legeak bermeari buruz ezarritakoa bakar-bakarrik aplikatuko zaie eratzaileak hala agindu duenean edo eskubideotara ondasun higigarriak bildu direnean; azken kasu horretan, inbentarioa egin beharko da, eratzaileak betebeharrak hori salbuetsi ezik.

Gastuak. 2. Eskubide horiek dohaineko eta biziartekoak direla uste izanzen da. Titularraren betebeharrak bakarrik izanzen da kontribuzioak, hornidurak, banakako zerbitzuak eta gastuak ordaintzea, horiek guztiek kargatzen badute berak gauzaren gainean izandako erabateko erabilera; era berean, titularrak konponketak egin beharko ditu, eguneroko erabileraren ondorioz haren higadura gertatzen bada.

Azkentzea. 3. Eskubide horiek azkenduko dira, gozamina azkentzeko arrazoi berberak direla bide, bai eta gauzaz bidegabe abusatzeagatik ere. Eskubideak azkenduko dira, orobat, eskubidepeko erabilera edo aprobetxamendu zehatza ezinezko suertatzen denean, baina jabeak kalte-ordaina eman beharko du, eskubidepeko gauza aldatzen bada eta, horren ondorioz, eskubideon erabilera galarazi edo urritzen bada. Biztantzaren eskubidea ezin da inolara ere askatu horren titularraren borondatearen aurka. Gainerako eskubideak ez badira epe zehatzerako eratu, askatzeko modukoak izanzen dira, 382. legean «bazkalekuei» buruz ezarritakoarekin bat etorritik.

424. LEGEA

Biztantzaren eskubidearen edukia. Legezko edo borondatezko xedapenaren bidez biztantzaren eskubidea mugatzen denean izan ezik, uste izanzen da eskubide horrek titularrari ahalmena ematen diola etxebizitza osorik eta modu eskusiboan okupatzeko, berarentzat eta berarekin batera bizi direnentzat, bai eta etxebizitza osorik edo zati batez errentan emateko ere; errentamendua amai-

tuko da biztante eskubidea azkentzean, inolako luzapenik gabe.

425. LEGEA

Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonen ohiko etxebizitzaren gaineko biztante eskubidea izatea. Ohiko etxebizitzaren gaineko biztante eskubidea izanen dute hiltzen den unean titularrarekin bizi diren eta desgaitasuna edo mendekotasuna duten aurreko eta ondorengo ahaideek, baldin eta titularrak ez badu aurreikusi pertsona horien etxebizitza beharra beste modu batean estaltzea edo espresuki baztertu badu.

Konpilazio honetan aurreikusitakoarekin bat beste pertsona batzuei etxebizitzaren gainean dagozkien eskubideekin batera, lege honetan aitortutako eskubidea egonen da, eta, horren bidez, titularrak badu etxe hori beretzat eta berekin bizi direnentzat okupatzeko ahalmena, haren etxebizitza beharra betetzeko baino ez. Hori dela eta, ezin izanen da alokatu.

426. LEGEA

Erabileraren edukia eta beste eskubide batzuk. Aurreko legeek biztantezari buruz ezarritakoa izan ezik, halako eskubideen titularren erabilera pilatuko da jabearen edo hori ordeztzen duen pertsonaren erabilera arruntarekin; haiek ezin izanen dute euren eskubidea osorik laga, baina eskubide horien erabilera beste pertsona batzuekin elkarbanatu dezakete, horren truke ordainketa jasoz edo jaso gabe.

Fruitu eta produktuak. Eskubideak ez badira fruituen edo berezko produktuen gaineko aprobeitxamendu jakin bati buruzkoak, titularrak aprobeitxatu ahal izanen ditu gauzak sortzen dituen guztiak; betiere, eskubidearen erabileran parte hartzen duten pertsonen kontsumo arruntaren neurrian bakarrik eta horiek saltzeko ahalmenik gabe.

427. LEGEA

Printzipio orokorra. Lurrari modu banaezinean batutakoa horren jabetzapean sartzen dela uste izanen da, baina inoren lurrian eraikitakoaren edo landatutakoaren gainean izan daiteke eskubide errealean bat, besteak beste, azalera-eskubidea, besteren eraikinaren gainean edo azpian eraikitzeko eskubidea, jabetza horizontalaren gaineko eskubidea eta landatzeko eskubidea.

Gainera, osorik edo zati batean besteren lurra- ren gainean fede onez egindako eraikinek ahalbidetuko diote horiek eraiki dituenari lur horren gaineko jabetza eskuratzea, baldin eta eraikitakoak lurra baino balio handiagoa badu eta horrekin

batera unitate zatiezina osatzen badu, haren balioagatik eta, hala bada, sortu diren kalte- galerengatik kalte-ordaina eman ondoren.

Aplikatu beharreko legea. Jabetza horizontala- ren araubideari dagokionez, Kode Zibilean eta hori garatzen duten legeetan xedaturikoa beteko da. Aipaturiko beste eskubideei buruz, titulu honetan xedaturikoa beteko da.

428. LEGEA

Araubidea. Ondoko erregelek arautuko dituzte aurreko legean aipatutako eskubideak:

1. Eskubideok inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez era daitezke, kostu bidez nahiz dohainik, dela zuzenean besterentze edo ematea- ren bidez, dela erreserba edo atxikitzearen bidez jabetza eskualdatzeko egintzan bertan.

2. Epe mugaturako edo mugagaberako ezar daitezke; aurkakoa xedatzen ez denean, azken hori dela uste izanen da.

3. Jabetza Erregistroan inskriba daitezke, nahiz eta aldiari aldiko osagaiak zehaztu ez; esa- terako, egin beharreko obra hasi edo amaitzeko epeak, horren ezaugarriak, aurrekontuak, hobekuntzak, erabilerak, ustiapena, xedea edo kontserbazioa.

4. Inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez eskualda daitezke, salbu eta bere-berezko gisa eratu direnean, horien eskualdatzea jabearen adostasunaren baldintzapean jarri denean edota euren eskualdagarritasuna bestelako moduan mugatu denean.

5. Hipotekatzeko modukoak dira, eskualdaga- rriak diren neurrian. Eskubide horiek erabiliz zer- bait eraiki edo landatzen bada, hori ere hipoteka- ren menpe geratuko da.

6. Gozamenaren eta antzeko eskubideen xede izan daitezke, baina ezin dira zortasunekin karga- tu jabearen adostasunik gabe. Halako adostasuna izan ez arren, eskubideok ezartzen badira, 372. legeak erkidegoari buruz xedaturikoa aplikatuko da.

7. Titularrak bere kabuz era ditzake zortasu- nak, eskubideon xede den ondasun higiezinaren mesederako, eta jabeak ezin ditu inola ere bere kabuz zortasunak azkendu halako eskubideen kal- terako.

8. Aurkako xedapenik izan ezean, eskubideok ezin daitezke askatu horien titularraren borondate- aren aurka.

9. Eskubide horiek edo jabetza besterentzen direnean, ez da egonen eros-lehentasunik, ezta atzera-eskuratzerik ere.

432. LEGEA

Arauak. Azalera-hartzaileak eraikinaren eta behar bezala mugatuta dagoen eta aprobe-txamendu independentea har dezakeen espazio bakoitzaren erabileraren eta gozamenaren gaineko arauak ezarriko ditu, lurrari eragin ezin izanen diotenak.

436. LEGEA

Jabekidetasuna eta jabetza horizontala. Eraikina jabekidetasunaren edo jabetza horizontalaren araubidepean badago, jabekideei dagokie horren gainean edo azpian eraikitzeak ahalmena; betiere, jabetzan edo osagai erkideetan dituzten kuoten arabera. Bi kasuetan, halako eskubideak emateko, beharrezkoa izanen da partaide guztien adostasuna. Horiek adierazi beharko dituzte honako kasu hauetan aplikatu behar diren arauak: jabetzaren kuoten zehaztapena edo solairu berrietan dauden elementu pribatiboei dagozkien elementu komunak, eta aurretik dauden solairuetan egondakoei dagozkienak.

446. LEGEA

Lehentasuna. Legezko eta grazia bidezko atzera-eskuratzeek, "kanpoko auzotasun", "bazkaleku" eta "iralekuei" buruzkoek, eta atzera-eskuratze jentilizioak, hurrenkera horretan, lehentasuna dute erkide, mugakide, maizter eta enfitausidunen atzera-eskuratzeen aurretik, bai eta lehentasunez eskuratzeko bestelako eskubideen aurretik ere, horiek zibilak nahiz administratiboak izan. Aldi berean, horien arteko lehentasuna aplikatu beharreko legeek ezarriko dute.

Atzera-eskuratze bakoitzerako ezarritako berriazko lehentasunik izan ezean, mota bereko eskubide bat erabili nahi duten hainbat titular daudenean, horiek guztiek egikaritu ahal izango dute gauza komunean duten parte-hartzearekiko proportzioan.

Nolanahi ere, legezko atzera-eskuratzeek lehentasuna dute hitzarmenezko aukera, eros-lehentasuneko eta atzera-eskuratzeko eskubideen gainetik.

451. LEGEA

Kontzeptua eta epea. Ondare-exekuzioaren kasu guztietan, exekuziopeko zordunak behin betiko adjudikatu diren ondasunak atzera-eskuratu ahal izanen ditu behin betiko adjudikazioari buruzko ebazpena jakinarazten denetik bederatzi egu-

neko epean, prezioaren eta legebidez ordaindu beharreko gastuen pagamendua eginez.

458. LEGEA

Epea. Atzera-eskuratze hori egikaritzeko, ondokoak izango dira iraungitze-epeak:

1. Besterentzea modu sinesgarrian jakinarazi bada prezioa, ordaintzeko modua eta kontratuaren gainerako baldintzak zehaztuz, bederatzi egun, jakinarazpena egiten denetik zenbatuta.

2. Jakinarazpen hori egin ezean, bi hilabete, Jabetza Erregistroan egindako inskripzioaren egunetik.

3. Jakinarazpenik eta inskripziorik egin ezean, urtebete eta egun bat, besterentzea egin denetik zenbatuta, salbu eta hori asmo gaiztoz ezkutatu denean; halakoetan, akzioa ez da iraungiko, preskripzio eskuratzailerak eragotzi gabe. Dena den, atzera-eskuratzailerak jasotako informazioa osatugabea izan bada, hogeita hamar eguneko epea du eskualdatzaileari eskualdaketa inguruko informazio osoa eskatzeko; behin informazioa jaso eta gero, bederatzi eguneko epea du akzioa egikaritzeko.

Derrigorrezko besterentzeen kasuetan, lege honetan aurreikusten diren epeen "dies a quo" errematearen behin betiko adjudikazioa egiten duen ebazpena jakinarazten den eguna izanen da.

448. legeak arauturiko kasuetan, epe horien zenbaketa ez da hasiko atzera-eskuratzeko eskubidea egikaritzeko aukera izan arte.

460. LEGEA

Izaera eta ezaugarriak. Aukera eskubideak, eros-lehentasuneko eskubideak eta borondatez atzera-eskuratzeko eskubideak izaera erreala izanen dute hala ezarri denean; izaera pertsonalarekin eratu badira, IV. liburuaren II. tituluko xedapenek arautuko dituzte eskubide horiek. Inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez eskualdatzeko modukoak izanen dira, horren aurkako xedapenik izan ezean.

Eskubideok inter vivos nahiz mortis causa egintzen bidez era daitezke, kostu bidez nahiz dohainik, dela zuzenean besterentze edo ematearen bidez, dela erreserba edo atxikitzearen bidez jabetza eskualdatzeko egintzan bertan.

Eskubideok ondasun higiezinaren gainekoak edo merkataritza nahiz industriako establezimenduen gainekoak izan daitezke, bai eta sozietateen akzio, partaidetza edo kuoten gainekoak, jabetza industrial nahiz intelektualaren gainekoak, eta

identifikatzeko modukoak diren orotariko ondasun higigarrien gainekoak ere.

Eragingarriak izateko, horietara bildu behar dira legearen arabera kasuan-kasuan izan beharreko forma-betekizunak. Eskubide horiek inskribatu ahal izanen dira Jabetza Erregistroan, edo, bestela, euren xedearen araberrako erregistro eskudunetan.

461. LEGEA

Aukera. Aukera eskubide erreala epe jakin baterako era daiteke, hamar urtetik gorakoa ez bada.

Aurreko paragrafoan xedaturikoa gorabehera, erosteko aukera-eskubidea eranskin gisa eratzten bada, errentamenduari, azalerari edo Jabetza Erregistroan inskriba daitezkeen eskubide errealetatik beste edozeini begira, haren iraupenak horien epe osoa hartu ahal izanen du, baina ez haien luzapenena. Finantza errentamendu bati erantsitako erosteko aukerak berariazko araudia izanen du.

Egikaritzea. Erosteko aukera egikaritu beharko da finkatutako prezioa edo hori zehazteko prozesuan ezarritakoa ordainduz.

Erosteko aukera duenak saltzaileari jakinaraziko dio aukera erabiltzeko asmoa duela itundu den moduan eta horretarako espresuki adierazi den helbidean. Horrela aurreikusi bada, erosteko aukera duenak bere eskubidea erabili ahal izanen du alde bakarretik, gauzaren jabetza badu eta prezioa notario aurrean jasotzen badu.

Aukera eskubidea gauzaren gainekoa bada eta gauza horren jabeak xedapen-egintzak gauzatzen baditu, egintza horiek ez diote aukera eskubideari kalterik egingen; eskubideak indarrean iraunen du, harik eta epea muga-eguneratu arte, Hipoteka Legean xedatutakoa alde batera utzita.

463. LEGEA

Bermeak. Betebeharraren betetzea ziurtatzeko edo horren ez-betetzearen ondorioak ziurtatzeko, hauek erabili ahal izanen dira: fiduzia, erresak, bahia, hipoteka, antikresia, atxikitzeko eskubidea, berme gisa egindako gordailua, atzera-eskuratze ituna, jabari-erreserba, baldintza suntsiarazlea, xedatzeko debekua edo berme erreala nahiz pertsonalerako beste edozein forma.

464. LEGEA

Araubidea. Ondasun higigarri edo higiezinaren gaineko hipotekari eta edukitzaren lekualdaketa gabeko bahiari dagokienez, kasuan kasuko legea berezian xedaturikoa beteko da.

Fidantza 525. legetik 530. Legera bitartekoen menpe jarriko da. Bestelako berme motei buruz, titulu honetan xedaturikoa beteko da.

469. LEGEA

b) Saltzeko eskubidea. Ordaintzeko errekerimendua modu sinesgarrian egin eta gero, betebeharraren ez-betetzea gertatzen bada, hartzekodun pignorazioak gauza pignoratua saldu ahal izanen du epaiketazko enkantean, edo, bestela, epaiketatik kanpoko enkantean, notarioaren esku-hartzearekin. Gauza saltzeko beste forma bat itun daiteke, objektuaren izaerak hala ahalbidetzen duenean; baina deuseza da ordainketa ez egiteagatik gauzaren jabetza hartzekodunari eratzkitzeko ituna.

Hartzekodunak ezin izanen du gauza bestelako moduan xedatu, ezta pignoratzailearen baime-nik gabe erabili ere, fruituak jasotzea izan ezik, 471. legearekin bat etorriz.

471. LEGEA

Antikresi-ituna. Bahi edo hipotekaren kasuetan, antikresia itun daiteke edo zorraren interesekin osorik edo zati batean konpentsatzea gauzaren nahiz horren fruituen erabilera. Bestelako kasuetan, hartzekodunaren edukitzapeko gauzak fruituak ematen baditu, hark jasoko ditu fruituok, horiek interesen zorrari eta, gero, kapitalaren zorrari egozteko.

Antikresia. Era berean, bahi edo hipotekarik eratu gabe, itun daiteke diruzko zorra gauza higigarri edota higiezinaren erabilera edo luperketarekin konpentsatzea osorik edo zati batean.

Izen-ematea. Antikresi-itunak inskriba daitezke, euren xedearen arabera, Jabetza Erregistroan edo bestelako erregistroetan.

472. LEGEA

“Pignus Gordianum”. Bahia azkentzen bada betebeharraren bermatua bete delako, hartzekodunak gauza pignoratuaren edukitza atxiki dezake zordun berberaren ondorengo beste zor baten betetzea bermatzeko.

475. LEGEA

Atzera-eskuratze itunarekin egindako salmentaren bitartez, bermea izatea. Diruzko betebeharraren betetzea berma daiteke, salmenta atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egiten bada, eta zordunak berarentzat erreserbatzen badu saldutako gauza atzera-eskuratze eskubidea betebeharra asebate edo azkentzen denean.

Presuntzioa. Araubidea. Salmenta atzera-eskuratzeo itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin bada, itun hori berme errealtzat hartuko da, tituluan espresuki halakotzat ezarri denean ez ezik, kontratuak hori ondorioztatzen duenean edo 583. legearekin bat etorritik halako presuntzioa dagoenean ere bai; itun hori kapitulu honetako xedapenak aplikatuko zaizkio, bai eta 577., 578. eta 579. legeetakoak ere.

477. LEGEA

Gauzatzea. Betebehar bermatuaren epea igarotze hutsak ez dakar hartzekodunak jabetza behin betiko eskuratzea; aitzitik, hori gertatuko da hilabete eta egun bateko epea edo kontratuan ezarritako epe luzeagoa igarotzen denean bakarrik, eta horren zenbaketa hasiko da hartzekodunak zordunari betebeharraren betetzea galdatzeko errekerimendua modu sinesgarrian egin dionetik.

Lege honetan araututakoa beteko da, nahiz eta kontratuan ezer ezarri ez, edo aurkakoa itundu. Kalterik gabe geratuko dira beti zordunarentzat onuragarriagoak diren itunak.

480. LEGEA

Preskripzioa. Bestelako epea itundu ez bada, atzera-eskuratzeo akzioaren preskripzio epea hamar urtekoa izanen da.

Epea zordunak betebeharra betetzen duenetik edo erosleari atzera-eskuratzeo asmoa duela jakinarazten duenetik zenbatuko da.

483. LEGEA

Kontzeptua. Ondorioak. Jabaria erreserbatzeko itunaren bidez, saltzaileak eusten dio berak saldutako gauzaren jabetzari, prezioa oso-osorik kobratu arte, eta egikaritu ahal izanen ditu, bai jabari-hirugarrengoa, bai eta bere eskubidea defendatzeko gainerako akzioak ere. Kontratua burututa egonen da, hori egiten denetik, baina gauzaren eskualdatzea geroratuta geratuko da, ordainketa oso-osorik egin arte. Bien bitartean, erosleari dagozkio saldutako gauzaren edukitza eta luperketa, itundutako mugapenen menpe, halakorik itundu bada bederen, eta haren ardurapekoak izanen dira gauzari datxezkion arrisku eta gastu guztiak; saltzaileak, bestalde, gauza ez xedatzeko betebeharra izanen du.

Salmenta Jabetza Erregistroan edo bestelako erregistroan inskribatu eta gero, saltzaileak gauza xedatzeko egintzetatik edozein burutzen badu, egintza horrek ez du eragotziko eroslearen eskubidea.

Ondasunak enbargatzen direnean edo saltzailearen inguruan konkurtsoa gertatzen denean, erosleak jabetza eskuratzeo eskubidea izanen du prezioa hitzarturiko epeetan oso-osorik ordainduz.

487. LEGEA

Suntsiaraztea. Suntsiaraztearen kasuan, behin hori jakinarazi eta gero, gauza saldugabekotzat joko da, eta ondoriorik gabe geratuko dira gauza besterendu eta kargatzeko egintzak, bai eta erosleak hitzarturiko errentamenduak ere, Hipoteka Legean xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

488. LEGEA

Iturriak. Betebeharrak alde bakarreko borondatetik edo adostutako borondatetik, gertaera kaltegarritik, arrazoirik gabeko aberastetik eta legetik datoz.

Hitzarmenetik sortzen diren betebeharrak eskatzen dute adostasuna libreki ematea, benetako objektua egotea eta kausa justua izatea.

Interpretazioa. Betebeharrak interpretatu beharko dira horiek eratzeo aitortu den borondatearekin, usadioarekin eta onustearrekin bat etorritik.

Aurkako itunik izan ezean, prestazioa gauzatzeko betebeharra duenak bere kontura bete beharko ditu titulazioaren formalitate guztiak; esaterako, erregistro eta bulego publikoetan traktua berriro hastea, agiriak ematea eta betebeharra oso-osorik betetzeko egintzetatik beste edozein gauzatzea, bai eta karga nahiz mugapen azken-dei buruzko erregistro-inskripzioak ezerezteak ere.

Itunak zordunaren mesederako egin direla uste izanen da, salbu eta presuntzio hori egintzaren izaeraren edo inguruabarren aurkakoa denean.

489. LEGEA

Deuseztasun, deuseztakortasun eta hutsalkortasuna. Betebeharrak deusez, deuseztakor edo hutsalkorak izanen dira, 19., 20. eta 21. legeetan xedaturikoarekin bat etorritik.

490. LEGEA

Berandutze-interesak. Diruzko zor guztiek, interesei estipulaziorik izan arren, legeko interesak sortzen dituzte betebeharra muga-egunera-tzen denetik.

491. LEGEA

Zatigarritasunari buruzko presuntzioa. Legeak edo itunak halakoa adierazten ez badu, hau da, betebeharrean esku hartzen duten zordun edo hartzekodunak solidarioak direla, edo betebeha-

rraren izaerak nahiz inguruabarrek hori bera ondorioztatzen ez badute, ulertuko da, modu aktibo nahiz pasiboan, bakoitzari dagokion heinean direla zordun edo hartzekodun.

Betebehar zatietan. Prestazioa berez zatietan bada, erreklamazioa modu baterakoan egin beharko da, baina zordun baten kaudimengabeziak ez die gainerako zordunei kalterik egingen.

492. LEGEA

Betebeharra betetzea. Betebeharrak azkentzen dira betetzen direnean.

Baldintzak. Betebeharra zatigarria izan arren, hartzekodunak ezezkoa eman diezaioke betetze osatugabea egiteko edo zor den objektuaz bestelakoa emateko eskaintzari.

493. LEGEA

Ordainketari buruzko aitorpena. Norbaitek agiri bidez aitortzen badu kopuru bat kobratu duela, ezin izanen du galdatu horren ordainketa eragigarriari buruzko frogarik, baina agiria aurkaratu ahal izanen du halako ordainketa egin ez dela frogatuz.

494. LEGEA

Ordainketa partziala. 492. legean xedatutakoa gorabehera, hartzekoduna behartu daiteke kopuru baten ordainketa partziala onartzera, baldin eta zordunak gainerako kopuruaren ordainketa bermatzen badu.

Hartzekodunak zordunak emandako bermea ez nahikotzat jotzen badu, epaileak egokia dena erabakiko du horren gainean, bidezko prozesu deklaratioboko alderdietako edozeinek eskatuta edo, ordainketa partzialean oinarrituta eta zorren gainerako zatiaren gaineke bermea nahikoa izanda, dena delako betearazte-prozeduran zordunak gauzatu ahal duen aurkaritzaren ondorioz.

495. LEGEA

Ordainean ematea. Hartzekodunak onartzen badu zor den objektuaz besteko gauza ordainean ematea, betebeharra azkendutzat joko da hartzekodun horrek gauza subrogatuaren jabetza eskuratzen duenetik; baina betebeharraren bermeak onarpena eman denetik azkenduko dira, horiei espresuki eutsi zaienean salbu.

Ordainean nahitaez ematea. Diru-kopuruaren hartzekodunak diruaz bestelako objektua onartu beharko du, epailearen ustez ordezipena zuzena bada bere ondasunak egiteko ezintasunagatik zordunak likidezia-eskasia duela eta hori nahitaez bete beharrak edo ez betetzeak berarentzat ekarriko lukeen prestazioa ohiz kanpoko moduan are-

agotuko litzatekeela kontuan hartuta, alde handia baitago haren ondorioen edo bermeen eta diruzko zorraren artean.

Ezertan eragotzi gabe zordunak bidezko prozesu deklaratioban eskaera aurkeztea, betearaztea abiarazi bada, aurkaritza gauzatu ahal izanen du, dena delako betearazte-prozeduran prestazioa ohiz kanpoko moduan areagotzeagatik ordainean ematean oinarrituta.

Ordaintzeko ematea. Ordaintzeko emateak zorduna askatzen du, baina lagatako ondasunen zenbateko likidoaren neurrian bakarrik.

496. LEGEA

Ordainketa, epailearen zainpean jarrita. Hartzekodunak bidegabe ezezkoa ematen badio berari zor zaion kopuruaren edo gauza higigarriaren ordainketa onartzeari, zorduna erantzukizunetik aske geratuko da, kopuru edo gauza hori epailearen zainpean jarritz. Gauza higiezina bada, zorduna erantzukizunetik askatuko da gauza hori epailearen eskura jarritz.

Hirugarrenek egindako ordainketa. Betebeharren izaeraren ondorioz edo itunaren bidez beharrezkoa ez bada zordunaren betetze pertsonala, betebeharra hirugarren batek bete ahal izanen du, baita zordunak horren berririk ez badu ere. Hirugarrenak ordainketa egin badu, zorduna horren jakitun izanik eta horren aurka jarri gabe, edo ordainketa egin badu betetze horretan interesa izan duelako, hirugarren hori subrogatuko da hartzekodunaren eskubidean. Gainerako kasuetan, berreskaera-eskubidea erabili ahal izanen du zordunaren aurka, ordainketaren ondorioz horrek izan duen onura erreklamatzeko bakarrik.

497. LEGEA

Azkontzeko beste modu batzuk. Betebeharrak azkentzen dira, berebat, aldaberriketa edo konpentsazioa gertatzen denean, zordunaren eta hartzekodunaren titulartasunak bateratzen direnean, zorra barkatzen denean eta betetzea ezinezkoa denean, zordunarekin zerikusirik ez duen kausaren ondorioz eta haren errurik gabe.

498. LEGEA

“Rebus sic stantibus”. Epe luzerako betebeharraren edo segidako traktudunetan, betetze-epaia zehar goitik behera eta modu larrian aldatzen bada betebeharraren eduki ekonomikoa edo prestazioen arteko proportzionaltasuna, ustekabeko inguruabarrak gertatu direlako eta inguruabar horiek karga handiegia dakartelako alderdietako batek betebeharrak bete ditzan, alderdi horrek epaileari eskatu ahal izanen dio betebeharra ekita-

tez berrikusteko, eta hori aldarazteko edo horren suntsiaraztea adierazteko.

499. LEGEA

Ez-betetzea. Betebeharra ez da betetzen, zordunak prestazioa egiten ez badu behartua dagoen bezala, 497. legeko azken tartekian xedatutakoa izan ezik.

Ondorioak. Bere erruz bete ezean, zordunak eragin diren kalteak ordaindu beharko ditu.

500. LEGEA

Kontzeptua. Norbaitek lesio larria jasan badu premiazko beharizanean edo esperientziarik eza-rengatik kostu bidezko kontratua onartu duelako, horren hutsaltzea eskatu ahal izanen du.

Lesio handitzat hartuko da prestazioak duen balioaren erdia baino zati handiagoari eragindakoa; prestazioa kontratua egiteko unean zenbateskiko da.

Kalteak balio horren bi herenak gainditzen baditu, hori oso-oso handia dela ulertuko da.

Subjektua. Edozein kasutan ere, ezin du lesioaren ondoriozko hutsaltzerik eskatu kontratuaren xede diren gauzen trafikoa lanbidez nahiz ohikotasunez dabilenak edo gauzon inguruan aditu gisa diharduenak.

Xedea. Hutsaltzea gertatuko da, ondasun higiezinaren gaineko kontratuaren ez ezik, higigarrien gainekoetan ere, baldin eta akzioa bidezkoztzat jotzen bada, gauzon balioa eta kontratuak ondareari begira eragindako kaltea aintzakotzat hartuta.

501. LEGEA

Gauza batzuen gainean batera egindako kontratua. Gauza batzuen gainean, baterako moduan eta prezio bakarren truke egiten den kontratua hutsaldu ahal izanen da oso-osorik lesioaren ondorioz, nahiz eta gauza bakoitzaren prezio, balio edo zenbatespena modu bananduan zehazturik egon.

502. LEGEA

Salbuespenak. Ez da hutsaltzerik gertatuko eskuzabaltasun hutseko kontratuaren, ausazkoetan edo objektu auzigaien gainekoetan.

Salmentak atzera-eskuratze itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin badira, epea iraungi edo atzera-eskuratze eskubidea azkentzen denean, eta orduan bakarrik, gertatuko da salmenten hutsaltzea. Epea finkatu ez denean, 577. legean xedaturikoa beteko da.

503. LEGEA

Akzioa. Lesioaren ondoriozko hutsaltze-akzioa pertsonala da, eta jaraunsleei eskualda dakieke. Ez da halako akziorik izanen, baldin eta bidezkoak badira gauzaren akats edo hutsen ondoriozko saneamendu-akzioak nahiz kontratuaren deuseztasun-akzioak.

Kaltearen ondoriozko hutsaltze-akzioa 30. legean ezarritako epeetan preskribatuko da.

504. LEGEA

Uko egitea. Hutsaltze-akzioari uko egiten bazaio, kontratuarekin batera edo horren ondoren, uko hori baliozkoa izanen da, kontratua egiteko forma behintzat betetzen badu eta zehatz-mehatz, argi eta modu ulergarrian adierazten baditu berekin dakartzan ondorio juridikoak eta ekonomikoak.

Hala ere, uko egitea ez da baliozkoa izanen, premiazko beharizanarengatik edo esperientziarik ezarengatik gauzatzen bada.

505. LEGEA

Itzulketa. a) Fruituak. Behin hutsaltzea adierazi eta gero, gauza bere fruituekin batera itzuliko da; horiei dagokienez, 353. eta 354. legeetan ezarritakoa aplikatuko da.

b) Hobekuntzak. Ez da inolako eskubiderik izanen hobekuntzen ordainketa eskatzeko, baina demandatuak hobekuntzak kendu ahal izanen ditu, euren euskarri den gauzari kalterik egin gabe banan badaitezke.

c) Prezioaren osagarria. Itzulketa ezin bada gauzatu demandatuak gauza bere esku ez izateagatik, prezio, balio edo zenbatespenaren osagarria bakarrik ordaindu beharko du, legeko interesekin batera.

Kalte-ordaina. Edozein kasutan, aurreko paragrafoan aipaturiko kalte-ordaina emanez, hutsaltzea saihestu ahal izanen da.

506. LEGEA

Akzioaren zatiezintasuna. Hutsaltze akzioa zatiezina da, eta modu baterakoan egikaritu beharko dute horretarako eskubidea duten guztiek betebeharpeko guztien aurka, edo haietatik edozeinek kontratu osoari begira.

Ez da hutsalketarik gertatuko betebeharpeko guztiak kalte-ordaina ematearekin ados daudenean; kalte-ordain hori eman beharko dute bakoitzari dagokion proportzioa errespetatuz.

Batek bakarrik badu akzioa egikaritzeko asmoa, aldez aurretik asmo hori jakinarazi behar die hutsalketarako eskubidea duten gainerakoei,

auzian parte hartzeko aukera izan dezaten. Horietatik batek bakarrik akzioa egikaritu ondoren, gainerakoekin banatu behar du berak egikaritutako akzioaren emaitza onuragarria, auziaren gastuak kenduta.

507. LEGEA

Kontratuz kanpoko erantzukizuna. Norbaitek zabarkeriaz edo jarduera arriskutsuak direla-eta kalteak eragiten baditu inoren gorputzean, ondorean edo interesean, kalte-ordaina eman beharko dio kaltetuari kasuan kasuko inguruabarren arabera.

Hainbat pertsonak eragiten badute kaltea eta ekintza bakoitzak eragin den kaltean duen garrantzia zehaztu ezin bada, pertsona horiek guztiak erantzule solidarioak izanen dira.

Kalte-ordaina galdatzeko akzioa urtebete igarotakoan preskribatzen da, eta hori zenbatzen hasiko da kaltearen berri izaten denetik edo haren ondorioen norainoko zehatza jakiten denetik, egikaritzeko aukera dagoenetik, jakina. Kalte jarraituen kasuan, "dies a quo" hori behin betiko zehazten den unetik hasiko da zenbatzen.

508. LEGEA

Motak. Kausa orokorrik gabe aberastea. Beste edozein modutan berez edo hirugarren baten bidez eskuratu, atxiki edo aberasten denak, hori justifikatzen duen kausarik izan gabe, eta beste pertsona batengandik edo haren kontura irabazia lortzen duenak, haren ondarea txikiagotuta, jasotakoa itzuli beharko du, edo lortutako ondare-abantailaren balioa ordaindu. Halaber, pobretuari eragindako kaltearen ordaina eman beharko dio, lege hori ezartzen bada edo epaileak egokitzen jotzen badu.

Egintza ez-zilegiaren edo immoralaren bidez eskuratzea. Ulertzen da kausarik gabeko eskuratzea dela egintza ez-zilegi, hitzarmen debekatu edo eskuratzailarentzat moralaren aurkakoa den hitzarmenaren ondorioz gauzaturikoa.

Kasu horretan, eskuratzailak betebeharra du berak jasotakoa bere fruituen, etekinen edo interesen bidez itzultzeko eta eragindako kalteen ordaina emateko. Betebehar horrek iraunen du gauza galtzen denean, nahiz eta ustekabea izan, eta haren balioa itzuli behar da, baita kaltearen ordaina eman ere, egokia bada.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa ez da aplikatuko eskuratzaila adingabe emantzipatugabea bada edo gaitasuna judizialki aldatua badu, eta bere aberastearen ardura baino ez du izanen.

Kausarik gabe atxikitzea. Ulertzen da kausarik gabe atxikitzen dela gauza bat, jaso denean kontraprestazio bat gauzatzeko eta hori ez denean gauzatu, edo ordaindu eta kobratu dutenen okerra dela-eta zor ez den betebeharra kobratzeko, eta, berebat, gauza bat jaso denean, jatorrian baliozkoa izan den kausaren ondorioz, baina gero kausa horrek ez duenean justifikatzen eskuratutakoaren atxikipena.

Kasu horietan, eskuratzailak betebeharra du bere aberastea itzultzeko, konpilazio honetan edukitarako xedatutakoa ezertan eragotzi gabe.

511. LEGEA

Kredituak lagatzea. Hartzekodunak laga deza ke berak zordunaren aurka duen eskubidea; baina lagapena kostu bidezkoa bada, zorduna aske geldituko da, lagapen-hartzaileari ordaintzen badizkio horrek ordaindutakoa, legeko interesak eta kreditua erreklamatzeko berak izandako gastuak.

Hipoteka legerian eskatutako formalitateak ezertan eragotzi gabe, lagatzaileak lagapena jakinarazi beharko dio zordunari modu sinesgarrian, eta banan-banan eta berariaz adierazi lagapen-hartzailearen identitatea eta helbidea eta kredituagatik ordainduko prezioa.

Zordunak bere eskubidea erabili ahal izanen du prozesu deklarati boan dagokion akzioaren edo salbuespenaren bidez, edo dena delako betearazte-prozeduran gehiegizko eskaeraren ondoriozko aurkaritza eginez.

Lagapena egiten bada betearazte-prozedura abiarazi ondoren, organo judizialak lagatzaileari eskatuko dio lagapenaren prezioa adierazteko, zordunak bere eskubidea erabili ahal izan dezan ezartzen den epean.

513. LEGEA

Kontratua lagatzea. Kontratugile orok hirugarren bati laga diezaioke kontratua, horrek kontratugilea ordez dezan, gauzatzeko dauden eta bereberezkoak ez diren harremanetan.

Alderdi batek aurreneurri gisa adostasuna eman badi kontratua hirugarren bati lagatzeari eta hori egin bada ondorio juridikoak eta ekonomikoak zehatz-mehatz, argi eta modu ulergarrian adierazten dituen klausularen gainean, ordezpena eragingarria izanen da hari begira, hori jakinarazten zaion unetik; ez badi aurreneurri gisa adostasunik eman lagapenari edo zirkunstantzia horiek adierazi gabe egin badu, lagapen horrek alderdiaren eragina izanen du hori onartzen duenean bakarrik.

Jakinarazpenaren edo onarpenaren bidez, kasuan-kasuan, ordezipena eragingarria denetik, lagatzailea kontratutik aske geratzen da eta lagapen-hartzailea horren lekuan subrogatzen da.

Lagatako kontratugileak lagapen-hartzailearen aurka jar ditzake kontratuak ondorioztaturiko salbuespen guztiak; ez, ordea, lagatzailearekin dituen beste harremanetan oinarritutakoak.

Hirugarrenek kontratuaren betetzea bermatu badute, hirugarren horiek aske geratzen dira lagapenaren ondorioz, salbu eta horri euren adostasuna eman diotenean.

514. LEGEA

Subrogatzeko ahalmena dakarren kontratua. Kontratuaren bidez, kontratugileetatik edozeini ahalmena eman dakioke beraren eskubide eta betebeharraren gero subrogatuko den pertsona izendatzeko. Kasu horretan, berekin dakartzaten ondorio juridikoak eta ekonomikoak zehatz-mehatz, argi eta modu ulergarrian adierazi beharko dira. Beste kontratugileak edozein unetan eskatu ahal izanzen dio ahalduari izendapena egin dezan urtebete eta egun bateko gehieneko epean, eskaera egiten denetik zenbatuta, kontratuan edo lege-aginduz beste epe bat ezarri denean izan ezik.

Pertsona hori izendatzeko adierazpena epean jakinarazi behar zaio besteari. Behin jakinarazpena egin eta gero, pertsona izendatua subrogatzen da izendapen hori egin duenaren eskubideetan, eta bere gain hartzen ditu haren betebeharrak, kontratua egiten denetik ondorioak izanik.

Pertsona horren izendapena ez bada epean jakinarazten, kontratuak ondorio guztiak sortuko ditu izendapen hori egin duten alderdien artean.

516. LEGEA

Kontratua egiteko hitz-ematea. Norbaitek etorkizunean kontratu bat egiteko hitza ematen badu, hitz-emate horrek betebeharraren jartzen du bere egilea; betiere, hitza zein kontraturen onarpena eman, eta kontratu horren funtsezko osagaiak zehaztu direnean.

Etorkizuneko kontratua prestatzeko adostasuneko hitzarmena egin bada, hitzarmen horrek, nahiz eta kontratua egiteko beharrezkoak diren betekizun guztiak izan ez, bi alderdiak jartzen ditu betebeharraren.

Hitz-emate horietatik kontratatzeko betebeharra sortzen da, eta betebeharraren hitz emandako kontratuari aplikatu behar zaizkion erregelak arautzen dute. Hitz-ematean ez badira aipatu kontratuaren aldiaren aldiko osagaiak, horiek zehaztuko

dira usadio, erabilera eta legearekin bat etorritik; halakorik izan ezan, epailearen erabakiz, ekitati-boki.

518. LEGEA

Estipulazio penala. a) Zigorzailea. Prestazio zilegiaren ez-betetzeagatik, zigor gisa, kopuru bat ordaintzeko estipulazioa badago, horrek betebeharraren jartzen du bertan espresuki jasotako jokabidea egin duen hitz-emalea.

Zigorra ordaintzeko betebeharrak izaera subsidiarioa du; hartzekodunak ezezkoa eman diezaioke estipulazioko zigorraren ordainketaren gain egindako eskaintzari, eta kalte-ordaina galda dezake, betebeharraren nagusia ez-betetzeagatik hori zor bazaio.

Hartzekodunak betebeharraren betetzea onartzen badu bere borondatez, nahiz eta hori zati batekoa izan, ulertuko da estipulazio penalarik uko egiten zaiola, bestelakoa itundu denean izan ezik.

Zigorra kobratu ondotik, ez-betetzeagatik kalte-ordaina eskatuz gero, kobraturiko zigorra kenduko da kontratuaren ondorioz zor den kalte-ordainetik.

Hitzarturiko zigorra epailearen erabakimenez urritu ahal izanzen da, dauden inguruabarrak direla eta oso garestia edo neurrigabea bada prestazioarekin xedearekiko.

Zorduna zigorretik askatuko da, betebeharraren nagusitik askatzeko kausaren bat badago.

b) Likidaziokoa. Zigorra ez-betetzearen ordeztasunaren bada estipulazioan, hartzekodunak ezin izanzen du diru kopuru handiagoa eskatu eragindako kaltearengatik, salbu eta epailearen ustez hori kaltearen garrantziarekiko neurrigabea izan ezan.

c) Fakultatiboa. Betetzearen ordeztasunaren bada diru kopuru bat ordaindu beharra jasotzen bada estipulazioan, zorduna salbuetsita egonen da betebeharraren betetzetik hori benetan ordainduz.

520. LEGEA

Errentaren gaineko estipulazioa. Diru-kopurua edo gauza suntsikorra aldizka ordaintzeko hitz-ematea nahitaez mugatu behar da, edo amaierako epe-muga heldu arte, edo, bestela, hartzekodunaren edo beste pertsona jakin baten heriotza gertatu arte; azken hori bizirik dagoena edo etorkizuneko izan daiteke, eta pertsona hori badela egiaztatu beharko da aldizkako diru-kopuruaren ordainketa eskatzen denean.

Betebeharraren hitz emateko, halaber, horren truke ondasunak lagatzeko kontratua eginez eta

mortis causa xedapen baten bidez. Lagapena egi-tean ez bada bestelakorik itundu behin betebeharraren betetzea hasi eta gero, kontratua ezin izanen da suntsiarazi geroko ez-betetzearen ondorioz; baina lagatzaileak galdatu ahal izanen du etorkizunean sortuko diren kopuruen ordainketaren bermea. Itun bidez erabaki bada ez-betetzeak baldintza suntsiarazlearen balioa izatea, itun horrek ondorio erreala izanen du, eta Erregistroan inskribatu ahal izanen da. Suntsiarazte-akzioa egikaritu beharko da, atzera-eskuratzeak ituna duen salmentari buruzko 477. legeak ezarritako modu eta baldintzekin. Aurkako itunik izan ezean, lagapen-hartzaileak ezin izanen ditu berreskaera-eskubidearen bitartez erreklamatu berak ordaindu-tako kopuruak.

525. LEGEA

Fidantzaren hitz-ematea. Fidantzaren hitz-ematearen bidez, hitz-emaileak bere gain hartzen du betebeharra betetzeko ardura, zordun nagusiak hori egiten ez badu.

Eratze-tituluan zehatz-mehatz, argi eta modu ulergarrian agertu beharko da bere gain hartzen duen erantzukizunaren norainokoa.

Onurak. a) Eskusiokoa. Aurkako itunik izan ezean, fidantza-emaileak hartzekodunaren erreklamazioaren aurka egin dezake, horrek alde zurretik ez badu zordun nagusiaren kaudimena agertu.

b) Atzerabidezkoa. Fidantza-emaileak zordun nagusia askatu badu, horren aurka izanen du atzerabidezko akzioa.

c) Zatiketakoa. Fidantza-emaileak bat baino gehiago badira eta aurkakoa itundu ez bada, hartzekodunak horien artean zatitu beharko du erreklamazioa, baina horietatik bakoitza gainerako fidantza-emaile ere bada.

527. LEGEA

Kaudimena. Legearen edo epailearen aginduz edo hitzarmenaren bidez fidantza-emaileak aurkeztu behar badira eta hartzekodunaren ustez zordunak aurkezturikoak kaudimendunak ez badira, epaileak erabakiko du fidantza-emaileen kaudimenari buruz, bidezko prozesu deklariboko alderdietako edozeinek eskatuta, ezertan eragotzi gabe 494. legean xedatutakoa, hori aplikatu behar denean.

528. LEGEA

Luzamendua. Hartzekodunak fidantza-emailearen aurka egiten badu, zorduna non dagoen jakiterik ez dagoela alegatuz, modu sinesgarrian frogatu beharko du hura aurkitzeko alferrik egindako saioa. Kasu horretan, fidantza-emaileak

hogeita hamar eguneko legeko luzapenez baliadateke zordun nagusia non dagoen ikertzeko. Halaber, bera aurkitzeko behar diren baliabideak eskatu ahal izanen ditu judizialki, eta, horrela eginez gero, epea etenda egongo da emaitza jakin arte.

529. LEGEA

Bermeak. Fidantza-emaileak auzibidean eska dezake, bai zordunaren ondasunak besterendu edo kargatu ez daitezen, bai eta Erregistroan prebentziozko idatzoharra egin dadin, salbu eta zordunak horri fidantza ematen dionean kasuan kasuko itzulketa-betebeharraren gain.

530. LEGEA

Jaraunsleen erantzukizuna. Fidantza-emailearen betebeharra horren jaraunsleei eskualdatzen zaie. Hala ere, fidantzaren ondoriozko erantzukizunak karga handiegia badakarkie jaraunsleoi, eskatu ahal izanen dute epaileak betebeharra berrikus dezan, 498. legeak ezarritakoaren arabera.

531. LEGEA

Mailegua. Norbaitek maileguan hartu badu dirutan edo gauza suntsikorretan halako kopurua, haren jabetza hartuko du, askatasunez xeda dezake kopuru hori, eta genero eta kalitate bereko beste horrenbeste itzultzeko betebeharra izanen du.

532. LEGEA

Itunak. Mailegu orotan, epeak eta baldintzak itun daitezke, bai eta itzulketa ziurtatu ere, orotarik bermeen bitartez.

Epea. Itzulketarako eperik ez bada itundu, ulertu behar da betebeharra hasierako unetik sortzen dela, baina epaileak ekitatezko epea finka dezake hura betetzeko.

533. LEGEA

Korritua. Diruzko maileguan, interesak itun daitezke muga zilegien barruan; intereson zenbatekoa ez bada zehaztu, legekoak bakarrik sortuko dira; interesei buruzko estipulaziorik izan ezean, legekoak sortuko dira zorduna berandutze-egoeran jartzen denetik.

Intereserako itunaren deuseztasun partziala. Ordain gisa ematen diren edo luzamenduzkoak diren interes lege kontrako edo neurrigabeei buruzko ituna erabat deuseza da; maileguaren gainerako epeak, baldintzak eta bermeak bere horretan utziko dira.

534. LEGEA

Maileguaren aitorpena. Norbaitek agiri bidez aitoritzen badu kopurua maileguan hartu duela, hori itzultzeko betebeharraren menpe geratzen da, salbu eta agiria aurkaratu eta ematerik gertatu ez dela frogatzen duenean.

535. LEGEA

Bihurketa. Kopuru jakinaren gaineko zor muga-eguneratu guztiak mailegu-zor bihur daitezke alderdien arteko erabaki hutsaren bitartez. Kasu horretan, uste izanen da legezko interesak erabakia hartu den unetik sortzen direla.

536. LEGEA

Salmenta egitea, atzera-eskuratzekeko itunarekin. Salmenta atzera-eskuratzekeko itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin bada, eta 583. legearekin bat etorritz uste izan behar bada horrek berme-xedea duela, ulertuko da prezio gisa adierazitako kopuruaren mailegua eratu dela; berme gisa, saldatako objektuaren jabetza atxiki eta objektuaren jabetza behin betiko eskuratuko da, kopuru hori itzultzen ez bada itundutako epean.

537. LEGEA

Itzulketa. Mailegua adingabeentzat edo epaileak aldaturiko gaitasuna duten pertsonentzat deuseza dela deklaratu ondoren, ez da egongo hori zertan itzuli, haien beharrak betetzeko edo probetxuzko inbertsiorako modu justifikatuan erabili ezean.

538. LEGEA

Komodotua. Erabilera-mailegua edo komodatua dela bide, dohainik ematen da gauza higigarri edo higiezin jakin baten erabilera zehatza, gauza hori besterena izan arren; komodatudunak bere gain hartzen du gauza itzultzeko betebeharra, behin hitzarturiko erabilera amaitu eta gero, eta 532. legea aplikatu beharko du.

539. LEGEA

Komodatudunaren erantzukizuna. Komodatudunak ordaindu behar ditu mailegatutako gauza zaindu eta konpontzeko gastu arruntak, eta erantzukizuna du gauzaren galeraren gain, salbu eta ezinbesteko kasuaren ondorioz gertatzen bada; halakoetan, ezbehar beretik bere intereseko gauza batzuk onik atera dituenean, orduan bakarrik, izango du erantzukizuna. Erantzukizuna du mailegatutako gauzaren galeraren gain ezinbesteko kasuaren ondorioz, ezinbesteko kasua gertatzen bada hitzartutako baldintza edo epea iragan ondoren.

Komodatudunak gauza erabiltzen badu hitzarturikoaz bestelako moduan, edota gauza tasaziopean jasotzen badu, erantzukizuna izanen du orotariko gertaeren gainean.

Komodatudunen erantzukizuna solidarioa da.

Komodatudunak erantzukizuna badu galeraren gain, komodatudun horrek ondasunaren balioa ordaindu beharko du itzultzeko betebeharraren unean, berariaz tasaziokoa itundu ezean.

540. LEGEA

Bestelako gastuak. Akatsak. Aurkako itunik izan ezean, komodatugileak zergak, tasak eta aseguruak ordaindu behar ditu.

Komodatugileak komodatudunari eman behar dizkio, bai gauzak eragindako aparteko gastuak, bai mailegatutako gauzaren akatsek eragindako kalteen ordaina, komodatugileak akatson berririk eman ez badu horiek ezagutu arren.

Atxikitzeke eskubidea. Komodatudunak mailegatutako gauza atxiki ahal izanen du komodatugileak mailegatutako gauzaren akatsagatik sortutako kalte-ordaina eman arte.

541. LEGEA

Definizioa. Biziarteko zentsua dela eta, zentsu-hartzaileak urteko pentsio bat ordaindu beharko du pertsona bat edo gehiago bizi diren bitartean, zentsu-emaileak eskritura publikoan benetan lotuta dagoen ondasun higiezin baten (edo batzuen) jabaria —edo beste ondare higigarri batzuk (dirua edo balioak izan ezik)— eskualdatzeagatik, haren ordainketaren berme gisa.

Mortis causa xedapen baten bidez ere eratu ahal izanen da zentsua.

Gozamena eta laguntza prestaziok. Halaber, eskualdatzailearen edo hirugarrenen alde gozamen, erabilera edo biztante eskubideak eskubideak ezarri ahal izanen dira, aldi baterako edo biziarteko, zentsu-hartzailea behartzen duten eta haren aldekoak diren beste laguntza betebeharrak batzuekin batera.

542. LEGEA

Titulartasuna. Zentzua era daiteke batera nahiz ondoz ondo, hori eratzeke unean bizirik edo ernaldurik dauden pertsonen mesederako. Beste pertsona fisiko batzuei dagokienez, ezin izanen da 224. legean aurreikusitako muga baino handiagoa izan.

Halaber, pertsona juridikoen alde ere eratu ahal izanen da, eta kasu horretan ezin izanen da ehun urtetik gorakoa izan.

Aurkako itunik izan ezean, pentsioak iraunen du azken onuraduna hil arte.

543. LEGEA

Eskualdatzea. Biziarteko zentsuaren pean dau den finkak eskualdatu ahal izanen dira, ezertan eragotzi gabe lagatzailea eta lagapen-hartzailea erantzule solidario dituen ordainketa erreklamatzeko benetako edo norberaren akzio, aurkako itunik izan ezean.

Askaezintasuna. Biziarteko zentsua askaezina da, aurkako itunik izan ezean; itun horretan espresuki adierazi beharko litzateke luditze gisa itundu den diru kopurua eta, hala bada, haren egonkortzea.

544. LEGEA

Erregistroko inskripzioa. Zentsua Jabetza Erregistroan inskribatzen denean, honako hauek adierazi beharko dira: eratze-titulua, urteko pentsioaren zenbatekoa, luditze gisa hitzartu den diru kopurua –eta, hala bada, egonkortzea–, eta hipoteka legeriak ezartzen dituen gainerako zirkunstantziak.

545. LEGEA

Zaintza-kontratua. Zaintza-kontratuen bidez, norbaitek gauza bat uzten du bere konfiantzapeko pertsona baten ardurapean, horrek gauza zintzo zain dezan, ordainsariaren truke edo halakorik gabe.

546. LEGEA

Aplikazio analogikoa. Harremanek zaintza-betebeharra ezartzen badute, gordailuzainari dagozkion betebeharrak galdatzeko modukoak izanen dira, itunak, legeko xedapenek edo egin-tzaren izaerak bestelakoa erakartzen dutenean izan ezik.

547. LEGEA

Gordailu-kontratua. Gordailua eratzen da norbaiti gauza higigarri bat eman eta jasotzen duenak zaintzeko helburuz hartzen duenean.

Norbaitek gauza bat gordailuan jasotzeko hitza eman badu, hitz-emate horrek betebeharrean jartzen du hitz-emailea, estipulazio gisa.

Doakotasuna. Kostu bidezko tasunari buruzko hitzarmenik izan ezean, gordailua dohainekoa dela ulertu behar da; hala ere, gordailuzainak horrelako eragiketak egin ohi baditu, kostu bidezkoa dela uste izanen da.

548. LEGEA

Betebeharrak. Gordailuzainak bere gain hartzen du gauza zaintzeko betebeharra, bai eta gauza kontserbazioaz arduratzekoa ere, itundutakoarekin bat etorritik; baina, edozein kasutan, erantzukizuna izanen du, doloaren edo erruaren ondorioz gertatutako galeraren gainean.

549. LEGEA

Gastuak. Gordailuzainak akzioa izanen du gordailugileari gordailuaren ondorioz izandako gastu eta galeren ordaina erreklamatzeko. Dena den, ezin izanen du gordailupeko gauza atxiki eskubide horren ondorioz edo gordailugilearen aurka duen beste edozein eskubideren ondorioz.

550. LEGEA

Lanak itzultzea. Gordailupeko gauza gordailugileari edo horrek izendaturiko pertsonari itzuli behar zaio berak hala eskatzen duenean, nahiz eta zehazturiko epea igaro ez.

Gordailugileak bat baino gehiago badira, itzulketa egin behar zaie guztiei batera, salbu eta itzulketa horietatik bati egitea itundu denean; gordailugile hori aldeztu aurretik zehaztuta egon daiteke edo gero gertaera baten bitartez zehaztu daiteke.

551. LEGEA

Gordailuzain bat baino gehiago izatea. Gordailua bi pertsonaren edo gehiagoren eskuetan eratu bada batera, gordailugilearen akzioa horietatik edozeinen aurka zuzendu ahal izanen da, gordailu osoa eskatzeko.

553. LEGEA

Gordailugilea hil eta gero. Gordailugilea hil eta gero, eta bestelakoa ezartzen denean izan ezik, gordailuzainak gordailupeko gauza itzuli ahal izanen die albazeei, jarauntsia ordezkatzeko ahalmenak dituzten beste pertsonari edo, hala denean, gozamenaren unibertsalari edo gordailupeko gauzaren legatu-hartzaileari, horretarako baimena baldin badu. Halako pertsonarik izan ezean, jaraunseari egin beharko zaio itzulketa, eta, jaraunseak bat baino gehiago izanez gero, horiei guztiei batera edo, horien artean aho bateko adostasunik ez badago, 340. legearekin bat etorritik izendaturiko kontulariari.

554. LEGEA

Gordailu irregularra. Gauza suntsikorraren gordailuan, espresuki nahiz isilbidez gordailuzainari xedatze-ahalmenak eman bazaizkio, 531., 532. eta 533. legeek diruzko maileguari buruz xedaturikoa aplikatuko da.

563. LEGEA

Salerosketa-kontratua. Salerosketa-kontratua burutzen da alderdiek horren oinarritzko osagaien gain adostasuna ematen dutenean; baina gauza suntsikorrak saltzen badira unitate bakoitzeko diru kopuru baten truke, salerosketa ez da burutuko unitateak zenbatu, pisatu edo neurtu arte. Salerosketa burutzeko forma zehatza betetzea hitzartzen bada, 17. legean xedaturikoa aplikatuko da.

565. LEGEA

Baldintza etengarria. Salerosketan jabaria erreserbatzeko ituna egin ez bada ere, erosleak prezioa ordaintzen ez duen bitartean, uste izanen da jabariaren eskualdatzea baldintza etengarripean geratzen dela, salbu eta prezioa ordaintzeko epe jakina finkatu, prezioa mailegatutako kopurutzat hartu edota berme erreal nahiz pertsonala eratzen denean.

566. LEGEA

Salmenta anizkoitza. Zenbait kontraturen bitartez, bi pertsonak edo gehiagok onustez gauza bera erosi badute, gauzaren gainean lehentasuna izanen du horren edukitza lehenik eskuratu due-nak. Pertsona horietatik inork ere ez badu edukit-zarik, hitzarturiko moduan saltzaileari ordaindu dionak, eta, batek baino gehiagok ordaindu badiote, data sinesgarrietatik antzinakoena duen kontratua egin duenak. Edozein kasutan, erosle onustedunak lehentasuna izanen du, gaitzustedunaren gainetik, eta, horiek guztiak gaitzustedunak badira, guztiak onustedunak izanez gero aplikatuko litzazkiekeen erregelak aplikatuko zaizkie.

Aurreko paragrafoarekin bat etorritik, erosle batzuk gauzatik baztertuta geratu badira, kalte eta galeren ordaina bakarrik erreklamatu ahal izanen diote erosleok saltzaileari.

Erosleetatik batek Jabetza Erregistroan egin badu inskripzioa, Hipoteka Legean xedaturikoa beteko da.

Lege honetan ezarritakoa aplikatuko zaie trukaketari, ordainean egindako adjudikazioari, bai eta kostu bidez eskualdatzeko beste kontratuei ere.

567. LEGEA

Saltzailearen betebeharrak. Salerosketa-kontratuaren bidez, saltzaileak bere gain hartzen du saldutako gauzaren edukitza askea emateko betebeharra; era berean, bere esku dagoen guztia egin behar du, erosleak gauzaren gaineko jabetza eskura dezan. Halaber, saltzailea betebeharrean geratzen da ebikzioaren eta ezkutuko akatsen

saneamenduari begira, alderdiek horren aurkakoa itundu dutenean izan ezik.

Ez-betetzea badago, erosleak bi aukera ditu: kontratuan atzera egitea –eta, horrenbestez, ordaindu dituen gastuak kobratzea–, edo prezioaren diru kopuru proportzionala murriztea, perituek ezartzen dutena, alegia.

Saltzaileak saldutako gauzaren akatsak edo ezkutuko okerrak ezagutzen baditu eta erosleari horien berri ematen ez badie, erosleak aukera berdina izanen du, eta, gainera, kalte-galerengatik kalte-ordaina jasoko du kontratua desegitea erabakitzen badu.

569. LEGEA

Arriskuak. Behin salmenta burutu eta gero, saltzaileak arretarekin zaindu behar du saldutako gauza, hori eman arte, eta gerta daitezkeen arriskuen berri eman behar dio erosleari; erantzukizuna izanen du bere zabarkeriaz betebeharrori betetzean gertaturiko galera edo eragindako kalteen gain. Gainerako arriskuak eroslearen ardurapekoak izanen dira, nahiz eta hori, ematea onartzean, berandutze-egoeran izan ez. Eroslea berandutze-egoeran izanez gero, saldutako gauzatik geratzen dena bakarrik eman beharko du saltzaileak.

Baldintza etengarripeko salmentetan, gauza galtzen bada baldintza bete baino lehen, kontratua ondorioz gabe geratuko da; alabaina, baldintza betez gero, eroslearen ardurapekoa izanen da gauzak aurretiaz izandako urripena.

571. LEGEA

Ados ez egoteko ahalmena. Alderdiek eurentzat erreserbatu badute salerosketarekin ados ez egoteko eskubidea, salerosketa ondorioz gabe uztekoa, eta ez bada zehaztu eskubide hori erabiltzeko eperik, ulertuko da eskubidea iraungitzen dela hilabete eta egun bat igarotakoan, alderdion ematen zaienetik zenbatuta.

572. LEGEA

Salmentak berme-eginkizuna betetzea. Salmentak atzera-eskuratzekeko itunarekin, jabaria erreserbatzeko itunarekin edo baldintza suntsiarazlearekin egin badira, eta salmenta horiek berme-eginkizuna betetzen badute, III. liburuko VII. tituluaren IV., VI. eta VII. kapituluetan xedaturikoa beteko da hurrenez hurren.

573. LEGEA

Salerosketaren ondoriozko gastuak. Aurkako itunik izan ezean, erosleak eta saltzaileak ordain-

duko dituzte erdi bana eskritura edo bestelako agi-
riren bat egiteagatik sortzen diren gastuak.

Baliozkoak dira eta ondorio guztiak sortuko
dituzte alderdien artean salerosketaren gaineko
zergei eta salerosketaren ondoriozko beste gas-
tuei buruzko itunek, ezertan eragotzi gabe Admi-
nistrazioaren aurrean dituzten betebeharrak eta
legezko beste xedapen batzuetan xedatutakoa.

574. LEGEA

Jendaurreko enkantean egindako salmenta.
Gauzen salmenta, partikularren artekoa eta boron-
datezkoa zein nahitaezkoa, jendaurreko enkante-
an eginez gero, salmenta hori arautuko dute
baldintzen pleguan ezarritakoek eta, halakorik
izan ezean, hurrengo erregelek:

1. Enkanteari buruzko iragarkiak honako hauek
adieraziko ditu: hori egiteko data, enkantearen eta
enkantean sartuko diren ondasunen baldintza oro-
korrak eta bereziak, ondasun horien balorazioa,
enkante-egilearen kalitatea eta lizitatzailleen
baldintzak.

2. Enkanteak agiri itxien bidez egin badira, aur-
keztu ondoren ezin dira enkantetik atera, eta
eurok irekitzeko egintza jendaurrekoa izanen da.
Errematea behin-behinean adjudikatuko zaio pro-
posamenik abantailatsuenari; proposamenak ber-
dinak badira, egintza berean ahozko posturen
bidezko lizitazioa egingen da proposamengileen
artean, hamar minutuan zehar; epe hori amaituta-
koan, berdintasunak bere horretan badirau, behin-
behineko adjudikazioa zozketaz erabakiko da.

3. Enkanteak gauzatu badira ozenki edo ahoz
egindako posturen bidez, lizitatzailleak posturaka
aritutako dira usadio eta ohiturekin bat etorritik.

4. Bilera amaitu baino lehen, enkantearen akta
eginen da, bete beharreko formalitateekin. Behin
akta irakurri ondoren, akta sinatu beharko dute
adjudikazio- hartzaileak, hori egin nahi duten inte-
resdunek eta, hala denean, egilesleak ere.

Prozedura Zibilaren Legean eta administrazio
legeetan xedaturikoak arautuko ditu, hurrenez
hurren, enkante judizialak eta administratiboak.

Prozedura Zibilaren Legean, Hipoteka Legean
eta administrazio legeetan xedaturikoa izan ezik,
eskritura publikoan jaso beharko dira enkantean
eskuraturiko ondasun higiezinaren gaineko saleros-
ketak.

575. LEGEA

Kontzeptua. Salmenta-kontratua atzera-
eskuratzeko itunarekin edo grazia-agiriko itunare-
kin egin bada, saltzaileak berarentzat erreserba-

tzen du, kontratu horren bitartez, saldutako gauza
berreskuratzeko eskubide erreala; horretarako, i-
tzuli egin beharko ditu berak jasotako prezioa,
legebidez ordainduriko gastuak, eta inpentsa nahi-
taezkoak eta onuragarriak.

576. LEGEA

Epea. Saltzaileak gauza berreskuratzeko esku-
bidea duenean, eskubide hori ezar daiteke epe
jakin baterako edo epemugarik gabe. Betiko ezarri
dela ulertuko da, baldin eta espresuki erabiltzen
badira “betiko”, “beti”, “noiznahi eta nolanahi gogo
duenean” edo antzeko hitzak, berbok halako izaer-
a argiro adierazten duten neurrian.

577. LEGEA

Prezioa. Atzera-eskuratzeko eskubidea denbo-
ra mugagaberako edo epemugarik gabe ezarri
bada, atzera-eskuratzailleak ordaindu beharko ditu
gauza atzera-eskuratzeko unean horrek duen
balioespen zuzenaren bi herenak; betiere, kopuru
hori berak eskuraturiko prezioa baino handiagoa
denean.

578. LEGEA

Eskualdagarritasuna. Atzera-eskuratzeko
eskubidea eskualdatzeko modukoa da inter vivos
nahiz mortis causa egintzen bidez, eta hipotekatu
edo adjudikatzeko modukoa ere bada, bere-berez-
ko eskubide gisa ezarri denean izan ezik.

Eskubide hori erabili ahal izanen da eroslearen
aurka eta horren eskutik eskuratu duten guztien
aurka ere bai.

579. LEGEA

Pertsonen aniztasuna. Atzera-eskuratzea zati
batean egikaritu nahi denean, eroslea horren
aurka jarri ahal izanen da.

Atzera-eskuratzekoa den gauza pertsona bat
baino gehiagori badagokio, atzera-eskuratzea egi-
karitu ahal izanen da horietako bakoitzaren aurka,
bakoitzari dagokion zatiaren gainean.

Atzera-eskuratzeko eskubidea pertsona bati
baino gehiagori batera badagokio, horietatik edo-
zeinek modu solidarioan egikari dezake eskubi-
dea, gauza osoaren gainean; titularkideek, eskubi-
de hori erabili ez duten neurrian, atzera-eskuratzaileri erreklamatu ahal izanen
diote atzera-eskuratutako gauzatik eurei dagokien
zatia; jakinarazpena egin denetik, hogeita hamar
eguneko epean egin beharko dute hori, edo, epe
hori luzeagoa bada, atzera-eskuratzea egikari-
tzeko epea agortzeko falta den epean, edo, a-
tzera-eskuratzeko eskubide hori epemugarik gabe
ezarri bada, urtebete eta egun bateko epean, jaki-

narazpena egin denetik zenbatuta. Luzapenak izateko aukera ezarri bada, eta titularkide batek atzera-eskuratzeako eskubidea egikaritzen badu, horrek gainerakoei eragotziko die luzapen berriak haren aurka baliatzea.

Titularkideek eskubide hori erabiltzen badute, atzera-eskuratzaileari ordaindu behar diote prezioetik eurei dagokien zatia, bai eta interesak eta gas-tuak ere.

580. LEGEA

Saltzailearen hartzekodunek eskubidea egikaritzea. Saltzailearen hartzekodunek ezin dute subrogazio bidez atzera-eskuratzeako eskubidea egikaritu; aitzitik, hartzekodunok epaiketa bidez jardun beharko dute euren kredituak eskubide horren kontura kobratzeko.

581. LEGEA

Fruituak. Eskubide hori egikaritzean, eta fruituak eratzikitzeko, 353. eta 354. legeetan ezarritakoa aplikatuko da.

582. LEGEA

Preskripzioa. Epemugarik gabeko grazia-agiriari dagokionez, atzera-eskuratzeako akzioa hamar urte igarotakoan preskribatuko da.

583. LEGEA

Grazia-agiria, berme gisa. Salmenta atzera-eskuratzeako itunarekin edo grazia-agiriko itunarekin egin bada epe jakin baterako, salmenta horri buruz uste izanen da berori berme erreal gisa egin dela, baldin eta saltzaileak edozein tituluren bidez gauzaren edukitzari eusten badio; kasu horretan, III. liburuiko VII. tituluko IV. kapituluaren xedapenak aplikatuko zaizkio salmentari.

584. LEGEA

Kontzeptua. Trukaketan, kontratugileek beren gain hartzen dute zenbait gauzaren gaineko jabetza elkarri emateko betebeharra, eta ulertuko da alderdi bakoitza bestearen erosle eta saltzaile dela aldi berean.

585. LEGEA

Ebikzioa. Trukaketan emandako gauza ebikzioaren xede izanez gero, gauza hori jasotzen duenak aukeran du kontratua suntsiarazi ala ebikzioaren ondoriozko kalte-ordaina eskuratzea, 570. legearekin bat etorritz.

586. LEGEA

Araubide osagarria. Bateratzeko modukoa den neurrian, kontratu horri salerosketari buruzko xedapenak aplikatuko zaizkio.

587. LEGEA

Araubidea. Gauzen errentamenduak arautzen ditu itundutakoak, eta, osagarri moduan, konpilazio honetako xedapenek –horiek Nafarroan jasotako lege berezien aurkakoak ez badira–, eta tokiko usadio eta ohiturek.

588. LEGEA

Lege bereziak baztertzea. Jasotako lege berezien ondoriozko salbuespenak ezertan eragotzi gabe, honako hauek baztertuta geratzen dira: 596. legean aipaturiko establezimendu eta ustategien gainekoak; eta merkataritza, industria, nekazaritza, abeltzaintza edo meatzaritzako jardueren osagarriak, nahiz eta horiek eurekin ekarri halako jarduerak gauzatzeko erabiltzen denaren luperketa.

589. LEGEA

Iraupena. Errentamendurako epea alderdiek askatasunez itunduko dute, ezertan eragotzi gabe lege bereziek ezarritako gutxieneko iraupena. Itunik izan ezean, ulertuko da berdinak direla iraupena eta errentaren ordainketari dagokion denboranunitatea.

Ondasun higiezinaren errentamenduetan, kontratua isilbidez luzatu dela ulertuko da, alderdi batek ez badio besteari aurkako borondaterik jakinarazi lege edo ohituretan ezarritako epeetan.

Hiri-finken errentamendua isilbidez eta eperik gabe luzatzen dela ulertuko da, errentatzaileak onartzen badu maizterrak finkaren okupazioari eustea.

Hiri-finkaren errentamendua indarrean dagoen epean, errentatzaileak finka hori behar badu bertan bizitzeko, horrek kontratua suntsiaraz dezake, eta maizterrak zor duen errenta urrituko da ondasun higiezina okupatu duen epeari dagokion neurrian.

593. LEGEA

Salmenta egitea, atzera-eskuratzeako itunarekin. Norbaitek atzera-eskuratzeako itunarekin erosten badu errentan emandako gauza, ezin izanen du, jabetza behin betiko eskuratzen ez duen bitartean, errentamendu-kontratua suntsiarazi, errentariak horretarako arrazoia eragin ezean.

Atzera eskuratzea erabiltzeak ez du berez ahalmenik emanen kontratua suntsiarazteko.

594. LEGEA

Azpierrentamendua eta lagapena. Azpierrentamendua eta errentamendu-kontratuaren lagapena onartzen dira, aurkako itunik izan ezean; hala ere, lagapena egiteko, nahitaezkoa izanen da errenta-

tzailearen adostasuna, lege bereziek bestelakoa xedatu ezean.

3. artikulua.- Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioaren xedapen gehigarria, apirilaren 1eko 5/1987 Foru Legeak gehitu zuena, kentzen da.

Xedapen gehigarri bakarra.

Gaztelaniazko bertsioan, harreman juridikoetako zenbait subjekturi buruz ari denean Konpilazioaren testuak genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan ulertu behar da ekonomia linguistiko hutsagatik jokatzeko delat horrela, zailtasun teknikoak orokorra baita eta ezinezkoa baita kasu guztiak genero femeninoa eta maskulinoaren egokitzea. Halaber, ulertu behar da testuan jasotzen diren posizio juridikoei oro har dagozkiela, inklusiboak baitira bai emakumezkoek bai gizonezkoek betetzen dituztela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan, ondorio juridikoen ikuspegitik.

Lehen xedapen iragankorra. Epeak.

Horiek jaioarazten dituen egitatea foru lege honek indarra hartu baino lehenagokoa den kasu guztietan, legeak arautu eta aldatu beharreko akzioen epeak zenbatzen hasiko dira, berriak badira edo aurrekoak baino laburragoak badira, edo iraunen dute, luzeagoak badira, foru legeak indarra hartu eta biharamunean, eta epe osoa ezin izan den inola ere izan aurreko legediaren arabera aurreikusitakoa baino luzeagoa.

Preskripzio eskuratzaileren epe berriak foru lege honek indarra hartu ondoren sortutako egoera juridikoei aplikatuko zaizkie.

Bigarren xedapen iragankorra. Umeordetza.

Orain arte indarrean egon den Konpilazioaren 73. legeko testuan ezarritakoaren arabera umeordeak diren pertsonen konpilazioaren indarraldian eskuratutako eskubideei eutsiko diete.

Hirugarren xedapen iragankorra. Adopzioa.

Foru lege honek indarra hartzean hasita zeuden espedienteek, oraindik tramitatzen ari zirenek, tramitatzen jarraituko dute hasiera eman zitzaien indarrean zegoen legediaren arabera.

Laugarren xedapen iragankorra. Bikote egonkorrak.

Foru lege honek indarra hartu aurretik dokumentu publikoan eratu gabeko bikote egonkorrek, bikote egonkorren edozein udal erregistroan inskribatuta daudenek zein ez, bikote egonkorra osatzeko asmoa adierazi beharko dute dokumentu publikoan, Konpilazioan xedatutakoa aplikatzeko,

baita erregistro bakarrean inskribatu ere, hori arautzen duen arauan ezarritako proba eta publikitate ondorioetarako zein beste lege xedapen batzuek ezartzen dituzten ondorioetarako. Aurreko dokumentu publikoan eraturako bikote egonkorrek ere inskribatu beharko dute ondorio horietarako.

Bi kasuetan, bikotekideek bizikidetzako aurreko denbora ere adierazi ahal izanen dute, eta hori Konpilazioan ezarritako ondorioetarako zenbatuko da.

Bosgarren xedapen iragankorra. Elkarri laguntzeko erkidegoak.

Foru lege honek indarra hartu aurretik elkarri laguntzeko harreman bat idatziz hitzartu duten pertsonen bizikidetzako aurreko denbora zenbatu ahal izanen dute lege ezartzen diren ondorioetarako.

Seigarren xedapen iragankorra. Propter nuptias dohaintzak.

Unera arte indarrean egon diren Konpilazioaren legeetan ezarritakoaren arabera egindako propter nuptias dohaintzek ondorioak sortuko dituzte haien testuan xedatutakoaren arabera, ezertan eragotzi gabe indarreko 125. eta 126. legeetan eragingabetasunari eta errebokatzeari buruz jasotako arauak aplikatzea.

Zazpigarren xedapen iragankorra. Familia-erkidegoak. Etxe-harrera eta zuzkidurak.

Aurreko araudiak arautuko ditu horren indarraldian sortutako eskubideak, ezertan eragotzi gabe araudi berria lehendik dauden egoerei aplikatzea, egoera horien eskubideak orain aitortzen badira lehen aldiz eta betiere eskuratu den beste eskubide bat kaltetzen ez badute.

Zortzigarren xedapen iragankorra. Testamentuak.

Baliozkoak izanen dira foru lege honek indarra hartu baino lehen egin diren testamentuak, unera arte indarrean dagoen Konpilazioaren testuan ezarritako baldintzak bete gabe araudi berriarekin bat datozenak, baldin eta epai judizial irmoaren bidez deuseztatu ez badira.

Unera arte indarrean egon den legerian ezarritakoaren arabera egindako ermandadeko testamentuak 200., 201. eta 202. lege berrietan xedatutakoaren menpe egonen dira aurrerantzean, haien eragingabetasunari eta errebokatzeari dagokienez.

Bederatzigarren xedapen iragankorra. Oinordetzako arau orokorrak.

Foru lege honek Konpilazioaren oinordetzako arauetan sartutako aldaketak horrek indarra hartu ondoren irekitzen diren oinordetzei aplikatuko zaizkie.

Hamargarren xedapen iragankorra. Alarguntza-gozamenaren inbentarioa.

Aurreko xedapenean xedatutakoa gorabehera, inbentarioa egiteko epeari dagokionez, Konpilazioaren 257. lege berrian xedatutakoa aplikatuko zaie foru lege honek indarra hartu baino lehen irekitzen diren oinordetzei.

Hamaikagarren xedapen iragankorra. Legezko oinordetza.

Foru lege honek indarra hartu baino lehen hildako eragileen legezko oinordetzari dagokionez, une horretara arte indarrean zegoen legeriak xedatutakoa beteko da.

Hamabigarren xedapen iragankorra. Zentsuak.

Foru lege honek indarra hartzean indarrean zeuden zainpeko-zentsuak unera arte indarrean egon diren Konpilazioaren 542. legetik 545. legera bitarekoek arautuko dituzte aurrerantzean ere.

Lehen xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe gelditzen da Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen 74. f) artikulua.

Bigarren xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe gelditzen da Seme-alaben Jagoletza Gurasoen Bizikidetzak hausten den kasuetarako arautzen duen martxoaren 17ko 3/2011 Foru Legea.

Hirugarren xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe gelditzen dira Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen 1., 2., 3., 4., 5. eta 8. artikulak, baita haren gainerako xedapenak ere, foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten badiote.

Laugarren xedapen indargabetzailea. Indarrik gabe gelditzen da Nafarroako Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioaren edo Foru Berriaren testu berrian ezarritakoari kontra egiten dion edo hori ezeztatzen duen beste edozein xedapen.

Azken xedapenetan lehena. Bikote egonkorren erregistro bakarra.

Foru lege hau argitaratzen denetik urtebeteko epean, bikote egonkorren erregistro bakarra sortu beharko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxikia, publizitate ondorioetarako.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege berezien aldarrikapena.

Foru lege hau argitaratu ondoren, beharrezkoa izanen da legegintzarako ekimena, honako hauei buruzko foru legeak aldarrika daitezten: fundazioak, pertsonen laguntzeko gaitasuna eta neurriak, eta elkarri laguntzeko komunitateak; baita Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea alda dadin ere. Helburua haien araudia garatu eta Konpilazioaren testura egokitzea da foru lege honek emandako testuaren arabera.

Azken xedapenetan hirugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta sei hilabeteko epean hartuko du indarra.

